

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

# senez



10. urtea

1994







# **Senez**

## **Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria**

**15**

**X urtea**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

**E.I.Z.I.E**



## «Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria»

Azala: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-287-1

Legezko gordailua: S.S. 1.056/94

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

# Senez

## Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

### **Erredakzio Batzordea:**

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Juan Garzia

Bego Montorio

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

### **Helbidea:**

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

**E.I.Z.I.E**





## Aurkibidea

<b>Ale honetan .....</b>	<b>9</b>
<b>Gaiak</b>	
Itzulpenera hurbiltzea. Zenbait errezeta (II)	
<i>Karlos del Olmo</i> .....	13
Erdarazko erlatiboen itzulpenaz	
<i>Koldo Biguri</i> .....	37
Iruñeko elizbarrutiko izkribu baten itzulpena	
Luzaideko mintzairan	
<i>Jose M. Satrustegi</i> .....	73
Itzulpenaren didaktika gaur egun	
<i>Xabier Mendiguren</i> .....	95
Interpretaritzaren didaktika	
<i>Lurdes Auzmendi</i> .....	111
Euskarazko zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik	
<i>Josu Barambones Zubiria, Oscar Gonzalez Atxa</i> .....	123
Itzulpen literarioaren naturaltasunaz	
<i>Vilen Komissarov</i> .....	161
Metaforaren itzulpena	
<i>Fred Van Besien, Katja Pelsmaekers</i> .....	175
<b>Iruzkinak</b>	
Bibliografia .....	189
<b>Puntuz puntu</b>	
Itzulpengintzari buruzko liburuak Donostiako	
Udal Liburutegian .....	201



## **Ale honetan**

Hamar urteko ibilaldia betetzen ari da orain SENEZ aldizkari hau, eta epe horretan izan ditu aldaketa batzuk; sortu, Martuteneko Itzul-tzaile Eskolaren altzoan sortu zen eta orain Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen esku dago, eta lauhilabetekari izatetik urtekari izatera igaro da. Baina aldaketa horiek ez dira gure aldizkarian soilik gertatu; izan ere, hamar urte hauetan, euskal itzul-pengintzak gutxik uste bezalako bidea egin du, bai kopuru aldetik, bai, eta batez ere, kalitatearen aldetik. Garai batean, duela asko ez, egia esan, itzulpena euskara arrotzaren esanahikide zen, euskara ja-torraren etsaitzat hartzen zen inoiz, eta itzulpenarekiko horrelako uste gaiztoa zeukatenak nekez jarriko ziren pentsatzen nork, nola eta zein baldintzatan bihurtzen zituen euskarara beste hizkuntzetako testuak: itzulpen teknikak ikasteko lekurik gabe, hiztegi egokirik gabe, itzul-penerako euskara trebetasunez maneiatzeko ikasbiderik ere gabe. Zorionez, urteak ez dira debalde pasatu, eta azken denbora hauetan badauzkagu eskueran arestian amestu ere ezin genitzakeen baliabide eta laguntzak, alor ia guztietan. Eta horrela, esaterako, literatur itzul-tzaileek harrotzeko motibua ere badaukate, Lertxundi bezalako idaz-le batek dioenean bere iritziz euskal literaturak azkeni urte hauetan eman dituen produziorik onenen artean itzulpena dagoela eta, seguru aski, alor horretan izan duela aurrerakadarik handiena gure litera-tura nazionalak.

Nolanahi ere, ezin ahaz dezakegu euskal gizartean (euskaradun gizartean, zehazki) oraindik behar adina baloratu gabe dagoela euskararen beraren normalkuntzan —araugintzan bertan ere, zergatik ez—, eta alor guztietarako bere hedapenean itzulpenak jadanik betetzen duen eta etorkizunean zalantzarik gabe betetzen jarraitu behar duen zeregina. Gauzak horrela, itzulpenak aurrerabide horretan etsiko ez badu, beharrezko ditugu oraindik, edo inoiz baino gehiago ere, itzultzaile berriak ongi prestatzeko eta lehenagoko itzultzaileak trebatzen jarraitzeko era guztietako azpiegitura egokiak. Izan ere, amaitu zen Martuteneko eskola, amaitu zen, orobat, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak abian jarri zuena ere, baina ez da inondik ere amaitu euskal itzultzaile berriak prestatu beharra, ez eta lehendik lan honetan dihardugunoi lanerako beharko ditugun lan-tresna, ikas-material eta gogoetagai lagungarriak eskaini beharra ere; eta ez bairik gabe, gure gizartean gero eta handiago da itzulpenarekiko interesa, horren lekuko garbi ditugularik gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustukoak antolatu dituzten masterretara, Udako Euskal Unibertsitateak Baionan eta Iruñean eskaintzen dituen ikastaro laburretara eta beste zenbait ikastarotara joaten diren itzultzaile eta itzultzailegaiak. Eta asmo horren barruan sartzen da, bete-betean, aldizkari hau.


Sortu zenean, Martuteneko ikasle eta irakasleen ahaleginen bultzada izan zuen, eta batzuek zein besteek eskolarako behar zituzten irakurgaiak eta eskoletan moldatzen ziren lanak bildu zituen; gero, aldiz, euskal itzultzaile guztiengana iritsi nahirik, behar berriei ere erantzun nahi izan zien eta, horrela, jende berriaren ekarpenak jaso zituen, orain ere gertatzen den bezala. Hasierako bere helburuetako asko betez joan dira urteen joan-etorriarekin eta, nola ez, bere egitura eta edukiak ere moldatuz joan dira unean uneko beharrizan eta ahalbi-deen arabera.

Lehen zenbakiko hitzaurreak zioenaren alderantziz, euskal itzultzaileak dagoeneko ez gara elkarrentzat ezezagunak, besteak beste gure aldizkariak elkarren berri edukitzen eta elkarretaratzen ere lagundu digulako, bere neurrian; era berean, itzulpenari buruzko

kanpoko teorizazioak ere hurbildu dizkigu, batzuetan itzulpenen birtartez, besteetan Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan EIZIEn ekimenez antolatutako itzulpen-jardunaldietara aurkeztutako materialak argitara emanaz. Bide horretatik jarraitu nahi dugu, baina horretarako, zalantzarik ez dago, itzultzaile direnen edo izan nahi dutenen laguntza beharrea gaude; aldizkari honek ez du EIZIEn bazkideen esparru itxian geratu nahi, eta bai ordea zabaldu ofizio edo afizio honen inguruan dabiltzan euskaldun guztiengana.

Azken orduan jakin dugu Antonio María Labaien euskal antzerkigile eta itzultzaile izandakoa hil dela eta EIZIEn eta SENEZen Erredakzio Batzordearen omenaldi gisa eskeini nahi diogu zenbaki hau.

Amaitzeko, SENEZ aldizkarian orain arte argitaratu dituen artikuluen guztien aurkibidea erantsi nahi izan diogu honi, irakurlearentzat interesgarria izango delakoan. Norbaitek aurreko zenbakietako bat jaso nahi izanez gero, EIZIera jo besterik ez du.



## Itzulpenera hurbiltzea. Zenbait errezeta (II)\*

Peter P. Newmark irakaslearen ekarriaren inguruan

Karlos del Olmo

*Elenari, Kevin-engatik.*

### Sarrera

Aurreko artikuluari segida emateko, ahorratu Peter P. Newmark irakaslearen «Paragraphs on translation» artikulua sailetik eginiko aukeraketa eta moldapen bat. Oraingoan bildumako lehenengo bederatzi artikulua hartu dira oinarri, egun arte «*The Linguist*» aldizkarian argitaratu dituen hogeita hamarretatik. Aukeraketa da, artikuluetan esaten dituen gauza batzuek ingelesaren hainbat arazo bere-bereak aztertzen dituztelako nagusiki eta litekeena da euskal itzultzaile guztientzat interesgarriak ez izatea. Moldapena, adibide batzuk euskarara egokitu behar izan direlako, baita zenbait atal laburtu eta bestela bildu. Nolanahi ere, gure artean Tradukzioz, Itzulpen Zientziaz, Itzulpen Teorietan eta abarrez mintzatzerakoan, oso lerro gutxi eskaini ohi zaizkio irakaslea eta itzultzailea ere den ikertzaile horri. Nolanahi ere, berbaldi sakonak baino, itzulpen praktikatik bertatik ateratako kasuak nahiago izaten ditu bere *corpus* teorikoa eraikitzeko, sistematizazioari itzuri egin gabe. Egilearen iritzien nondik-norakoa argitzeko, hona hemen bildumako lehenengo artikuluko sarreraren itzulpena:

---

\* Artikulu honen lehen zatia 1992ko 1. zenbakian eman zen argitara aldizkari honetan.

«Ene aburuz, oinarrian, itzulpen osoak egiteko bi metodo baino ez daude. Osoak, itzulpen «zatizko» edo «funtzionalari» kontrajarri-rik, sorburu hizkuntzako testu bateko ñabardura guztien berri ematen du. Lehenengo metodoa, itzulpen «semantikoa» deitu dudana, testu aginpidedunak (*authoritative*) itzultzeko erabiltzen da, hau da, testu horiek non edukina eta estiloa, gaia eta idazki-mota, pentsamenduak eta erabiltzen diren egituretako hitzak garrantzitsuak baitira neurri berean. Testu aginpidedunen artean kokatzekoak ditugu irudimenezko literatura serioa, *ex-cathedra*zko txostenak eta itzultzaileak ondo idatzitakotzat eta egiazkotzat jotako edozein testu; baina testu aginpidedun bat txarto idatzita ere egon daiteke, aginpidea testuaren sorburuaren *statu*etik zein, artelanetan bezalá, egilearen nortasuna eta sentipenak adierazi nahi izatetik datorkiokeelarik testuari.

Testu aginpidedunak egilearen maila berean itzultzen dira, sorburu hizkuntzako testuinguru-esangura xede-hizkuntzan ahalik eta osoen emateko asmoz; xede-hizkuntzako erabilera naturalari darraikiote hizkera «soziala» erabiltzean, alegia, sorburu-hizkuntzako ohizko egitura sintaktiko, puntuazio, esaldi-ordenamendu, lagun arteko esamolde, metafora, lokailu eta klitxeak, baita teknikak, erakundeek eta gizarteak onarturiko terminoak ere; hizkera «pertsonala» darabiltenean —ohizkoak ez diren egitura sintaktikoak, forma edo esangura aldetiko hizperriak, metafora eta klitxe originalak, esaldi-ordenamendu eta puntuazio bereziak—, hizkera «pertsonal» horri eutsi beharra dago, normalean hitzez hitzeko itzulpenaren bitartez. Testu aginpidedunetan sorburu-hizkuntzako kulturari eutsi behar izaten zaio; nahiz eta itzultzaileak, irakurlearen mesedean, munta txikiko zenbait esangura erraztu edo molda ditzakeen.

Itzulpen «osoak» egiteko beste metodoari «komunikatiboa» deritzot. Xede-irakurlearen mailako hizkuntzaren erabilkera naturalean datza, eta aginpidedunak ez diren testu guztietan erabiltzen da. Itzulpenak ondo idatzia behar du, jatorrizkoa ondo ala txarto egoteak axolarik ez duela, baina hizkuntza eta kulturari dagokienez moldatu beharra izango da, irakurlearen ulermenari eusteko egoki dadin.



Badut ustea, oinarrian, ondo idazteari buruz korritzen duten es-tandarrei neurria hartzeko gai dela bat, Swift-ek esan bezala kakoa «hitz egokiak leku egokietan» idaztean baitatza, hala nola pentsa-menduaren eta lengoaiaren arteko egokitasun estuan zein klitxe, tau-tologia eta jargoi hanpaturik ezean ere. Testu ez-aginpidedunen itzul-penak argia, neurtua eta dotorea behar du, baina jatorrizkoaren tonu eta zaporea gorderik. Testu aginpidedunen estiloak, itzulpenean, egileen estiloari jarraituko die.

Itzultzeko metodo biek zehatz eta doiak izan behar dute, beren muga desberdinak izanik ere. Zenbat eta aginpide handiagoa izan testu batek, orduan eta itzulpen doituagoa.

(...) Handi-mandika, esan daiteke itzulpen-arazoa edozein luze-ratako testu bateko pasarteren bat hitzez hitz edo banan-banako ba-liokideez itzultzerik ez egotetik sortzen dela. Ondorioz, aukera zaba-la egongo litzateke itzulpen-prozeduretan, testuinguruzko irizpideen garrantzia gorabehera. Are nahien den ebazpidea iristen den arren, segur aski antzeko baliodun ebazpen esangurakideak egongo dira, meritu berdinekoak; itzulpen asko ebazpenen arteko konpromezu moduko bat izan ohi dira; malabarista-jokoa, zotz ala motz egitea, ekilibrista-haria; edozein unetan pentsamolde-aldaketa baten men-pean egongo da itzultzaile, irakurle edo kritikoaren aldetik. Horrega-tik soilik, itzulpen-baliokidetzaren kontzeptua, eragiketa gisa erabil-tzen den aldetik, ezin da definitu aurretiaz hainbat baldintza eta no-lakotasun zehazteke. Baina, hau edo horregatik ere, eztabaida daite-keen gauza da, eta horretan saiatuko naiz.»

Zer esanik ez, jarraian doazenak esandako artikuluetatik atera-tako printzak dira, Newmark-en iritziak baino islatzen ez dituztela-rik. Artikuluaren egiturak Newmark-ek berenetan erabiltzen duena eman nahi du.

## **1. Itzulpen teknikoak**

Adituek emandako terminoak ez dira itzuli behar irakurlea ere maila bereko aditua balitz bezala. Informatzea xedetzat duten testu teknikoetan itzulpenaren helburua informazio argi, zaindu eta doto-

rea ematea izango da; ahal dela, lanbide horretako hizkera teknikoa edo arrunta erabilia. Ez dago zertan iturburuko informazio guztia esplizituki emanik, inplizituki eman baitaitezke osagai batzuk, irakurleak berez antzeman ditzakeen horiek.

## **2. Orotariko hitzak**

Jakina denez, «orotariko» hitzak, askotan, beren jatorrizko esan-guratik alendu dira: «*calidad, fenómeno, posición, estructura, panorama, ...*» Beraz, ez da bat ere arazorik izan behar baliokideren bat erabiltzeko, testuinguaren arabera esanahia zehaztearren.

## **3. Lokailuak**

Hizkuntzek klitxeak sortu eta erabiltzeko joera izaten dute esaldiasieretan. Itzultzaileak ez du erreparorik izan behar horiek desmuntatzeko orduan. «*Por un lado, (...) por otro lado (...)*», adibidez, ez dago zertan beti «*alde batetik, (...) bestetik (...)*» emanik. «*Lehenik, (...) bigarrenik*» modukoek edo «*eta*» soil batek erraz asko ordezkadezakete klitxe hori.

## **4. Metalengoaia**

Metalengoaia hitzez hitz itzuliko da baldin eta forma linguistikoak bat badatoz beren esangurekin hizkuntza bietan. Horrelako esaldi/egitura/hitz bat testuinguruan oso garrantzitsua ez bada, itzulpenean ezabatu ere egin daiteke. Ideia garrantzitsua bada, baina testua ez bada aginpideduna edo oso hitzez hitz eman beharrekoa, mezua edozein baliabidetara jota eman daiteke. Baina testua beste mota horretakoa balitz, hitzez hitz eman beharko da, itzultzailearen ohar baten bitartez gorabeheraren berri emanez.

## **5. Argibide osagarriak**

Argibide osagarriak testuko muina ez badira, baina itzulpena irakurriko duenarentzat onuragarria izanez gero, testuan txerta daiteke, orripean baino hobeto.

## **6. Kontrastea adierazle semantiko gisa testuan**

Testu batean kontrastean dauden elementuak agertuz gero, barnean beste elementu batzuk eraman ditzaketelarik (zerrendak, hurrenkerak, e.a.), itzultzaileak kontrastea nabarmendu eta argitu beharko du, batez ere zerrendako elementuak eremu semantiko desberdinetakoak direnean:

*D'un côté grandes entreprises (risques faibles, volumes importants, conditions limitées, relations techniques), de l'autre, des PME (plus grande fragilité, faibles volumes, meilleures marges, contacts personnalisés).*

Batetik, enpresa handiak (arrisku gutxi, kantitate handiak, baldintza zurrunik, komunikazio mekanikoak); bestetik, ETE, enpresa txikiak eta ertainak (arrisku handia, kantitate txikiagoak, baldintza malguagoak, harreman zuzenagoak).

## **7. Giltz-hitza**

Itzulpengintzan kontzeptuzko termino gisa defini daiteke, testu bateko alderdi garrantzitsua edo testu osoa biltzen baitu. Normalean behin baino gehiagotan agertzen da eta testuingurutik kanpokoa izan ohi da. Itzultzaileak baliokidea aurkitu eta jatorrizkoan beste aldiz erabiltzen du. Banan-banako baliokiderik ez dagoela, terminoa erdi gardena erdi ezkutukoa bada, itzuli egin beharko da batzuetan, baldin eta irakurle landua badu xedea. Baina arazoak agertzen dira sorburu-hizkuntzan esangura bat baino gehiago izaten dituen giltz-hitzak, areago esangurak itxuraz kontrajarriak direlarik. Horrelakoe-tan, itzulpen desberdinak eman behar izaten dira agerpen bakoitzean, testu beraren barruan. Egokia izan daiteke aukerabideak itzultzailearen hitzaurrean aurkeztu eta eztabaidatzea.

## **8. Erabilera-maiztasunaren auzia**

Burukomin ederrak eman ohi dizkiote itzultzaileari hitzen esangura zehatzek eta horien erabilera-maiztasunek. Batzuetan itzulpen

«semantikoa» aringarri ederra da itzulpen «komunikatiboaren» ondoren, idazleak egun idatziko lukeena islatzen duenez gero.

## 9. Erregistroa

Latinismoak: horiek erabiltzearen aldeko argudio bat beren zehaztasuna eta erregistro aldetiko formaltasuna izan daiteke. «*Ex aequo*» esatea «*meritu berdinez*» esatea baino argigarriagoa izan daiteke (laburragoa ere) hartzaile landu batentzat. Hala ere, askotan, irakurleen arabera, bikoteka eman beharko dira, itzulpenek lagundurik, euskaraz maiz erabili izan den «*edo*» horretara joaz. Abere, landare eta gaisotasunen izen zientifikoak, gardenak ez direlarik gaurko irakurle arruntarentzat, itzulirik ere eman beharko dira.

## 10. Kategorizazioa

Nagusiki bi itzulpen-metodo baino ez egotea —komunikatiboa eta semantikoa— (bersorkuntza izan liteke hirugarrena; iragarki, kanta, komedia eta antzekoetan erabilia; baina egiaztatze-irizpidea betetzen ez duenez gero, nekez jo daiteke metodotzat, beraz). Metodo horiek testu mota guztietara hedatu izanak itzultzeko orduan hartzen diren erabakiak zurrizko kategorizazioa erabili beharra nabarmentzen du. Testu aginpidedunak semantikoki itzuli ohi dira, besteak komunikatiboki. Alde horretatik, «*lirika*» izango litzateke itzulpen «*semantikorik*» garbiena, hitzez zein bestelako baliabidez ematen baitu esangura. Beste muturrean komedia egongo litzateke: hartzaileari irribarre pare bat eragiten ez badio, jai dauka. Ahor kategorizazioaren beharra. Guztiarekin ere, terminoa ez da definitzen erraza: kategorizazioek maiztasuna eta probabilitatea dituzte oinarri.

## 11. Ikurrak

Garrantzi handiko ideia, giza-talde, kalitate edo gertakizuna ordezkatzan duten objektuak dira ikurrak itzulpengintzan: bakea, oinezkoak, garratzasuna, iraultza... Unibertsala, kulturazkoa ala ba-

nakakoa izan daiteke esangura. Metaforaren formarik trinkoena da, konnotazioa ahulena den moduan. Boterea, gizontasun/keria, indarra eta abarren ikurra izan daiteke ezpata oraindik orain hainbat gizartetan. Hala ere, ikur berak tokian tokiko esangurak izan ditzake, askotan irakurleari agerian jarri beharko zaizkiolarik.

Badira kulturazkoak direnak, adibidez, lekuren batean, eta horretan bakarrik, aurkitzen den jakiren batena. Askotan, xede-kulturaren maila bera izan dezakeen batez ordezkatu beharko da.

«Iparra» eta «Hegoa» hitzek Estatu Batuetan eta Italian arras gauza desberdinak notatzen dituzte. Edota onomatopeiek: *kikiriki: kuku-rruku, pio-pio: txio-txio...* Aurpegiko koloreak gizakien emozioak islatzen dituzte, baina kontuz, ez baita gauza bera zuria, beltza, txinatarra edo indiarra izatea. Koloreak eta animaliak kulturak gogorki markaturik egon ohi dira, auzo-kulturek askotan elkarrenak ulertzen badituzte ere.

Emango bagenu badela hizkuntza unibertsal bat, munduko hizkuntza guztiak bere baitara biltzen dituen eta, neurri berean, badela kultura unibertsal bat, beste kultura guztien iturburua dena, itzultzaileak bi-biak erabili behar lituzke: hizkuntza unibertsal horretako sako-neko egiturak eta eskubide-berdintasunaren kultura, jatorrizko eta xedezko hizkuntzen artean ari delarik. Kulturek alderdi on eta txarrak dituzte, txarrak agerian uzten dituelarik itzulpen itxiaren kultur-gabetze-indarrak.

## 12. Itzulpen lehenetsia

Itzultzaileak ulertzen ez duen eta lehenago agertu ez zaion esamolde edo hitzen bat aurkitu eta erredukzio-prozesu baten bitartez bere iritziz egin daitekeen interpretazioa ematea horixe da itzulpen lehenetsia. Askotan hitz soil baten gorabehera izan ohi da, lehenago aurkitu ez den batena edo testuinguru horretan hiztegian egozten zaizkion esangura guztietatik bat ere sartzerik ez duenarena. Usu huts edo happax-en bat ere izan daiteke. Horrelakoetan irakurleari eta itzulpena agindu duenari horren berri eman behar zaie.

### 13. Sormena

Itzulpengintzaren kontraesanguretariko bat itxuran imitazio hutsa den prozesu bat sortzaile izateraino heldu ahal izatea da. Paradoxa horren azpian oso kontu sakonak daude: maiz hitzez hitzeko itzulpena eta trasferentzia elementurik sortzaileenak izaten dira itzulketan, xede-kultura eta hizkuntza aberasten duten neurrian. Itzulpen sortzailea, bestalde, itzultzaile-hutsen sorburua izan daiteke. Ahor zer pentsatua ematen duen paradoxa.

### 14. Itzulpena eztabaidagai

Itzulpena paradoxa eta oposizioen emaitza da. Beti onartu behar ditu ikuspegi ugariak, demokrazia-tresna izan, dogmakeriak alde batera utzi.

### 15. Izen bereziak

Izen bereziak itzulpen-arazoa izan ohi dira edozein testutan. Literaturan beste bat gaineratzen zaio: asmatua den ala ez jakitea. Literatura ez diren itzultzaileak berak erabaki beharko du azalpen edo argigarriak eman behar duen. *Durango* hitzak azalpenen bat behar luke euskaratik Estatu Batuetako ingelesera itzuliz gero.

### 16. Soinuen semantika

Hizkuntzek, arbitrarioak direlarik, animalien soinuak era desberdinetan adierazten dituzte, aldeak handiegiak ez badira ere. Soinuen esangurak gizaki eta animalien oinarrizko oihuetatik datoz, haizeak eta euriak sentipen desberdinak islatzen dituzte. Horiek denak soinu-osagai unibertsalak dira, eta idazleak ere diren itzultzaileek kontu handiz ibili behar dituzte.

### 17. Berrikusketak

Hirugarren batek itzulpenak berrikusi behar izatea ezin ukatuzkoa da. Berrikusketak horren kostua, gainera, aurrekontuan barneratu be-

har da. Garai batean itzultzaileen izenak ez ziren agertzen kredituetan. Egun, askotan, zuzentzaileenak ere ez. Baina, nolana ere, zuzentzailearen izena agertzeak bermea emango lioke lanari, beraz, argialetxeari berari ere.

Itzulpena berrikusten ez bada, emaitza ezin txarragoa izan daiteke: itzultzaileak berak egin ditzakeen hankasartzeez gain, beste ha maikatxo huts mota isur daitezke, oharkabean. Ez dago itzulpengintza bezain lan arriskutsu eta ageririk bakarka lan egiten denean.

## 18. Lege-itzulpena

Lege-itzulpenak, lege-agirien antzera, beste edozein itzulpen mota baino akatsgabeagoa izan behar du. Ez gehiago ezta gutxiago ere. Terminoek beren baliokide doia aurkitu behar dute beste hizkuntzan, mailegu ondo definitu gisa hartuko direlarik horrelakorik egon ezean. Hitz ez-legezkoen berri zehatza eman behar da, edozein lege-testutako multzo nagusia baitira, enfasiari beti ere eutsiko zaiolarik.

Dirudienez, lege-hizkera eta terminologia beste jakintza-arloetakoak baino zehatzago eta ordenatuagoak dira. Letratuek, maiz, erabili aurretik definitu behar izaten dituzte terminoak, batez ere itun eta hitzarmenetan. «*Asociación, definitiva, sociedad, ...*» eta horrelako hitzak teknikoki erabiltzen ez direnean ere, hau da, hizkera arrunta gisa erabilia ere, hitzez hitz ematea hobe.

Esamolde erdi legezkoek —«*convertirse en dominio público*»...— itzulpen bat baino gehiago onar deketete : «*herri-jabari bihurtzea*», «*herri-jabarian sartzeta*», «*herri-jabarikotzat jotzea*» e.a.

Lege-hizkeraren ezaugarri nagusia hizkera idatzia izatean datza, ahozkoa izatean barik.

Estiloari buruz arruntak diren ideia batzuk kareletik bota behar dira lege-itzulpenetan. Hitzez hitzeko itzulpenak inoiz baino zuribide handiagoa du horrelakoetan, «bezeroek» nekez onesten baitituzte aldaerak. Arlo horretan oso jantzita ez dagoenarentzat leherkariz

beteriko eremua da, gutxien espero denean lehertzeko prest. Saiatu, bestela, «*robo, hurto, ...*» eta sail horretakoak terminoz termino ematen euskaraz.

## 19. Laburpenak

Gero eta garrantzitsuago ari dira bilakatzen laburpenak itzulpengintzan. Bi mota izaten dira usuenak: a) jatorrizkoaren laburpen orokorrak eta b) irakurle mota berezi batentzako laburpenak, hauetan enfasia alda daitekeelarik eskaeren arabera: zergatiak edo ondorioak, ñabardurak ala orokortasunak, gertakarien hurrenkera ala egungo egoera, ... Batzuen iritziz lehenengoa (a) izan ez da. Nolanahi ere, eztabaidagai dago.

## 20. Literatur irudiak

Metaforak interpretatzeko orduan bi jokabide erabil daitezke: metafora unibertsalen aurrekoa —horietan ez baitago itzultzailearen beraren interpretaziorik ezartzerik— eta, bigarrenik, metafora kulturalen aurrekoa; hauetan, maiz, itzultzaileak moldapen eta egokitza-penak egin behar izaten dituelarik.

Similak metaforen anai-arreba behartsuak dira. Metaforak ez bezala, ez dira gezurra *ipso facto*, baina ez dituzte metaforen indarra eta zorrotzasuna. Beren xedea gutxi gorabehera deskribatzea da, irudikatzea, maiz, apaintzea, besterik gabe. Normalean ez dute arazorik sortzen itzultzean, edozein testu-motatan hitzez hitz ematen direlarik, diren bitxiak direla ere.

Arazoa metafora ala simila den erabakitzerakoan hasten da. «*Zetazko*» edo «*zilarreztatu*» itzultzeko orduan, desanbiguatu egin daitezke ala diren-direnean utzi; zer egin, baina, «*iletzu*» izanez gero?

Zenbat eta mamitsuago edo konplexuago jatorrizko metafora, orduan eta argudio pisuago itzulpenean irudiari eusteko, zentzu hutsa eman gabe.



## 21. Humorea itzultzen

Humorearen mamia inkongruentzia eta freskotasuna izaten dira. Txanoa eta alkandora zuria daramatzen gizon-aldra bat ikusita, barre egin liteke, non eta Israelen ez bada. Horri «kultura-shock» deritzote. Baina sudurretan bolatxo gorriak daramatzatenak ikusirik, edonon egonik ere, barre egin daiteke lasai asko, gertakizuna barregarria bailitzateke edonon. Hala ere, zer da unibertsala humoreari dagokionez? Testu bat humorezkoa izango bada, ondo idatzia behar edo du.

Humore unibertsala sinplea, harrigarria, atsegina, umeena beزالakoa —umekeria ez denean— eta guztiz itzulgarria izan ohi da. Adibide bikaina dugu Mozart-en «Txirula harrigarria». Eta ez bakarrik elkarrizketetan, baita errezitatu ere. Txiste gehienak ez-kulturalak dira, umekeriak.

Eta kulturala? Alemaniako kotxe batek atzeko leihoan zeraman eraskailu batek honela zioen: «*Barkatu zure aurrealdetik hain hurbil gidatzeagatik*». Jakina, horrelako humoreak autoen inguruko kultura batean baino ez du zentzurik.

## 22. Pertsonifikazioa

Hizkuntza guztiek pertsonifikatu ohi dituzte kontzeptuak, baina zergatik denbora ere pertsonifikatu? Agian dramatikotasuna azpimarratzearen? «*In the period we are concerned with...*»; «*La période qui nos occupe...*»; «*Hizpide darabilgun garaia...*»; «*El periodo que nos ocupa...*» eta abar.

## 23. Irakurleari zuzendua

Agiri bat lagun bakar batentzat itzultzen denean, irakurleari estuki zuzendua da. Aldizkari berezitu bateko artikulua ere bereziki zuzendua da. Hala ere, zenbait idazle eta itzultzailek testua bera baino harantzago hezi nahi izaten dute irakurlea. Adibide ederra dugu Thomas Mann-en idatzietan. Guztiarekin ere, zenbat eta irakurle pasiboagoa, orduan eta itzulpen zuzenduago egin beharko da.

## 24. Hitzak, musika eta itzulpena

Esan izan da poesia berez itzulezina dela. Oraindik ez da esan kantak itzulezinak direnik: azken finean, hitz kantatuak itzulpenaren beharrik txikiena duten hitzak dira. Hitzek lagundutako musika esanguraren alderik zehatzen eta trinkoena da. Musika hitza bera baino indartsuagoa denean, itzultzean galdutako enfasi eta indarra ez da horren nabarmena. Horrelakoetan, aproba egin daiteke: hitzez hitzeko itzulpena komunikatiboaren aldean jarri eta zein den indartsuago arakatu. Horietariko zeinen mesedean?

## 25. Aldi enfatikoak

Ingelesak baditu orainaldi eta lehenaldi enfatikoak («*Do come in*»). Neurri batean, euskarak antzera jokutzen du aditza bera galdegaia denean («*Etorri dator ala joan doa?*»; «*Etorri egin da*») edo laguntzailea aurreratzen denean: «*Badut ikasi...*» Ingeleseztan, nolana ere, xedea enfatizatzea da, askotan ironia-printzak gehiturik.

## 26. Izango al da ebazpenen bat, ezta?

Zorigaitzez, beti ez da hala. Askotan xede-hizkuntzan ez dago balibiderik harako itzulgai hura emateko. Hor lepoa egin behar du itzultzaileak eta agian harrera onik jasoko ez duen ebazpenen bat eman.

## 27. Hitz-jokoak

Askotan, testua nolako, itzulpena halako. Itzulpenik egokiena ez da beti izango baliokiderik doituena. Irakurtzeko bertsioa izanez gero, hitzez hitzeko itzulpena bitarte eman daiteke hitz-jokoa.

## 28. Itzulpena arma gisa

Itzulpen itxia arma da; testu bateko akats moral eta objektiboak, behin testua itzulirik —eta are gutxi ala gehiago deskulturatu eta

agerian jarri ere—, argiago agertuko dira xede-hizkuntzan, eta horrek edozein testu motatarako balio du. Testu bat era itxi batez itzultzen denean, jatorrizko kultura, gramatika eta kultur arauetatik bereizten da. Agerian jartzen dira bere ahuleziak. Berezko habitatetik mugiarazten da.

Itzulpenak zerikusi handia du egia moral eta ekintzazkoarekin. Egia hori irakurlearen esku jarriz gero izango da eraginkorra, horixe baita itzulpenaren xede nagusia. Irakurterraz ala asko saiatzeko moduan eskuratu behar zaio? Esangurek eta egokierek erranen dute.

## 29. Ekonomiazkoak itzultzen

Lexiko aldetik, ekonomiazko testu bat hizkera arruntak, ekonomia-hizkera deskriptiboak, eta termino instituzional eta ekonomiko estandarrek osatzen dute. Itzultzailea libre da ekonomia-hizkera eta arrunta errazteko orduan, baina terminoak, ahal dela, bere hartan eman behar ditu. Zenbait termino estandar deskribapen hutsak ziren hasiera batean: «*enplegua sustatzeko neurriak*». Beste batzuk, «*moneta-zirkuitua*» kasu, metaforak ziren sorburu-testuan, eta hitzez hitz ematea hobe. Horrelakoetan, ahal izanez gero, ez dira esangurakideak erabili behar, hizkera arruntean erabilgarriak badira ere: «*uniformea*» auke-ratzen bada, ez erabili gero «*homogeneo, berdin, bateratu...*» eta abar-rak.

Metaforak oso ugariak izan ohi dira ekonomiazko testuetan. Hala ere, kasuan kasuan erabaki beharko du itzultzaileak horiek nola eman.

## 30. Itzulpen-hutsak kategorizatzea

Itzulpen-lan bat ebaluatzerakoan, orokorki zein analitikoki joka daiteke. Batzuetan prozedura biak elkarren osagarriak dira. Analitikoki, hutsak deskribatu egin daitezke, banaka. Erratuen artean bi akats mota hauek aurki daitezke, besteak beste: a) erreferentzialak: «*administrazio-kontseilua*» > «*board of directors*» ematea, eta ez «*management committee*», behar lukeen moduan, b) linguistikoak edo gramatikalak: «*coast*» > «*kostalde*» ematea, eta ez «*kostua*».

Beste sail batean, «ñabardurazkoen» artean, a) motakoak, estilistikoak: erregistro-hutsak e.a. eta b), lexikoak: behar ez diren esangurakide edo parafraasiak erabiltzea... Horrelakoei itzuri egin dakieke, soilik bihurtzen baitira hankasartze larri testu ofizial, estandar edo adierazkorretan.

### **31. Gramatika eta enfasia**

Oso konplexua izan ezean, gramatika ez da arazoa izaten itzultzerakoan. Askotan, arazorik handienak enfasia egokiro ematean datza. Euskaraz, finean, galdegaia eta mintzagaia izango genituzke baliabide, sorburuzkoan enfasia non dagoen aurkitzen jakinez gero. Ez da ahaztu behar, gainera, euskarak errekurtsibitate-ahalmen handia duela.

### **32. Deskribapenezko hitzen indarra**

Hizkera deskripziozko/estatikoaren aurrez aurre narraziozko/dinamikoa jar dezakegu. Deskripziozkoak, maiz, adjektibo eta adberbio ugariak erabiliko ditu, banan-banako baliokideak nekez onartzen dituelarik: «*exigir perentoriamente*», «*comportarse abusivamente*», «*extremo*», «*lindo*», «*historiar cabalmente*», «*plúmbeo*»... Maiz, desmuntatu egin behar izaten dira eta erlatiboz edo hitz batez baino gehiagoz eman. Gazteleratik euskararakoan, ondo gogoan izan behar dira nominalizazioek ematen dituzten burukominak.

### **33. Itzulpen-teoria eskailera gisa**

Itzulpen semantikoa eta komunikatiboaren teoria alde biko bat egiteko, ahorrak hiru baieztapen:

- a) Zenbat eta garrantzitsuagoa testu bateko hizkera, orduan eta itzulpen estuagoa egin behar.
- b) Zenbat eta garrantzi txikiagoa izan testu edo pasarte bateko hizkerak, orduan eta itzulpen askeago onartzen du.

- c) Baina, hona hemen gakoa, zenbat eta hobeto idatzirik egon testu bateko unitate bat, orduan eta itzulpen hurbilagoa egin beharko zaio, eta hori dena dela bere garrantzia.

Kontua, jakina, «garrantzia» eta «itzulpen estua edo hurbila» zer diren zehaztean datza. Garrantzia, maiz, egokierak, irakurleak edo bezeroak definitzen dute. Baina, askotan, testuaren beraren balioak ezartzen dio itzultzaileari. Balio, esangura, behartasun edo iraunkortasun handia duten testuei «garrantzitsu» edo «aginpidedun» esan dakieke. Bestela, testuaren aurreko erantzunkizunak berak emango du: «*to be or not to be*» itzuli behar izatekotan... Ezin aipatzeke utzi askotan garrantzia ez datorkiola testuari hitz edo osagai linguistikoe-tatik, hau da, tonu, estilo, itxura, literatur-irudi, soinu-efektu eta abarretatik. Garrantzia xedean baino esanguran badatza, zilegi liteke zabalago jokatzea. Testu bateko elementu garrantzitsua faktore alda-gaitza izan ohi da, konpromezurik gabe baina konpromezu ugari eskatzen duen ihardun batez eman beharrekoa.

«Hurbila edo estua». Itzulpenik estuena mailegu gordina litzate-ke, hau da, sorburuko hitza, esamoldea edo dena dela (*glasnost, last but not least, dolce vita, Cortes*) dagoen-dagoenean eramaten da xede-hizkuntzara, bertan errotzen delarik. Aldaketa bakarra fonetikoa iza-ten da. Zenbat eta erro sakonagoak izan hitzak xede-hizkuntzan, or-duan eta aldaketa fonetiko handiagoak egiten zaizkio, esanahia beste batera lerratzen hasten delarik. Bestalde, itzulpen hurbil edo estu hori gramatikala edo lexikoa izan daiteke. Gramatikalen artean hiru maila bereiz litezke: lehenengoa multzo edo esaldi bat xede-hizkuntzan berdin-berdin ematean datza («*tras su llegada*» > «*bere etorreraren ondoren*»), bigarrena xede-hizkuntzako baliokide estandarraz or-dezkatzea litzateke («*extremely important*» > «*ezin garrantzitsuago*»), hirugarren mailan antza txikiagoko baliokide batez ordezkatzea legoke («*extremely important*» > «*bere garrantzirik handiena eskuratzen du (...)*»). Lexikoetan mailakaketa hitzez hitzekotik ha-siko litzateke, («*large garden*» > «*lorategi handia*»), nahiz «*garden*» hitzak ingelesez, agian, beste herri batzuetan baino irudi formal txi-kiagoa izan. Bigarrenik banan-banako itzulpena letorke. Azken ho-

netan, egokitasun-maila desberdinak egon daitezke. Finean, esan bezala, zenbat eta luzeagoa testua, orduan eta zabalagoa itzulpena.

Beste prozedura batzuk, hurbiltasunaren arabera sailkaturik, honako hauek izango lirateke: analisi konponentziala (*"murky" street > kale ilun eta zikina*); modulazioa (*no mean city > hiri paregabea*); azalpenezko baliokidetza (*euskaltegia > centro para enseñar euskara a los adultos*); funtziozko baliokidetza (*labana > instrumento cortante*); kulturazko baliokidetza (*paella > stew*) —azkenengo hauek normalean ez dira oso zehatzak jatorrizkoarekiko, baina indar handia dute emozio aldetik, oso erabilgarriak dira berehalako erantzuna eragiteko hartzailearengan eta, gainera, irakurlea sorburuzko kulturara eraman dezakete kritikarik gabe—; sinonimoak eta, azkenik, parafrasia.

Erabilera sozial arrunta edo naturala, edozein testutan, bere baliokide normal eta erabilienaz eman behar izatea dugu itzulpen hurbil-hurbilaren oinarri orokor horietariko bat. Testu garrantzitsu edo ofizial batean bai hitz sortu berriak bai klitxeak beren ordezkio doiez eman beharko dira, jatorrizkoak erabilera arruntarekiko duen urruntasuna ere gordeko delarik itzulpenean. Gainontzeko testu mota guztietan, erabilera arruntez eman beharko dira.

Itzulpegintzari buruzko teoriak zerrenda hauetara ere bil daitezke:

Batetik:

- 1.- Teoria erabat funtzionalista.
- 2.- Berbaldiaren teoria, testuaren linguistikan oinarritua.
- 3.- Kultur trasferentzia edo elkartrukearen teoria.
- 4.- Hizkuntza sozialaren teoria.
- 5.- Prozeduraren teoria.
- 6.- «Harreraren» teoria (edo «maneiuren teoria»).

Bestaldean:

- 1.- Mamiaren teoria: hitzak baino ez daude itzulgaietan. Mezua ahaztu!

- 2.- Teoria lexikogramatikala.
- 3.- Unibertsalen teoria, kultura eta hizkuntzari buruzkoa.
- 4.- Banakakoen hizkuntzaren teoria.
- 5.- Emaitzaren teoria.
- 6.- Itzulpengintza denbora, espazio eta inguruz kanpoko arma kritikotzat jotzen duen teoria.

Aurreko ikuspegi gehienak urrunegi eraman daitezke eta askotan hala gertatzen da. Sentipenak beti izaten dira unibertsalak, maiz kultura baten zama nabarmenega bada ere.

Itzultzaileak areago ikasten du ohizkotik. Ez-ohizkoa abisua baino ez da izaten.

### **34. Sormena itzulpenean**

Sormenak esparru mugatua du itzulpenean. Itzulpen prozedura estandarrek huts egitean, itzulpena «ezinezkoa» denean sortzen da. Azken errekurtsoa da, baina testu «lehiatsuetan» askotan jotzen da horretara. Sormena testu batean nagusi bihurtuz gero, egokitzapen baten aurrean egongo gara, interpretazio idiosinkratiko baten aurrean, nekez egiazta daitekeen lan baten aurrean (itzulpen txar horietako bat ez bada). Edozein itzulpenek, mailarik txikienean bada ere, atze-itzulpenaren froga pasa behar luke, baliokidetasunak noraino eman diren egiaztatzeko.

Itzulpen sortzailea zuritzeko, argudio nagusia erabateko itzulezintasuna da; alde batera utzirik, jakina, edozein itzultze-erabaki, berez, alde edo moldez, sortzailea delako argudioa. Hala ere, testu arruntetan itzulezintasuna nekez onartuzkoa da. Guztiarekin ere, testu adierazkorretan, hitzek areago adierazten dituzte irudiak eta konnotazioak gertakizunak baino, halako moldez non sormenak bere lekua eskatzen baitu, hitz-jokoa ezinbestean sortzaile bihurturik. Hona hemen sormena beharrezko bihurtzen duten zenbait kasu:

- 1.- Kultur hitzak: gizarte bateko objektu eta iharduera berezi-bereziak adierazten baitituzte.

- 2.- Kulturarteko hitzak, antzeko erreferenteak baina konnotazio desberdinak dituztelarik. Adibiderik klasikoenak jan-edanak dira: ogia, ardoa,...
- 3.- Hitz-kontzeptuak, gizarteen arabera enfasi desberdinekoak baitira: liberalismoa, askatasuna, burokrazia,...
- 4.- Egitura sintaktiko berezkoak («*Hoba ez!*», «*Seeing you is good*», «*Et lui de partir*»).
- 5.- Kultur metafora, esamolde, atsotitz, hitz-jokoak, hizperriak. Indarra, adierazgarritasuna eta edukina ondo eman direla egiaztatu behar izaten da horrelakoetan, oso erraza baita bidean zerbait galtzea.
- 6.- Soinuzko efektu estetiko esanguratsuak: onomatopeiak, harri-durak, eta abar.
- 7.- Kualitate-hitzak, banan-banako itzulpenik gabeak.

Zerrenda, bistan da, ez da agortzailea, eta itzultzaileari etsipena eragin badiezaioke ere, oso erabilgarria da. Gauza jakina da hizkuntza batean esaten den oro beste batean eman daitekeela egokitzapenak egokitzapen, moldapenak moldapen; maiz horrela egin behar izaten delarik. Aurreko zazpi faktoreak oztupo hutsa dira esangura osoa funtzionalki garrantzitsua denean, bazterreko ñabardura baino, mezuaren osagaia denean. Oso garrantzitsuak direnean gain-itzulpenaz konpentsatu behar dira, esangura handiagoa gaineratzen baitio. Adibidez, «*ederra ikuskizuna*» > «*un espectáculo grandioso, magnífico*». Printzipioz, edozein hizkuntzatako edozein hitzen esangura bakan eta bakarra den arren, batez ere beste hizkuntzetan dituen maiztasun, erabilera, konnotazio eta betetzen duen tarte lexikoari dagokienez; testuinguruetan barneraturiko hitz ez-kultural gehienek baliokide baliagarriak izaten dituzte beste hizkuntzetan. Hizkuntza eta kultura bien artean lehen eta orainaldian izandako harremanen baitan egongo da baliokideen kopurua.



Sormena, itzulpengintzan, imitazioa geratzean hasten da. Imitazio-prozedurak; Vinay eta Darbelnet-ek «itzulpen zuzenekoak» deituak; transferentzia, kalkoa eta hitzez hitzeko itzulpena dira.

Beste prozedurak, «itzulpen zeharkakoak» deituak, nola edo hala, sortzaileak dira. Zenbat eta hautabide gehiago, orduan eta sormen (kualitatezko eta kantitatezko) handiagoa erabili behar. Baina askotan askatasuna lizentzia bihurtzen da. Sormenik handiena poesia itzultzean ematen da, faktore osagarriak garrantzi nabarmen-nabarmenekoak baitira: irudi-hitzak, neurria, errima, soinuak. Poema baten itzulpen ona jatorrizkoari eginiko sarrera apala eta horren bersorkuntza izango da. Hala ere, zenbat eta itzulpen hurbilagoa egin, orduan eta hobeto eramango ditu itzultzaileak jatorrizkoaren osagaiak xede-testura.

### 35. Itzulpenaren hainbat tranpa

- 1.- Esamolde bat, metafora itxura duena baina lokuzio gisa jokatzen duena.

*Le Plan devient bieptôt un placard où l'on enferme Michel Rocard:* Lehenengo batean honela itzul liteke: «Ekonomia Plan Nazionala armairu bihurtu zen berehala, Michel Rocard barruan harrapatu zuelarik». Baina askoz hobeto eman liteke honela: «Plana berehala bihurtu zen gartzela, Rocard barruan giltzapetu zuelarik».

- 2.- Xede-hizkuntzako hitz bat, ohizko baliokideaz itzuli ahal izateaz gain, mailegu gordin gisa har daitekeenean.

«*Rapporteur*» hitza ingelesez «*reporter*» eta «*rapporteur*» eman daiteke, bigarrenaren adiera batzorde batek aginduta txosten edo ikerketaren bat egin behar duen laguna litzateke-elarik.

- 3.- Beste tranpa horietako bat itxura inozoa baina arriskuz beterik dauden «*work stations*» eta «*expert systems*» bezalako esamoldeena da, termino teknikoak ere diren aldetik.

4.- Esamoldeetako elipsia da beste horietariko bat, askotan bi hizkuntzetan berdinak ez direlako. «*Mociones y proyectos*» esanez gero, itzultzaileak jakin behar luke ezen segur aski «*proyectos de ley*» delakoez ari dela. Horrelakoetan, oso itzulpen desberdinak egin daitezke. Ingelesezt, adibidez, «*bills*» («*proyectos de ley*», besteak beste) eta «*plans*» oso desberdinak dira. Euskaraz ere, «*proiektuak*», «*lege-egitasmo*»... egon daitezke aukeran.

### **36. Ideia versus hitza**

Beste atalen batean aipatu bada ere, komeni-komenigarria da berriro ere honi heltzea, bi filosofia arras desberdin baitaramatzate barne.

Egile batzuen arabera, ideiak itzuli behar dira, eta ez hitzak. Hitzak itzultzearen aldekoek esaten dute ideiak itzuliz gero, itzulpen-gintzan errotik kenduko dela berritasun linguistikarako bidea, etengabe joko delako lehendik zeuden esamolde edo egituretara. Bestalde, hitzez hitzeko itzulpena de facto desagertzen dela. Azken argudio gisa, hitzei jaramonik egin ezean, ideiak itxuragabetu eta, beraz, txarto itzul daitezkeela.

### **37. Nola itzuli istorio laburrak**

Poesiaz landa, istorio laburra literaturan dagoen idazkerarik barru-barrukoen eta pertsonalena da. Drama guztiz bestaldean egongo litzateke. Itzulgai gisa, hona hemen zenbait ezaugarri berezi:

- a) Egitura. Hasiera eta amaierako pasarteak, askotan, erlazionaturik daude, eta izenburuaz batera, istorioaren gaia eta bukaera mugatzen dituzte. Puntuazio markek, paragrafoen banaketak eta letra larrien erabilkerak berebiziko garrantzia hartzen dute: hiru puntuek pasarte bat kendu dela adierazten dute ingelesez, frantsesez geldiene bat irudikatzen dutelarik.

- b) Giltz-hitzak edo leitmotivak. Usu, hitzak, esaldiak edo irudiak errepikatzen dira, gaia adierazteko. Itzulpenean ere eman beharra izango da normalean.
- c) Estilo-adierazleak. Egilearen ohizko hitz edo egiturak, normalean gaiari berari ere begiratzen diotelarik. Horiek ere taiuz eman beharko dira itzulpenean.
- d) Aipamen kultural eta unibertsalak (entziklopedikoak). Horietako zenbat azal dezakeen testuan balioetsi beharko du itzultzaileak.
- e) Kultur metaforak. Goian bezala.
- f) Generoa: ipuina ala istorioa, ahozkoa ala idatzizkoa.
- g) Usarioa. Istorioa ondo finkaturiko usario literario baten barruan koka badaiteke, hobe jatorrizko moldeari eustea helburu-kulturakora egokitzea baino. Molde horrek xede-hizkuntza eta kultura aberastuko ditu.
- h) Egilearen beste lanak. Horiek irakurtzeak ez dio kalterik egingo itzultzaileari, baina beren eraginak ez du nabarmenegi izan behar.
- i) Esaldien funtzio-ikuspegia. Kontakizun trinkoa osatzen duten aldetik, garrantzi-garrantzizkoa izango da esaldien enfasia eman eta horien arteko koherentzia eta kohesioa ondo lantzea.

### **38. Estiloaren ezaugarriak**

Zenbat eta areago erabili egile batek bere estilo-markak, orduan eta esangura zein indar txikiagoak.

### **39. Itzultzailearen zeregina**

Aditua ez denak esan edo uste ohi du norberaren hizkuntzara baino ez itzultzea lelokeria handia dela, ea zergatik ezin duen bietara itzuli,

itzultzailearentzako benetako erronka «prosa» dela, atzerriko hizkuntza batean idazteko itzultzaileak nahikoak dituela gramatika estandar horietako bat eta hainbat hiztegi... Bada garaia hori ez dela horrela ikustarazten hasteko. Itzultzailea bere «hizkuntzaren» ordezkaria da, enbaxadorea; ez dauka, beraz, hanka sartzetik, ezta hankasartzea hutsaren hurrengoa bada ere.

#### 40. Banan-banako aditzak

Hizkera politiko eta administratiboan aditzak ez dira beti beste aditz batez eman behar: «*infléchir une politique*» > «*to (reorientate) change/modify the direction of the policy*»; «*the opening up of national public contracts*» > «*estatuko herri-akurapena*» (IVAP, Europako Itunaren Hiztegia).

#### 41. Betiereko arazo betikoa

- a) Itzulpenak jatorrizkoaren gertakizunak eman behar ditu.
- b) Itzulgaia ez da sakratua, baina enfasia bere hartan eman beharra dago.
- c) Itzulpenak gizarte-erabilkerara egokitu beharra du.

#### 42. Itzulpenaren bost xede eta erabilpen nagusiak

- 1.- Hizkuntza aldetik desberdinak diren gizarteei elkarri ulertzen eta bakean bizi daitezen laguntzea.
- 2.- Informazioa eta teknologia hirugarren eta laugarren munduko herrialdeetara heltzen laguntzea.
- 3.- Etnien kulturak eta horien arteko desberdintasunak azaltzea eta argitzea.
- 4.- Arte eta giza-zientzietan lan garrantzitsuak egitea, bai moral, erlijio, estetika nola zientzia aldetik.
- 5.- Hizkuntza arrotzak ikasten laguntzea.

## LABURPENA

### **Itzulpenera hurbiltzea. Zenbait errezeta (II)**

Peter Newmark irakaslearen ekarpen teoriko praktikoak ezagutarazteko egindako beste artikulu baten bigarren zatia da hau.

Kasu honetan, *The Linguist* aldizkari sonatuan argitara emandako «Paragraphs on translation» bildumako lehen bederatzi artikuluak aukeratu dira.

Helburu nagusia ikerlari horren ekarpenak zabaltzea da, edozein itzultzailearen eguneroko lanerako irtenbide praktikoak aurki baitaitezke, beste hainbat irakaspen teoriko orokorren ondoan. Esan gabe doa, haren azalpen askok oso bide interesgarriak irekitzen dituzte Euskal Herriko itzultzaileen kasurako.

## RESUMEN

### **Aproximación a la traducción. Algunas recetas (II)**

Este artículo es la segunda parte de una serie dedicada a dar a conocer las aportaciones teórico-prácticas del profesor Peter Newmark.

En este caso se ha hecho una selección de los primeros nueve artículos de la colección «Paragraphs on translation», publicados en la prestigiosa revista *The Linguist*.

El principal objetivo es difundir las aportaciones del mencionado investigador, puesto que al lado de acotaciones teóricas generales se pueden encontrar soluciones prácticas para el trabajo diario de cualquier traductor, tanto si trabaja en inglés como si no. Ni que decir tiene, muchas de sus indicaciones ofrecen caminos muy interesantes en el caso de los traductores de Euskal Herria.

## SUMMARY

### **An approach to translation. A few recipes (II)**

This article is the second part of a series dedicated to divulging Professor Peter Newmark's theoretical and practical contributions.

In this instance, a selection has been made of the first nine articles of the collection entitled «Paragraphs on Translation», published in the prestigious magazine *The Linguist*.

Its main objective is to disseminate the contributions made by this researcher. Practical solutions to problems encountered by any translator, whether he works in English or not, may be found beside general theoretical annotations. It goes without saying that much of his guidance opens avenues of great interest for translators from the Basque Country.

## RESUME

### **Approche de la traduction. Quelques recettes (II)**

Voici la deuxième partie d'une série d'articles consacrés aux apports théoriques et pratiques du professeur Peter Newmark.

On a effectué une sélection des neuf premiers articles de la collection «Paragraphs on translation», publiés dans la prestigieuse revue *The Linguist*.

Le principal objectif est de divulguer les travaux de ce chercheur qui, outre des appréciations théoriques générales, a proposé des solutions pratiques utiles à tout traducteur, travaillant ou non en anglais. Il est donc inutile de préciser que ces indications ouvrent des voies très intéressantes aux traducteurs d'Euskal Herria.

## Erdarazko erlatiboen itzulpenaz

Koldo Biguri

### 0. Planteiamendua

Euskarazko erlatibizazioak zeresan ugari eman izan du aspaldidanik, eta hainbat gramatikalariren ikergai izan da, baina nire lan honek hartu nahi duen bidea beste bat izango da; alegia, bi hizkuntza horien artean erlatibizazioari dagokionez daudekeen aldeak ikertu nahi ditut, horretarako euskararako itzulpenaren ikuspegia erabiliz, edo, zehazkiago esanda, gaztelerazko perpaus erlatiboen itzulpena, horixe izan eta oraindik ere izaten baita itzultzaileen buruhausterik handienetako bat.

Dena den, kontutan hartuz doktorego-lan batek eduki dezakeen luze-zabalera, gure ikerketa hau itzulpen jakin batzuetara mugatuko da, corpus bat osatuz eta hartan ikusiz nolako irtenbideak eman dizkieten itzultzaileek jatorrizko testuetako perpaus erlatiboei (adibideen idazkera gaurko erara moldatu dut). Ikertu ditugun testuak honako hauek izan dira:

- *Liberalen dotriña pecatu da* (El liberalismo es pecado), ustez Gregorio Arruek itzulia, eta Bartzelonan 1887. urtean argitaratua.
- *Liberalkeria pecatuba da*, itzultzaile ezezaguna, Bartzelona 1891.

- *Gau iluna* (Noche Oscura, S. Juan de la Cruz, *Idazlan autatuak*, 1993), Lino Akesolok 1991 inguruan itzulia.
- *Kantu espiritual* (Canto espiritual, S. Juan de la Cruz, *Idazlan autatuak*, 1993), Julian Barandiaranek itzulia.
- *Paskual Duarte* (Pascual Duarte, Camilo J. Cela), Jautarkolek 1967an itzulia.

Ikusten denez, itzulpen guztiak Hegoaldekoak dira: lehendabiziko biak joan den mendekoak, eta beste hirurak, nolabait, «klasikotzat» jo litezkeen itzultzaileek eginak. Hain zuzen ere, eskola zaharreko itzulpenaren estiloaz eginak direlako aukeratu ditut, gaur egungo itzultzaileontzat zer irakatsi ugaria daukatelako, bestela esanda.

Jakina, corpus honekin ez dugu erlatiboen itzulpenaren gaia agortuko —ez da hori gainera gure asmoa—, baina bai aurrez aurre jarriko erdararen eta euskararen sistemak, bakoitzaren joerak argitze-ko. Izan ere, lanaren abiapuntu gisa, Pierre Lafitteren baieztapen bat hartuko dugu, alegia:

*Le basque ne se prête pas beaucoup à la traduction des phrases françaises pleines de propositions relatives. Il vaut mieux renoncer à rendre littéralement de pareils textes et se décider à les transposer selon une autre syntaxe.<sup>1</sup>*

Ez gara aterako baieztapen horren lehen zatiaren alde ez kontra ere, hizkuntzaren «jeinuari» —beste batzuek «senari» esango lukete— baitagokio, hizkuntzak errealitate aldaezinak balira bezala. Egia da, halere, esaldi luzeek eta erlatiboen bitartez eraikitakoek bereziki nahiko prentsa txarra izan dutela gure garbizaleen artean, eta dudarik ez dago oraindik ere aurriritzi horiek pisu eta eragin handia dutela; pentsa, esate baterako, «erlatibo erromaniko» deitu izan diren horiek, gure artean mende askotako bizitza eduki arren, nekez ikusten direla, itzulpen batzuetan izan ezik, eta entzun —eta ez naiz kaleko hizkeraz ari— ez direla ia inoiz entzuten.

1. *Grammaire Basque*, 896 zk.



Ikerlan honen helburuetara begira Lafitteren beste baieztapena da interesatzen zaidana. Alegia, aztertu nahi dut zeintzuk diren erdararen erlatiboaren orde z euskarak erabil ditzakeen beste prozedura sintaktikoak, baina inolako asmo arauemailerik gabe: aitzitik, itzultzaile on batzuen irakaspenaz baliatu nahi dut, haiek hartutako irtenbideak azalduz, gaur egun lanbide honetan aritzen garenek ohar gaitezen, ezer baino lehen, ez garela itzulpen-arazo hauen aurrean gertatu garen lehenak, eta, bestetik, itzultzaileok izaten dugun imitazio-joera ez dela beti izaten aholkularirik fidagarriena, bistan baitago hizkuntza guztiak ez direla prozedura berberetz baliatzen eduki berberak adierazteko.

### 1. Euskararen eta erdararen joerak

Hortaz, egia al da gure inguruko erdarek askoz joera handiagoa dutela erlatiboak erabiltzeko? Har ditzagun gure corpuseko adibide batzuk, Julian Barandiaranek:

- (1) Bueno será le respondamos mostrándole el lugar más cierto donde está escondido.
- (1') *Guk erantzun geniezaioke, erakutsirik non den ziur bere Maitearen ezkutalekua.*
- (2) Gran cosa es saber el lugar donde está escondido.
- (2') *Gauza handia bait da, izan ere, non ezkutatua dagoen ziur jakitea.*
- (3) Dicho queda, ¡oh alma!, el modo que te conviene tener para hallar al Esposo en tu escondrijo.
- (3') *Esan zaizu, ba, anima, nola jokatu behar duzun zure bihotze-ko ezkutuan Ezkontidea aurkitu ahal izateko.*

Bistan da hemen itzultzaileak zehargaldera aukeratu duela, galde-tzaileak erabiliz gaztelaniazko testuan I + P(erl.) dagoen lekuan, eta hori posible izan da pertzepzioa adierazten duten aditzak direlako (*erakutsi, jakin, esan*). Hau da, beste tankera bateko aditzekin ezi-nezkoa izango zen:

- (4) Llévame al lugar donde está escondido.  
(4') *Eraman nazazu bera ezkutatuta dagoen lekura.*

Kasu honetan ez zegoen zehargaldera erabiltzerik, eta derrigorrez eman behar zen *lekua* sustantiboa. Halere, (4')ko erlatibo perpausaren ordeztu izen soila ere ager zitekeen, (4'')an bezala:

- (4'') *Eraman nazazu bere ezkutalekura.*

Baten batek esan lezake *bera ezkutatuta dagoen lekua* eta *bere ezkutalekua* ez direla berdinak adieraren aldetik ere, (4'')ko kasuan gerta baitaiteke *bera* hori ezkutaturik ez egotea bere ezkutalekuan. Baina hori ez zaigu gertatuko beste kasu batzuetan:

- (5) Llévame a la casa en que naciste.  
(5') *Eraman nazazu jaio zinen etxera.*  
(5'') *Eraman nazazu zure jaiotetxera.*

Esaldi hauetan ondo ikusten da egitura sintaktiko berberak ondorio pragmatiko desberdinak dituela, bai eta alderantzizkoa ere, alegia, egitura desberdinek ondorio pragmatiko bera eduki dezaketela.

Nolanahi ere, zenbait kasu berezitan, transposizioa erabil daiteke, STko sustantiboaren ordeztu galdetzailea erabiliz, ondoko kasuan bezala:

- (6) Esta es la razón por que con figuras, comparaciones y semejanzas, antes rebosan de lo que sienten...  
(6') *Horra zergatik, irudi, alderaketa eta antzekoetara jota, barnetik gainezka bezala, ariman nabaritzen duten zerbaitxo agertzen duten...*

Gogora dezagun, bestalde, gaztelaniaz izenak edo sustantiboak eta, oró har, nominalizazioak erruz erabiltzen direla eta, ondorioz, izen horiei oso erraz atxikitzen zaizkiela hainbat modifikatzaile, adjetibo-perpausak tartean. Hortaz, esan dezakegu erdarak erraztasun handiz eratzen dituela era honetako erlatiboak, haietako asko «erredundanteak» esango genuke, eta horiek ez direla euskaraz nahitaez forma horrekin azaltzen; begira bestela beste adibide hauei:

- (7) Ésta es el arma con la que asesinaron a Prim.
- (8) Aquí es donde vive mi amigo Félix.

Izan ere, bi kasu hauek ikusirik esan genezake gaztelaniak erlatiboak erabiltzen duela galdegaia azpimarratzeko, eta garbi dago euskaraz beste baliabide batzuk dauzkagula horretarako:

- (7') *Arma honetxekin hil zuten Prim.*
- (8') *Hementxe bizi da Felix nire laguna.*

Dena dela, ezin uka daiteke euskaraz ere tankera horretako erlatiboak erabiltzen ditugula batzuetan, beharbada erdararen eraginez. Esaterako:

- (9) Él fue quien me contó que habías tenido un accidente.
- (9') *Bera izan zen istripua izan zenuela kontatu zidana.*

Argi egon arren galdegai hutsa nahikoa dela euskaraz hori adierazteko:

- (9'') *Berak kontatu zidan istripua izan zenuela.*

Euskaraz (9') bezalako itzulpenak egin ahal izateko badago, nolahi ere, baldintza bat; alegia, STko esaldiko erlatiboak preposizio-rik ez edukitzea izenorde erlatiboaren aurrean. Hau da, nekez itzuli ahalko dugu lehenagoko (7) esaldia erlatibo batekin, non eta ez dugun parafraisi bat eginez erlatibo hori sustantibatzen, (7'')an bezala:

- (7'') *Hau da Prim hiltzeko erabili zen arma.*

Erlatibo erredundanteekin jarraituz, ondoan emango ditugun adibi-deek erakusten dutenez, euskaraz ez dago erdaraz bezain joera nabarmena horrelakoak erabiltzeko:

- (10) ...y hay momentos en que hasta la conciencia quiere remorderme menos.
- (10') *...eta une batzuetan kontzientziak berak ere kezka gutxiago ematen didalakoan nago.*
- (11) Hay hombres a quienes se les ordena marchar por el camino de las flores, y hombres a quienes se les manda tirar por el camino de los cardos y de las chumberas.

- (11') *Gizon batzuei lorezko bidetik joateko agintzen zaie, beste gizonen, berriz, dardabera eta piku bidetik zehar joateko agintzen diete.*
- (12) ...temporadas hubo en que hasta me sentía orgulloso de ella.
- (12') ...zenbait garaietan harro asko egon ere nintzen berarekin.

Ikusten denez, aurreko hiru adibideen egitura *haber + I + prep. + P(erl.)* da, euskaraz sinplifikatuta eman dena. Baina badira beste egitura batzuk antzeko emaitza dutenak; esate baterako, *ser algo que* edo *ser cosa que*:

- (13) ...esa seguridad de que mis actos habían de ser, a la fuerza, trazados sobre surcos ya previstos, era algo que me sacaba de quicio.
- (13') ...*nere egiteak, nahi ta nahi ez, aurrez aurretik irekitako ildotatik zehar joan beharra zutela ziur jakite horrek, nere onetatik irteten ninduen.*
- (14) Viendo que son cosas que por su propia mano fueron hechas.
- (14') *Berberak bere eskuz eginak direla ikusirik.*

Eta antzekoa topatzen dugu erlatiboaren erreferentea sujetu-klausulan egon ordez predikatura aldatzen denean ere:

- (15) De mi niñez no son precisamente buenos recuerdos los que guardo.
- (15') *Nere haurtzaroko oroigarriak ere ez dira onak.*

Beste kasu batzuetan, aldiz, menpeko perpausa desegin eta osagai guztiak perpaus nagusi bakarrean sartzen dira, honako hauetan bezala:

- (16) Tenía un lenguaje en la boca que Dios le haya perdonado.
- (16') *Eta erabili ohi zuen hizkuntza Jainkoak barkatuko al zion.*
- (17) Defectos todos ellos que para mi desgracia hube de heredar.
- (17') *Akats hauek guztiak, nere zoritxarrerako, neri erantsi zizkidaten.*

Nolabait, aurrekoaren bide beretik doaz beste hauek ere, nahiz eta berez mendeko perpausa perpaus nagusitik bereiztuta egon, baita STan ere:

- (18) Encontradas, las páginas que a continuación transcribo, por mí y a mediados del año 39, en una farmacia de Almendralejo —donde Dios sabe qué ignoradas manos las depositaron—...
- (18') *Neronek kopiaturik, ondoren dihoazkizun orrialdeak, Almendralejoko botika batean, 39. urtearen erdia aldean aurkitutakoak dituzu, —Jainkoak daki noren esku ezezagunek bertan lagako zituzten—, ...*
- (19) De los amigos de don Jesús González de la Riva (que Dios haya perdonado, como buen seguro él me perdonó a mí) es usted el único del que guardo memoria de las señas.
- (19') *Don J.G.R. (Jainkoak barkatuko al zion, neri berak seguruki aski barkatu zidan bezala), adiskide izan zutenen artekoetan zure helbidea soilik, besterenik ez daukat gogoan.*

Erdararen erlatibizaziorako joera handia oso nabarmena da kazezaritza munduko hizkeran, oso erraza baita era honetako esaldiak aurkitzea:

- (20) El presidente González, que se encuentra estos días de visita en Washington, ha declarado su apoyo a la política exterior de los Estados Unidos.
- (21) El avión, que se disponía en esos momentos a aterrizar, fue abatido por un misil.

Bi esaldi hauetan, azalpen-erlatiboa edo erlatibo ez-murrizgarria aurkitzen dugu, eta zalantzarikoa da euskaraz egitura horretxeri eutsiz eman daitezkeela, «erlatibo erromanikoak» erabili nahi ez badira, behintzat. Hau da, ez dirudi oso onargarriak direnik erlatibo substantibatuena bidez emandako itzulpen hauek:

- (20') \* *González presidentea, egun hauetan Washingtonen bisitan dagoena, Estatu Batuen kanpo politikaren alde azaldu da.*
- (21') \* *Hegazkina, une haietan lurra hartzera zihoana, misil batek suntsitu zuen.*

Haien lekuan, beste aukera hauek daude, besteak beste:

- (20'') *González presidentea, Washingtonen egun hauetan egiten ari den bisitan, Estatu Batuen kanpo politikaren alde azaldu da.*
- (21'') *Hegazkina, lurra hartzera zihoala, misil batek suntsitu zuen.*

Baina adibideak ez dira erlatibo ez murrizgarrietara mugatzen, ondoko kasuan ikusiko dugun bezala:

- (22) Nos acaba de llegar una nota en la que se afirma que aviones de la OTAN han bombardeado algunas posiciones serbias en las cercanías de Gorazde.
- (22') *Oraintxe iritsi zaigun ohar batek dioenez, NATOren hegazkin batzuek serbiarren posizio batzuk bonbakatu dituzte Gorazdetik hurbil.*

Itzulpen honetan ikusten denez, euskaraz askoz errazagoa da esaldiaren informazio-gunea perpaus nagusi batez ematea, eta ez menpeko perpaus erlatibo batez; itzultzeko beste modu bat erlatibo apositi-boa erabiltzea izan zitekeen (22")en bezala:

- (22") *Ohar bat iritsi zaigu oraintxe, NATOren hegazkin batzuek Gorazdetik hurbil serbiarren posizio batzuk bonbakatu dituztela dioena.*

Baina bistan da tankera honetako esaldi ez oso laburrak trakets samar gertatzen direla, eta ulerpena zaildu egiten dela perpaus men-dekoaren aditza horrenbeste atzeratzeagatik.

Hortaz, itzulpegintzaren ikuspegitik, argi dago transposizioa deitzen dugun baliabidea guztiz egokia izan daitekeela erdarazko hainbat perpaus erlatibo euskaratzean, esaldi baliokideak aurkitzeko; hizkuntza beraren barruan ere egin daitezke era honetako transposizioak, adiera berbera kategoria gramatikal desberdinekin emanaz, nahiz eta, jakina, ñabardurak berdinak ez izan. Baina itzulpenetan oso gutxitan behar izaten da erabateko zehaztasuna Sorburuko Testuaren (ST) eta Xedeko Testuaren (XT) arteko itzulpenean —eta horrelakorik lortzea ezinezkoa dela dioenik ez da falta—. Horrela, lehenagoko (21) esaldia beste era honetan ere ager zitekeen:

- (21a) El avión fue abatido por un misil cuando se disponía a aterrizar.

Hau da, nolabait esan daiteke, semantikaren ikuspegitik ari garela beti ere, (21) eta (21a) esaldiak baliokideak direla eta, haruntzago joanez, (21)eko erlatibo perpausak, nolabait, denborazko adiera due-

la, eta horregatik haren ordeaz ager daitekeela denbora adierazten duen perpaus bat.

Antzeko zerbait topatzen dugu ondoko adibideetan:

- (23) He visto a un hombre que estaba llorando como una Magdalena.
- (23a) He visto a un hombre llorando como una Magdalena.
- (24) Has insultado a mi hermano, que no te ha hecho nada, porque no me podías insultar a mí.
- (24a) Has insultado a mi hermano, aunque no te ha hecho nada, porque no me podías insultar a mí.
- (25) Teníamos un criado que nos ayudaba en las labores del campo.
- (25a) Teníamos un criado para ayudarnos en las labores del campo.

Edota Enrique Aleták<sup>2</sup> jasotzen duen adibide bat ekarriz:

- (26) Los hombres que fuman en pipa parecen distinguidos.
- (26a) Los hombres parecen distinguidos si fuman en pipa.
- (26b) Los hombres parecen distinguidos cuando fuman en pipa.

Berriro diot baliokidetasun semantikoa dela esaldi hauetan aurkitzen duguna, eta ez da ahaztu behar itzultzaileok esanahiekin lan egiten dugula edo, bestela esanda, esanahia daukaten edukiak berreraiki behar ditugula, are gehiago itzulgaia testu «aginpideduna» ez denean, hau da, edukia ez ezik forma ere guztiz garrantzizkoa dutenak; eta, esan bezala, itzultzen diren testu gehienak ez dira aginpidedunak; horregatik, testu baten baliokidetasun dinamikoari begira, informazioa antolatzekeko modu desberdinak daudela kontuan izanda, itzultzaileak makina bat aukera dauka STan erlatibo baten bidez emandako informazioa beste nonbait edo beste nolabait erreproduzitzeko. Esate baterako:

---

2. Enrique Aletá Alcubierre, *Estudios sobre las oraciones de relativo*, Universidad de Zaragoza 1990.

- (27) Ayer por la mañana se produjo un robo en el Museo Guggenheim de Bilbao. Los ladrones, que robaron una escultura de Jorge Oteiza valorada en 100 millones de pesetas, se hicieron pasar por trabajadores de la limpieza.

Aurreko esaldian ematen diren datuak beste era batera antolatuz, honako itzulpena eman genezake euskaraz:

- (27') *Atzo goizean Jorge Oteitzaren eskultura bat lapurtu zuten Bilboko Guggenheim Museoan garbitzaile gisa azaldu ziren lapur batzuek. Eskulturaren ustezko balioa 100 milioikoa da.*

Zalantzarik ez dago bi esaldiek datu berberak ematen dituztela, egitura sintaktiko eta antolakera desberdinak erabili arren.

Bada, oinarri hauekin, ikus dezagun nolako baliabideak aurkitu dituzten gure corpuseko itzultzaileek; batzuk ez dira egiatan egokiak, eta ezin dira itzulpen zuzentzat ere jo, baina badira beste hainbat, benetan eredugarri direnak.

## **2. Corpusean aurkitutako prozedurak Erlatiboa ezabatuz**

### **2.1. Erlatiboaren ordeztasun aparteko esaldia**

Seguru aski gehien erabiltzen den prozedura da hau, eta erlatibo murrizgarriekin eta ez murrizgarriekin erabiltzen da. Ikus ditzagun adibide batzuk:

#### **a) Erlatibo murrizgarriak:**

- (28) En mis tiempos de la Coruña conocí y admiré mucho a un guardia municipal que se llamaba Castelo y que llevaba bordadas en la manga siete banderitas, una por cada país cuya lengua hablaba.
- (28') *Nere Coruñako garai haietan, bazen asko ezagutu eta ixtimatu ere nuen Castelo zeritzan herriko zaitzaile bat. Bere soinekoaren besagainean zazpi banderatzu bordatuak zera-matzan, zazpi herri haietako hizkuntzak hitzegiten zekizkieleko.*



- (29) ...con su campanario de piedra y su esquilón que sonaba de una manera que no podría contar, pero que se me viene a la memoria como si estuviera sonando por estas esquinas.
- (29') ...*bere harrizko kanpantorrearekin, eta bere kanpai haundiarekin; haren soinuaren berri ezin eman nezake, baina orain ere gogoan daukat bazter hauetan jotzen ari balitz bezalaxe.*

b) Erlatibo ez murrizgarriak:

- (30) Es como el aire, que, en queriendo cerrar el puño, se sale.
- (30') *Haizearen antzekoa da: harrapatu guraz ukabila itxi orduko, kanpoan da.*
- (31) Aunque el alma llegue a esta dicha unión, que es el más alto estado a que se puede llegar en esta vida...
- (31') *Nahiz eta gogo batasun honetara iritsi—bizitza honetan ezin daiteke gorago igo ere—...*

Prozedura bera den arren, adibide hauetan ondo ikusten da aukera bat baino gehiago dagoela. Horrela, (28')an puntua eta (29')an puntu eta koma, antzekoak beraz; baina (30')ean bi puntuak, eta (31')an, aldiz, marra txikia, perpausa esaldi nagusitik atereaz. Prozedura honekin, jakina, kasu guztietan, jatorrizko menpeko perpausa perpaus nagusi bilakatzen da.

## 2.2. Erlatiboaren ordezkio koordinazio kopulatiboa

Hau ere 2.1.eko prozedurarekin batera gehien erabiltzen dena da, eta ez da harritzekoa kontutan hartzen badugu gramatikalarik askoren arabera perpaus erlatiboaren sakoneko egituraren koordinazioa dagoela. Adibideak erlatibo murrizgarriekin eta ez murrizgarriekin ere aurkitzen ditugu:

a) Erlatibo murrizgarriak:

- (32) La perra tenía una sangre oscura y pegajosa que se extendía poco a poco por la tierra.
- (32') *Txakurrak odol ilun eta likia zuen eta poliki-poliki lurrean zabaldu zen.*

- (33) ...más tarde hubieron de acometerle unos tembleques que nos pusieron a todos sobre aviso.
- (33') ...*gero halako dardarizo batzuek jo zuten, eta guztiok ikaratu ginen.*

b) Erlatibo ez murrizgarriak:

- (34) En el pueblo, como es natural, había casas buenas y casas malas, que son, como pasa con todo, las que más abundan.
- (34') *Herrian, bidezko denez, etxe ederrak baziren, baita kaskarrak ere, eta hauxek ugariago, gauza guztietan izan ohi denez.*
- (35) [Esto] Se puede afirmar de ciertos liberales conservadores, en los cuales el conservador no suele ser más que la máscara o envoltura del franco demagogo.
- (35') *Esan liteke badirela honela egiten duten zenbait liberal moderatu, eta horietan nabarbenaren estalgarri edo maskara bat baino ez da moderatua.*

Oso harritzekoak ez dira azken bi kasuak, Gramatikan aspalditik esana baitago erlatibo ez murrizgarriak sakoneko koordinazio-egitura batetik eratorriak direla, baina ez da gauza bera gertatzen aurreko biekkin; izan ere, Aletári jarraituz, zalantzan jar dezakegu (32) eta (33) erlatibo murrizgarriak direla egiatan: alegia, (32)ean odol ilun eta likien multzoaren artetik ez da bereizten —eta beraz ez da inolako murrizketarik egiten— poliki-poliki lurrean zabaltzen zena, eta zentzu horretan perpaus honetako erlatiboa ezin da murrizgarria izan, espezifikatiboa izan arren. Hau da, mendeko perpaus horrek gunearen (*odola*) ezaugarri bat eransten du, nolabait gune horri bi predikatu atxikiz; horrela uler daiteke sakoneko egitura kopulatibo bat antzeman ahal izatea eta, ondorioz, euskaraz esaldi kopulatibo baten bidez itzulita agertzea. Aztertzekoa litzateke kasu hau bezalako erlatibo espezifikatibo/ez murrizgarriak noiz eta nola itzul litezkeen «hitzez hitz» —esan dezagun—, eta ez kopulazioa erabiliz. Adibidez, ikuspegi gramatikaletik kanpo, onargarria al da beste itzulpen hau?

?(32") *Txakurrak poliki-poliki lurrean zabaltzen zen odol ilun eta likia zuen.*

Eta beste hau?

?(32") *Txakurrak odol ilun eta likia zuen, poliki-poliki lurrean zabaltzen zena.*

### 2.3. Erlatiboaren ordezk koordinazio adbertsatiboa

Hortaz, menpeko perpausa koordinatu bihurtzen da, aurreko 2.2. zatian bezala, baina bi perpausen arteko lotura kopulazioa izan ordez haien arteko kontrakotasuna da, esanahiaren aldetik begiratuta. Kasu hauetan parafraasiaren esparrura sartzen ari gara, ikusiko denez.

#### a) Erlatibo murrizgarriak:

(36) ...porque otra parte hubo que al intentar contarla sentía tan grandes arcadas en el alma que prefería callármela y ahora olvidarla.

(36') *...banuen beste zati bat ere, baina kontatzen hasi orduko, halako larriak animan nabaritzen nituen, nahiago izan nuen isildu, eta orain ahaztu.*

(37) ...acababan formando como alfileritos de pus que el otoño se ocupaba de matar y el invierno de barrer.

(37') *...eta azkenez, zornezko orratz txikitxoan antzeko bihurtu, baina udazkenak hil eta neguak desegiten zizkion.*

#### b) Erlatibo ez murrizgarriak:

(38) Mi padre, que, como digo, tenía un carácter violento y autoritario para algunas cosas, era débil y pusilánime para otras.

(38') *Nere aitak, esan dudanez, gauza batzuetan izaera haserrekoia eta agintzalea zuen, baina ahula eta txepela zen bestetarako.*

(39) [El liberalismo católico] Ha tenido su época de moda y prestigio, que, gracias al cielo, va pasando o ha pasado ya.

(39') *Bere moda eta onuste-denbora izan du; baina Jaun zerukoari eskerrak, badoa, edo ia joan ere bada.*

## 2.4. Erlatiboaren ordeztalborakuntza

Hau da, perpausak inolako lokailurik gabe elkarren ondoan jarriz. Gainera, adibide hauen artean beste bereizketa bat ere egin daiteke, alboratutako esaldian aditzik erabiltzen den ala ez:

### 2.4.1. Aditzarekin

a) Erlatibo murrizgarria:

(40) Alrededor de la boca se le notaban unas cicatrices o señales [...] que según creo le había quedado de unas bubas malignas que tuviera de joven.

(40') *Ahoaren inguruan orbain edo zantzuz txiki eta gorriskak [...] ageri zitzaizkion, zornezko haunditsu batek, gaztetan, laga zizkion arrastoak, noski.*

Ikusten denez, hemen itzultzailea sinonimo batez (*arrastoak*) baliatzen da, nolabaiteko eranskina eginez STan itxuraz murrizgarria den perpaus erlatiboaren ordeztal.

b) Erlatibo ez murrizgarria:

(41) En fin: Pascual Duarte está limpio, que es lo importante.

(41') *Azkenik: Paskual Duarte garbi dago, hauxe da garrantzitsuena.*

### 2.4.2. Aditzik gabe, edo aposizioz

Kasu honetan, erlatibo ez murrizgarrien adibideak baino ez ditugu aurkitu gure corpusean. Ikusten denez, adibide guztietan kasu marka errepikatzen da aposizioko sintagman.

(42) En la plaza estaba el Ayuntamiento, que era grande y cuadrado como un cajón de tabaco.

(42') *Enparantzan, Udaletxea zegoen, haundi eta laukitua, tabakokajoiaren tankerakoa.*

(43) Había una [casa] de dos pisos, la de don Jesús, que daba gozo de verla.

- (43') *Bazen bat bi bizitzetakoa, don Jesúsena, begientzat zinetan atsegingarria.*
- (44) ...y una mesa de pino, que resultaba algo baja para las sillas, pero hacía su avío.
- (44') *...eta pinuzko mahai bat, baju samarra, beharbada, aulkien neurrirako, baina eginkizuna bete ohi zuen.*
- (45) Acerca del cuarto vicio, que es gula espiritual, hay mucho que decir.
- (45') *Laugarren pekatu-buruaz, arimaren gozozalekeriaz, zer esanik asko dago.*
- (46) Les lleva ya Dios por otro camino, que es de contemplación, diferentísimo del primero.
- (46') *Jainkoak beste bide batetik daramatza, begirada hutsezko otoitz-bidetik, lehengoaren aldean oso bestelakotik.*

## 2.5. Erlatiboaren ordeztasun kontzesiboa

- (47) Porque su sola gana y gusto es hacer lo que les mueve, todo lo cual por ventura les valiera más no hacerlo.
- (47') *Euren gogokoa dena egiteko beste gogorik ez daukatelako, ez egitea hobe luketen arren.*
- (39) [El Liberalismo católico] ha tenido su época de moda y prestigio, que, gracias al cielo, va pasando o ha pasado ya.
- (39'') *Jaungoikoari eskerrak, gaur galduaz badoa ere, eta alde-aldean galdu bada ere, bere moda izan zuen garaia bazuen.*

Topatu ditugun bi kasuak erlatibo ez murrizgarriak dira; gainera, ikus daitekeenez, (39) esaldiak bi itzulpen desberdin dauzka, bata koordinatu adbertsatibo batez (39'), eta bestea menpeko kontzesiboaz (39'') eginak: oso transposizio arrunta dugu hau.

## 2.6. Erlatiboaren ordeztasun kausala

Perpau erlatiboen artean, ezaguna denez, ez murrizgarriek halako zentzu esplikatiboa izaten dute, eta deitu ere halaxe deitzen zaie, nolabait erreferenteari buruzko azalpen bat edo bidenabarrezko zer-

tzelada bat ematen dutelako. Hortaz, lojiko da euskaraz tankera honetako erlatibo ez murrizgarriak perpaus kausalen bitartez itzuliak agertzea; baina kontua da gure corpusean erlatibo murrizgarri batzuk ere aurkitu ditugula perpaus kausalen bidez euskaratuta.

a) Erlatibo ez murrizgarria:

- (48) ...a usted quiero dirigirlo [el relato] por librarme de su compañía, que me quema sólo de pensar que haya podido escribirlo.
- (48') ...*zuri bidaltzen dizut, horrela berarengandik askaturik gelditu nadin; neuk idatzia zela pentsatze hutsak erre egiten bait ninduen.*
- (49) No martillar sobre hierro frío, que es martillar de pura broma.
- (49') *Burni hotzaren gainean mailukatzea ez, zeren hori txantxetan mailukatzea den.*

b) Erlatibo murrizgarria:

- (50) Y así hasta nuestros días; que fuera largo recorrer la historia paso por paso en comprobación de una verdad que no mereciera los honores de una seria discusión...
- (50') *Bada, egiteko luzea litzake kondairari orpoz orpo jarraitzea egia honelako bat bere oinean jartzeagatik, zerren bene-benetako jardunaldi-onorerik ez luke mereziko gai honek.*
- (51) ...y acoja este ruego de perdón que le envía, como si fuera el mismo don Jesús, su humilde servidor.
- (51') *...eta nere barkamen-erregu honi abegi ona egiozu, arren; zuri, don J. berbera bazina bezalaxe, bidaltzen bait dizu zure zerbitzari honek.*
- (52) ...llevaba bordadas en la manga siete banderitas, una por cada país cuya lengua hablaba.
- (52') *Bere soinekoaren besagainean zazpi banderatxo bordatuak zeramatzan, zazpi herri haietako hizkuntzak hitzegiten zekizkielako.*

- (53) ¿Tomais en serio eso del Liberalismo? ¿No valdría más hacer caso omiso de esa palabra que a todos nos trae divididos y enconados?
- (53') *Benetan hartzen duzu Liberalakeria kontu hori? Ez litzake hainbat hobe isilean pasatzea hitz hori, denok elkarren be-rezi eta ezinikusiz dakazgunez gero?*

Bestalde, hauen artean sartzekoak dira esaldi bukaerako *eta* batez eraikitzen diren perpaus kausalak ere. Adibide guztiak erlatibo ez murrizgarrienak dira STan. Hona hemen batzuk:

- (54) Pero dejemos que hable Pascual Duarte, que es quien tiene cosas interesantes que contarnos.
- (54') *Baina Paskual Duarteri hitzegiten laga diezaiozun, berri entzungarriak kontatu liezazkigukeena bera da eta.*
- (55) Todo lo cual es muy contrario a la caridad, que como dice San Pablo, se goza de la verdad.
- (55') *Guzti hori maitasun-legearen oso aurka doa. Paulo deunak dioenez, maitasuna egiaz pozten da eta.*
- (56) De pequeño, que es cuando más manejable resulta la voluntad de los hombres, me mandaron una corta temporada a la escuela.
- (56') *Umetan, gizonen borondatea orduan erabili errazena izaten da eta, aldi labur batean eskolara bidali ninduten.*

## 2.7. Erlatiboaren ordezkperpaus finala

- (57) En la cuadro teníamos un burrillo matalón y escurrido de carnes que nos ayudaba en la faena.
- (57') *Ikuluan bagenuen asto zahar mehe bat, gure lanetan laguntzeko.*
- (58) A cada cuestión candente [...] destinó la Providencia un hombre o muchos hombres, que como martillos de gran potencia sacudiesen de firme sobre tales errores candentes.
- (58') *Jardungai goritu bakoitzarentzat, Jainko arretatsuak bat edo asko gizon berezitu izan ditu, errore goritu haien gainean irme mailukada galantak emateko.*

## 2.8. Erlatiboaren ordeztasunaren denborazko perpausa

- (59) ¿Guerra de comedia ha de ser en que se pelee contra enemigos [...] con armas de pólvora sola y con espadas sin punta?
- (59') *Gerra-itxura bakarrik izango da [...] suhautsa besterik ez duten armekin eta puntagabeko ezpatekin peliatzen denean?*
- (60) En el tiempo, pues, de las sequedades de esta Noche sensitiva, en la cual hace Dios el trueque que habemos dicho arriba, sacando al alma de la vida del sentido a la del espíritu [...], padecen los espíritus grandes penas.
- (60') *Zentzumenaren gau honetako lehorraldian, esan dugunez, Jainkoak arima zentzumenaren bizitzatik gogo barrukora aldatzen duenean [...], jainkozaleek nahigabe handiak igarotzen dituzte.*

Azken finean, euskaraz denborazko perpausak erlatibotik eratorriak dira.

Hauen artean sartuko ditugu denbora-moduzko kutsua duten esaldiak ere, nagusiki infinitiboari -TA edo -RIK atzizkiak erantsiz eratzten direnak:

### a) Erlatibo murrizgarria:

- (61) ¿A combatir enemigos que murieron siglos hace y que como muertos y putrefactos yacen de todo el mundo olvidados en el panteón de la historia?
- (61') *Ehunka urte direla hil ziren etsaiei erasotzera hainbat, egonik haiek hil eta ustelduak bezela, mundu guziak ahaztuta, kondairaren hobitegian?*

### b) Erlatibo ez murrizgarria:

- (62) Les nace muchas veces cierto ramo de soberbia oculta, de donde vienen a tener alguna satisfacción de sus obras y de sí mismos.
- (62') *Hasi berriei haiek igarri gabe harrokeritxo sortzen zaie, euren buruari eta jardunbideari eder eritizita.*



- (63) De consiguiente, el Liberalismo, que es herejía, y las obras liberales, que son obras heréticas, son el pecado máximo que se conoce en el código de la ley cristiana.
- (63') *Beragatik, izanik herejia Liberalkeria, eta eginkizun liberalkoiak egintza liberalak, direlarik kristaulegedi-izkribuan ezagutueta paturik handi-handiena dira.*

## 2.9. Erlatiboaren orde z -ELA(RIK) atzizkiarekin erakitako mendeko perpausa

Hau da, denbora edo modua adierazten duten adizlagunak erabiliz. Aurkitu ditugun kasu guztietan perpaus erlatiboa ez murrizgarria da.

- (64) Es curioso pensar que mi padre, que a bruto y cabezón ganaban muy pocos, era a ella a la única persona que escuchaba.
- (64') *Izan ere, harritzeko gauza da, nolatan gure aitak, inor gutxi bezalako basati eta buru gogor zelarik, harixe bakarrik entzun ohi zion.*
- (65) A veces suelen tener algunos arrobamientos, en público más que en privado, a los cuales les ayuda el demonio.
- (65') *Eta inoiz kordegabe legez geldituko dira, agirian izkutuan baino gehiago, horretarako deabruak laguntzen diela.*
- (66) El Liberalismo radical tiene en torno de sí su correspondiente Semi-liberalismo, que otra cosa no es la secta católico-liberal que aquí estamos examinando.
- (66') *Liberalkeri sustraikiroak dauka bere inguruan berari dagokion Erdi-liberalkeria, beste gauzarik ez delarik hemen aztertzen ari garen seta katoliko-liberala.*

## 2.10. Erlatiboaren orde z partizipio perfektoa + Z erabiliz erakitako mendeko perpausa

Kasu honetan ere adizlagun gisa azaltzen zaigu STan erlatiboaren bidez emanda dagoen perpausa.

- (67) [Mi hermana] ... volvió a levantar el vuelo y a marcharse, esta vez camino de Almendralejo, donde paró en casa de Nieves la Madrileña.

- (67') ...*berriz alde egin zigun, baina oraingoan Almendralejora, Nieves la Madrileñaren etxean bizitzen jarritz.*

Euskaraz, era honetako prozedurak ekintzak aldi berean gertatzen direnean erabiltzen dira, baina gero eta gehiago entzuten eta ikusten dira tankera honetakoak, zeinetan adizlagun moduan ari den perpau-sak aldiberekotasuna ez, baizik eta ondokotasuna adierazten baitu. Hau da, goiko adibidean, sujetuak lehenik «etxetik aldegiten du» eta gero «jartzen da bizitzen Almendralejon»; kasu honetan, zalantzagarria da erabilera honen zehaztasuna. Ez ordea beste bi hauetan:

- (68) ...*la va Dios criando en espíritu y regalando, al modo que la amorosa madre hace al niño tierno, al cual calienta al calor de sus pechos, y con leche sabrosa y manjar blando y dulce le cría, y en sus brazos le trae y regala.*
- (68') ...*maitaro erabiltzen duela, ama maitakorrak ume txikiari egin ohi dion legez, bere besartean berotu, esne gozo eta janari samurra emanez hazi eta pozkeriak eginez.*
- (69) Sólo ponen los ojos en las veras de la perfección interior, que es dar a Dios gusto, y no a sí mismos en nada.
- (69') *Barrutik hutsik gabeak izateko arduraz baino ez dira ibiltzen, Jainkoaren gogoia eginez, eta ez euren buruarena ezertan ere.*

Lehen adibidean letra beltzez markatu dut interesatzen zaigun itzulpena, bigarren perpau erlatiboa baita hemen aztertzen dudana prozedura erabiltzen duena; izan ere, izenorde erlatiboak hasten duen perpaua aurreko perpau menderatzailearen luzapen edo azalpena da, zentzu modala duena, eta horregatik ongi itzulita dago partizipioari atzizki instrumentala erantsiz, bi ekintzak bat eta bera direlako.

## 2.11. Erlatiboaren ordezkari perpau konpletiboa

Kasu askorik aurkitu ez dugun arren, uste dut nahiko ugaria izan daitezkeela era honetako transposizioak. Zer esanik ez, era honetako kasuetan ezinbestekoa da perpau nagusiko aditza menpeko konpletiboak hartzeko gai izatea.

- (70) Después que el alma ha dado a entender [...] la fortaleza que ha de tener para vencer las tentaciones y dificultades.

- (70') *Orain arte gogoak aditzen eman du [...] nola adorez jantzi behár den, deabruaren zirikaldiak eta eragozpenak oinperatu ahal izateko.*

Hemen ikusten denez, gaztelaniaz IS(obj.) daukagu, erlatibo batez osatua.

## 2.12. Erlatiboaren orde zehargaldera

Gorago ipini ditugun adibideak dira; hona hemen berriro.

- (1) Bueno será le respondamos mostrándole el lugar más cierto donde está escondido.
- (1') *Guk erantzun geniezaioke, erakutsirik non den ziur bere Maitearen ezkutalekua.*
- (2) Gran cosa es saber el lugar donde está escondido.
- (2') *Gauza handia bait da, izan ere, non ezkutatua dagoen ziur jakitea.*
- (3) Dicho queda, ¡oh alma!, el modo que te conviene tener para hallar al Esposo en tu escondrijo.
- (3') *Esan zaizu, ba, anima, nola jokatu behar duzun zure bihotzeko ezkutuan Ezkontidea aurkitu ahal izateko.*

## 2.13. Beste prozedura batzuk

- (71) ...lo único de la casa que se podía ver era la cocina.
- (71') *Etxe osoan, benetan ikusteko moduko gauza bakarra sukaldea zen.*
- (72) A tanto llega la bajeza de nuestro espíritu, que nos hace desear nuestras miserias y fastidiar el bien incomunicable del cielo.
- (72') *Horrenbestearaino heltzen da gure grinen ziztrinkeria, geure huskeriak maite eta zeruko on berdingabeak higuin izateraino.*
- (73) Han pagado tributo a este absurdo preclaras inteligencias y honradísimos corazones, que no podemos menos de creer bien intencionados.

- (73') *Gizon txit ernai argi eta bihotz guziz prestukoak gure iritzian asmo eta intentzio zuzenaz jarraitu zaizkio dotrin moldakaitz honi.*
- (63) De consiguiente, el Liberalismo, que es herejía, y las obras liberales, que son obras heréticas, son el pecado máximo que se conoce en el código de la ley cristiana.
- (63'') *Horregatik, liberalen dotrina herejia bizia bezala, eta liberalen lan edo obrak herejiazko obra edo lanak bezala, dira kristauaren legeak debekatzen dituen pekatuen handienak.*
- (59) ¿Guerra de comedia ha de ser en que se pelee contra enemigos [...] con armas de pólvora sola?
- (59'') *Gerraren zarata izan behar da polbora hutsez kargatutako armaz [...] etsaiei erasotzea?*
- (74) Después de él no le queda ya a este error subterfugio alguno a que acogerse.
- (74') *Harrezkero, ez dauka hutsegite edo errore honek non ezkuta litekeen irrin-arterik ezer.*
- (50) Y así hasta nuestros días; que fuera largo recorrer la historia paso por paso en comprobación de una verdad que no mereciera los honores de una seria discusión...
- (50'') *Eta honela gure egunetaraino; halatan non gai honek bere ganean berariaz hitzeginaz egia hau on egiteko historiak irabiatzea mereziko ez lukeen.*

### **3. Corpusean aurkitutako prozedurak**

#### **Erlatiboari eutsiz**

Orain arteko adibideetan, nagusiki corpuseko itzultzaileek egiten dituzten transposizioak jorratu ditugu, bai eta beste prozedura batzuk ere, nolabait euskaraz erlatiboak gazteleraz baino askoz maiztasun txikiagoa duela baieztatzeraz eramaten gaituztenak. Beraz, badirudi adibide guzti hauen bistan hasierako hipotesia egiaztatu egiten dugula: alegia, euskara prozedura ugariz balia daitekeela gazteleraz edo frantsesez erlatiboan bidez adierazten den mezua antolatzeko.

Dena dela, corpuseko adibideen arteko hainbatetan erlatiboari eutsi zaio itzulpenean, eta uste dut merezi duela hauen kasuistika azter-

tzea, euskarazko erlatiboaren ezaugarri batzuk antzemateko. Izan ere, ez dirudi gaztelerazko eta euskarazko erlatiboen artean erabateko simetriarik dagoenik, eta euskarazko perpaus erlatiboek halako ezaugarri berezi batzuk dauzkatela.

### 3.1. Erlatibo murrizgarrien itzulpena

Atal honetan ez ditugu ikusiko euskarazko itzulpenean STko egi-tura berari eusten dioten erlatiboen perpausak, baizik eta nola edo halako aldaketa azaltzen dutenak. Aurkitu ditugun prozedurak honako hauek izan dira:

#### a) Erlatibo sustantibatuak erabiltzea:

- (75) ...cuestión candente en que se arriesgaba la vida.  
 (75') ..*jardungai goritua egiaz, eta bizitzaren irrixera zekarrena.*
- (76) Hay liberales que aceptan los principios pero rehuyen las consecuencias.  
 (76') *Badira liberalak hasikizunak betetzen dituztenak, baina ondorenak nahi ez dituztenak.*
- (77) De aquí que no haya liberal para quien su vecino más avanzado no sea un brutal demagogo...  
 (77') *Hemendik ez egotea liberalik, nork bere auzoko liberal handiena [...] liberalen legearen etsai amorratutzat edukiko ez duenik.*

#### b) Galdetzailea erlatibo moduan erabiltzea:

Hau da, «erlatibo erromanikoa» deitzen dena; berez, prozedura hau erlatibo ez murrizgarriekin erabili ohi da euskaraz, eta, egia esan, ez dirudi beste erabilera hau oso zuzena denik; baina, halere, adibide bakan batzuk topatu ditugu, *Liberalkeria pecatuba da* liburuan, eta merezi du horiei buruzko iruzkintxo bat egiteak. Begira, esaterako, nola itzuli duen beste itzultzaile honek lehenagoko (77) esaldia:

- (77") *Hemendik ez izatea liberalik, zeinentzat bere auzoko aurre-rakoiena uri agintzazale aberekoi bat ez denik.*

Ezin esan daiteke oso itzulpen eredugarria denik, baina ondo erakusten digu gaztelerazko I + preposizioa + P(erl.) tankerako sintagmen itzulpena nahasgarri samarra gertatzen dela hitzez hitz bihurtu nahi denean, sintagma sinpleagoen itzulpena baino dexente nahasgarriagoa, bistan denez. Antzekoa gertatzen da beste adibide honetan, zeinetan preposizioaren ordez adberbioa baitago:

- (78) ¿O a tratar en serio [...] asuntos de hoy, es verdad, pero acerca de los que no hay opinión discordante ni hostilidad alguna contra los santos fueros de la verdad?
- (78') *Edo seriotasun [...] haundiz eguneko esangaiak tratatzera egiaz, baina zeinen gainean egiaren berekoi santuen kontra iritzi-oker eta etsaitasunik ez den ezer aurkitzen?*

Harrigarriagoa dirudi beste honek:

- (79) ¿De qué depende esta mayor o menor acentuación? De ciertos lastres de educación que impiden a unos tomar el paso precipitado que toman otros.
- (79') *Nondik dator gutxiago edo gehiago markatze hau? Hazierako lastre-motaetatik, zeinak eragozten dien batzuei hartzea besteek hartzen duten pauso azkarregia.*

Begiratu nola agertzen den beste itzulpenean (*Liberalen dotriña pecatu da*):

- (79'') *Beste batzuek emango lituzketen pauso urduriak ematetik atzera erazitzen dituen txikitako haziera onetik.*

### 3.2. Erlatibo ez murrizgarrien itzulpena

Atal honetan ez ditugu ikertuko galdetzaile bidez eraikitako erlatiboekin itzultzen diren perpaus ez murrizgarriak, berez prozedura automatikoa baita; aldiz, badira beste zenbait ikergai askoz ere intergarriagoak gure asmoari begira. Jakina, ezin esan liteke oso itzulpen txukunak aurkitu ditugunik beti, askotan erlatibo murrizgarrien bitartez itzuliak ikusten baititugu, honako hauetan bezala:

a) Erlatibo murrizgarrien bidez:

- (80) Dedicó esta edición a mis enemigos, que tanto me han ayudado en mi carrera.

- (80') *Argitaraldi hau nere bizibidean hainbat lagundu didaten nere arerioei eskaintzen diet.*
- (81) Cualquier motivo, por pequeño que fuese, bastaba para desencadenar la tormenta, que se prolongaba después días y días sin que se le viese fin.
- (81') *Aitzakiarik txikiena nahikoa izaten zuten ekaitza sortzeko, gero egunetan eta egunetan iraun ohi zuen ekaitzari bukaerarik ikusten ez zitziola.*

Azken adibide honetan, ikusten denez, erreferentea errepikatzen da, nahiko itzulpen traketsen. Hona hemen beste adibide batzuk:

- (82) La cual contemplación, que es oculta y secreta para el mismo que la tiene [...], da al alma inclinación y gana de estarse a solas y en quietud.
- (82') *Eta norberarentzat ere gordea eta ezkutua den otoitz horrek [...], bakardadean eta geldi egoteko joera eta gogoa ematen dizkio arimari.*
- (83) A Atanasio le valió [...] excomuniones de falsos concilios la cuestión candentísima del Arrianismo, que en sus días tuvo en conflagración a todo el orbe.
- (83') *...batzarre gezurtien eskumikatzeak balio izan zion Atanasiori bere egunetan mundu osoa su-ta-kixkaltzen euki zuen Arrianokeriaren jardungai txit gorituak.*
- (83'') *...San Atanasiori bere egunetan mundu guzira irabiatua zera-bilen Arrioren dotriña galdu galgarriaren kontra irtetea...*
- (84) Y en radical oposición y lucha con la sociedad de los hijos de Dios, que es la Iglesia de Jesucristo.
- (84') *Eta Jesukristoren Eleiza den Jainkoaren semeen lagundiarekin sustraikiro kontrara eta despitan dagoena.*
- (85) Deparó Dios a su Iglesia el Pontífice Pío IX, el cual con toda razón pasará a la historia con el dictado de «azote del Liberalismo».

- (85') *Arrazoi handiaz «dotrina liberalaren azote gogorraren» ize-naz historiara igaroko den Pio IX. Jaungoikoak bere Elizari eman zion.*
- (86) En su Encíclica *Humanus genus*, que tanto ha dado y da, y dará que hablar.
- (86') *...hizketarako hainbeste gai eman duen, ematen duen eta emango duen Humanus genus deritzan argibidean.*

Azken adibide hauek, ordea, desberdinak dira; izan ere, STan mendeko perpausak izen berezi bat dauka erreferente —(84) izan ezik—, hau da, berez murriztua dagoen erreferentea. Tankera hone-tako esaldiak askotan erabiltzen dira euskaraz, eta zaila da esatea gaizki eratuta daudela. Hortaz, gaztelaniak ez bezala, badirudi eus-karak onartzen dituela izen bereziei eta ongi murriztuta ematen diren erreferenteei formaz murrizgarriak diren perpaus erlatiboak erans-tea, nolabait komunikazio-ekintzako bi partaideek erreferente hori identifikatuta daukatela ulertuta.

#### b) Erlatibo sustantibatuen bidez:

Ondoko adibideak aurrekoen antzekoak dira, baina itzultzaileak emandako irtenbidea desberdina da:

- (87) A la memoria del insigne patricio don Jesús Gonzalez de la Riva, Conde de Torremejía, quien al irlo a rematar el autor de este escrito, le llamó Pascualillo y sonreía.
- (87') *Jaun handiki eta aipagarri don Jesús González de la Riva, Torremejíako kondeari, eskribu honen egileak erahil zuenean, Paskualtxo deitu eta irribarre egin zionari, oroigarritzat.*
- (88) ...la señora Engracia, que tantas veces fuera nuestra provi-dencia, hubo de tirárselo [un diente] con un cordel para ver de que no se clavara en la lengua.
- (88') *...andre Engrazik —hainbat aldiz laguntzaile izan zitzaigu-nak—, listaia batekin lotuta tiraka kendu behar izan zion, mingaina zula ez zekion.*

Beraz, hemen ikusten dugunez, erlatibo sustantibatua STko erla-tibo murrizgarriekin nahiz ez murrizgarriekin erabiltzen da, berez,



formaz alegia, murrizgarria izan arren. Baina, esan al daiteke ongi erabilia dagoenik aurrekoak bezalakoetan?

Ikus ditzagun beste adibide batzuk:

- (89) Y oféndense con la cruz, en que están los deleites del espíritu.
- (89') *Eta gurutzeak, arimarentzako egiatzko atsegina dakartenak, gogaikarri zaizkie.*
- (90) ...para que, pasando por aquí, lleguen al estado de los perfectos, que es el de la divina unión del alma con Dios.
- (90') *...handik aurrera jainkotiar osoen egoerara, arimak Jainkoagaz bat egiten direnekora heldu daitezen.*
- (91) Porque se purifica el alma y limpia de las imperfecciones que se le pegaban por medio de los apetitos y aficiones, que de suyo embotan y ofuscan el alma.
- (91') *Zeharo garbitzen dizkiolako bere grinen eta zaletasunen eraginez eransten zaizkion akatsak, arima sortu eta ilundu egiten zizkienak.*

Adibide guzti hauetan ikusten denez, erlatibo sustantibatua erabiltzen denean, itzultzaile guztiak eransten dizkiote erreferentearen atzizki berberak; kontutan hartzekoa da hau, gaur egun askotxo ari baita sartzen atzizkiak ez errepikatzeke joera, ondoko adibidean bezala.

- (92) *Lehenengo aldiz entzun zuen europar adituen lanen berri, dokumentu haiekin eta beste ehunen laguntzaz budismoaren ehun Leku Sakratuak aurkitu zituztenak. (Kim, Rudyard Kipling)*
- (93) *Bitartean kapitainak, bularraldea eta poltsikoak puztu-puztu eginda ikusi nuena, denetariko trasteriak atereak zituen argitara. (Altxor uhartea, R.L. Stevenson)*

#### 4. Konklusioak

Euskaraz, -EN atzizkiak eraikitzen diren erlatiboek ez daukate forma hutsez erlatibo murrizgarrien eta ez murrizgarrien artean bereizteko modurik, eta zerbait izatekotan, erlatibo murrizgarriak dira

forma sustantibatuarekin ematen direnak. Hau da, ondoko bi esaldiek adiera berbera dute:

(94) *Nire lagunek Zarautzen erosi zuten etxea saldu nahi dute.*

(95) *Nire lagunek etxea, Zarautzen erosi zutena, saldu nahi dute.*

Izan ere, (95)ren itzulpena, gazteleraz, honako hau da:

(95') *Mis amigos quieren vender su casa, la que compraron en Zarautz. Eta ez:*

(95'') *Mis amigos quieren vender su casa, que compraron en Zarautz.*

Hortaz, forma sustantibatuak erlatibo ez murrizgarrien funtzioa betetzeko erabiltzen badira ere, egia da era horretako erlatiboak zuzen egiteko modu bakarra ZEIN motako galdetzaileak erabiltzea dela, hots «erlatibo erromanikoen» tankeraz eraikitzen direnak. Jakina da era horretako erlatiboak oso arbuatuta egon direla gure azken mende honetako euskalari askoren artean, baina, Villasantek<sup>3</sup> dioenez, behar-beharrezkoak dira euskara kultur hizkuntza bihurtzeko, itzulpenen bitartez hain zuzen. Argi utzi behar da, gainera, Hegoaldeko idazleek erreparorik gabe erabiltzen zituztela ZEIN moduko erlatiboak, bai jatorrizko testuak idaztean, bai eta euskarara itzultzean ere; horien adibide dira *El liberalismo es pecado* liburuaren bi euskal itzulpenak; honen haritik, esatekoa da corpuserako erabili ditugun gaine-rako testuetan ez dugula horrelako prozedurarik aurkitu, itzultzaileek jakinaren gainean baztertu dituztelako.

Orduan, premisa edo abiapuntu honekin, ezinbestekoa zen honako galdera egitea: nola moldatzen gara euskaldunok erdarazko bi erlatibo moeten bidez ematen ditugun mezuak euskaraz emateko? Erantzun bat behintzat eman dudalakoan nago; alegia, beste prozedura batzuk erabiliz: batzuetan esaldiak zatikatuz, edo koordinatuz, edo alboratuz; beste batzuetan, aldiz, bestelako prozedura sintaktikoak erabiliz, edota mezua beste era batera antolatuz. Zentzu horretan, lan

---

3. Villasante, Luis; *Sintaxis de la oración compuesta*, 88. orria.

honen hasieran erreproduzitu dugun Lafitteren baieztapena egiaztatu dela esango nuke.

Esandakoa nahiko garbi dago STko erlatibo ez murrizgarriekin, baina, ikusi dugunez, murrizgarriekin ere antzerakoa gertatzen da. Hortaz, badirudi esan dezakegula perpaus erlatiboak askoz maiztasun txikiagoz azaltzen direla euskaraz. Bestalde, ez dago hain garbi euskaraz -EN atzizkiaz eratzen diren perpaus erlatiboak beti murrizgarriak direla; ez behintzat erreferentea berez murrizta denean, hau da, komunikazio-ekintzako partaide guztientzat ezaguna eta zehatza. Esaterako:

(96) *Egino herritik hurbil dagoen La Leze izeneko leizezuloa.*

(97) *Dexente erretzen duen aita bat daukat.*

Hauen antzekoa da lehenago eman dugun adibide bat:

(32) La perra tenía una sangre oscura y pegajosa que se extendía poco a poco por la tierra.

(32') *Txakurrak odol ilun eta likia zuen eta poliki-poliki lurrean zabaldu zen.*

Beste alde batetik, azken esaldiak erakusten digunez, corpuseko itzultzaileek bi perpaus erlatibo dauzkaten STko esaldiak banatzeko joera erakusten dute; hau da, ez dituzte erabiltzen -EN + *eta* + -EN + I tankerako sintagmak, (61) esaldian ere ikus dezakegun bezala.

## 5. Aposizioen itzulpena

Ez nuke erlatiboari buruzko ikerlantxo hau amaitu nahi, berarekin oso loturik dagoen beste prozedura sintaktiko batekin gertatzen dena jorratu gabe: aposizioarekin, alegia. Izan ere, aposizioak erlatibo ez murrizgarriek bezalatsuko arazoak jartzen dizkigute itzultzaileoi, eta horregatik uste dut merezi duela gure corpuseko adibide batzuk hartu eta haietan nolako irtenbideak eman diren aztertzeak.

Euskaraz, tankera honetako esaldiek egiturazko arazoekin egiten dute topo, eta hortik dator itzultzeko zailtasuna, hitzez hitz itzultze-

ko, alegia. Izan ere, gazteleraz aposizioan eransten den sintagma bere erreferentearen ondo-ondoan kokatzen da, baina euskaraz, gehiengotan, elkarrengandik nahiko urrun gertatuko dira; ikus, esaterako (106) esaldian gertatzen dena. Horregatik, euskaraz errazago zaigu beste prozedura batzuk erabitzea, eta horietako batzuk nahi izan ditut idazlan honetan agertu. Hona hemen.

## **5.1. Aposizioa itzultzeko prozedurak**

### **5.1.1. Aposizioa bere hartan utzi**

a) Izen bereziekin:

- (98) Y Agustín, gran adalid de las cuestiones candentes de su siglo, ¿acaso les tuvo miedo...?
- (98') *Eta bere ehunkidako jardungai goritu guzien buruzai Agustín haundia [bildurtu zuten]...*
- (99) San Agustín, citado por Santo Tomás, hablando del pecado contra la fe, dice...
- (99') *San Agustín, Santo Tomasengandik aitatuak, fedearen kontrako pekatuaz hitzegitean, dio...*

Bi jokamolde desberdin topatzen ditugu, beraz, eta itzultzaile berarengan gainera; lehenengoan, STko aposizioa XTan izenaren aurre-aurrean jarria dago, inolako aditz-lokailurik gabe. Bigarrenean, ordea, aposizioa izenaren atzean doa eta, ikusten denez, ergatibo-atzizkia aposizioan dagoen osagaien bakarrik agertzen da, ez bere erreferentean.

Bestalde, badago itzultzeko beste modu bat: aposizioa izenaren atzean uztea, baina bietan erantsiz dagokion atzizkia. Ikus dezagun:

- (100) Más claro lo dejó dicho en su *Filotea*, libro tan precioso como popular.
- (100') *Oraindik argiroago eskribitua utzi zuen bere Filotean, liburu hain preziotsu nola jendearen gogokoa.*
- (101) Me lo remite todo ello don David Freire Angulo, actual capellán de la cárcel de Badajoz.

- (101') *Hori guztia don David Freire Angulok, Badajozeko kartzelako oraingo kapeilauak bidaltzen dit.*

b) Izen arruntekin:

- (102) Verdaderamente, al emplearos en combatir ese insidioso error, tanto más peligroso que una enemistad declarada cuanto más se encubre bajo el especioso velo del celo y caridad...
- (102') *Egiaz, ari zaretela gerra egiten hutsegite engainatzaile horri, hainbat eta etsaitasun klaru bat baino peril gehiagokoa, zenbat eta ezkutuago dagoen zelo eta karidadearen itzalpe itxura ederrekoan...*

Kasu hau berezi samarra da bildu dugun corpusaren barruan, bera baita aposizioan jarritako esaldian erreferentearen atzizkia errepikatzen ez den adibide bakarra. Horregatik, ezin esan nezake itzultzaileak horretarako joera duenik. Topatu ditugun beste adibideetan, joera atzizkia errepikatzekoa izaten da, ondoko honetan bezala:

- (103) ...y su mata de pelo, cogida en una gruesa trenza bajo la cabeza, tal sensación daba de poderío que...
- (103') *...eta bere ile mototxak, buru azpian xorta lodi batean bilduak, halako indar kutsua eman ohi zion...*

### 5.1.2. Aposizioaren ordeztasun erlatiboa

Hemen, bi joera aurkitzen ditugu: batetik, izenaren ezkerretara eraikitzen den erlatibo ohizkoa erabiltzea; eta, bestetik, erlatibo substantibatua erabiltzea.

Lehendabizikoan artean honako adibide hauek daude:

- (104) Es el mundo de Luzbel, disfrazado hoy en día con aquel nombre...
- (104') *Gaurkoan izen harekin ederestalia dagoen Luzbelen mundua da.*
- (105) Vivía en el cerro con su tía, la señora Engracia, hermanastra de su difunto padre.
- (105') *Muinoan, nere aita zenaren arrebaordeko zen izeba Andre Engrazirekin bizi zen.*

- (106) A no ser que todos los hombres de todas las naciones de Europa y América, regiones principalmente infestadas de esta epidemia, hayan convenido en engañarnos y en hacer del engañado...
- (106') *Izurri heriozko honek beste guziak baino biziroago lardastu dituen Europako eta Amerikako erri eta erreinu guzietan, gizon guziok geroñ buruak engainatzeko edo engainatutzat idukitzeko elkar hartu ez badugu behintzat...*

Eta multzo honen barruan, beste azpimultzo bat egin genezake, mendeko perpausari sustantibo bat erantsiz pausarik gabeko aposizioa egiten dutenekin:

- (98) Y Agustín, gran adalid de las cuestiones candentes de su siglo, ¿acaso les tuvo miedo...?
- (98") *Eta bere gizaldian zabalduak zebiltzan dotrina gaizto guzien kontra bihotz hain handiaz irten zen maisu handi Agustín beharbada beldur izan zitzairen...?*
- (100) Más claro lo dejó dicho en su *Filotea*, libro tan precioso como popular.
- (100") *Hain erlijiozko eta herrikoia den bere liburu Filotean klaruago esana utzi zuen.*

Aldiz, erlatibo sustantibatua edo apositiboa erabiltzen dutenak hauek dira:

- (107) Pero pudieran ponerla en la resbaladiza senda del error esas opiniones llamadas liberales, aceptas a muchos católicos, **por otra parte hombres de bien y piadosos.**
- (107') *Hutsegitearen bide labainean jarriak izan litezke iritzikizun liberalak deitzen direnengandik, zeinak beretzen dituen asko katoliko, bestetik gizon prestu eta jainkotiak diradenak.*
- (108) Uno de ellos —Ángel Estévez, de nombre— se ofreció a albergarme en su casa.
- (108') *Haietako batek —Ángel Estévez zeritzanak— bere etxean hartuko ninduela hitz eman zidan.*

Kasu hauek lehenagoko 3.2 atalean aurkitu ditugun adibideen tankera beretsukoak dira.

### 5.1.3. Aposizioaren ordeztu izenlaguna

Hemengo adibideak, nolabait, aurrekoen antzera egiten du, hau da, STan aposizio moduan emanda zegoen sintagma izenari zuzenean atxikia agertzen da, baina ez P(erl.) baten bidez, aurrekoetan bezala, izenlagun moduan baizik:

- (109) La escopeta, de un solo caño, se dejaba acariciar.  
 (109') *Kainoi bateko eskupetak eskuz leunki ikuitzen lagatzen zidan.*

### 5.1.4. Aposizioaren ordeztu aparteko esaldia

- (106) A no ser que todos los hombres de todas las naciones de Europa y América, regiones principalmente infestadas de esta epidemia, hayan convenido en engañarnos y en hacer del engañado...  
 (106'') *Non eta Europa eta Ameriketar dierrietako gizon guziok (bada lurbira horiek batez ere izurri honek joak dauzkazu) elkar hartu ez garen, elkar engainatzeko eta engainatuztat edukitzeko...*  
 (110) A Arnaldo de Brescia (gran agitador liberal de su siglo) le llama con todas las letras [...] lobo cruel.  
 (110') *Bresciako Arnaldori (hau bere gizaldiko liberal nazkarria zen) letra guziaz [...] otso odolzalea deitzen dio.*

### 5.1.5. Aposizioaren ordeztu perifrasi

Perifrasien barruan bi adibide topatu ditugu, nahiko desberdinak, ikusiko denez; lehendabizikoan, sujetu aldaketa dago, beharbada eztabaidagarria den moduan. Bigarrean, aldiz, nominalizazioa aurkitzen dugu, lehenago bestela itzulita ikusi dugularik.

- (99) San Agustín, citado por Santo Tomás, dice...  
 (99'') *Santo Tomasek, san Agustinen ahoz, dió...*  
 (111) Entonces el pecado contra la fe, de suyo gravísimo, adquiere una gravedad mayor...  
 (111') *Orduan fedearen kontrako pekatuak, txit berez astuna izateaz gainera, pisutasuna hartzen du.*

## 5.2. Konklusioak

Beraz, hona ekarri ditugun adibideen argitan, badirudi esan daitekeela euskaraz gaztelaniazko aposizioak ere sinplifikatzeko joera nabarmena dagoela, berez gure hizkuntzan era horretako egiturak eraikitzeke dauden arazo formalengatik. Itzulpenetan, bai behintzat hitzez hitz erreproduzitu nahi badugu STko esaldia, arazo hauek txikiagoak izaten dira aposizioan jarri nahi den sintagma eta bere erreferentea nominatiboan badaude, eta horietan askotan ikusten da STko esaldiaren egitura bera errepikatzen dela euskarazko itzulpenean. Bestela, batzuetan itzuli beharreko esaldiak aukera ematen du bere egituran aldaketa txiki bat eginez beste edozein kasutan dagoen osagaia kasu nominatiboz emateko, ondoko adibide honetan bezala:

(112) *Asistía a mi madre una mujer del pueblo, la señora Engracia, la del Cerro, especialista en duelos...*

(112') *Nere amari laguntzen ziona herriko emakume bat zen, andre Engrazi, Cerrokoarena, dolu gaietan jakituna...*

Honelako irtenbideak ezinezkoak direnean, esaldiak nominatiboa ez den beste atzizkiren bat hartu behar duen neurrian arazoak ugalitzen hasten dira; arazo horien aurrean, gaur egun, indarra hartzen ari da corpus honetan atzeman dugun prozedura bat, (102)koa alegia: hots, aposizioa bere hartan uztea, baina atzizkia ezabatuz edo, beste la esanda, aposizioko sintagma nominatiboan jarriz, (92) eta (93) esaldietan P(erl.)ekin ere gertatzen dela ikusi dugun bezala. Hona hemen adibide batzuk, *Altxor uhartea* liburutik hartuak:

(113) *...eta hura guztia luzeraka sei oin bazituen oholesi batekin osatzen zen, batere ate nahiz irekidurarik gabekoa...*

(114) *Muinoaren maldatik, harritsua eta malkartsua tarte hartan...*

Gure corpusean egiaztatu dugunaren argitan, ordea, euskaratu behar den esaldiak nominatibo edo ergatibo atzizkia hartu behar duenean, itzultzaileek ez dute egitura horrexeri eusteko arazo gehiegirik izaten, nahiz eta beti horrela ez itzuli, ikusi dugun bezala; aldiz, bestelako atzizkiak erantsi behar direnean, aposizioa hautsi nahiago



izaten dute, bai esaldia bere katetik atereaz (hots, parentesia edo marratxoak erabiliz), bai erlatibo murriztaile moduan txertatuz.

## LABURPENA

### Erdarazko erlatiboen itzulpenaz

Lan honetan joan den mendeko eta mende honetako itzultzaile batzuen lanetatik ateratako corpus bat osatu da, esaldi erlatiboak nola itzuliak izan diren aztertzeko. Izan ere, Lafitteren baieztapen bati jarraituz, euskarak ez du inguruko erdarek adina erabiltzen erlatiboen prozedura, eta, beraz, erdarazko erlatiboen itzulpena beste baliabide batzuen bitartez egin behar da. Corpus honetan, beraz, hainbat prozedura aurkitu dira, gure gaurko lanerako guztiz erabilgarri izan daitezkeenak, nahiz eta itzulpen ezegokiak egon ere badauden. Hortaz, azterketa konparatista bat egin da, hizkuntza bakoitzaren joerak argitzeko. Bukaeran, aposizioei buruzko zati laburtxoago bat ere badago.

## RESUMEN

### La traducción del relativo en castellano

En este artículo se analiza la traducción al euskara de las frases de relativo, partiendo de un *corpus* obtenido de las traducciones realizadas por algunos traductores del siglo pasado y del presente. El punto de partida es la afirmación de Lafitte según la cual la lengua vasca no utiliza el relativo en la misma medida que las lenguas romances de su entorno, sino que se vale de otros procedimientos gramaticales. El objetivo de este trabajo es, pues, poner de manifiesto algunos de esos procedimientos a partir de un análisis comparatista de las tendencias del euskara y del castellano. En la parte final, el trabajo se completa con un análisis más breve de la oposición.

## SUMMARY

### Translation of relative clauses to Basque

This article analyzes the translation of relative clauses to Basque, starting from a compiled *corpus* of present-day translations and translations from last century. The starting point is a statement by Lafitte according to whom the Basque language does not use relative clauses in the same way as the surrounding romance languages, and prefers to use other grammatical procedures. The objective of this paper is to exhibit some of these procedures by means of a comparative analysis of trends in Basque and Castilian Spanish. The report ends with a brief analysis of opposing theories.

## RESUME

### **La traduction en euskara des phrases relatives**

Il s'agit d'une analyse de la traduction en euskara des phrases comportant des relatives, à partir d'un corpus de traductions effectuées par des traducteurs du siècle passé et actuels. L'affirmation de Lafitte selon laquelle la langue basque n'utilise pas la relative dans la même mesure que les langues romanes qui l'entourent, mais la remplace par d'autres procédés grammaticaux constitue le point de départ de cet article. L'objectif est de mettre en lumière ces procédés au moyen d'une analyse comparative des tendances de l'euskara et du castillan. Enfin, ce travail est complété par une brève analyse de l'opposition.

## **Iruñeko elizbarrutiko izkribu baten itzulpena Luzaideko mintzairan**

Jose M. Satrustegi

Erljio gaien itzulpena mendez mende euskaldun herrietako apai-  
zek egin behar izan duten berezko lana da. Iruñeko apezpikuengan-  
dik erdara batuan jasotako adierazpen, agindu eta artzai-gidako izkri-  
buak irenkor bihurtu behar ziren euskaldunentzat eta bertakoen  
mintzairan ematea zen bide bakarra. Behin eta berriz agertzen da  
edozein parrokitako liburutañ halako edo holako adierazpen euska-  
raz emana izan zelako oharra. Apezpikuak berak agintzen du askotan  
elizarrei euren hizkuntzan azalpena egitea.

Lan astun hau behin-behinekoa izaten zen, eta suntsikorra eskuar-  
teko zirriborroa. Horregatik da hain urria itzulpenen kopurua.

Gutxitan bada ere, garrantzi handikotzat emandako izkriburen bat  
edo beste urtero errepikatu behar izaten zen, hala nola 1750ean G.  
Miranda eta Argaiz Iruñeko apezpikuak dantzei buruz emandako  
debeku ezagun hura. Parrokia askotako liburuetan hitzez hitz idatzi-  
rik ikus daiteke oso-osorik, erdaraz noski.

Salbuespen moduan elizako liburueta euskaraz aldatu zuenik ere bada, noski, eta bitxitzat har daiteke horrelako aurkipeen bakoi-tza<sup>1</sup>.

Azken urteotan, bestalde, han-hemenka agertu dira beste zenbait itzulpen ere. Horietako baten berri eman nahi dugu lan honetan. José Oliver eta Hurtado Iruñeko apezpikuak 1881eko garizuma aurean bekatariaren bihotz berritzeari buruz emandako izkribua da. Itzulpe-naren egilea Nikolas Polit, Auritz-Burgueteko semea zen, 1834. urte inguruan sortua. Iruñeko Seminarioan ikasketak egin eta apaiztu or-duko Luzaidera bidali zuten nagusiek.

Bazuen beste anaia bat, Franzisko, Orreagan priore zena, eta Iru-ñeko katedralera joan zelarik bertako kalonje, 1887an, Nikolas izan zen Orreagakoen buru izendatua. Aipagarria da han egin zuen lana<sup>2</sup>.

Orreaga gudamutilen esku egon ondoren itzuli berriak ziren eta komentu zaharra egokitu behar izan zuen. Liburutegia dagoen alder-dia bere denboran egina da. Urak ekarri zituen herrira eta zerbitza-rien etxe berriak egin zituen.

- 
1. Irigaray, A., «Una pastoral contra bailes» Extraordinario de *El Bidasoa*, Irún 1960. (Baztán-Elbeteko parrokiaren aurkitua).

Satrustegi, J.M., «El edicto eclesiástico de 1750 en versión vasca de la Cuenca de Pamplona». ASJU XVIII, 1984 p. 41. (Ezkabarteko Orrion egina). Ikus: *Euskal Testu Zaharrak I*, 1987, 80 or.

Satrustegi, J.M., *Euskaldunen seksu bideak* 1975, 29. orrian jasotako atalak.

2. «El Prior, señor Polit, eclesiástico de grandes iniciativas y mayores energías para llevarlas a la realidad, emprendió con los escasos recursos que por entonces podía contar, una serie de obras, que ellas solas, si no hiciera más, bastaban para inmortalizarle, y para compararle con los priores más ilustres de Roncesvalles.

Todas ellas, sin embargo, las llevó a efecto, multiplicándose en sus manos el dinero, como el pan y los peces en las de Nuestro Señor Jesucristo».

(Javier Ibarra, *Historia de Roncesvalles*, p. 962)

San Agustinen eliza berrantolatu eta, 1622an lurperatua izan zen 1234ko Antso Azkarraren harrizko hilobia atera zuen, bertan ezarriz.

Komentuko bizimodua bideratu zuen, batez ere, Erregela berriak ipiniz.

Jaun ospetsu honen altzari eta puskak Orreagako gela zahar batean egon ziren oso berandu arte zokoraturik, eta egoitza berriztatu behar izan zelarik kanpora atera eta dena erre beharrean, paper zahar eta liburuak jaso egin zituzten.

Bazen izkribu zaharren artean euskarazkoen bilduma bat, eta arduradunek niri oparitu zidaten. Orohar, 334 orrialdeko kopurua osatzen dute 71 gai desberdinetako lanek. Bi heren, Polit jaunak berak idatzitakoak dira, eta gainerakoak egile askorenak. Bada, adibidez, Lizarraga Elkanokoaren prediku bat<sup>3</sup>, eta Zaraitzuko bizpalau sermoi<sup>4</sup>.

Nikolas Polit apaizak egindako bost atal argitaratuak ditut, duela zenbait urte<sup>5</sup>, eta bere idazkerari buruz egin nituen zenbait ohar beste lantxo batean<sup>6</sup>.

Edozein modutan ere, materiale hauen parterik handiena argitara gabe dago, eta honako hau da plazaratzen den lehenengo itzulpena.

Garbi dago, noski, parrokiako biztanleen arduraduna dela, eta ez itzulpen ofizialetako langile zindua. Mezuaren argitasunak kezkatzen du, ez ereduaren hitzez hitzeko ardatz idatziak. Izan ere, ikasgaiaren ildotik baztertu gabe, itzulpen txukun eta herrikoia lortzen

3. Ikus: «Nuevo documento no catalogado de Joaquin Lizarraga sobre los bailes» FLV 23, 1976, p. 205.
4. Ikus: «Textos salacencos del año 1780» *Symbolae L. Michelena*, 1985, p. 1023-1043.
5. Ikus: «Textos dialectales de documentos religiosos vascos. 3 Luzaide-Valcarlos» FLV 49, 1987, p.97-115.
6. Ikus: «Luzaideko euskara Nikolas Polit zenaren izkribuetan» ASJU XX-3, 1986, p. 787.

du, bertako eliztar guziek neke eta eragozpen handirik gabe uler dezaketena.

Luzaideko mintzairaren lekukorik egokiena izan daiteke auriztar honen euskara.

Ulegarritasunaren bidetik, kupidarik gabe baztertzen ditu hots handiko aipamen eta ohizko izenburu ohoragarri mezuarekin lotura erlijiosorik ez dutenak. Izenburuko lehen agurrean ikusten da garbi. Erdarazko testuak honela dio:

«Nos el Dr. D. José Oliver y Hurtado, por la gracia de Dios y de la Santa Sede Apostólica, Obispo de Pamplona, Académico de la Real de la Historia, etc. Al venerable Deán y Cabildo de nuestra Santa Iglesia Catedral, al clero y fieles de nuestra diócesis, salud en el Señor».

Duintasunez jantzitako aurkezpen borobila ez zaio beharrezkoa iduritu herriak ikasi behar duen dotrina mailan, hain zuzen ere Luzaideko biztanleek ez dakitelako Dean jauna bezalakoen aipamenak zertarako diren, eta historia kontuan bakoitzak berea bizi duelako. Eta delako «Santa Sede Apostolica» esaeraren kasuan, frantses eskolatan ibili zirenek, eskolarik baldin bazuten, nahiz Espainiako maisuekin eskolatuek, hobeki uler zezaketen *Erromako Aita Saindua*, hitz arruntekin esanez. Honela itzuli zuen berak:

«D. Jose Oliver eta Hurtako Yaincoaren eta Erromaco Aita Sainduaren graziaz Iruñeko Apezpicua. Gure Catedrale Sainduco Cabildoari, gure Diocesaco Cleroari eta guiristino fidel gucier, gracia eta benedictionea Yaincoaren baitan.»

Atzetik datorren Liburu Sanduetako atala ere baztertu egiten du, latinez nahiz euskaraz.

Gaztelerak zuen une hartako janzkera eta apainketa oparoari uko eginez, itzultzaileak mezua bereizten du bere gordintasun mamitsuan adierazteko. Esames asko ez ditu jasotzen, beraz. Adibidez, hara nola jokatzen duen atal honetan:

«En lugar de aprovechar los ofrecimientos de la misericordia divina, **expléndidos siempre pero mucho más en el santo tiempo en que entramos**, se endurece en su pecado».

Lehen hitzak azkenekoekin lotuz, honela esaten die bere herritarrei apezpikuaren ikasgai nagusia:

«... eta Yaincoaren misericordiaz profitatu behar videan vere beca-tuan gogortzen denak, ...» (20. lerroan)

Era berean, bikoiztasunak murrizten ditu, adibiderik ezagunena-rekin geldituz. Aurreko pasartearen jarraipenean ikus daiteke:

«... nos aflige como nos afligiría un esclavo que remachase sus **cadena**s, como nos afligiría un náufrago que a la vista del puerto rechazase la única tabla de salvación, que podría librarle de la muerte».

Euskarazko testuak honela dio:

«... betetzen gaitu aflicciónez ala nola eguin baiguintcazque itsasoan galdu batec costan errefusa baleza eriotzetic libratzen ahal luquen salvatzeco tabla bacarra». (21. lerroan)

Errepikapen kutsua duen guzia baztertu ohi du. Euskal testuaren 25. lerroaren ondotik bada hamabi lerroko paragrafo bat erdarazko izkribuan, itzultzaileak aipatu ez duena. Apezpikuak zioen, itsasoan galdu batek salbameneko zura errefusatzea baino tamalgarriagoa dela bekatariak bere bekatuan iraun nahi izatea, lurretik zerurako aldea baitago, gorputzaren zapalketatik arimarenera.

Hiztegi arazoak ditu askotan, erdal hitzaren kidekorik ez aurkitzean. Iritzi zabal eta ikuspegi irekiz jokutzen du antzerako zerbaiten hurbilketa eginez. «Inexorable» hitzarentzat ordainik ezean, **zuzena** dio: «ley inexorable de la justicia de Dios», **Yaincoaren yusticiaco legue zuzena** (17. lerroan).

Beste batzuetan, esanahi ez hain propioa ekartzen dio gogora kideko hitzak eta jakinaren gainean doa beste hitz baten bila. Adibidez, garizumari buruz esaten denean «días de salud», **osasun egunak** itzuli

beharrean, **salbameneco egunac** dio berak. Hain zuzen ere animaren osasunaz ari dela uler dezaten:

«en la santa cuaresma, que con tanta propiedad la Iglesia llama tiempo acceptable y días de salud».

«Garizuma saindu untan, ceina deitzen baitu Elizac graciaco dembora eta salbamenduco egunac» (16. lerroan).

Mezu garrantzitsuren bat azpimarratu nahi duenean, bizpahiru hitz sartzen ditu erdarazko baten adierazgarri, batez ere, ordain egokirik ez duelarik aurkitzen hiztegian. Adibidez «degradación» hitza itzuli nahi duenean, honako lagungarri hauek eranstean dizkio mailegu horri:

«Nahi guinuke cier comprendihazi becatuaren miseria aundia, **aren degradacione, itsustasun eta desohore icigarria**». (26. lerroan).

Erdaraz dioena beste hau da:

«Quisieramos haceros comprender, amados hermanos nuestros en el Señor, la profunda miseria del pecado, **su degradación**».

Behin edo beste, Luzaiden erabili ohi diren hitzak gehitzen dizkio parentesi artean itzulpenari: (pleñu) nigarretan (15. lerroan); destruitzen (edo errausten) (78. lerroan); guelditu (baratu) (133. lerroan);(advertitzen) condutzen (206. lerroan).

Amaieran dioena ere jakingarria da itzultzailearen jokabidea eza-gutzeko:

«Y como **prenda de amor** os damos á todos nuestra bendición».

«Eta gure **amodioaren baya bezala** gucier emaiten dauciegu gure benediccionea» (241. ler.).

Beste berezitasunik ere badu Luzaideko itzulpenak. Zaletuek azter dezakete. Egilearen helburua oso mugatua da: bere apaiz lana eliztarrek ulertzeko moduan burutzea. Herri janzkeran emandako mezuak du lehentasuna.

Jatorrizko izkribuaren ereduak mirabetza sor dezake batzuetan eta mordoilokeria izan daiteke orduan bere emaitza, noizbait ikusi du-



gun bezala<sup>7</sup>. Ez da hori izkribu honen akatsa. Polit apaizaren euskara txukuna, herrikoa eta zehatza da.

Lekukotasunaz bestalde, bat-bateko itzulpenak egiten dituztenentzat interesgarriak gerta daitezke izkribu hauek.

Bi zutabetan doaz jatorrizko erdal testua eta euskal itzulpena.

\* \* \* \* \*

---

7. Ikus: SATRUSTEGI, J.M., *Euskal Testu Zaharrak I* 1987, Leitza (1926), pp. 45-47.

NOS EL DR. D. JOSÉ OLIVER Y HURTADO, por la gracia de Dios y de la Santa Sede Apostólica, Obispo de Pamplona, Académico de la Real de la Historia, &c.

*Al venerable Dean y Cabildo de nuestra Santa Iglesia Catedral, al Clero y fieles de nuestra diócesis, salud en el Señor.*

Toda la vida del pecador debiera ser una penitencia continuada, y como con criminal afán se entregó á la inmundicia de la culpa y á los placeres del vicio, así debiera ofrecerse á Dios con santo anhelo y saludable confusión, y aplacar su cólera con el dolor de la mortificación y del arrepentimiento. Justo es que lo que sirvió para ofender á Dios y deshonorarle, sirva también para satisfacerle y darle gloria; que la arrogancia del que infringió la ley santa del Señor se convierta en la humillación del castigo; y que la rebeldía contra Dios se cambie en los gemidos de la penitencia.

Este es el único medio que al pecador le queda, la ley inexorable de la justicia de Dios, que queremos recordaros, amados hermanos en el Señor, al entrar en la santa Cuaresma, que con tanta propiedad la Iglesia llama tiempo aceptable y días de salud. El pecador que los desprecia y que en lugar de aprovechar los ofrecimientos de la misericordia divina, expléndidos siempre, pero mucho más en el santo tiempo en que

*D. JOSE OLIVER ETA HURTADO*  
*Yaincoaren eta Erromaco Aita Sainduaren Graciaz Yruñeco Apezpicua.*

Gure Catedrale Sainduco Cabildoari, gure Diocesaco Cleroari eta guiristino fidel gucier, gracia eta benediccionea Yaincoaren baitan.

*Becatariaren vicitza guciac izan behar luque continuoco penitencia bat, eta ala nola berotasun criminal batequin entregatu baitzen culpa eta vicioaren placerrer, ala ofreditu behar luque vere burua Yaincoari desira saindu eta confusione salvagarri batequin, eta aplacatu aren colera mortificacione eta urriquimenduzco dolorearequin. Yusto da Yaincoaren ofensatzeco eta desohoratzeco cervitzatu cena, cervitza dain ere aren satifatzeco eta glorificatzeco; Yaincoaren legue saindua osticatu zue naren urgulua converti dain punimenduzco humiliacionean, eta Yaincoaren contraco rebeldia cambia dain penitenciaco (pleñu) nigarretan.*

*Au da becatariari guelditzen zac con erremedio bacarra, Yaincoaren yusticiaco legue zucena, cier oroitahaci nahi duguna Garizuma saindu untan, ceina deitzen baitu Elizac graciazco dembora eta salvamenduzco egunac. Gracia oriec despreciatzen tuen becatariac eta Yaincoaren misericordiaz profitatu be-*

entramos, se endurece en su pecado, nos aflige como nos afligiria un esclavo que remachase sus cadenas, como nos aflijiria un náufrago que á la vista del puerto rechazase la única tabla de salvacion, que podria librarle de la muerte.

Ménos desgraciado es aun el esclavo así familiarizado con la servidumbre, ménos triste es la suerte del náufrago que así perece, que la del pobre pecador que se empeña en parmanecer bajo el cautiverio de su pecado. Las cadenas del vicio son más pesadas que las cadenas de hierro, y la pérdida de la gracia más triste que la pérdida de la vida. Lo que vá de la tierra al cielo, de lo humano á lo divino, de las tinieblas á la luz, y de lo temporal á lo eterno, es lo que vá de la tiranía del cuerpo á la tiranía del alma, del estado de la culpa al estado de la gracia.

Quisiéramos haceros comprender, amados hermanos nuestros en el Señor, la profunda miseria del pecado, su degradacion, los bienes que aniquila y los males que consigo lleva; quisiéramos que conociéseis lo que érais antes de haber pecado y lo que sois despues de haber pecado. La mirada de Dios se fijaba sobre vosotros con la complacencia de un padre amoroso, y tenia de vosotros un esquisito cuidado. Allá en lo más íntimo de vuestra alma habia levantado un templo donde moraba como en el lugar de sus delicias, y os habia ennoblecido con algo de sí

*har videan vere becatuan gogortzen denac, betetzen gaitu afliccionez ala nola eguin baiguintzazque itsasoan galdu batec costan errefusa baleza eriotzetic libratzen ahal luquen salvatzeo tabla bacarra.*

[Paragrafo hau ez dago itzulia]

*Nahi guinunque cier comprendi-haci becatuaren miseria aundia, aren degradacione itsustasun eta desohore icigarria, arec quentzen dauzquigun onguiac eta ecartzen dauzquigun gaitzac; nahi guinunque ezaut dezacien cer cineten becatuan erori bano lehenago eta cer cizten becatu eguin ondoan. Yaincoa cen ciendaco aita maitagarri bat eta soiten zaucien complacenciaric aundienarequin, cien animaren barnean alchatu zuen templo bat ceintan causitzen baitzen vere placerrezco lecu batean bezala, eta beteac izan cine-*

mismo, con una cosa divina que os hacia puros y agradables á sus ojos. Erais luz en el Señor, luz que brillaba como la aurora del dia más sereno y resplandeciente de la gloria. En vuestros corazones estaba difundida la caridad de Dios que debia continuar en la eternidad. Llenos del espíritu de Jesucristo y de sus virtudes, trabajabais con provecho en la grande obra de vuestra salvacion, y os labrabais con paciencia una corona de gloria, que no debia caer jamás de vuestra frente. Con el trabajo de un dia, porque ménos que un dia es el tiempo presente comparado con la eternidad, os conquistabais alegrías inefables y dulzuras inestinguibles. Viviais en una palabra con Jesucristo, ó como lo expresa el Apóstol, Jesucristo vivia en vosotros. *Vivo autem, jam non ego. vivit vero in me Christus* (Ad Gál. cap. 2º y. 20). Vuestra vida era toda espiritual, pura y limpia, agena á vuestra naturaleza de hombres carnales vendidos al pecado, y esperabais tranquilos que cuando Cristo, vuestra vida, apareciese, apareceriais tambien con él en la gloria. *Cum Christus apparuerit, vita vestra, tunc et vos apparebitis com ipso in gloria* (Ad Colosenses cap. 3º y. 3º)

Con ese lenguaje la Sagrada Escritura describe la felicidad del justo, y la teología católica apoyándose en él se esfuerza en hacer vislumbrar siquiera lo que hay de excelente y grande en el hombre que vive

*ten vere graciaz, Yaincoaren seme eta ceruco premu eguiten cinuzten izaite divino artaz. Ciec cineten Yaincoaren aitzinean argui batzu, iruzquiac egunic garbienean bano gueyago arguitzen cinutenac. Cien viotzetan ichuria cen eta imprimatua Yaincoaren amodioa, ceinac seguitu behar baitzuen eternitatean J.Cristoren izpiritu eta vertutez be-teac, trabailatzen cinuten profituquin cien salvamenduco obra aundian, eta formatzen cinuten pacienciarequin, cien copetatic secula erori behar etzuen gloriazco corona bat. Egun bateco trabailuarequin, ceren egun bat bano gutiago da gure vicitza comparatuic eternitatearequin, conseguitzen cinuzten betico aleguerantzia eta urostanac. Ytz batez, vici cineten J.Cristorequin, edo S.Pabloc erraiten duen bezala, J.Cristo vici cen cien baitan. Vivo autem, jam non eqo. Vivit vero in me Christus. (Ad. Gal.c2 v.20) Cien vicitza cen gucia izpirituala, garbia, eta ez becatuari entregatuac diren guizon sensualenac bezalacoa; eta esperatzen cinuten tranquilqui J.Cristo cien vicitza aguertzen cenean, ciec ere aguertuco cinetela arequin ceruco glorian. Cum Christus apparuerit, vita vestra, tunc et vos apparebitis cum ipso in gloria. (Ad.Colos. c.3 v.3).*

*Lenguaya orrequin eracustera emaiten du Escritura Sainduac yustoaren urostanac. Ori gucia cine-*

en gracia de Dios. Todo lo que ese lenguaje dice, todo lo que se expresa bajo esas imágenes, erais vosotros, amados hermanos, antes de pecar y todo lo habeis perdido con el pecado. Aquellos de vosotros que habeis quebrantado la ley del Señor, ya no sois los hijos queridos de dios, el objeto de sus complacencias, el santuario de su morada, la imagen de nuestro Señor Jesucristo, formada con su mano á costa de tantos trabajos; ya no sois sus amigos, hermanos y coherederos de la gloria: habeis perdido todas esas prerogativas, todos esos hermosos títulos, y ya no sois sino los hijos de desheredados y malditos de vuestro padre celestial. Recordad bien lo que erais y lo que sois. *Memor esto unde excideris* (Apoc. cap. 2<sup>o</sup> y 5<sup>o</sup>). Acordáos de donde habeis caído, de las alturas de donde habeis descendido, y del abismo donde estais.

Todo lo que podemos deciros para expresar el misterio que allá en el interior del alma se consume, cuando el pecado sienta sobre ella su impura planta, no es sino un pálido reflejo de la realidad. Es preciso acudir á lo mas triste que la naturaleza nos ofrece para formarse una idea, siquiera débil, de lo que es el pecado y de sus efectos desastrosos. Contemplad la fértil campiña regada por las aguas y cultivada con esmero, en donde todo vive, todo prospera, todo es frondosidad y lozanía, riqueza y abundancia. La nube se

*ten ciec becatu eguin bano lehena-go, eta gucia galdu ducie becatua-requin. Yaincoaren leguea autsi ducienac, ya etzizte Yaincoaren seme maiteac, eta artaz maitatuac, etzizte aren Templo edo vicitzaco toquiac, etzizte J.Cristo gure Yaunaren ichura edo imagina, aren escuaz formatu ainbertze trabailuen gostuz; ya etzizte aren adisquideac, aren anayac, eta aren Ceruco premu lagunac: privilegio oriec guciac, titulu eder oriec guciac galdu tucie; eta ya etzizte cien Aita eternalaren seme desederatu eta madaricatuac baicic. Considera zacie untsa cer cireten eta cer cizten. Memor esto unde excideris (Apoc.c.2 v.5). Oroit cizte cer goratasun aunditic erori cizten, eta nun causitzen cizten oray.*

*Guc erran dezaquegun gucia cier ezautzera emaiteco gure ari-man, becatua sartzen denean, verificatzen den cambioa, ezta errealqui guertatzen denaren itzal bat baicic. Ezta posible forma dezagun ideya bat perfecta becatuaz eta aren efectu icigarriez. Contempla zacie campaña bat gucz ederra, aberatsa, eta urez arrosatua, gucia verde eta fruituz betea: formatzen da tempestate bat gucia destruitzen (eta errausten) duena, eta lehenchago aleguerancia eta plazerrezco toqui bat cena, convertitzen da miseria eta desolacionezco lecu batean. Orra, S. Ciprianoc erraiten duen bezala, becatuaz*

forma, la tempestad estalla y lo destroza todo, y lo que poco há era encanto y alegría, ya no es mas que aridez y pobreza. Ved ahí, segun San Cipriano, la imágen del alma, por la que ha pasado el pecado. No busqueis ya en ella ni gracia ni virtudes; no busqueis en ella los frutos de las buenas obras, las prendas de la bienaventuranza eterna; el pecado lo ha destruido todo, y el alma queda como tierra sin agua, como la estéril arena del desierto.

Entre las cosas tristes, la mas triste de todas es la muerte. Mirad el cadáver helado que descende al sepulcro. Ayer era un hombre lleno de robustez y de vida, y hoy carne entregada á los gusanos. Los que contemplan su juventud y hermosura, y envidiaban tal vez su poder y sus riquezas, no pueden resistir ahora la vista del espectáculo que ofrece. Descompuesto, infecto, presa de la podredumbre, es preciso arrojar sobre aquel ser un puñado de tierra para esconder tanta miseria. ¿Quién ha producido todo eso? El alma ha huido de aquel cuerpo de polvo, que vuelve á su condicion de polvo. *Pulvis es et in pulverem reverteris* (Génesis cap. 3<sup>o</sup> y 19). Es la muerte que hace su obra y despoja de todas las cosas al pobre hijo de Adan. Ciertamente esto es triste; y con serlo tanto, no expresa bien lo que es la muerte del alma, causada por el pecado. La gracia que es la vida del alma y por decirlo así el alma del

*golpatua izan den arima baten ichurra eta imagina. Etzaciela vila artan ez graciatic ez eta ere vertuteric: ezquiciela vila artan obra unen fruituac, eta seculaco dohatsutasunaren bayac; becatuac destruitu du gucia, eta arima guelditzen da uric gabeco lurra bezala, desertuco ariña idorra bezala.*

*Gauza tristeen artean tristeena da eriotzea. Ezamina zacie tumbara eremaiten duten il baten gorputz otza. Atzo cen guizon bat vicitza osagarri eta indarrez betea, eta egun aragui pusca bat arret entregatua yanaritaco. Aren gazetetasun eta edertasunari soiten zutenec eta icusten zutenec menturaz envidiarequin aren averastasun puchancia eta urostrasuna, eztezaquete oray soportata aren vista. Desfiguratua corronpitua eta usteldua, necesario da botatzea gorputz aren gainera lur pusca bat ainbertze miseria estaltzeco. ¿Norc eguin du ori gucia? Arima separatu da, urrundu da errautsa cen eta errauts viurtu den gorputz artaric. Pulvis es et in pulverem reverteris. (Gen. c.3 v.19). Da eriotzea, eguiten duena vere obra eta Adanen seme desgraciatua gauza guciataric eraunzten duena. Segurqui au da gauza bat arras triste eta icigarria, eta Vizquitartean eztu untsa ezautzera emaiten cer den becatuac ecartzen daugun arimaren eriotzea. Urrundu da, ihes eguin du*

alma, ha huido: Dios se ha retirado de ella y se ha llevado sus dones consigo.

Sabedlo pecadores y confundíos. Estais muertos á los ojos de Dios. *Nomen habes quod vivas et mortuus es* (Apoc. cap. 3<sup>o</sup> y 1<sup>o</sup>). Llorais la pérdida de vuestros bienes caducos, y no sabeis llorar la pérdida de la gracia y de la gloria. Llorais la pérdida de un padre ó una madre, y no llorais la pérdida de Dios. Llorais la muerte de un amigo, y no llorais la muerte de vuestra propia alma. ¿Tan poca cosa es y tan poco vale que no os condoleis de ella y no haceis ningún esfuerzo para devolverle la vida y salvarla?

Poderoso es Jesucristo para resucitarla y todavía os aguarda, y solo espera de vosotros una lágrima de arrepentimiento. Como el padre de familia, que sentado á la puerta de la casa dirige sus miradas inquietas al camino por donde puede aparecer su hijo perdido, y cuando le descubre sale á su encuentro, le arroja sus brazos al cuello, y con trasportes de cariño le concede su perdon y la herencia, así Jesucristo, como si no hubiera podido consolarse del extravío del pecador por quien derramó lágrimas y vertió la sangre, con una misericordia siempre vencida por quien la invoca, perdona al arrepentido y apenas ha concluido este de confesar su culpa, oye como el hijo pródigo aquellas palabras: *Este hijo mio habia muerto y ha revivido, se*

*graciac, ceina baita arimaren vici-tza eta guisa batez arimaren arima: Yaincoa erretiratu da arenganic eta ereman tu verequin vere doainac.*

*Yaquinacie becatariac eta confundi cizte. Ylac cizte Yaincoaren veguietan. Nomen habes quod vivas eta mortuus es (Apoc. c.3 v.1). Ciec nigar eguiten ducie cien mundu untaco untasunac galtzeagatic, eta eztaquicie nigar eguiten Yaincoaren gracia eta Ceruco gloriaren galtzeaz. Nigar eguiten ducie aita edo ama galtzen ducielaric, eta eztucie nigarric eguiten Yaincoa galtzen ducienean. Nigar eguiten ducie adisquide bat iltzen zaucielaric eta eztucie nigarric eguiten cien arima veraren eriotzeaz. ¿Ain gauza gutia da eta ain guti valio du cien arimac, ezpaitzizte artaz urricaltzen eta ezpaitzizte ensehatzen ari viciaren itzultzera eta aren salvatzera?*

*J.Cristoc badu ahala aren pizteco eta oraino cien beha dago, eta bacarric esperatzen du cienganic urriquemenduzco nigar bat. Familia-co aita bezala, ceinac eheco bortan yarriric aderezatzen baitu vere vista vere seme galdua aguertzen ahal zacon videra, eta ura icusten duelaric aren errecontrura ateratzen, ura besarcaten eta tendretasunic aundienarequin barcatzen dacon bezala; guisa verean J. Cristoc, consolatzen ahal ezpaltiz bezala becatariaren desgraciaz, ceina-*

*habia perdido y ha sido hallado. Hic filius meus mortus erat et revixit, perierat et inventus est* (Luc. cap. 15 y 24).

El pecador no escucha la voz de Dios que le llama, porque no comprende la desdicha de su estado. En lugar de detenerse en su camino de perdición é invocar al Señor con un corazón contrito y humilde, se aleja más y más cada día, y se fortifica en su iniquidad. Sus pasiones y la corrupción del mundo en que vive, le detienen en sus afecciones criminales, en sus codicias y en sus concupiscencias. Las pasiones rugen cuando se trata de refrenarlas, y como otros tantos esclavos rebeldes á su Señor se levantan contra el espíritu para oprimirlo con sus ardorosas exigencias. El mundo, que tan contagioso es, no concibe ó concibe muy mal el arrepentimiento. A sus ojos la virtud es demasiado severa y mas bien es cosa de ángeles que de hombres: los vicios una flaqueza de la naturaleza humana. La austeridad cristiana es demasiado sombría para el mundano, cuya primera necesidad es una vida alegre que se confunda con la vida depravada. Como el Apóstol, pero en un sentido bien diverso exclama: *Sé que no mora en mí, esto es, en mi carne lo bueno* y en lugar de recurrir á la gracia de Jesucristo y á la mortificación para libertarse de su miseria, se autoriza con su flaqueza para vivir en el desorden de los placeres.

*rengatic nigar eguin baitzuen eta ichuri vere odola, misericordia aundienarequin barcatzen daco urriquitzen den becatariari, eta unec vere culpa aitortzen dueneco, entzuten tu seme prodigoac aitu cituen itz verac. Ene seme au ila cen, eta piztu da; galdu cen, eta aurquitua izan da. Hic filius meus mortuus erat et revixit, perierat et inventus est.*

*Becatariaec eztu entzuten Yaincoaren votza, ezuelacotz ezautzen vere estatuaeren malurostasuna. Vere condenacioneco carreran guelditu (baratu) eta Yaincoari aderezatu behar videan viotz urriquitu eta humiliatu batequin; urrutzen da beti eta gueyago arenganic, eta fortificatzen da edo azcartzen vere gaistotasunean. Vere pasioneec eta vici den munduaren corrupcioneac achiquitzen dute vere adissquidantza, guticia eta desira criminaletan. Pasioneac alchatzen dira gure izpirituaeren contra hec nahi tugularic sugetatatu. Munduac eztu ezautzen, edo ezautzen du arras gaizqui penitencia eta urriquimendua. Aren veguietan vertutea da gauza bat sobera serio eta gogorra, bacarric aingueruec practica dezaquetena eta ez guizonec: vicioac dira gure naturalezaaren flaqueza bat. Guiristino mortificacionea da gauza bat sobera triste eta repugnanta mundutarrarendaco, ceinac ezpaitu bertze pensamenduric baicican eremaitea pla-*



El escándalo público con que hoy día se tropieza á cada paso, los malos ejemplos que tanto seducen, el cinismo de vicio que no se recata como si aspirase á suprimir el pudor, que lo combate, quebrantan el sentimiento de horror que el pecado debiera inspirar, y vienen á reforzar la impenitencia. La impiedad ha trabajado mucho para pervertir la inteligencia; pero no ha trabajado ménos para corromper el corazon, segura de alcanzar por este medio triunfos mas numerosos y mas fáciles. Las malas ideas engendran necesariamente las malas costumbres; pero por un camino inverso, de las malas costumbres se vá fácilmente á las malas ideas. Un corazon depravado, estragado por el vicio está ya tocando á la irreligion, y es muy difícil que no se revuelva contra las creencias en que encuentra un censor severo y molesto. Siguiendo ese procedimiento la impiedad no se ha contentado con llamar á lo bueno malo y á lo malo bueno: ha hecho mas: ha desencadenado todas las pasiones ofreciéndoles poderosos estímulos, y ha procurado sobreponer en el orden de los hechos la ley de la carne á la ley del espíritu, creando para las costumbres disolutas, á título de que con la expresion de las leyes de la conciencia individual y la norma de la conducta de cada uno, cierto respeto, que es el escollo de los débiles y una continua excitacion á la licencia.

*cer eta alegueranciazco vicitza bat, vicitza criminal bati yunto duana. S.Pablo Apostoluac bezala, bana ideya arras diferentarequin, erraiten du: Badaquit ezela onguia ene baitan causitzen, eta J.Cristoren graciari eta mortificacioneari aderezatu behar videan vere miseriatic libratzeco alegatzen du vere flaqueza desodre eta plazerren artean vicitzeco.*

*Egungo egunean memento guciez errecontratzen tugun escandala publicoec, gure trompatzeco eta becatuan erorahazteco aimbertze indar duten exemplu gaisstoec, vertuteari continuoco guerla bat eguiten duten vicioec ezeztatzen tuzte gure baitan becatuaren contraco sendimenduac eta Yaincoaren beldurtasuna, guibelarazten guituzte penitencia eguitetic eta sostengatzen gure obstinacionean. Ympietatea trabailatu da anitz ezautza edo adimendua viciatzeco, bana ezta gutiango trabailatu viotzaren corrompitzeco, baitaqui arras untsa guisa ortan conseguituco tuela gueyago victoria eta errachquiago. Ydeya gaisstoetaric eldu dira necesarioqui costuma gaisstoac, bana manera verean costuma gaisstoetaric yuaiten da arras aisa ideya gaisstoetara. Vicioaz galdua den viotz batec eztu anitz aldiz Erligionezco sendimenduric eta arras dificil da eztain alcha sinesteen contra, ceren Erli-*

Pero sean cuales fueren las seducciones que el mundo emplea para hacer vacilar la virtud y retraer de la penitencia; sean cuales fueren los escándalos que arrastran al mal y pierden al cristiano; sean cuales fueren las excitaciones que la licencia dirige á las pasiones; sean cuales fueren, en una palabra las impresiones en medio de las cuales hoy se vive, nadie puede disculparse de su pecado. Exagérese cuanto se quiera la influencia de las costumbres escandalosas: mas fuerte que todo ha de ser la virtud del cristiano. Su deber es luchar y resistir, y si sucumbe, si no ha sabido hacerse la violencia que es necesaria, no es apto para el reino de los cielos. Autorizarse con los desórdenes públicos, con los escándalos de los mundanos para excusar los propios, no es otra cosa que añadir la defeccion propia á la de los demás, y tomar el partido de los pecadores. El escándalo dejaría de ser un delito tan enorme, si con el escandaloso no hiciese perecer al escandalizado.

La Iglesia no puede arrancar á sus hijos de en medio del mundo en que viven y si se llena de inquietud es porque sabe que los fuertes no suelen ser lo mas. Por eso se desvive para sostener á los fuertes y levantar á los caidos, aplicando á todos ellos los poderosos auxilios de salvacion que Jesucristo depositó en sus manos. Es su mision de siempre; la que ha desempeñado en todos los siglos,

*gionezco sineste oriec condenatzen dute vere conducta criminala. Ortacotz impietateac piztu izan tu gure pasione gaissto guciac, nahi du nautsi diten gure izpirituaz, eta concienziaco libertatea, gaizquiaren libertatea, proclamatur, nahi du errespetatuac izan diten costuma escandalosenac.*

*Bana cembat nahi izan diten munduac empleatzen tuen moyenac vertutearen ez practicatzeo eta guibelarazteco penitencia eguitetic, cembat nahi izan diten guiristinoa galarazten duten escandalac, cembat nahi izan diten aren contra alchatzen diren pasioneac, nehor eztaiteque disculpa vere becatuaz. Yzan bedi nahi bezain aundia costuma escandalosen influencia eta indarra: aundiagoa izan behar du guiristinoaren vertuteac. Nere debuarra da peleatzea, eta erortzen bada, ezpadu yaquin izan erresistencia eguiten, ezta un Ceruraco. Alegatzea mundutarren escandalac, gureac escusatzeo, da yuntatzea gure crima vertzerenari, da erraitea, artzen dugula becatarien alderdia, eta Yaincoa abandonaturic, yuan nahi dugula mundutarrequin infernura. Escandala ezlitzateque becatu bat ain aundia, baldin escandala emaileac ezpaleza galaraz escandalizatua.*

*Elizac eztitu, quentzen ahal vere semeac vici diren munduaren erditic, eta arranguratzen bada, da da-*

desde su nacimiento, y en la que ha desplegado un celo proporcionado á la malicia de los tiempos.

Pero sean cuales fueren los esfuerzos que la Iglesia haga, ella no puede salvaros si vosotros no lo queréis. Ello es seguro, es de fé que si habeis pecado y no haceis penitencia, pereceréis. *Si pœnitentiam non egeritis omnes similiter peribitis* (Luc. cap. 13 y 5º). El pecado no se perdona sin la gracia y la gracia que justifica no viene por sí sola y apesar nuestro. Es preciso volverse á Dios de quien os habeis alejado, y como habiais dejado á Dios por las criaturas, por un movimiento contrario habeis de dejar á las criaturas por Dios.

No tardeis á hacerlo al dia de mañana y no digais en vuestro corazon: me convertiré á Dios y le pediré perdon más adelante. El tiempo no hará sino acrecentar y vigorizar en vosotros el pecado, porque, cuando la penitencia no lo borra, conduce por su propio peso á otros pecados. *Peccatum quod pœnitentia non diluit mox suo pondere ad alia trahit* (Greg. Moral. cap. 25). Al proponeros la conversión para el día de mañana, no contais con el profundo trastorno que en vosotros produce el pecado, el cual no solamente os priva de los dones de la gracia y con ella del sostén para no pecar, sino que pervierte tambien las facultades naturales y disminuye las fuerzas del libre albedrío amarrándoos á la cul-

*quielacotz azcarrac direla gutienac. Ortacotz eguiten du eguin ahal gucia azcarrac sostengatzeco, eta flacoac eroriac alchatzeco, gucier aplicatuz J.Cristoc vere escutan depositatu cituen salvamenduzco laguntza boteretsuac.*

*Bana nahi bezain aundiac izan ditzen Elizac eguiten tuen indarrac, etziuzte salvatzen ahal ciec nahi ezpaducie. Fedezco eguia da becatuan erori bacizte, eta ezpaducie eguiten penitencia, condenatuco ciztela. Nisi penitentiam egeritis, omnes similiter peribitis. Becatua ezta barcatzen graciari gabe, eta iustificatzen edo saindutzen duen gracia ezta vera yitene gure vorondeatearen contra. Necesario da itzultzea Yaincoarengana ceinaren ganic urrundu baitzizte, eta Yaincoa utzi cinuten bezala creaturen gatic, contra co movimendu batez utzi behar tu ciec creaturac Yaincoaren gatic.*

*Etzaciela utzi biarco; eta etzaciela erran cien viotzean: guero convertituco niz, guero barcamendu escatuco dacot Yaincoari. Demborac eztu eguinen bertzeric baicican becatua emendatzea eta azcartzea cien baitan, ceren penitenciac borratzen eztuelaric becatua, eremaiten du naturalqui bertze becatuetara. Proposatzen ducielaric conversionea gueroco, eztucie (advertitzen) condatzen becatuac cien baitan obratzen duen cambio icigarriare-*

pa con más fuertes ataduras. Si ahora os falta el valor para romper con vuestras depravadas afecciones y por no renunciar á la esperanza de salvacion os veis obligados á proyectar vuestra enmienda para un tiempo lejano ¿qué será cuando la ponzoña del pecado, esa ponzoña que destila día por día y hora por hora, se haya infiltrado más y más en la masa de vuestra sangre, y haya corrompido más y más la sustancia de vuestros huesos? Si ahora, como decís, os faltan las fuerzas para convertirlos ¿cómo contais tenerlas despues, cuando el pecado haya envejecido en vuestras entrañas, cuando su lla-ga sea mas profunda, cuango hayais descendido mas en la pendiente del vicio, y Dios esté más lejos de vosotros? Si hoy la pasion se rebela y os sojuzga ¿que no hará cuando esté más fortificada y haya adquirido toda la violencia de un hábito antiguo?

Esas veleidades y esos proyectos de penitencia lejana son el preámbulo de la obstinacion y reprobacion. En realidad de verdad, lo que el pecador hace al formar esos proyectos, es pedirá Dios tiempo para pecar, y establecer un nuevo plazo para seguir en la iniquidad, y Dios por un justo juicio castiga esa osadía retirándose de aquella alma ingrata que así abusa de su bondad, y se prevale de su misericordia. Temedlo, amados hermanos, temed que Dios os trate así, con ese rigor que ha condenado justamente á tantos que como

*quin, ceren eztaucie bacarric gala-razten Yaincoaren gracia eta are-quin becatuan ez erortzeco laguntza, baicican viciatzen tu ere facultate naturalac eta ttipitzen cien indarrac, culpári estecatuz cadena fierragoequin. Veraz ezpaducie oray curayaric cien vicitzaren erreformatzeco, ¿cer izanen da becatuaren pozoinac viciatzen duenean beti eta gueyago cien odola eta corrompitzen cien ezurren sustancia gucia? Oray, erraiten ducien bezala, falta batucie indarrac convertitzeco, ¿nola izanen tucie guero, becatua zahartzen denean cien entrainetan, aren zauria aundiago eguiten delaric, eta Yaincoa cienganic urrunago causitzen denean? Oray pasioneac alchattzen badira eta cietaz nausitzen, ¿cer eztute equinen azcartzen direlaric?*

*Urruneco penitenciaren ideya eta nahicari oriec dira obstinacione eta seculaco condenacionearen seinaleac. Eguiazqui eta errealqui, ideya oriec formatzen tuelaric becatariac, galdeguiten daco Yaincoari becatu eguiteco, vicioan seguitzeco dembora, eta Yaincoac vere iustician punitzen du atreventia ori, vere vorondate eta misericordiaz irri equin nahi duen arima ingrat artaric erretiratuz. Beldur cizte ala tratatuac izan cizten Yaincoaz, ciec bezala convertitu gogo zuten eta convertitu etziren aimbertzte arima iustoqui condenatu tuen rigurosta-*

vosotros esperaban convertirse y no se convirtieron. Demasiado tiempo os ha dominado el pecado: es hora de romper su yugo y recobrar lo que os había quitado. Sed otra vez los hijos de Dios, los herederos del cielo y reconquistad la tranquilidad del alma y la paz del justo, que valen más que los falsos placeres de los pecadores. Dejad los caminos de iniquidad, sembrados de estériles dolores, y tomad desde luego el que conduce al cielo. Un poco de esfuerzo ahora, un poco de trabajo, y en cambio los bienes celestiales que no han de acabar jamás.

Le pedimos á Dios su gracia para que convierta á los pecadores y fortifique á los justos, y como prenda de amor os damos á todos nuestra bendicion en el nombre del Padre y del Hijo y del Espíritu Santo.

Dada en Pamplona á 5 de Marzo de 1881.

JOSÉ, OBISPO DE PAMPLONA  
Por mandado de S. S<sup>a</sup> Illma.,  
Dr. D. Antonio Pueyo,  
Maestrescuela Secretario.

*sun orrequin. Sobera demboraz dominatu ciuzte becatuac: tenorea da austeco aren cadenac eta errescattatzeco quendu zauciena. Yzan cizte berritan Yaincoaren semeac eta Ceruco premu eta consegui zacie arima yustoen baque eta tranquillitate ceinec valio baitute becatarien placer falsuec bano gueyago. Uzquitzie iniquitatezco videac, displacer eta pena inutiliez beteac eta abia zacie oray veretic Ceruraco videac. Yndar eta trabailu ttipi bat oray, eta guero secula finituco eztiren ceruco placer eta untasunac.*

*Galdeguiten dacogu Yaincoari vere gracia amorocatican eta converti ditzan becatariac eta azcar ditzan yustoac, eta gure amodioaren baya bezala gucier emaiten dauciegu gure benediccionea Aitaren eta Semearen eta Yzpiritu Sainduaren icenean.*

*Yruñen eguina Marchoaren San 1881 garren urtean. Jose, Yruñeco Apez picua. Aren manuz Dr. D. Antonio Pueyo Secretaria.*

## **LABURPENA**

### **Iruñeko elizbarrutiko testu baten itzulpena Luzaideko mintzairan**

Hemen aurkezten dugun testuak ondo erakusten digu nolako lan handia egin zuten hainbat mendetan apaiz euskaldunek Elizaren ebazpen eta adierazpenak euskarara itzuli eta beren eliztarrei ezagutzera emateko. Dena dela, oso gutxi dira gure egunotara iritsi diren itzulpen idatziak, baina guztiz lekukotasun baliotsuak dira, filologiarentzat ez ezik, baita euskal itzulpengintzaren historia eta terorrirako ere. Kasu honetan ikus dezakegu nola apaiz bat, trebatu gabeko itzultzaile bat beraz, saiatzen zen testu nahikoa zail baten itzulpen txukun eta herrikoia egiten, bere eliztarrek erraz ulertu ahal zezaten.

## **RESUMEN**

### **Traducción al vascuence de Valcarlos de un texto de la diócesis de Pamplona**

El texto que aquí se presenta es un ejemplo de la labor de traducción de disposiciones eclesiásticas que durante siglos muchos sacerdotes vascos tuvieron que realizar para darlas a conocer a sus feligreses. No obstante, son pocas las traducciones escritas que han podido llegar hasta nuestros días, pero constituyen preciosos testimonios no sólo desde el punto de vista filológico, sino también desde el traductológico. En este caso, podemos conocer cómo un sacerdote, es decir, un traductor casual, trataba de realizar una versión clara y popular de un texto ciertamente complejo, para que fuera comprensible para los fieles.

## SUMMARY

### **Translation to Basque by Valcarlos of a text from the Diocese of Pamplona**

The text which is presented here is an example of translation work of ecclesiastic decrees, a task which Basque priests had to carry out over the years so as to notify the decree contents to their parishioners. However, few written translations have been handed down to us over the centuries, but such samples as have reached us are a precious testimony not only of a philological nature, but also from the point of view of translation. In this text, we can see for ourselves how a priest, that is to say, a chance translator, tried to carry out a clear and popular version of a positively complex text, so as to make it understandable for his parishioners.

## RESUME

### **Traduction en basque de Valcarlos d'un texte du diocèse de Pampelune**

Voici un exemple de traduction de caractère ecclésiastique comme celles que de nombreux prêtres basques durent réaliser pendant des siècles pour que les fidèles puissent prendre connaissance des textes. Seul, un petit nombre de traductions écrites sont parvenues jusqu'à nos jours, constituant un témoignage précieux non seulement du point de vue philologique mais aussi traductologique. Dans ce cas précis, nous voyons comment un prêtre, c'est à dire un traducteur occasionnel, a essayé d'aboutir à une version claire et populaire en partant d'un texte certainement complexe, pour le rendre compréhensible à ses fidèles.





## **Itzulpenaren didaktika gaur egun**

Xabier Mendiguren

*Wir reden zu wenig und plaudern verhältnismaßig zu viel; und es ist nicht zu läugnen, daß seit geraumer Zeit auch die Schreibart nur zu sehr diese Richtung genommen hatte, und daß das Uebersetzen nicht wenig beigetragen einen strengeren Stil wieder geltend zu machen.*

F. Schleiermacher

Zilegi bekit artikulu hau neure esperientzia didaktiko baten aipamena eginez hastea. 1994ko ikasturtean zehar «Didaktika eta Bibliografiarako Hurbilpena» izenpean mintegi bat antolatu da Deustuko Itzulpen-Masterraren barruan, nire gidaritzapean. Bertan ingeles eta euskarazko masterkideak izan dira partaide eta artikulu honen izenburuak iradokitzen duenaren inguruan argitasuna sortzea izan du helburu. Horretarako lau alderdi teoriko-praktikotatik heldu zaio auziari:

Bibliografiari dagokionez azken urteotan eskuliburu eta entseiu ugariren baitan agertu diren bibliografi zerrendak parekatu eta gehien errepikatzen diren autore eta obrak finkatu dira, ondoren Deustuko unibertsitatean dagoen bibliografiarekin kontrastatu eta hutsune nabariak betetzeko.

Traduktologiari buruzko bibliografia *more geometrico* ari da ugaltzen azken urteotan eta unibertsitateek berandu samar arte gai hori aintzakitatzat hartu ez dutelarik, hutsune nabarmenekin aurkitzen dira azken hiru hamarkadatan agertu diren zenbait obra eskuratzeko.

Ezertan hasi baino lehen ezinbestekoa da itzulpenaren inguruko ikerketa edo irakaskuntza egin nahi den tokietan bibliografi fondo egoki bat izatea. Ez dut esan nahi derrigor agortzailea izan behar duenik, baina bai hautespen zaindu baten ondorioz egina eta traduktologiaren bilakaera historikoaren ikuspegi ona eskainiko diona nola irakasleari hala ikasleari.

Oinarrizko fondo egoki samar bat lortu eta informatizatu denean (behar izanez gero agorturik dauden liburu interesgarrienak trukearen bidez lortu eta fotokopiatuz), ondoren urtez urte bibliografiaren segimendu ona egin eta egunera edukitzea da eginbeharrekoa, horretarako karrera edo masterreko irakasle guztien lankidetzaz baliatuz.

Bestalde, gauza bera esan behar da aldizkariei buruz ere; argitalpen ugari dago: *American Translator*, *Babel*, *Cuadernos de Traducción e Interpretación*, *Der Sprachmittler*, *Language International Equivalences*, *Fremdsprachen*, *Informazioni*, *L'interprete*, *Lebende Sprache*, *Meta*, *Sendebare*, *Senez*, *The Bible Translator*, *The Incorporated Linguist*, *Traduire...* edozein unibertsitate edo itzulpenaren irakastokiri ezinbesteko zaio aldizkari emankorrenak jasotzea eta bertako emaitza baliagarri eta erabilgarri izan dadin aurkibidez horniturik edo informatizaturik edukitzea, edozein gairi buruzko informazioa aise eskuratu ahal izateko.

Urtez urte orri berriak erantsiz eta osatuz joango den liburu eta aldizkarien katalogo bat argitaratzea oso onuragarri gerta liteke, nola irakasleentzat hala ikasleentzat, nahiz eta liburutegietan ohikoak diren fitxa- eta informatika-zerbitzuak guztien eskura egon. Bibliografia hurbiltzea oso beharrezkotzat jotzen dut autore eta obrak beti begipean edukitzeko.

Bigarren alderdia Europa eta Ameriketako itzulpen-eskola nagusienei beren ikasketei buruzko informazioa eskatzea izan da. Dagoeneko dozena bat irakastokik bere informazioa bidali du eta sistematikoki erkatu eta aztertzeari ekin zaio. Parekatze horren ondorioz eskuratutako informazioaren berri emateak artikulua mugatu honen baitako orrialde urriak baino gehiago beharko lituzke; hala ere, lehen

hurbilpen batek zer irakatsi digun esateari komenigarri deritzot. «Zenbat eskola, hainbat ikasplan» izan liteke azterketa horren atarian idatzi beharko litzatekeen goiburua. Eta oso ongi ulertzen da hori eskola bakoitzak izan duen jatorri eta sorrera ikustean, zeren kasu guztietan argi eta garbi ikusten baita hasierako abiapuntua, inguruko gizartearen premiak, kokaturik dagoeneko unibertsitate-antolamenduaren jitea, eta abar. Egia da, nolabait esateko, ia denetan dagoela amankomuntzat edo homologagarritzat jo daitekeen ikasgai-multzoren bat, baina hortik aurrera oso sarrera-baldintza, ikasgai-aukera, ikerketa-era, plan-antolaketa, eta abarreko curriculumak daude.

Hirugarren alderdia, kontzeptu didaktikoei buruzkoa da. Liburu askoren amaieran traduktologi kontzeptuzko glosarioak edo kontzeptu-aurkibideak agertzen dira. Horiek guztiak parekatu eta gehien errepikatzen diren kontzeptuen zerrendaratze- eta definitze-ahalegin bat interesgarri izan daiteke traduktologiaren gaurko egoeraren ikuspegi izan eta autore desberdinek gehien erabiltzen dituzten kontzeptuak finkatuz, itzulpen-zientzia, teoria, traduktologia edo itzulpen-estudioak bezalako izendapenen azpian egosten ari den horren guztiaren sistematizazio baterantz pixkanaka hurbildu ahal izateko. Ez da egiteko erraza nomenklatura finkatzea bera, eta oraindik askoz zailagoa izango da kontzeptu bakoitza zehazki mugarritu eta definitzea baina ezinbesteko eginkizuna da ikasleak zorarazi nahi ez badiugu alor horretan dagoen nahasmendu eta homologaziorik-ezarekin. Santoyo-Rabadánena bezalako ahaleginak<sup>1</sup> eskergarriak ez ezik argigarriak dira, traduktologiaren izenean sortu den jungla horretan gauzak txukuntzen hasteko.

Azkenik, laugarren ahaleginak argitalpen desberdinetan didaktikaz espreski egiten diren proposamen eta gogoetak bildu eta sistematizatu nahi ditu, guztiak kontrastatu ondoren, horretatik sortzen den in-

---

1. Santoyo-Rabadán: «Basic Spanish Terminology for Translation Studies: A proposal», in *META*, XXXVI, I, 1991.

formazioa sistematizatu eta gaur eguneko didaktikaren plano gisako bat antolatzen hasteko. Bistan dago, maila honetan mintegi batean egin litekeen lana ezin litekeela inbentariatze-mailatik harago joan, zeren atal bakoitza zertxobait sakontzeak urte osoko jarduna eskatuko bailuke. Guztiarekin ere, didaktikak bere orokorrean landu eta sakondu beharreko gaien ikuspegi orokor bat edukitzea oso beharrezkoa da, baita bakoitzak duen garrantziaren arabera hierarkizazio bat egitea ere.

Lehen hurbilpen honen ondorio gisa tokian tokiko irakaskuntzaren txeko bat egiteko test-moduko galdera-zerrenda bat presta daiteke, ikasle eta irakasleei zuzendua eta erantzunak sistematizatu ondoren karrera edo masterraren erradiografia bat atera daiteke argi-ilunguneak nabarmenduz.

Hori lagungarri gerta liteke edozein eskola edo masterretan *de facto* egiten dena eta zenbait ekarpen teorikok proposatzen dutenaren artean konparaketa bat eginez autokritika eraikitzaile baterako bideak urratzeko, toki bakoitzari ongien doakion ikas-planak diseinatu eta irakaste- eta ebaluatze-bideak antolatzeko.

Aipaturiko horiek dira Deustuko mintegian landu ditugun zenbait alor, eta esperientzia interesgarria dela uste dut, itzulpen-didaktika ideia-eztabaidatze soil gertatu ordez, tokian tokiko egeeratik abiatuz, errealistaki bertako egoera hobetu eta aurrerantz bultzatzeko tresna bihur dadin.

### **Itzulpen-didaktika E. Zierer-ek dakarrenez**

Traduktologo germano-perutarrarentzat<sup>2</sup> itzulpen-zientzia lau osagai edo atalez integraturiko sistema bezala agertzen da: itzulpen-teoria (balio orokorreko esplikazio zientifikoek multzoa, zeinek itzul-

---

2. Zierer, Ernesto: *Algunos conceptos básicos de la ciencia de la traducción*. Universidad Nacional de Trujillo; Trujillo (Perú), 1979.

tze-prozesua razionalki antolatzeko aukera ematen duten), itzulpen-praktika (itzultze-prozesuan baliagarritasun praktikoa duten estrategi multzo bezala ulertua), itzulpen-kritika (STaren eta XTaren arteko baliokidetzak kritikoki ebaluatzeko irizpide-multzo bezala ulerturik, berorien aplikazio-metodoarekin batera) eta itzulpen-didaktika (itzultzen irakasteko sistema edo egintza egokien multzo sistematizatu bezala ulertua).

Ziereren ustez, lau osagarriok sistema zibernetiko baten erara funtzionatzeko moduan integratzen dira elkarrekin, eta itzulpen-didaktika itzulpen-zientziaren osagai den heinean, oraindik beste osagaiak baino gutxiago azterturik dago. Itzulpen-didaktikaren garpenerako itzultzearen inplikazio psikologiko eta psikolinguistikoak hobeki ulertzea beharrezkoa da, baita gizakiaren baitan itzultzeko gaitasuna edo «itzulmena» baldintzatzen duten faktoreak ere. Baliteke norbanakoaren elebitasunari buruzko azterketa ugariak gero eta argiago uztea alor hori. Zentzu horretan interesgarriak dira Esteban Torrek bere *Teoría de la traducción literaria*. (Editorial Síntesis, Madrid, 1994) obran egiten dituen itzultzearen oinarri biologikoari buruzko ekarpenak.

E. Zierer traduktologoak Wilß, Henschelmann, Reißhausch/Raabe eta abar bezalako traduktologo alemanen ekarpenak sistematizatuz itzulpen-didaktikaren osagaiak aipatzean honako makro-osagaiak bereizten ditu:

- a) **Ikaslea:** adina, jatorrizko hizkuntzaren erabilera, xede-hizkuntzaren erabilera, sexua, hezkuntza-maila, profesionalizazio-maila, motibazioa, profesional izateko duen gogoia...
- b) **Itzultzearen balioen eta garrantziaren izaeraren esplizitazioa:** itzultze-prozesuaren ezaugarri nagusiak ulertarazi, lehen eta bigarren hizkuntzen funtzionamenduaren ulerkuntzari buruzko hezkuntza-balioak; informazio-iturri berrietarako irispidea, nazioarte-mailako komunikagarritasuna...
- c) **Prestakuntzaren amaierarako ikasleak lortu beharko duen helmuga finkatzea:** <itzulmen berezia>: ST-tipo eta mota,

eremu teknikoa, zailtasun-maila, itzulména erakusteko baldintza bereziak, hedadura, lagungarrien erabilera, ebaluaketa-irizpideak. Adibide bat honela formulatzen du: «Prestakuntza aldiaren bukaeran ikasleak gai izan beharko du ordubetean, hiztegi tekniko elebidun baten laguntzarekin, ingelesetik gaztelaniara (itzultzailearen ama-hizkuntzara) idazmakinaren erabileraz informazioa ematen duen 100 bat hitzeko testu bat, gramatika eta lexikozko akatsik gabe itzultzeko, XTa STaren baliokide semantiko izango delarik».

- d) **Irakasleak behar dituen gaitasunak:** itzulmen handia, XHaren ahalmen adierazkor eta desberdingarriez jabeturik egon eta helburu didaktikorako iruzkinen bitartez aktualizatzen jakin, lan terminologikoaren mota desberdinen ezagupidea izan, zailtasun-maila desberdinak bereizten jakin, itzulpen-estrategiak lantzen eta bitarteko lagungarriak erabiltzen laguntzeko gai izan, XTaren kritika egokia egiten eta ebaluatzen jakin, prestakuntza akademiko egokia izan itzulpen-zientziaren oinarrian dauden jakintzagaietako aurrerapenak kritikoki preziatzeko.
- e) **Irakas-egintzen diseinaketa:** (itzulmen-maila finkatu, testuak aurkeztu, tipo eta moten arabera sailkaturik, linguistika kontrastiboaren fokapenetik eta honako eginbeharretarako egokiak izango direnak: ikasleak testuaren tipoa eta mota determinatzeko, testua testuinguru soziokulturalean kokatzeko, STaren egitura semantiko eta pragmatikoak deskodetzeko, elementu lexikoen azterketa egiteko, termino tekniko berriak sortzeko dauden arau lexikologikoak eta aspektu transkulturalak kontuan hartuz, bitarteko estilistikoen azterketa egiteko.
- f) **Traskodaketak bereziki kontutan hartu beharreko egitura semantiko eta pragmatikoen aspektua agerian jarri:** birkodifikaziorako estrategiak aurkeztu, emaitza desberdinen preziazio kritiko eta balioespenezkoa, ikasleen errendimenduari ebaluazioa, perpaus-mailako akatsen haztaketa, perpausaz haraindiko akatsen haztaketa, akats semantiko eta pragmatikoen haztaketa mezuaren transmisioan.

### **First Language International Conference - 1991**

Danimarkako Elsinoren 1991ko maiatzaren 31tik ekainaren 2ra egin zen biltzarra da seguraski azken aldi honetan itzulpen eta interpretaritzaren irakaskuntzari buruzko informazio zabala biltzeko aha-lerinik handiena. *Language International* aldizkariaren eta John Benjamins argitaletxearen babespean, Kopenhagengo Unibertsitateko Itzulpen-Estudio eta Lexikografiako Zentruak antolatu zuen.

Bileraren ondorio eta emaitza gisa liburu bat argitaratu zen<sup>3</sup> eta bertan mundu guztiko 36 adituk parte hartu zuten Cay Dollerup eta Anne Loddegaard editoreez gainera, honako bederatzi ataletan: ikuspegi nazionalak eta etorkizuna, itzulpenaren irakaskuntza: erak eta bitartekoak, jakintzagaiartekotasuna eta kokagunea, hiztegi-arazoak, bitarteko berriak eta irakaskuntza, interpretaritza eta itzulpenaren arteko harremana, interpretaritza, ebaluazioa eta eskolaz haraindiko mundua. Liburua bibliografia zabal batez eta aurkibide ugari batez horniturik dator.

Liburuaren sarrerako artikulua<sup>4</sup> Mary Snell-Hornby traduktologo austriarrak egina da eta bertan argi eta garbi planteatzen du gaur eguneko itzultzaile-prestakuntzaren dilema. Behialako itzultzaileak teologo, historialari, idazle eta poetak izan ohi zirela eta jakite klasi-koez hornituak, baina mende honen erditik aurrera, itzulpenaren alorrean testu pragmatikoak nagusitzean eta itzultzeko makina automatikoaren inguruan sortu zen euforiarekin errigore zientifikorako deiak entzun ziren itzulpenaren eremuan eta Linguistika Aplikatuaren erresuma deklaratu zen. Snell-Hornby ez dauka esajeratutzat itzultzaile modernoaren prestakuntza eta itzulpen-teoria modernoa kategoria akademiko zurrunen menpean erori zirela aitortzea.

---

3. Dollerup, Cay&Loddegaard, Anne, eds. (1992): *Teaching Translation and Interpreting. Training, Talent and Experience*. John Benjamins Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia.

4. *Ibidem*, 9-22 or.

Jakina, akordio orokor bat lortu zen itzulpena jarduera linguistiko mota bat zelakoari buruz, baina horrek ez zuen esan nahi itzultzaileak derrigor linguista izan behar duenik, baldin eta hitz horri zentzu oso zabala eman ezean. Tytlerrek bere garaian zioenez hizkuntz gaitasuna funtsezko baldintza da edozein itzultzailearentzat, baina linguistikaren jakintzagai modernoa ezagutzea neurri bateraino bakarrik da muntadun itzulpenarako, zeren itzultzailea ez baita hizkuntza-itzultzaile testuinguru soziokultural jakinetan erroturiko testu-itzultzaile baizik. Horregatik, itzulpengintza jarduera soziokultural bat da, hizkuntz gaitasuna ez ezik ezaguera faktual eta entziklopediko zabalak eskatzen dituena, baita jatorrizko hizkuntzako eta xede-hizkuntzako eguneroko arau eta konbentzioak ezagutzea ere. Labur esateko, berezilari elebidun edo eleaniztun ez ezik, kulturbidun edo kulturantzun eta eremu tekniko batean baino gehiagotan aditu izatera beharturik dago itzultzailea. Horregatik ekin dio, adibidez Vienako Itzulpen-Eskolak bere curriculumean errotiko aldaketak egiteari.

Vienako Itzultzaile- eta Interpretaritza-Eskolan egin nahi den plan-aldaketa ulertzeko lehenengo eta behin gaur gaurkoz bertako egoerari buruz zenbait datu eskaini beharra dago. Eskola horrek 4.000 ikasleko kopurua dauka eta eskuharki eskoletara joaten direnak 2.500 inguru dira, beraz «masa-unibertsitate» ororen arazoak ditu. Austrian ikasketa-prozesua amaitzen duen oro joan daiteke Unibertsitatara inolako hautespen-frogarik egin beharrik gabe. Horrela, ikasle askok porrot egiten dute Eskolak eskatzen duen hizkuntza-ezaguera maila altu samarraren aurrean. Eskolak 13 hizkuntz bikotetan ematen du prestakuntza. Lehen bi urte amankomun egin ondoren, azterketa gainditu eta «lehen diploma» lortzen da, eta ondoren espezializazioko beste bi ikasturte egiten dira, bakoitzak itzulpena zein interpretaritza hautatu ondoren. Ondoren lizentziatura lortzen da, eta gaur egun graduatuondoko doktorego-programa ere badago.

«Eskolaren ardura handietako bat lizentziatura eskuratu gabe kanpora esku-hutsik doazenek eratzen duten arazoa da. Gainera behar bezalako hizkuntz ezaguerazko mailarik gabe etortzen zaizkigun ikasleen arazoa ere hor daukagu: batzuetan jaiotzatikoa duten alema-



nean bertan ere ez dute behar adinako mailarik gero itzultzaile-pres-takuntza bat hartzeko eta C hizkuntzari dagokionez ikasle askok hutsetik hasi behar izaten dute», dio Snell-Hornbyk.

Beste faktore garrantzizko bat eremu jakin batzuetan —teknolo-gia, legea, ekonomia— hizkuntza arrotzak hitz egin eta ulertzeko sortzen ari den gero eta premia handiagoa da, batez ere nazioarteko *lingua franca*tzat erabiltzen den ingelesa. Horrelako prestakuntza bereziki diseinatua ematen ez den tokietan ikasleek Itzultzaile-Esko-letan jartzen dituzte begiak beren defizitak osatzeko. Oraingoz duten goera ez du «asebetegarrizat» jotzen Snell-Hornbyk.

Etorkizuneko curriculumari dagokionez, karreraren parte ez den aurreprestakuntzazko programa bat izango da: bi semestreako esko-lan jadanik hasita dauden hizkuntzetarako eta laukoa lehen-ikaslee-kin hasiko diren hizkuntzetarako. Prestakuntza-aldi horren bukaeran gaitasun-azterketa bat egingo da eta ziurtagiri bat emango zaie karre-ran sartu nahi ez duten edo ezin dutenei. Jaiotzatiko ikasleei edo ja-danik maila badutenei ikasketarik gabe egingo zaie azterketa hori.

«Garbiketa» moduko hori egin ondoren karrerako lehen bi urtee-tan itzultzaile edo interpretari izan nahi dutenek kultur ikasketak (nazioarteko antolamendu eta erakunde politiko eta abarrei buruz), testuekiko lan kontrastiboa, helburu jakinetarako lengoaia, itzulpen-teoria eta itzulpen-metodoetarako lehen sarrera bat eta abar bezalako ikasgaiak izango dira eta testu-azterketak, testu-tipoak eta komunika-zio teknikoari buruzko mintegi eta hitzaldiak izango dira. Lehen parte honen amaierako azterketak helburu bikoitza izango du: interpretari-tzan edo itzultzailetzan espezialtzeko bitarteko azterketa izan daiteke edota «Nazioarte-Komunikazioko Ziurtagiri» bat eskuratzeko auke-ra izan daiteke. Koalifikazio baliagarri bat, esaterako, turismo edo industri sailean eskuratzeko abagune egokia izan daiteke, aurrera jarraitzeko motibaziorik ez dutenentzat eta horrela ez dute erreus gisa irten beharrik izango.

Azken bi urteetako programari dagokionez, lau semestre datoz, zinetan ikasleak itzultzailetzan edota interpretaritzan trebatuko di-

ren zinpeko edo auzitegietao interpretaritza, biltzar-interpretaritza, alor jakin batzuetako itzulpen espezialdua, literatur itzulpena, terminologia izango dira ikasgai nagusia. Trebakuntza-ikastaldi horiekin batera mintegi teorikoak ere emango dira alor espezialdu edo itzulpen-arazoei buruz (filme eta teatro-itzulpena, itzulpenaren historia, itzulpen-teoria sakonagoa); hizkuntzalaritzari dagokionez semantika, gramatika kontrastiboa, psikolinguistika, soziolinguistika edo hizketa-egintzen teoria bezalakoak izango dira ikasgai. Karreraren amaieran diploma-tesia idatziko da itzulpen-teoria, itzulpen-kritika, terminologia edo kultur estudioei buruzko puntu garrantzitsuren bat harturik. Azken azterketak lizentziatura ematen du itzulpengintzan edo interpretaritzan. Akademikoki aurrerago jo nahi dutenek graduondoko doktorego-programari ekiteko aukera izango dute.

Programa horretan oso garrantzitsuak izango dira **malgutasuna** eta **sistema modularra**, aukera eta interes desberdinak uztartu eta ase ahal izateko; **azterriko egonaldiak** hizkuntzak eta kultura sakondu eta hobetzeko, **itzulpena testuinguru profesionalean burutzea** (xede-hizkuntzan betekizuna duten testu errealak itzultzea), **azterketa sistema orekatua** ahozko azalpen, mintegietako lan, aldian aldiko azterketa eta lan erregularren arteko kreditu-sistema konbinatuarekin. (Aztertzailaren irizpidea ezin liteke «zuzentasuna» bakarrik izan, denbora neurtu batean batez besteko egokitasun bat lortzea oso kontutan hartu beharko da).

Itzulpen teoriari dagokionez, programa horretan funtsezkoa da hasieratik graduondora arte eta oso kontutan hartzen dira batez ere aleman-eremuko zenbait autoreren ekarpenak; Hönig/Kußmaul (1982), Reiß (1971&1976), Vermeer (1983&1984) eta Holz-Mänttari (1984), beste batzuk baztertu gabe.

Biltzarreko txostenen bigarren sailkapenean<sup>5</sup>, hots, era eta bitartekoei buruzkoan datoz zuzenkien didaktikari loturiko gaiak, eta besteak beste, Christine Nordek «*scopos*-teorian» oinarrituko bere mo-

5. Ibidem, 39-48 or.

delo didaktikoaren berri ematean itzulpen-arazoak sistematizatzeko erakusten duen era interesgarria da:

- a) Itzulpen pragmatikoaren arazoak.
- b) Kultur itzulpenaren arazoa.
- c) Hizkuntz itzulpenaren arazoak.
- d) Testuaren berezitasunetik datozen itzulpen-arazoak.

Christene Nord itzultzaile-gaiak trebatzeko programa integratu baten alde agertzen da, zeinean testu osoei aplikaturiko metodo eta prozeduren ezaguera teorikoa gaitasun partzialak lantzeko programekin konbinatu behar den klase berezitan. Bere ustez hona hemen lortu behar diren gaitasunak: testuak hartzeko eta analizatzekoa, testuak sortzekoa, itzulpen-kalitatea ebaluatzekoa eta hizkuntz eta kultur gaitasuna bai sorburu-testuari nola xede-testuari dagokienean.

Rune Ingo finlandiarrek, itzulpen-teoriak irakaskuntzan kontuan hartu beharreko interesguneak aipatzean honako lau hauek ematen ditu:

- a) Gramatika-egitura.
- b) Hizkuntz barietatea (estiloa bereziki).
- c) Semantika.
- d) Pragmatika (determinatzaile funtzional eta situazionalak).

Hala ere, aitortzen du teoria eta praktika kidez kide ibiltzen direnez gero, itzulpenaren aspektu guztiei buruzko ikuspegi bat ematea dela ikasleak etorkizuneko eginbeharretarako prestatzeko erarik hobena.

Aipaturiko nazioarteko biltzar berean hitz egiten zutenen artean Hannah Amit-Kochavi israeldarrak landu zuen gaia ere jakingarria da: nola Jerusalemeko Hebrear Unibertsitatean itzultzaileen trebakuntza humanitate-zientzietan, Linguistika Aplikatuko zentruaren azpi-sailkapen gisa kokatua egotetik (1971-1980) gizarte-zientzietan kokagunea izatera (1981-199...) aldatu zen, baina bien arteko harremana eten gabe, horrek ekarri dituen alde on guztiekin.

### ***The Translator's Handbook.* Catriona Picken**

Obra horretako 11. kapituluan<sup>6</sup> Hugh Keith-ek itzultzaileen trebakuntzaz diharduela, inbentario gisako bat burutzen du Britainia Haundia eta beste herrialde batzuetako itzultzaile-trebakuntzarako programetan lantzen diren elementuena. Hona hemen hurrenez hurren gai horiek:

Atzerriko hizkuntzetako gaitasun-trebetasunak.

Xede-hizkuntzako gaitasun-trebetasuna.

Ezaguera espezialduak (aspektu politiko, historiko, sozial eta ekonomikoak).

Testu-tipologia.

Itzulpen-espezifikazioa (zertarakoa).

Laburkuntza.

Gainbegiraketa eta zuzenketa.

Makinabidezko itzulpena.

Makinaz lagunduriko itzulpena (hitz-prozesaketa).

Terminologia.

Bereziki azpimarratzen du lantoki errealetan praktika eginez lortzen den trebakuntza eta antolamentu profesionalek eskaintzen duten laguntza beste itzultzaileekin harremanetan jarri eta egunera egoteko.

### **Ondorio gisa**

Orain arte bilduriko ideia eta iritziak aztertu ondoren aski garbi dago Itzultzaile- eta Interpretari-Eskola edo Programa bakoitza testuinguru jakin batean, oinegitura jakin batekin eta premia zehatz samar

---

6. Catriona Picken ed. (1989): *The Translator's Handbook*, Aslib, London.

batzuei erantzuteko sortzen dela. Nire ustez, horretan dago gerora zentru horrek izango duen bizitza eta arrakastaren gakoa. Montereyko edo Genebako programa mimetikoki Deustuan edo Gasteizen ezarri nahi izateak ez luke zentzu handirik bere horretan; hala ere horrek ez du esan nahi neurri batean gauza amankomunik ez dagoenik eta izan behar ez denik eta horretan nabarmenduko da egitarau-diseinatzaileen zuhurtasun eta argitasuna.

Bestalde, Snell-Hornbyk aditzera ematen duenez, gaur egun IIEk duten arazoetako bat sarrerako hizkuntz ezagueraren maila finkatzea eta ikasleengandik lortzea da eta Vienako Eskolak etorkizunean emango dituen bi ziurtagiri mota horiek irtenbide praktiko eta interesgarriak izan litezke unibertsitatera sartzen diren baina itzultzaile trebatu izatera iritsiko ez diren ikasle-kopuru horri irtenbide egokia emateko, gizarteko zenbait premiari soluziobidea bilatuz.

Baina gauza bat dago argi: IIEk ezin du hizkuntz eskolen jarraipen soil bihurtu eta HE eta IIEEn arteko muga ahalik eta garbien uzten eta bakoitzak dituen helburuak eta berezitasunak zehazten lan egin beharko da, zeinek bereari erantzun diezaion, bien arteko lankidetzeta eta harremana ukatu gabe, noski.

Ikasplanetan hizkuntza eta hizkuntzalaritzaren garrantzia ukaezina bada ere, azken jakintzagai horren baitan munta handieneko aspektua irakasteko eta azpimarratzeko ahalegin bereziak egin beharko dira filologia, linguistika orokor, berezia eta aplikatua, estilistika, erretorika, literatur kritika pragmatika, diskurtsoaren analisisa, testologia, semiotika, psikolinguistika, soziolinguistika eta abar bezalako jakintzagaien artean ahalik eta oreka fruitukorra lortuz etorkizuneko itzultzaileak hazkuntza-bideak zabalik eduki eta premia berrietara egokitzeko modua izan dezan. Baina, esandakoa, ezinbestekoa izanik ere, IIEk ahalegin berezia egin behar dute beren plan didaktikoetan hori guztia lanbidearen alderdi profesional eta teknologikoarekin uztartzen, etengabe aldatuz doan merkatuan eskura jarriko zaizkion ahalbide berrien aurrean kikildurik gera ez dadin, eta bakarka edo taldetan integraturik lan egiteak eskatzen dituen baldintzetara egoki molda dadin. Horretarako lan errealarekiko loturak bereziki zaindu

beharko dituzte mundu «akademizista» aparteko eta urrundu batean ez gelditzeko. Horregatik informazio-ugaritasuna eta modulu eta curricula-en malgutasuna funtsezkoak dira, ikasleekiko harreman pertsonal estu eta bizi batekin batera.

Azkenik —*last but not least*— errezetario eta kasuistika gogaikarriaren Karibdisetik urrundu beharko dute jeneralizazio lauso eta orokorregiaren Eszilan erori gabe; itzultzailea eta interpretaria beti kasu eta testu berriekin aurkituko da eta betiko balioko dion errezetarioa ez baizik *forma mentis* eta soluzio egokiak bilatu, aurkitu eta sortzeko ahalmena areago izan behar du. Ikermen edo itzulmen hori estrategia eta taktiken bidez lantzea, bere buruagan konfidantza eta aldi berean mugen kontzientzia izanez, horixe da eskolak bilatu beharko lukeena. Izan ere, beste profesio guztietan eguneroko lana gertatuko zaio itzultzaile edo interpretariari ikastokirik emankorrena bizitza guztian zehar: ikusteko begiak argitzen eta entzuteko belarriak irekitzen lagundu behar du IIEk.

Itzultzailea eta interpretaria hizkuntzaniztasun eta kulturantzitasunean mugitzen dira eta ondare aberats hori txikitatik, pixkanaka bereganatzen duen zerbait da, nahiz eta gero bere lanbideari begira ikasketa eta sakonketa bereziak egin. Horrek esan nahi du, garrantzi handia duela profesional horien eta gizarteak, oro har, duen funtzionamenduan ama-hizkuntza eta atzerri-hizkuntzen eta kulturen ikasketa nola planifikatzen eta ematen den eskola eta ikastetxeetan haurtzaindegitik hasi eta Unibertsitatetaino. Halaber, garrantzi izugarria duela gizartean dagoen kultura «traduktologikoak»: irakasle, erakunde publiko eta pribatu, gisa guztietako elkarte eta erakunde, enpresa, argitaletxe, komunikabide eta abarretan gizarte horren funtzionamendu egokirako, IIEk beren inguruko gizartean pixkanaka ezaguera eta kultura hori zabaldu beharko dute, gaur gaurkoz dagoen ezjakintasunaren amildegia gaintu eta zubiak ezartzeko. Horrela bakarrik hiritarrak eta politikariak iritsiko dira hizkuntz bitartekari ezinbesteko diren itzultzaile eta interpretarien betekizuna gizartean behar bezala balioetsi eta sustatzera. Hitz batean esateko, itzultzaile eta interpretarien prestakuntzarako diseinatu eta kontuan hartu behar den

didaktikak lotura bizi eta estuak izan behar dituen kokaturik dagoen gizartea eta bere premiekin eta bide horiek urratzen lagunduko dizkieten baliabide guztiak erabili behar ditu, hasi ikerketa teoriko eta espezialduenetatik eta komunikabide eta eskoletako testuetaraino baliatuz. Bistan dago honetan ere harako «*ars longa, vita brevis*» hark balio ukaezina duela.

## LABURPENA

### Itzulpenaren didaktika gaur egun

Honako artikulua honek gogoeta batzuk eskaintzen ditu itzulpenaren didaktikaz, egileak Deustuko Unibertsitateko Itzulpen Masterraren barruan, «Itzulpenaren bibliografia eta didaktikarako hurbilpena» izenburupean zuzentzen duen mintegiko lanetatik abiatuz. Prestigioko zenbait traduktologoren ekarpenak ere kontuan hartzen ditu, hala nola E. Zierer, Snell-Hornby, Chirstine Nord eta Hugh Keith-enak. Ondorio gisa uste du, ikastoki eta eskola bakoitzak bere arrazoi eta egitekoaz jabetuz egon behar duela errotuz dagoeneko testuinguru soziolinguistikoan, mimetismoan eta eredu arrotzak morroi gisa kopiatzean erori gabe.

## RESUMEN

### La didáctica de la traducción hoy

El presente artículo ofrece algunas consideraciones sobre la didáctica de la traducción a partir de las elaboraciones del seminario «Aproximación a la bibliografía y la didáctica de la traducción», dirigido por el autor, dentro del Master de Traducción de la Universidad de Deusto; asimismo, toma en cuenta las aportaciones de traductólogos de reconocido prestigio como son E. Zierer, Snell-Hornby, Chirstine Nord y Hugh Keith al respecto. Llega a la conclusión de que cada centro o escuela debe ser consciente de su razón de ser y de su cometido en el contexto sociolingüístico que le sustenta, sin caer en mimetismos o copias serviles de modelos ajenos.

## SUMMARY

### **The didactics of translation, today**

This article advances a few considerations on translation didactics derived from the innovations made at the seminar entitled «Approach to translation bibliography and didactics», directed by the author within the Masters' Course in Translation in the University of Deusto; contributions on the matter from such prestigious translation experts as E. Zierer, Snell-Hornby, Christine Nord and Hugh Keith are also taken into account. The article's conclusion is that each school or training centre must be conscious of its origins and purposes within the social and linguistic context in which it is maintained, without slipping into mimicry or servile copying of extraneous models.

## RESUME

### **La didactique de la traduction aujourd'hui**

Cet article présente quelques considérations à propos de la didactique de la traduction, fruit des travaux du séminaire «Approche à la bibliographie et à la didactique de la traduction», dirigé par l'auteur, dans le cadre du Master de Traduction de l'Université de Deusto. Il tient compte également des apports de traductologues renommés tels que E. Zierer, Snell-Hornby, Christine Nord et Hugh Keith à ce sujet. Il arrive à la conclusion que chaque établissement ou école doit être conscient de sa raison d'être et de sa mission dans chaque contexte sociolinguistique particulier, sans tomber dans le piège du mimétisme et de l'imitation servile de modèles extérieurs.



## **Interpretaritzaren didaktika**

Lurdes Auzmendi

### **Sarrera**

Interpretaritzaren irakaskuntza eta itzulpenarena lotuta egon dira eta daude gaur oraindik ere leku gehienetan. Europako itzulzaile eskolarik ospetsuenetan (Ginebra, Brusela, Paris) itzulpen ikasketak burutu behar dira interpretaritzari dagozkionak egin aurretik. Badi-rudi bi ikasketa motak bereizteko joera gero eta handiagoa dela, bai-na halere, itzulpen eta interpretaritza ikasketetan beti egongo dira ikasgai amankomunak, bi jardueren helburua berdina delako: jatorriz-ko mezua beste hizkuntza batera isurtzea. Aldea iraulketa horretarako bitartekoan datza, alegia, itzulpena idatziz egiten bada, interpretaritza ahoz egiten da, eta berezitasun horixe da interpretaritza lana bereziki baldintzatzen duena.

### **1. Zer eta nola irakatsi: esanostekoa aldiberekoaren bi-dean**

Itzulpen ikasketak interpretaritzakoen aurretik egiten direla aintzat harturik, hizkuntzen ezagutza, itzulpenaren teoria eta praktika ongi menderatzea bezalako pausuak emanak ditu interpretari-gaiak prestaketa berezituari ekin aurretik.

Bi interpretaritza mota nagusi bereizten dira: esanostekoa (hizlariak hitzegin ondoren ematen da itzulpena) eta aldiberekoa (hizlariak

hitzezin ahala egiten da itzulpena), baina biak irakasten dira, hau da, ikasleak bi interpretaritzak motak menderatu behar ditu, nahiz eta gero, agian, bata nahiz bestea bakarrik egin. Beraz, lehenik esanostekorako nahiz aldiberekorako oinarritzko prestaketa ematen da, ondoren esanostekoa lantzen eta azkenik, aldiberekoa. Lehenengo bien praktikak ikasgelan egiten dira, hirugarrenarenak kabinetan.

Ezer baino lehen garbi utzi behar da beste jarduera batzuetarako ez bezala, interpretaritzarako prestaketan ariketak behin eta berriz errepikatzen direla. Hasiera-hasieratik, pausu bakoitza behin eta berriz ematen da maila berri batera pasatu aurretik aurrekoa guztiz menderatzera iritsi arte.

Interpretaritzaren teoria asko garatu gabe dagoenez, ez dira ordu asko behar egin diren lanen eta ikerketen berri emateko. Dena den, gutxi badago ere beharrezkoa da jarduera honen oinarri teorikoak azaltzea, bestela nekez ulertuko baita ondoren burutu behar den prestaketa praktikoa guztia.

Horrela, eta hasteko, idatzizko testuekin lan asko egiten da diskurtsuaren ahozko berezitasunetan sartu aurretik. Testu labur eta ulerterrazekin hasi eta testuaren azterketa izaten da lehen pausua: testuaren muina, gainontzeko elementuak, horien mailaketa garrantziaren eta pisuaren arabera, eta abar. Hori bera testu zail, ilun eta sakonagoekin egin ondoren beste era bateko ariketetara pasatzen da: testua berridatzi, elementuen ordena aldatu baina zentzua bere hartan utziaz, testuak esaldika zatituta ikasleei banatu eta zati horiek ordena logikoan jarri, eta abar. Era horretako ariketa asko egiten dira, lehenik hizkuntza berean eta ondoren hizkuntza aldatuz, ahozko mintzaldietara pasatu aurretik. Ariketa guzti horien helburua hau da: interpretariak testuak ongi ulertu behar ditu, mezua laburtzen jakin behar du, agian askotan jatorrizkoan azalduko ez diren hitzen bidez testua berregiten jakin behar du, hizkuntz-jarioa ugaltzen joaten da, eta abar.

Ahozko diskurtsuekin ere idatzizkoekin egiten direnen antzeko ariketak erabiltzen dira hasieran, baina baita oroimena lantzekoak ere, ez noski diskurtsua memorizatzeakoak, askok hala uste badute

ere, oroimen ona edukitzea ez baita interpretaritzarako ezinbesteko baldintza, berez lagungarria bada ere.

### **1.1. Esanostekoa**

Ondoren esanosteko interpretaritzarako praktikak datoz, eta hemen bereziki notaketa lantzen da. Itzulpenean ez bezala, interpretaritzan ez dira hitzak itzultzen, zentzua baizik, eta neurri horretan sinonimia oso garrantzitsua da. Bestalde, laburtzen eta lastoa eta garia bereizten ere jakin behar da, hitzezko diskurtsuak beti baitira errepikakorragoak idatzizkoak baino, eta sintesiaren garrantzia hortik dator.

Esanosteko interpretaritza, lehenago genioen bezala, hizlariak hitzegin ondoren diskurtsua itzultzean datza. Hizlariak 5-7 minutuko mintzaldia egiten duen bitartean interpretariak notatu egiten du mezua, baina nota horiek ez daukate takigrafiakoekin zerikusirik, askotan hitz batek esaldi oso bat laburbildu dezakeelako. Laburdurak, zeinuak, sinboloak, notak goitik behera mailakatuta jasotzeko modua, eta abar dira notaketan lantzen direnak. Lehenagotik nola edo hala notak hartzen aritutako jendeari oso zaila gertatzen zaio teknika berrira ohitzea, eta askotan lehenagotik dauzkaten ohiturak eta interpretaritza teknikak gomendatzen dituenak bilduz egokitzen dute interpretariak beraien estiloa. Esanosteko notaketa nekagarria gertatzen zaie askotan ikasleei, baita esanosteko interpretaritza egiten dutenei ere, baina behin notaketaren oinarriko printzipioak menderatzera iristen direnean orduan konturatzen dira bitarteko horren balioaz.

Eta notak hartzen ikastearekin batera mezua ongi berregiten ikasi behar da, eta horrek hizlari dohai handiagoak eskatzen dizkio esanosteko interpretariari aldiberekoari baino. Izan ere, mota honetako interpretaritza jendaurrean egiten da, eta horrek baldintzatzen du jarduera, baina interpretariak oroimenean eta jasotako notetan oinarriturik berregin behar du mintzaldia bere modura. Gainontzean, garbi ahoskatzea eta hitzegitea, esaldiak amaitzea, hizkuntzaren erregistroa zuzen erabiltzea, eta abar dira lantzen diren beste hainbat aspektu.

Orain arte esan dugu, interpretaritza ahozko diskurtsuaren arabe-ra egiten den itzulpena dela, baina hori ez da egia osoa, izan ere askotan testu idatziak izaten direlako ahoz botatzen direnak, eta gauzak orduan ez dira modu berean planteatzen. Kasu horietarako trebetasun bereziak garatu behar dira, eta horiek «ikusizko itzulpena» deitzen denaren bidez lantzen dira. Itzulpen/interpretaritza mota hori, ordea, beste kapitulu batean aztertuko dugu.

## **1.2. Aldiberekoa**

Eta ikasketa prozesu osoaren amaieran aldibereko interpretaritza daukagu.

Interpretaritza mota hau da ikasleentzako erakargarriena, bai hasieran behintzat. Ikaslea kabinan dago aurikular eta mikrofono batekin. Aurikularretatik jasotzen du mezua hizkuntza batean eta mikrofonotik beste hizkuntzan berreginda botatzen du. Hori litzateke labur esanda teknikaren funtsa, baina horretara iristerako oinarrizko ariketa asko egiten dira.

Hasteko, entzuten den mezua hizkuntza berean eta hizlariak esan ahala errepikatzea da. Jatorrizko mezua garbia eta mantso adierazia izango da hasieran, poliki-poliki diskurtsuak abiada handiagoa hartuko du eta gainera ez da askotan hain ongi ahoskatua izango edo beste zarata mota batzuk izango ditu.

Ondoren, aldibereko interpretaritzaren funtzionamendu psiko-fisiologikoaz jabetzeko ariketak datoz. Alegia, interpretariak jatorrizko mezua entzuten du, entzuten duen neurrian deskodifikatu eta beste hizkuntza batean berreginda isuri behar du. Neuro-psikiatruk hainbeste harritzen dituen jarduera hori erabat automatikoa bada ere, interpretariak jakin behar du nola funtzionatzen duen, eta horretarako era honetako ariketak egiten dira: jatorrizko mezua entzuten duen bitartean, ikasleak zenbakiak botako ditu atzekoz aurrera erritmo jarraituan edo ipuin bat kontatuko du. Amaitzean, mezua laburtzeko gai izan behar du.

Oinarrizko ariketa horien ondoren lan errealerara gerturatzeko pres-taketa dator. Ikasleak kabinan landuko dituen hitzaldi-saioak zailta-sunaren arabera (abiada, ahoskera, lexikoaren zailtasuna, zenbakiak, izen propioak, eta abar) mailakatzen dira, eta hortik aurrera orduak eta orduak sartu behar ditu ikasleak kabinan egiten duen lana «perfek-toa» izatera iritsi arte.

Irakaslearen zeregina une horretatik aurrera ikasleen lana kontro-latzerara eta aztertzerara mugatuko da. Irakasleak, eta ikasleak ere bai bere aldetik egin dezakeen neurrian, maila hauek aztertu eta kontro-latu behar ditu egiten duen lanean:

1. Hizlariarekiko fideltasuna.
2. Edukiaren identitatea:
  - a) zentzu aldaketak
  - b) informazioa jatea edo ez ematea
  - c) fiabardurak galtzea
  - d) informazio elementuen egiazko garrantzia
  - e) iturria faltsifikatzea edo ezkutatzea
  - f) denbora eta moduari buruzko zehaztasunen arazoa
  - g) zentzu okerrak eta kontraesanak
  - h) interpretariak bere kabuz gehitzen duena
  - i) hari logikoa nahastea
  - j) lokailuak isiltzea edo aldatzea
  - k) planaren organizazio/desorganizazioa
3. Estiloaren egokitasuna:
  - a) hizkuntza mailaren erregistroa
  - b) tonuaren distortsioa
  - c) komuntaduraren arazoa
  - d) entzuleekiko errespetoa
4. Aurkezteko modua:
  - a) komunikatzeko zailtasunak
  - b) segurtasun falta
  - c) hizkuntza mailako akatsak

- d) eraginkortasun falta
- e) zentzurik ezak
- f) formaren edertasuna
- g) formulazio mailako baldarkeriak

Horiek eta beste maila asko dira aldibereko eta esanosteko interpretaritzaren praktiketan behin eta berriz kontrolatu behar direnak lan ona egitera iristeko.

## 2. Ikusizko itzulpena (*traduction à vue, traslation on seight, traducción a la vista*)

Interpretaritzaren didaktikan amaieran joaten ez bada ere, amaierarako utzi dut teknika honen berri ematea, izan ere dituen berezitasunengatik praktika gurutzatuak eskatzen dituelako. Eta teknikaren berezitasunetara pasatu aurretik ohar bat: itzultzaile asko baliatzen dira metodo edo teknika honetaz beraien itzulpen lanak egiteko. Alegia, itzuli beharreko testua hartzen dute, eta testua erraza denean edo nahiko pareko bi hizkuntzekin lana egiten duenean, grabagailu bat hartu eta hitzez itzuli eta grabatzen du testua. Ondoren, berak edo beste pertsona batek makinara pasatu eta azken orraztuak eman ondoren testu itzuli bezala aurkezten du. Euskal itzultzailearen batzuek ere erabili izan dugu noizbait sistema hori, eta esan behar da itzulpenaren irakaskuntzan ere ez dela inondik erabat alde batera uzteko metodoa, testuen ezaugarrien eta horien itzulpenaren erabileraren arabera uste baino askoz baliagarriagoa gerta daitekeelako.

Lehenago nioen bezala, esanosteko interpretaritza egin nahiz aldiberekoa egin, hizlariak askotan testuak irakurtzen dituzte mezuak hitzez eta buruz eman ordez. Kasu horietan guztiz beharrezkoa da interpretariak testua aldeztu aurretik izatea irakurri eta prestatzeko, izan ere erregistro aldaketa eskatzen duen hizkuntz iraulketa mota bakarra baita (itzulpena: testu idatzitik testu idatzira; interpretaritza: ahozko mezua ahozko mezura; ikusizko itzulpena: testu idatzitik ahozko mezura).

Eta nola egiten da prestaketa hori? Interpretariak kontzentrazio ahalik eta handiena lortu behar du lan horretarako, eta egiten diren prestaketa ariketek ondorengo helburu nagusiak dauzkate:

1. Jatorrizko hizkuntzan dagoen mezua ahoz eta bizkor beste hizkuntza batera itzultzeko gaitasuna garatzen hasi.
2. Testu idatziak bizkor eta osotasunean ulertzeko gaitasuna hobetu.
3. Laburtzeko gaitasuna garatu.
4. Jatorrizko testuan dauden ideia, arrazonamendu eta testuak lortu nahi duen helburuaren haria jarraitzeko gai izan.
5. Lastoa eta garia bereizten ikasi.
6. Ahozko komunikaziorako gaitasuna garatu.
7. Ahozko espresioa garatu, entonazioan, erritmoan eta ahoskeran arreta jarritz.
8. Sinonimoak erabiltzeko gaitasuna garatu.
9. Jarduera hori interpretaritzaren berezko ezaugarriekin uztartzen ikasi.

Horrela esanda gauza asko direla pentsa daiteke, eta halaxe da. Praktikak, kasu honetan ere, mailakatuta burutuko dira. Hasieran testu errazak eta aurrez prestatu gabeak itzuli beharko dira ikusiz. Ondoren, testuak zailtzen joango dira eta aldeztatik prestatzen irakatsiko zaie ikasleei. Euskaratik itzuli behar den kasurako, adibidez, esaldiaren barruan sujetua, aditza eta objektua non dauden ongi markatu beharko dira, menpeko esaldien hasiera eta amaierak bezala. Hiztegiaren begiratu beharreko hitzak itzulita jarriko dira jatorrizkoaren parean, eta abar.

Eta noski, interpretariak hizlariak irakurtzeko erabiliko duen abiada berean itzuli beharko du gero testua. Horrela, hasieran testu idatziekin bakarrik praktikatu bada ere, gerora testua eta horren irakurketa lotuta joango dira denboran batera joan daitezen. Interpretaritzaren mota honetan, egon daiteke xede hizkuntza besteetan baino askoz

gehiago bortxatzeko arriskua, alegia, hitzez hitzezko itzulpena egiteko tentazioa handia izan daiteke, eta horrexegatik eskatzen du pres-taketa hain sakon eta handia.

Amaitzeko, ikusizko itzulpenerako esan diren hainbat gauza arra-zoitzeko adibide bat. Jo dezagun interpretariak idatziz dagoen testu zati hau bat-batean eta hizlariak irakurri ahala itzuli behar duela:

Aunque "Komunikabideetan <sup>divulgación</sup> hedadura <sup>exagerada</sup> ikaragarria eta gehiegizkoa izan duen (arran) / jende askorentzat / ez da oso harrigarria izango / Miguel Indurainek atzo Bordelen egin zuen <sup>heroicidad</sup> balentria / Tourra lau aldiz irabazi duenak / atzokoa bezalako 'erlojupekoa' <sup>facilmente</sup> irabazi behar zuela / irudituko zaio bat / baino gehiagori". (J.L. Zabala, Egunkaria, 1994-9-3).

Hori litzateke testu hau ikusizko itzulpena egiteko prestazeko moduetako bat, Azken finean, interpretariak bere beharretara egokitu beharko du teknika, baina funtsezko pausu batzuk beti eman beharko dira.

Eta lantxo hau amaitzeko, eta gure artean maila honetan dagoen eskasia ikusita, bai interpretaritza lanetan dihardutenentzat eta baita esanosteko nahiz aldibereko interpretaritzaren berri izan nahi dutenentzat oinarri oinarritzko bibliografia labur bat eskaini nahi dut.

### Bibliografia orokorra

COLLECTIVE. *L'enseignement de l'interprétation et de la traduction*. Editions de l'Université d'Ottawa, 1981.

CURVERS, Ph. eta beste batzuk. «Contribution a une pédagogie de l'interprétation». *Cuadernos de traducción e interpretación*, 8/9, Universidad Autónoma de Barcelona, 1986.

DELISLE, J. «L'enseignement de l'interprétation et de la traduction: de la théorie à la pédagogie». Presses de l'Université d'Ottawa.

GARCIA-LANDA, M. «Práctica y teoría de la interpretación». *Cuadernos de traducción e interpretación*. nº 4. EUTI, Universidad Autónoma de Barcelona, 1984.



- HERBERT, J. *Manuel de l'interprète*. Georgetown/Ginebra, 1965.  
VAN HOOFF, H. *Théorie et Pratique de l'interprétation*. Hueber, Munich, 1962.

#### Esanosteko interpretaritza

- BOWEN, D. & BOWEN, M. *Steps to Consecutive Interpretation*. Pen and Booth, Washington, 1980.  
ILG, G. «L'interprétation consécutive. La pratique». *Parallèles*. n° 5. Universidad de Ginebra. 1982.  
ROZAN, J.F. *La prise de notes en interprétation consécutive*. Georgetown/Ginebra, 1983.  
SELESKOVITCH, D. *Langue, langages et mémoire. Etude de prise de notes en interprétation consécutive*. Minard, Paris, 1975.

#### Aldibereko interpretaritza

- BERTONE, L. *En torno de Babel. Estrategias de la traducción simultánea*. Libreria Hachette S.A. Buenos Aires, 1992.  
LEDERER, M. *La traduction simultanée. Expérience et théorie*. Lettres Modernes, Minard. paris. 1981.  
SELESKOVITCH, D. *L'interprète dans les conférences internationales*. Minard, Paris, 1968.

#### Ikusizko itzulpena

- CURVERS, Ph. eta beste batzuk. «La traduction à vue comme exercice préparatoire et complémentaire à l'interprétation de conférence». *Cuadernos de traducción e interpretación*, n° 7, Universidad Autónoma de Barcelona, 1986.  
ARROYO, A. & SEVILLA, J. «La traducción a la vista (Francés-Español)». *Sendebarr* n° 4, Granada, 1993.

## **LABURPENA**

### **Interpretaritzaren didaktika**

Interpretaritzaren didaktikaz hitzegiterakoan, bi interpretaritzaren mota nagusiak bereiztu behar dira: esanostekoa eta aldeberekoa. Ahozko berbaldira hizlariak amaitu ondoren itzultzeko, memoriaren gain notak hartzen eta ondoren nota horiek behar bezala irakurtzen eta mezua berregiten ere ikasi behar da. Horretarako teknika zehatzak daude.

Aldibereko interpretaritzan beste dohai batzuk gehiago ere garatu behar dira, eta bi kasuetan jatorrizko hizkuntza nahiz xede hizkuntza oso ongi menperatu behar dira, itzulpenean ez bezala, hemen bapatekotasunak baldintzatzen duelako jardura.

Azkenik, testu idatziak bapatean itzultzeko garatu behar diren teknika eta trebeziei buruz hitzegiten da lantxo honetan.

## **RESUMEN**

### **La didáctica de la interpretación**

Al hablar sobre la traducción simultánea o la interpretación, hay que distinguir las dos formas principales de dicha actividad: la traducción consecutiva y la simultánea. Para traducir un discurso una vez haya terminado el orador, aparte de la memoria hace falta aprender a tomar las notas correctamente y a continuación saber leerlas y rehacer el discurso.

Para la traducción simultánea hace falta desarrollar además otras capacidades, y en ambos casos hay que dominar la lengua fuente y la lengua de llegada muy bien, pues la simultaneidad no permite la consulta de diccionarios como sucede en la traducción.

Finalmente, en este trabajo se habla sobre la técnica y las capacidades que hay que desarrollar para realizar la traducción a la vista de una forma óptima.

## SUMMARY

### **The didactics of interpretation**

When talking about simultaneous translation or interpretation, it is necessary to distinguish two main kinds of activities of this kind: consecutive translation and simultaneous translation. In order to translate speech when the speaker has finished, apart from memory, it is necessary to learn to take down notes correctly and then to know how to read them and remake the speech.

Other skills must also be developed for simultaneous translation, and in both cases the source and target languages must be perfectly dominated, as simultaneity does not allow for dictionary use, as in written translation.

Finally, this paper deals with technique and skills which must be developed in order to carry out this sort of translation in a proficient manner.

## RESUME

### **La didactique de l'interpretation**

Avant de parler de traduction simultanée ou d'interprétation, il nous faut définir les deux modalités principales de cette activité : la traduction consécutive et la simultanée. Pour être capable de traduire un discours après que l'orateur se soit tu, outre une bonne mémoire, il faut être capable de prendre correctement des notes, savoir les relire et reconstruire le discours.

Pour la traduction simultanée, d'autres capacités sont nécessaires et, dans les deux cas, la langue de départ comme la langue d'arrivée doivent être parfaitement maîtrisées, puisque la simultanéité ne permet pas de consulter de dictionnaires, chose possible en traduction.

Enfin, ce texte parle des techniques et des capacités à développer pour effectuer une traduction à vue dans de bonnes conditions.



## **Euskarazko zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik**

Josu Barambones Zubiria  
Oscar Gonzalez Atxa

*Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Itzulpen Zerbitzuko itzultzaile-interpretariak (Bilbo)*

### **0. Aurkezpena**

Gogoz abiatu ginen duela bi urte eskuartean duzun artikulua hau gertutzen. Gure asmoak bi alderdi zituen: batetik, lan eremua zientziako diziplinen artean behar bezala kokatu eta zientzia horren printzipio eta bereizgarri orokorrak gaingiroki ezartzea; bestetik, itzulpen juridikoaren eguneroko ihardunean aurkitu ohi ditugun arazo berri eman eta arazo horiei zer nolako konponbidea ematen diegun azaltzea.

Irakurlea ohartuko denez, itzulpenak berak sortzen dituen arazoak barik, terminologiarekin ikuskizunik duten gaiak agertzen dira gehienbat, uste baitugu eragozpenik gaitzenetakoa zuzenbidezko terminologia oso eta zehatz baten falta dela. Hutsune horren kausa eta ondoreetan barrenduko ez bagara ere, hurbilketa historiko ttikia opatzen diogu tribunaletako euskararen erabilera murriz horri.

Beharbada itzultzaile arituak interesgarrien iritz dekiokkeen atala hondarrekoa dateke, alderdi arras praktikoak ukitzen baitira, hala nola itzulpenaren egitekoa, elkarlanaren beharra eta hizkuntz baliabideak hizkera juridikoaren eraikuntzan.

Artikuluan aditzera ematen ditugun datuak zertxobait aldatu dira: bukaera aldera adierazten genuen nola jende gutxik erabiltzen zuen euskara tribunalen aitzinean; bada, handik honako bi urte hauetan baieztapen hori pittin bat aldatu beharretan aurkitzen gara, beharrik ere. Azken urteotako datuei begiratu bat emanez gero, berehala konturatzen gara nabarmen baino nabarmenago igo egin dela tribunalen aurrean euskaraz aurkezten diren auzien kopurua. Hartara, eta interpretaritzako saioak alde bat utzirik, non igoera agerikoa ere izan baita, esan daiteke idatzizko lana (errekurtsoak, espedienteak, demandak, salaketak, autuak, sententziak, akordioak, eta abar) hirukoiztu egin dela: 1990. urtean 75 auzi izan ziren euskaraz buruturikoak; 1991.ean 69 besterik ez; 1992.ean 197 eta iaz, berriz, 257ra igo ziren euskaraz bideratu ziren auziak. Aurrerantzean ere emendatuko al da!

## **1. Itzulpengintzako eremuaren kokatzea**

### **1.1. Itzulpenaren zientzia eta linguistika**

Artikulu honi hastapena emateko baitezpadako deritzogu lan eremua —itzulpengintza eta zuzenbidea— teorikoki finkatzeari, eta horretara eguneroko iharduna gidatzen duten irizpideak ezagutzera eman nahi dira abia-abiatik. Kapitulu honetan itzulpengintzaz arituko gara.

Itzultzaileak hizkuntzen izaera eta funtzionamenduaren mekanismoen berri jakin behar du; eta hizkuntz estrukturaren berri izango badu, bitarteko erazkoak eskainiko dizkion zientzia lagungarri baten arrimua behar du. Azken finean, metodo zientifiko bat iritsi nahi da zeinahi mintzairatara bihurtzeko garaian, linguistikak mende honen hasieratik bizi izan dituen aurrerapenei esker, itzulpenaren zientzia batez hitz egitea daukagu. Hizkuntzalarien zein itzulpen teoria aztertzen dutenen aburuz, itzulpen teoriak linguistikan behar du zimentatu; areago, Vázquez Ayoraren ustez<sup>1</sup>, zeinek Taber eta Nidari jarrai-

---

1. Vázquez Ayora, Gerardo, *Introducción a la traductología*, Washington D.C.: Georgetown University, School of Language and Linguistics, 1977. 1. or.

tzen baitie, itzulpengintza linguistika aplikatuaren adar bat da, eta, diziplina bat den aldetik, baditu bere printzipio, metodo eta aplikatzeko irizpideak. Izan ere, hizkuntzalaritza aplikatuak hizkuntzaren zientziako eta honekin ikuskizunik duten beste diziplina batzuetako ikereremu guztiak besarkatzen ditu: psikolinguistika, soziolinguistika, etnolinguistika, hizkuntzen irakaskuntza, itzulpenaren teoria, e.a.<sup>2</sup>.

Halarik ere, itzulpenaren zientifikotasunaz edo azientifikotasunaz eztabaida franko altxatu izan dira, itzulpenaren prozesuan faktore linguistiko hutsak ez ezik, faktore estralinguistiko asko ere biltzen direnez gero. Arrazoi honegatik, hots, itzulpenaren zientziaren eremua beste zientzia batzuetako bidegurutzearan aurkitzeagatik (filologia, lexikologia, psikolinguistika, linguistika kontrastiboa, estilistika, ikerketa literarioa eta semiotika, horien artean), diziplina hauetako batek ere ez du bere ikergai propiotzat hartu izan. Gainera, ezaguna da hizkuntza deritzan giza komunikazio sistemaren funtzionamendua ezagutu eta azalerazteaz arduratu izan direnek, hala nola Ferdinand de Saussurek, Sapirek edo Bloomfieldek, alde batera utzi dutela itzulpenaren arazoa: itzultzaileek itzultzeari ekiten ziotenean zituzten erreferentzia teoriko-praktiko bakanak beste itzultzaile batzuk egindakoak ziren (gogora ditzagun Ciceron, Horacio, San Jeronimo, Paul Valéry eta Ortega y Gasset).

Egoera hau aldatzera etorri zen autore bat aipatzekotan, hura A. V. Fedorov da, zeinek 1958. urtean bi liburu argitaratu baitzituen itzulpen teoriaren printzipioen gainean. Fedorovek, metodo guztiz zientifiko batean oinarriturik, itzultzeko operazioa bera du aztergaitzat eta itzulpenaren zientzia baten alde agertzen da. Fedorov berbabi-dean dago esaten duenean itzulpena, lehenengo eta behin, operazio linguistikoa dela, objektu linguistikoeekin, hau da, testuekin, eta bitarteko linguistikoeekin —erregela linguistikoen arabera erabiltzen diren hitzekin— egina. Arrazoi honegatik uste du itzulpen teoria beste

---

2. Ebner, T., *Lingüística aplicada*, Gredos, Madrid 1982. 9. or.

diziplina linguistikoekin batera estudiatu beharra dagoela. Era be-rean, Vinay eta Dalbernet ere<sup>3</sup> itzulpena linguistikaren sailean sar-tzearen alde agertzen dira, diziplina zehatza den aldetik, teknika eta problema partikularrak dituen gaurko linguistikak eskaintzen dituen metodoen bidez estudiatu beharrekoak. Georges Mouninek ere<sup>4</sup> argi adierazten du itzulpenaren arazo teorikoak zeinu sistemak estudia-tzen dituen zientziari doazkionak direla.

Alabaina, itzulpen prozesuan esku hartzen duten hizkuntz proze-durak ezagutzeak itzultzen lagun dezakeela uste izatea logikoa izana-gatik ere, itzulpena artea bailitzan kontsideratua izan da (eta itzultzaile askok kontsideratzen dute oraino), zientifikoki aztertzea onartzen ez duena. Edmon Caryk<sup>5</sup> esaten du alderdi linguistikoa itzul-tzearen osagarri bat besterik ez dela, eta itzulpenaren prozesuaren bereizgarririk funtsezkoena hau dela: bi kultura, hots, bi pentsaera ezberdinen arteko harremanen kontestua. Halatan, itzulpena ez da operazio linguistiko hutsa, linguistikaz kanpoko gainerako osagarriak ere gogoan eduki behar direlarik.

Gaur egun, itzulpen teoriaren printzipioak eraikitzen ari dira eten-gabe, eta ez dugu dudarik batere egiten linguistikako korrante ezber-dinek —estrukturalismoak, estilistikak, gramatika sortzaileak eta semiotikak, besteak beste—, badutela zer esanik eta zer erakutsirik, baldin eta hizkuntzek dituzten propietaterik behinenak ezagutu nahi baditugu, zeren eta, itzulpenaren prozesuan gertatzen diren operazio-en jakitun egonik bakarrik, modu doi eta egoki batez itzuliko baitu-gu. Vazquez-Ayorak dioen bezala<sup>6</sup>, egun ez da arrazoizkoa itzultzai-

---

3. Vinay, P. eta Darbernet, J., *Stylistique Comparée du français et de l'anglais*, Paris, Didier, 21. or.

4. Mounin, G., *Los problemas teóricos de la traducción*, Madrid, Gredos 1971.

5. Cary, E., *La traduction dans le monde moderne*, Genève, Georg y Cie, 10. or.

6. Vazquez-Ayora, Gerardo, *Introducción a la traductología*, *Ibid.*, 1-3. or.



leak ilunbetan ibiltzen jarrai dezan, Erdi Aroko metodoen berezkoa-  
goak diren hitzez hitzeko itzulpenen mirabe.

## **1.2. Itzulpen teknikoaren ezaugarriak**

Itzulpenaren teoriak, bistan denez, itzulpena du objektutzat, eta itzulpen mota zenbait dagoen legez, hau da, itzulpen guztien objek-tua bat bera ez den legez, itzulpen teoria bat baino gehiago dago. Orohar, bi itzulpen alor ezberdin ezarri eta onartu ohi dira: itzulpen tekniko-zientifikoa, alde batetik; eta, bestetik, itzulpen literarioa. Itzulpen juridikoa, zeinen objektua zuzenbidea baita, itzulpen teknikoaren eremuak besarkatzen dū, bai dituen bereizgarri linguistiko propioen-gatik bai ikutzen dituen gaien espezifitateagatik. Berezik, gure lanaz den bezanbatean esan behar da gure egitekoa erakunde judizialei zuzendurik dagoela, eta hain zuzen ere, tribunalek eta banakoek egin-dako idazkiak nahiz administrazioetako beste erakundeek sortutakoak bihurtzera.

Honenbestez, itzulpen teknikoaren eremuan dihardugularik hiz-kuntza berezko honen ezaugarriak jakin beharrean aurkitzen gara, itzultzeko orduan aintzakotzat hartu behar baitira. Segidan, itzulpen teknikoak dituen bereizgarriak azalduko ditugu:

a) *Unibertsalitatea*. Hizkuntza teknikoak eta batez ere zientziaren hizkuntzak nazioarteko bilakatzera jotzen dute. Esan nahi baita, oroko-rra dena ediren nahi da, termino unibertsaletara ahalik eta gehien hurbilduz. Horregatik, hizkuntza tekniko guztiak gero eta gertuago daude bata bestetik, eta, ondorioz, errazagoa da hizkuntza tekniko batetik bestera itzultzea. Konparazio batera, har dezagun proposizio matematiko bat: «hiru eta hiru berdin sei». Bada, proposizio hau materia linguistiko ezberdinez baina ekibalentzia osoz esan daiteke edozein mintzairatan.

Argi utzi behar da itzulpen teknikoa termino unibertsalen kon-zeptuaren barruan sartzan dela, eta ez kultura baten kontzeptu par-tikularren barruan. Ezin ahaz daiteke teknologiak eta zientziak dakar-

ten irabazpidea ez dela hizkuntz komunitate bakar batena, baizik eta aurrerapen horretaz balia daitekeen edozein komunitaterena. Hala-ber, kontu egin behar dugu teknizismoen garrantzia honetan datzala: diziplina batean lorturiko bilakaera eta garapen teorikoa azaltzen dutela. Eta euskara gehienetan —ez esatearren guztietan— gehiago da hartzekodun emaille baino zientziaren eremu honetan (eta sortzen ez dugun neurrian, beti besteek egindakoari begira egon behar).

b) *Inbariantzia*. Itzulpen tekniko eta zientifikoaren xedea da kontzeptuala den estruktura funtzional baten birsortzea, balio berdineko beste estruktura baten bitartez burutu itzulpenak berdina izan behar duelarik edukinaren aldetik<sup>7</sup>. Honegatik, itzulpen zientifikoari buruzko teoriaren kontzepturik behinena inbariantzia da. Kontzeptu honen bidez aditzera eman nahi da itzulpenaren prozesuan badela zerbait aldaketarik jasotzen ez duena, aldaketarik gabe dirauen zerbait. Zehaztasun partikular guztiekin ezin birsortu denak berdin iraun behar du sistemaren osotasunean, funtzio logiko unibertsalez baliaturik. Bi hizkuntza ezberdinetako bi testuren ekibalentzia guztizkoak hau dakar: itzulpen perfektu bat erdiesteko aukera.

d) *Anbiguotasunik eza*. Zientziaren hizkuntzak zehatza, zuzena izan nahi du eta horretarako anbiguotasunari itzuri egin behar dio; ulermenera soilik dago zuzendua eta bere tresna kontzeptua bera da, huts-hutsik. Beraz, beharrezkoa da hitz bakoitzak esanahi bakarra izan dezan, eta ideia bakoitzak, ordezkaturiko duen hitz bakar bat izan dezan. Printzipio honi «unibozitatearen printzipioa» deritzo, eta Charles Bally<sup>8</sup> dioen moduan, hizkuntza zientifikoak unibozitatearen printzipioei atxiki nahi die, eta unibozitateagatik beragatik aldaraturik dago eguneroko hizkuntzatik. Aitzitik, hau ez da eguneroko hizkuntzarekin gertatzen, non hitz bakoitzak esanahi bat baino gehiago baititu eta nahasturak sarritan gertatzen baitira («esku» hitzak, kasu,

7. García Yebra, Valentín, *En torno a la traducción*, Editorial Gredos. Madrid. 47. or.

8. Bally, Charles, *El lenguaje y la vida*, Editorial Losada, Buenos Aires, 1977. 56. or.

adiera guztiz desberdinak ditu testuinguruaren eredura: «eskuan du lana», «erabakitzeko eskua du», «ni naiz esku»...). Natur zientziek, barbarako, munduko abere guztientzako izenak dituzte («krokodilo» hitzak esanahi bat besterik ez du); matematiketako demostrazio bat guztiz logikoa da eta ez da interpretatu behar (zeinu linguistikoez ari gara bakarrik). Gainerakoan, zientziak sortzen dituen terminoak ulergaitzak zaizkio herri xeheari («lipoma», «kasazioa», «ab intestato» bezalako terminoak bakarrik adituak ulertzen ditu). Orain arte azaldu guztia Charles Ballyren<sup>9</sup> aipu honetan biltzen da:

«Dar a los objetos nombres exactos y no equívocos es propio de la ciencia, de la técnica, no del lenguaje corriente (...). La ciencia aspira a nombrar exactamente cosas precisas, sin mezcla del juicio subjetivo o de sentimiento; la lengua corriente invierte los términos: lo que quiere es palabras que representen ideas simples, fáciles de manejar, pero asociándoles sin cesar delicados valores subjetivos y afectivos.»

## **2. Hizkera juridikoa**

### **2.1. Definizioa eta ezaugarriak**

Hizkera juridikoaren berezkotasunei heldu aurretik, hizkuntzaren definizio orokorra gogoan eduki beharra dago hizkera juridikoa hizkuntzaz egiten den erabilera berezia izanik. Lehenengo eta behin, komunikatzeko tresna edo bitarteko bat da hizkuntza, izakiek duten zabalena. Hau da, zalantzarik gabe, hizkuntzaren alderdi nagusia. Bigarrenik, gizakiak izatedun bihurtzen dituen faktore oinarrizkoa ere bada, «Gizona hizkuntzarengatik da Gizon», W. Von Humboldt-en definizioaren eredura. Honetaz gainera, hizkuntzak pentsamendu eratzten eta antolatzen du; izan ere, pentsamenduak errealitatea taiutu egiten du hizkuntzaren bidez. Oroimenaren euskarria ere da hizkuntza; eta, azkenik, hizkuntzari esker lortzen du gizakiak bere askatasuna gizartearen barruan.

---

9. Ibid. 59. or.

Jakina da hizkuntza bakoitzaren barruan ezberdintasun ugari daukela, dialektu eta erregistro sozialak batez ere. Kode beraren barruan mintzaierek agertzen dituzten ezberdintasunak hauek dira:

1.- Idiolektoa. Kode jakin baten gauzatze indibiduala eta pertsonala, hiztuna bizi den gizarte eta ingurune geografikoaren araberakoa. Horrela, hiztun batek hau esango du: *Urte berritik astea nua komeni dana adieraztea*; eta beste batek, ostera, hau: *Lengoaia guti da eskuara baino gehiago gai denik koblatzeko edo poesiako*. Hortaz bada, hiztun baten estiloa da idiolektoa.

2.- Barietate kolektiboak. Hiztun talde bati dagozkionak. Bi alderdi ditu: soziala eta geografikoa. a) Alderdi soziala. Hezkuntz sistemak eredu linguistiko jakin bat bultzatzen du, tradizio idatzian oinarritzen dena normalean, beste baten kaltetan, edo beste moduz esanda: erregistro mota bat beste baten gainetik jartzen da. Eredu hori kultura edo ikasia da, eta komunikabideek eta pertsona ikasiek erabiltzen dute. Eredu linguistiko honi estandarra deritzo, hots, eredu bateratua.

Alderdi sozial honen barruan erregistro funtzionalak ere ediren ohi dira, zein hizkuntzaren erabilera jakin bati loturik baitaude. Erregistro funtzional hauei teknolekto izena ematen zaie. b) Alderdi geografikoa. Lurralde jakin batean kokaturik dagoen komunitate baten hizkuntz aldaerei «aldiera geografiko» edo «dialekto» esaten zaie, zein kode barneko hizkuntz maila ezberdinen (fonetikoa, lexikoa, fonologikoa eta morfologikoa batez ere) erabileragatik bereizten baitira elkarrengandik.

Teknolektoa diziplina tekniko eta zientifikoen hizkera berezkoa da, zein bere espezifitate tematikoak definitzen duen. Bereizkuntza honen eredura, hizkera juridikoa zuzenbidearen arlo kontzeptualari dagokion teknolektoa da eta teknolekto mota bat denez gero, honako ezaugarriak ditu<sup>10</sup>:

---

10. Duarte, Carles eta De Broto i Ribas, Pilar. *Introducció al llenguatge jurídic*, Generalitat de Catalunya, Barcelona, 1986.

a) Hizkuntz baliabide espezifikoak erabiltzen ditu, hala nola latinetik mailegaturiko terminoak (magistratua, jurisprudenzia...), edo singularreko hirugarren pertsonaren erabiltzea erakunde judizial bati zuzentzerakoan («dice», «suplica», e.a.).

b) Terminoak zehaztu, bereizi eta antolatzen ditu semantikoki, antolamendu kontzeptual osoa eta koherentea ezartzearen. Antolamendu kontzeptualak bere baitan hartzen ditu eta izendatzen diren errealitate oro eta errealitate bakoitzari dagokion izendapena zehatz-mehatz ezartzen du, sinonimia saihestu egiten du eta.

c) Tonu formal eta inpersonala darabil, egoerarekin bat ez letorkeen familiaritatea bereganatu barik.

d) Izaera funtzionala du: testu juridikoak ez du helburu estetikorik behar. Edozein testu juridikok duen xedea da komunikatzea, halako moldez non hizkuntza klaro, esplizitu eta, ahal den heinean, lañoa erabili behar baitu.

## **2.2. Terminologia juridikoa**

Ezaguna denez, teknolektoek edo hizkera tekniko-zientifikoek dituzten ezaugarrien artean azpimarratzekoak dira bi hauek: alde batetik, estruktura terminologiko konplexua agertzen dute, hala nola azpibanaketa kontzeptual ugariz osatua izatea (zuzenbidea: laneko zuzenbidea, zuzenbide zibila, zuzenbide penala, foru zuzenbidea, e.a.); eta, bestetik, zaila da askotan antzeko teknolektoen arteko zedarriak jartzea (zuzenbidea-administrazioa-politika).

Bestaldetik, delako estruktura terminologikoaren barruan, eremu kontzeptual bakoitza hierarkiaren eredura dago antolaturik, termino batzuk adierazten dituzten nozioetatik abiatuz (adibidez, erabaki motak: sententzia, autua, probidentzia, e.a.).

### *Metodologia*

Hizkuntza baten *corpus* terminologikoa arian-arian ezarri behar da eta diziplinek daramaten bilakaerarekin batera joango da osatuz,

euskararen kasuan zuzenbidezko eremu terminologikoa estrukturatu beharretan gaudelarik burutik oinetaraino.

Orohar, nozio bat dugunean eta nozio hori izendatzeko termino finkaturik ez dagoenean, metodologia terminologikoan zimendaturiko prozedura bati jarraitu behar diogu, zeinen bidez informazioa jasoko baita erabaki bat hartu aitzin. Jaso beharreko informazioa hau dugu:

- 1.- Nozioa izendatzeko terminoaren kategoria lexikala eta gramatikala: izena, adjektiboa edo aditza den.
- 2.- Erabilerekoa: terminoak eremu jakin batean betetzen duen lekua mugatzea.
- 3.- Definizioa: klaro, zehatz eta zuzena izan behar du terminoaren definizioak; gainera, izaera deskriptiboa eta erreferentzia bakanrekoa ere behar du izan. Definizioa dokumentaziotik aterako da.
- 4.- Testuinguruak: terminoaren erabilera erakusten duten testuinguru ezberdinak bilduko dira, terminoaren zinetako esanahia adierazten dutenak.
- 5.- Iturriak: erabili dugun dokumentazioa.

Bestalde, gerta dakiguke izendatu behar dugun nozioa adierazteko hizkuntzak termino bat baino gehiago izatea. Orduan eta terminorik erazkoena hautatzearen, irizpide hauek erabiliko ditugu:

- Hautatu dugun terminoak izaera monosemikoa izatea.
- Beste termino batzu eratortzeko duen erraztasuna.
- Hautaturiko izendapenak erraz eta zabal integratzeko duen gaitasuna.

Dena den, jazo ere daiteke kontzeptu berri bat izendatzeko terminorik ez izatea hizkuntza jakin batek (erdarazko «caución» edo «jurisprudencia», esate baterako, nola adierazi euskaraz esanahia aldatu gabe neologismoen bitartez ez bada?). Kasu honetan neologismoeta-

ra jotzea legoke, baina neologismoak erabiltzeko garaian ziur egon behar dugu hartuko dugun termino berri horrek argitasun eta zehaztasun handiagoa ekarriko digula. Horrelakoetan, noraezekoa da mailleguak erabiltzea, joera garbizalea epistemologiaren kontrakoa delarik. Maria Molinerrek<sup>11</sup>, gaztelaniaren gainean ari delarik, gogor kritikatzan du joera garbizalea:

«Lo insostenible de tal posición purista se hace más patente cuando, como ocurre en la mayoría de los casos, las palabras o expresiones vetadas proceden de la herencia común latina (o griega) y, al negarse hoscamente a emplear un recurso ofrecido por esa herencia del que se siente necesidad, sólomente porque otro de los herederos se ha anticipado a sacar provecho de él, es puerilidad o reparo de hidalgo picajoso.»

Eta eskubidezkoaz dihardugularik, gogora ekarri behar da latinak eta zuzenbide erromatarrak izan duten pisua eta eragina kultura europarraren baitan.

Are gehiago: garbizaleei ahazten bide zaie linguistikak aspaldi erakutsi ziguna, hots, garbitasunak gutxi axola diola hizkuntzari; aberastasunak eta komunikatzeko ahalmenak, ordea, asko. Eta eguneroko hizkuntza, neurri handi batean, ez da gai ez euskaraz ez beste edozein hizkuntzatan zeregin goitiar hauetarako, terminoak ez ezik sintaxia bera ere egokitzen eta moldatzen ez badakigu.

Halarik ere, neologismo baten hartzea onargarria izan dadin, baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Hizkuntzaren sistemaren barnean integratzeko gaitasuna izatea eta hizkuntzaren sistemarekin bat etortzea.
- b) Zehaztasun semantikoa ekartzea eta beste termino batzu erortzeko gai izatea.
- d) Erabiltzaileek onartua izatea eta bai erakundeek bai erabiltzaileek ere hedatua izatea.

---

11. MOLINER, MARIA, *Diccionario de uso del español*, lehen alea A-G, XXVI or. Editorial Gredos, Madrid.

### 2.3. Hizkuntza, estiloa eta zuzenbidea<sup>12</sup>

Zuzenbide eta hizkuntzaren arteko harremanak aztertzen hasi orduko, ohartzen gara zuzenbidea existitzen dela hizkuntzari esker. Esan nahi baita, legea bere esanahi juridikoan hizkuntzaren bidez eta soilik hizkuntzari esker sortzen da; haatik, fisikako lege bat existitzen da zeinu linguistikoen bidez adierazita ez badago ere (grabitatearen legeak bizirik iraun du munduaren hastapenetik, XVII. mendera arte formulatua ez egon arren). Ohiturazko arauak ere nahiz eta idatzirik ez egon, aditzera eman behar dira. Lege baten indarrak eta noraezekotasunak berekin dakarte arauaren mende egotea. Azken buruan, arau juridikoak existitzen dira formulazio linguistikoen ondorioz. «Formulazioa» diogunean, arauen sortzea eta ezartzea eman nahi dugu aditzera, eta dudarik ez dago zuzenbide idatzia orokortzeak areagotu egin duela zuzenbide eta hizkuntzaren arteko atxikimendua (ez da ahaztu behar zuzenbidea legea baino lehenagokoa dela). Konstituzioak esaten duenean espainolak berdinak direla legearen aurrean, hizkuntzak ez du bakar-bakarrik zerbaiten berri ematen, baizik eta adierazitakoa elkarren arteko bizimodua eratzen duen arau gisa ezartzen duela. Enuntziatio arauemailearen bidez, hizkuntzak betetzen duen funtzio sortzaileak determinatzen du bion arteko lotura estua izatea, zeinetan zuzenbidea baita hizkuntza, edo, zehatzago, zuzenbidea existitzen hasten baita hizkuntzaren kariaz.

Legegileek nahiz legelariak edo juristek berealdiko garrantzia ematen diote hizkuntzari beren ihardunean. Bereizi beharretan gaude arauen hizkera, alde batetik, eta, bestetik, legelariena. Arauak hizkuntzaren bidez eta hizkuntzaren baitan egin eta enuntziatu egiten dira. Honegatik, arauak existitu eta ezagutarazten dira zerbait adieraziz. Arauak egiterakoan, tradizio juridikoa, gauzen izaera eta gizartearen nahiak, legelarien jakitatea, zuzenbide konparatua, eta jakina, ideologiak batzen dira. Legelarien hizkuntza, aldiz, metahizkuntza bat

---

12. Kapitulu hau oinarritzen da Antonio Hernández Gilen «El lenguaje, el estilo y la técnica legislativa en la Constitución» deitu artikuluan (*Obras Completas*, VII Espasa-Calpe, Madrid 1988).



da, zeinek arauak eginak daudeneko objektua den hizkuntzaren baitan eragina baitu.

Nola ulertu behar da estiloa hizkera juridikoaz ari garenean? Non kokatzen da estiloa hizkera juridikoaren barnean? Lehenbizikorik, estiloaz ari bagara, ezin aldera ditzakegu estilo literarioa eta estilo juridikoa, zeren eta hizkuntzaren erabileraren xedeak eta ukitzen dituzten gaiak eragin zuzena baitute hizkuntza erabiltzeko moduan. Antonio Hernández Gilek dioenez, lege baten atzean ez da egilea ikusi behar, egon dagoen arren. Hizkuntzaren helburu orokorraz gain, zein komunikatzea baita, beste funtzio jakin batzu betetzen ditu, zuzenbidean betetzen duen funtzioa hau delarik: antolamendu eta jokamolde sozialak eratzen dituzten enuntziatuak formulatzea. Unibertso juridiko eta diskurtso juridikoaren arteko loturak hertsia dira oso. Legeek moldatzen eta itxuratzen dute gizartearen barruan hitzei eman dakiekeen erabilerarik garrantzikoena. Artea eta ederra zuzenbidearen baloreak ez badira ere, zuzenbideak ez die zertan bizkar eman behar. Jheringek<sup>13</sup> honela definitu zuen «edertasun juridikoaren legea»: «Lañotasuna, argitasuna, gardentasuna eta naturaltasuna», lau bereizgarriok batera bihur daitezkeelarik: argitasuna.

XVIII. mendeaz geroztik, estatu modernoak eratzen denetik, zenbait osagarri desagertuz joan dira legearen eremu semantikotik. Horrela, bada, lehengo estilo pertsuasiozkoa alde bat utzi zuen legegileak, ulertu baitzuen ez zuela inor pertsuaditu edo gogatu behar, baizik eta agindu behar zuela (horregatik, adibidez, legegileek ez dute erabiltzen «porque» juntagailua). Zenbait elementu desagertu baziren ere, beste faktore berri batzu eratxiki zaizkio egungo hizkerari: prezisioa (lortu ala ez lortu), teknizismorako joera (gaurko gizartea erabat teknifikaturik dagoenez gero), batez ere ikerketa juridikoetatik datorren teknizismoa; nazioarteko mailan bateraturik, estandarizaturik dauden esapideak erabiltzea, gaiak ordenatuki eta sistematikoki banatzeko ardura, e. a. Garai bateko legeak oraingoan aldera, lapidarioak

---

13. Jhering, *El espíritu del derecho romano*, III, Bailly-Bailliére, Madrid. 79. or.

badira ere, edo lapidario antza badute ere, gaur egungo legeak kalifikatuko baditugu, konplexu eta nahasi adjetiboak erabiliko genituzke. Eta ez pertsuaditu edo irakatsi nahi dutelako, baina bai ahalbait eremurik gehien besarkatu nahi dutelako<sup>14</sup>.

Estilo juridikoaren gainean egin gogoetatik heldu den ondorioa hau da: argitasuna. Argitasuna ez da faktore erantsi, gaineratu bat, baizik eta esatearen beraren osagarri konstitutibo bat. Legearen argitasuna hizkuntzaren, estiloaren edo arrazoinamenduaren arau bat da; halaber, arau etiko bat ere bada. Legeak ez du pertsuaditu behar, bai ordea bere ezagutza irispidean jarri.

Arauen publizitatearen printzipioa, Konstituzioak xedatzen duena, ez da eraginkorra baldin eta formulazio linguistikoak nahasixe edo ulergaitz bihurtzen baditu arauak. Hortaz, bada, eta bukatzeko, hizkuntza erabili behar da argitasunaren faboretan, baina sinplekerian erori gabe, argitasuna eta estilo ikasia, goitiarra, ez baitira elkarren etsai.

### **3. Euskarazko hizkera juridikoa**

#### **3.1. Hurbilketa historikoa**

Analisi historikoan barrena abiatu baino lehen, aurretiazko zenbait konstatazio egiteari heldu beharra dago. Lehenik, euskal hizkuntza ez dela justiziaren alorrean erabili adierazi beharretan gaude; izan ere, antolakuntza eta iharduera judizialek bazter egon da Iparraldean zein Hegoaldean, idatziz Justiziako organo ezberdinetako zereginetan usatu ez denez gero. Ahozko iharduerei —epaiketa nahiz deklarazio edo aitormen judizialei— dagokienean, bidezkoa da pentsatzea auzipetu eta lekukoak, zekiten hizkuntza bakarrean, euskaraz alegia, aritu zitezen tribunalen aurrean, erabiltzeko modu eta eskubi-

---

14. Hala ere, gatzelaniazko hizkuntza juridikoari zenbait kritika egiten zaizkio: latinismo gehiegi erabiltzea, benetan ezinbesteko ez diren terminoak mantentzea, aipu eruditoez baliatzea eta beste.

deen gainean ezer gutxi badakigu ere. Gure ikerlanetik zerbaitto aldaratu arren, S. Mugikaren hitzak dakartzagu, idatzizko erabilera eza horren islada gisa<sup>15</sup>:

«Cuando yo comencé a arreglar los archivos municipales de Guipúzcoa por encargo de la Excm. Diputación Provincial, era creencia general entre las personas que se ocupaban del pasado de nuestro país, la de que iba a encontrar en aquellos depósitos de papeles muchos documentos escritos en lengua vascongada, y sin embargo no ha sido así. Algunos, muy pocos, he hallado escritos en latín y todos los demás están en lengua castellana, con muy raras excepciones. (...) No me cabe duda de que en las sesiones de los Ayuntamientos la lengua usual entre los concurrentes ha sido siempre el vascuence, como lo es todavía en la mayor parte de los pueblos, y sin embargo los escribanos fieles de las corporaciones municipales nunca escribían las actas en aquella lengua, según he visto en los archivos que hasta la fecha llevo revisados. (...) Esto mismo puede decirse de los libros registros de las Juntas de Guipúzcoa, los cuales se hallan todos escritos en castellano.»

Bigarrenik, ez da euskaraz idatzitako zuzenbidezko hasi-masirik, euskal foru zuzenbidea gaztelaniaz bildu eta mamitu baitzen osoki, hitz bakoitz batzu besterik geratzen ez zaizkigula: «alkar-poderoso», «abeurrea», «bidezor», «hilburuko»... Nafarroako Foru Orokorra osatzen duen erromantzezko dokumentazioaren artean euskarazko zenbait ele tartekaturik ageri dira, esate baterako *pecha* izenaz eza-guturiko erret zerga batzu: «azagerriko», «baturratu», «eskurain», eta «ozterate», besteak beste. Horrezaz gain, gizahilketagatikako bi berme klase: «gaitzez berme» eta «onez berme»<sup>16</sup>. Bestalde, zuzenbidearen gainean ez da sortzezko lanik moldatu, ezta legerik edo bestelako testu legalik itzuli ere, oraintsuko aldietara arte bederen.

15. Múgica, Serapio, «El vascuence en los archivos municipales de Guipúzcoa», RIEV II (1908), 725-733. or.

16. Caro Baroja, Julio, «Observaciones sobre el vascuence y el Fuero general de Navarra», *Fontes Linguae Vasconum I* (1969), 88, 89, 90 eta 93. or.

Erdarak alde guztiz nagusitu duen jakitearen eremu honetan XIII. eta XVI. mendeetako bi lekukotasun ekarriko ditugu honako lerroetara. Aurrenak 1235. urteraino garamatza, eta hain zuzen ere, sei-zazpi mende inguru duela, euskara desagertua zuen lurralde batera: Errioxako Ojacastro haranera, non biztanleak baimendurik baitzeuden demanda judizialei euskaraz erantzuteko<sup>17</sup>. Hurrenak, Erronkariko hegoaldeko sarreran bertan kokaturik dagoen Burgi herrira, hiru mende geroago: 1596an. Sorginkeriako auzibide bat dela medio, lekuko batzuen deklarazioak euskaraz burutu izan zirelako egiazta-tze idatzia dugu. Hartarako, euskal interpretarien laguntzaz baliatu beharra izan zuten hango biztanleek bertako mintzaira baizen ez baitzekiten. Inkisizioko garai latz haietan, Isaba eta Adoaineko erre-toreek eta Aginaga komisarioak esku hartu zuten, Nafarroako haran hartan auzitaratuak izan ziren emakume ustez sorgin batzuen dekla-razioak gaztelaniara bihurtzen; Florencio Idoatek adierazten duen bezala<sup>18</sup>, euskaraz egindako arneguak berritasun interesgarria ekarri zion sorginkeriaren erritualari, bada antzeko formularik ez da aurkitu ez autoreetan ezta Nafarroako Artxibo Orokorreko auzibideetan ere, esaldi edo ele bakan zenbait izan ezik. Egileak aipaturiko lau auzibi-deei dagozkien erdal testuetan txertaturik, euskarazko arneguak age-ri dira. Arneguak zertan diren jakiteko hona aldatuko dugu Ana Por-taz deitu emakume baten arneguaren testua:

«Arnega eçaçuey Jangoycoaz eta andre dona Mariaz, eta aren se-meaz, eta sancta Ana, eta aytazeta ezcazi guçuez. Que quieren decir en romance: Renegad de Dios y de Santa María y de su hijo y de Santa Anna y de vuestros padres y parientes.»

XVIII. mendearen bukaera aldera, Lapurdiko itzultzaile izengabe baten eskutik Frantziako Iraultza aroko idazki bitxi baten berri iritsi zaigu. Egiazki ez dute iharduera judizialarekin zerikusi zuzenik, ins-trukzio, erregelamendu, ordenantza, aldarrikapen eta aginduez ari

17. Lapesa, Rafael, *Historia de la lengua española*, Gredos, Madrid .

18. Idoate, Florencio, *La brujería en Navarra y sus documentos*, Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana. Pamplona 1978.

baita; hala eta guztiz ere, aztergai dugun eremuarekin zentzu hertsian loturiko erreferentziak ediren daitezke aipatu itzultzaileak darabil-tzan terminoen bidez:

*akusatu, apela, hauzi kriminel, deklaratu, diruzko hauzi, dretxo komuneko printzipio, erreparazione zibil, exekututze, faltadun, gozamen, laudamen, lege egin, manuzko gutun, prebenda, punitu eta kriminel-xumeko egiteko*, besteak beste. Frantsesez eta euskaraz pa-ratutako testu luze samar horietatik hurrengo paragrafoa aukeratu dugu:

«Ez othe liteke hauzi kriminelekoen jutzeko ordenetarik aparta-tzea, arrazoin naturalaren kontra dohan preemtoriak deitzen diren, erran nahi da, batere dudarik gabekoak, eta bertze justifikazioneko artikuluen artean aurkhitzen den distinzioea? Ez othe liteke posible ordenatzea bi froga suerte horiek izan ditezkelak galdetuak eta eginak akusatuen aldetik, hauzia persegitzen den zein nahi denboretan? Ez othe liteke posible oraino akusatuei errextea bere inozentziaren fro-gatzeko presentatu behar tuzten lekhukoen adiarazteko tuzten trabak?»<sup>19</sup>.

Gizaldi honetan eta gerra aurreko euskararen lehendabiziko ofi-zialkidetasunarekin batera, hizkuntzaren presentzia gehitzen doa. Euskarari ateak zabaldu zizkiotenen artean «Euzkadi'ko Agintari-tzaren Egunerokoa» aipatu behar da, zein 1936ko urritik 1937ko ekai-nera bitartean argitaratu baitzen. Bertan Euskal Gobernuko dekretu, agindu eta zirkularrez gain, Bizkaiko Aldundiko zirkularrak, udale-tako aginduak eta iragarkiak, auzitegi probintzialeko ziurtagiri, edik-tu eta sententziak ere itzuli izan ziren. Garai hartan zer-nolako itzul-pen judizialak burutzen ziren jakiteko, ondoren doa instrukzioko epaitegi bateko jakinerazpen bat<sup>20</sup>, zeinek erakusten baitigu goragoko etsenpluarekin dagoen aldea —ez esatearren amildegia—.

19. Rica Esnaola, Margarita, «Traduction en basque de termes politiques sous la revolution», *Anuario de Filologia Vasca Julio de Urquijo*, Donostia 1977, 105. or.

20. «Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa», 176. zenbakia, 1937, 1.417. or.

«Durango'ko Epailletza Argibidelaria: Durango eta bere erbarrutiko Epaitegi Argibidelariko Epaille naizen Medina Garijo-tar Isaka Josebak. Auxe jakin erazten det: berebil-ezbeharra dala-ta, Altanira Kortaxarena'tar Silber'i-ren eriotza eta beste zenbaiten zauriei buruz. 1937'garreneko 9'gn. zenbakiaz argibidea egiten ari da Epaitegi au. (...) Ildakoaren aita dan Altamira'tar Silber'i'ri, Gaizkile Auzipe Legearen 109'gn. atalak damaizkion eskubideak eskeintzen zaizkio, aitatutako argibidean gaurko egunez erabaki dana beteaz».

Gerra zibilaren ondotik diktadurak ezarritako isilaldi luzearen kariaz, gerra denboran apalki urratzen ari zen bidea bortizki eten egin zen, Konstituzioaren promulgazioraino itxaron behar izan zelarik; izan ere, funtsezko arau horrek komunitate autonomoetako hizkuntzen aitormen ofiziala ekarri baitzuen. Euskal Gobernuua, aldundi eta udalak eratzearekin batera erakunde horiek emandako lege, dekretu, agindu, erabaki eta bestelako arau motak itzultzeari ekin zaio. Edozein modutan ere, zuzenbidearekin artezean harremanaturiko lehenbiziko lansaioak nahikoa berandu ikusi zuen argia, 1987. urtean prezeski, UZEI terminologi elkarteak kaleratu zituen bi liburukiei esker. Eskierki, euskaraz gauzatu den aurreneko ahalegin benazkoa eta errigore terminologiko eta zientifikoz egindakoa. Beste zientzia anitzetako hiztegiekin jokatu ohi dutenez, honetan ere terminoak hiru hizkuntzatan zerrendatzeaz gain, badakartzate termino horietako definizio asko, zuzenbidezko adar desberdinen arabera zehaztuak.

Azken urte hauetan urrats garrantzitsutzat, hasiera batean bere apalean, jo behar da Donostiako zein Bilboko zuzenbideko fakultateetan zenbait ikasgai euskaraz irakastea, inon baino nabarmenago unibertsitatean berean aitzinatu behar baita zuzenbideko gaiak euskaraz ematea eta sakontzea.

Ez genuke hurbilketa historiko hau bukatu nahi bulegoko lana, neurri batean bederen, euskaraz bideratzen saiatzen diren abokatu eta gainerako profesionalak aipatzeke, berauek baitira zenbait herri-tarrek horretara bultzaturik, tribunaletan euskara estrainekez erabiltzea sustatu dutenak. Eta datu hau pozgarria da oso, kontuan hartzen badugu euskara inoiz ez dela erabili auzibideetan Euskal Herriaren historia osoan zehar.

## 3.2. Euskarazko hizkera juridikoaren ezartzea

### 3.2.1. *Kontutan hartu beharreko premisak eta itzulpenaren eginkizuna.*

Auzi honek agertzen dituen alderdien aniztasunaz oharturik, aurrera baino lehen bi premisa hauek argi utzi nahi ditugu:

- a) Euskarak ez du tradizio juridikorik gorpuztu, hurbilketa historikoari berezi diogun atalean seinalatu den bezala<sup>21</sup>.
- b) Euskal Herrian izan den eta oraino den ordenamendu juridikoa gaztelania eta frantsesarena da, zuzenbide pribatuaren azterna batzu salbuesten badira.

Lehenbiziko premisa eztabaidagaitza den bitartean, bigarrenak azterketa sakonagoa merezi du, zeren eta horrek baitakar, hein handi batean, esparru honetako iharduera itzulpenak gidatu eta baldintzatu duela luzaroan. Itzultzaileen egitekoari dagokionez, bistan da ezin zaiela utzi euskarazko hizkera juridikoa gorpuztearen erantzukizuna; bada, itzultzaile espezializatuaren funtzioa, eskuarki, izan ohi da zehatz-mehatz egituratutako bi hizkuntzaren edo gehiagoren arteko edukin kontzeptual eta formalak iraganaraztekoa, eta ez hizkerarik edo terminologiarik burutzekoa. Ez dugu uste inongo herrialde-tan itzultzaileez baliatu direnik edozein zientziatako hizkera propioa eraikitzeko.

Oztopoak oztopo, itzulpenaren ihardunak ez dio derrigorrez bidegabe egin behar hizkuntza juridikoaren ezartzeari; aitzitik, sortzeko lanaren lagungarri beharrezkoa da eta, une honetan, haren aitzindari. Ukaezina da itzulpenaren bitartez hizkuntzek elkar aberasten dutela eta goragoko maila batera igotzen jakitearen sail guztietan. Honela,

---

21. Katalunian, ostera, katalanaren dokumentazio juridikoa denboran luzea eta neurrian zabala da, erdi arokoa beregainki: *Usatges de Barcelona*, *Costums de Tortosa*, *Furs de Valencia*, e.a. Ondorioz, katalanaren tradizio altxor honek egungo lengoia forma ugariz dohaindu du, hala nola hiztegiako elementuak, terminoak eta formulak.

bada, itzulpenaren baliozkotasun eta zilegizkotasunaren aurka baieztapen arinak jaulkitzen direnean, ez diote egiari zor zaiona aitortzen.

Horrek ez du aditzera eman nahi itzulpenaz kanpoko euskal zuzenbide beregainekoa erdiestea egingarri ez denik, maila teorikoan behintzat<sup>22</sup>. Iragaitzez, zilegi izan bekigu esatea Euskal Herrian legeak egiteko ahalmena duten erakundeek, Eusko Legebiltzarra nagusiena delarik haien artean, erdararen menera egon direla beti, produkzio juridiko autonomikoa erdaraz landu eta erdal sistema juridikoari atxiki baita. Beraz, zaila da ikusten zein izan litekeen euskarak bete behar duen lekua esparru honen baitan.

### *3.2.2. Eragozpenak eta elkarlanaren beharrezkotasuna*

Gorago aipatu diren premisetan ez da, zorigaitzoz, arazoa agortzen, egungo egoeraren ahultasuna beste faktore batzuetatik ere baitator. Andres Urrutiak, euskara juridiko-administratiboaren nondik norakoak aztertzean, honelako diagnostikoa aurkezten du<sup>23</sup>:

a) Euskarak ez du tradizio juridiko-administratiborik. b) Euskara estandar finkatu baten eza nabarmena. d) Euskarak soziolinguistikoki duen arazo latza. e) Euskaraz gaur egun argitaratzen diren edukin juridikoak, itzulpenaren bidezko izatea. f) Lege markoa ere ez da aproposena. g) Euskararen euskalkien arazoa. h) Euskarak, finkapen eza dela medio, hizkuntz mailetan duen eskasia.

Zerrenda honi beste puntu bat gaineratuko genioke gure aldetik: elkarlana, ezinbestekoa baita lortu nahi diren helburuak errealitate eta ez amets huts bihur daitezen. Elkarlana zuzenbidearen munduko

---

22. Urrunegi joan barik, Eskozia bezalako nazio txiki batek botere politiko eraginkorraz gozatu ez arren, bere lege sistema propioa du eskuratua, zein Ingalaterra eta Galesekoarenetik alderdi askotan diferentea den, erromatar eta kontinenteko zuzenbideak sakonkiago eragin baitio (ingelesez bada ere).

23. Urrutia, Andres, «Administrazioko euskararen hizkera-mailak eta terminologi arazoak», *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, HAAE/IVAP, Oñati, 1989. 19-21. or.



euskal profesional —abokatuak, notarioak, unibertsitateko irakasleak...— eremuko terminologo, hizkuntzalari eta itzultzaileen artean bideratu beharko da. Horrela jokatu ezean, gaur jasaten dugun anabasa, terminologi lan serio eta iraunkorrik eza (UZEI alde batera utzita) eta ahalegin sakabanatze ergela, bakarka lan egiteko jokabide ezinago kaltegarri horretatik datorrena, etengabe jarrai dadin arriskua dago<sup>24</sup>.

Euskara batuarekin jokatu zen bezala, arlo honetako hizkera ere normalizatu beharra dago, batez ere bi arrazoiengatik: lehenik, komunikazioa lortzeko; bigarrenik, sortzezko lanak eta itzulpenak erraztu eta emendatzeko. Garbi ikusten da sare bat eratu behar dela guk egiten dugun lana besteek ere ezagut dezaten, eta alderantziz (Euskal-termek hori du helburuetako bat, hain zuzen). Baina horretaz gain, egiten den lanaren kalitatea zaintzearen, hizkuntz batzorde bat antolatzeko premia ikusten da. Zerbitzu hauek Administrazioak berak bultzatu beharko ditu, Katalunian egin den bezala<sup>25</sup>. Guk dakigula, proposamen bat baino gehiago luzatu zaizkio Euskal Gobernuari (azkena, Bizkaiko Abokatuaren Elkargoak eraturako ihardunaldietan), baina dirudienez ez du araposturik eman. Orain arteko saio bakanak mintegiak izan dira, baina haietatik ez da luzaroan onuragarri izan daitekeen emaitzarik atera, bukatzen direnean nork bereari eusten jarraitzen duelako; gainera, mintegiak osagarriak dira, gure ustez, eta ez gidari.

Hortaz, taiuzko ezer egingo bada, elkarlanaren bitartez bakarrik lortuko da, esperientziak argi erakusten digulako norberaren boluntarismoa ez dela aski.

---

24. Elkarlanaren ariketa arrakastatsutzat jo behar da lau aldundietako itzultzaileek errenta aitopenenaren inprimakiak eredu bakar batera biltzea.

25. Plangintza zehatzagorik ezagutu nahi izatera, irakurri Andoni Sagarnak eta Arazeli Diaz de Lezanak *Administrazioako hizkera eta terminologiaz jardunaldiak* deitu liburuan luzatutakoak. HAEE/TVAP, Oñati 1989. 81-88 or. eta 153-164 or., hurrenez hurren.

### 3.2.3. *Euskaratu beharreko lanik premiazkoenak*

Hurbileneko geroari begira eman beharreko urratsei gagozkiela, legegizonak ez garela ere, eta honegatik ausardia apur batekin behar bada, gure iritzia orrietaratuko dugu. Sinisturik gaude (hiru urtetako eskarmentuak hala erakusten baitigu) errazenetik eta estualdirik gabe abiatu beharko litzatekeela itzultzeari ekiteko orduan, beti gogoan atxikiz auzo erdarek sortarazi duten adinako produkzio juridiko gauzatzea ez dela denbora gutxiren buruan eta oharkabean egin daitekeen lana, zeren eta ahaleginak ustel gerta baitaitezke, Espainiako Konstituzioaren euskal bertsiorekin gertatu den bezala. Izan ere, hirugarren «disposapen derogatzaileak» honela dio: «Era berean derogaturik geratzen dira Konstituzio hontan ezartzen diren disposapen guztiak». Beraz, euskarazko testuan bermatuz gero, Konstituzioa egungo ordenamendu juridikotik at egongo litzateke, egin ostean derogatu egin baitziren bertako xedapenak (egin lanaren alferraz oharturik nonbait). Halako tronpatzeak (itzultzailearen erruz nahiz moldiztegiko langilearenaz) askotan gertatu ohi dira, damurik, baina ez bide ditu inork salatzen, eta are gehiago: ez da deus egiten horien konpontzeko.

Gure ustez, erdal legedia arinki eta azkarki itzultzen ari da (euskaraz gutxik irakurriko duela ohartuki edo), irizpide teorikorik gabe eta taiuzko lan terminologiko batean oinarritu gabe, halako moldez non esan baitaiteke egiten den lan asko alfer-lan bilakatzen ari dela. Honenbestez, oinarri teorikoak ondo finkatutakoan eta lan terminologiko batean oinarriturik, hurrengo eginkizunei lotu beharko genieke:

#### 1.- Epe laburrean irits daitezkeenak katramila handirik gabe:

a) Erdal ordenamendu juridikoan dauden auzitegi-epaitegi orotako euskal izendapenak ezartzea; gaur egun etsigarria da ikustea nola organo bera izendatzeko hiruzpalau eta gehiago ordain desberdin erabiltzen diren. Esaterako, erdarazko «Tribunal Supremo» adierazteko izendapen hauek (eta gehiago) aurkitu ditugu: «Goreneko epaimahai», «Auzitegi Gorena», «Erresumako Epaitegia» e.a.

b) Lege garrantzitsu eta erabilieneen izenak euskaratzea. Ezin aintzakotzat har daiteke errekurtoetan, esaterako, aipatzen diren erdal legeak komatxo artean jarri eta «delakoa» izenlaguna erastea.

d) Erronka arauemailearen arabera, arau eta errekurso guztien zerrenda bat egitea eta haien baliokideak euskaraz ematea. Honetaz gain, legeen nahiz kodeen barne antolamendua zehaztea (liburu, titulu, kapitulu...).

e) Terminorik oinarrizkoenekiko hiztegi bateratu bat onartzea, UZEIkoa ez baita aski. Hiztegi honek terminoen definizioak ez ezik testuinguruak ere agertu beharko ditu.

2.- Epe ertain edo luzerako helburuak hauetxek lirateke:

a) Material juridiko ezberdina osatuz joatea: formulario eta inprimakiak (deitzeko gutunak, epaitzeko gutunak, deklarazioak, auzitako eskriturak...).

b) Kode eta legerik inportanteenak itzultzea, hala nola Kode Zibila, Kode Penala e.a.

Itzulpen saio honetatik at geratuko litzateke euskarazko dotrina bat bultzatzea.

### 3.2.4. *Hizkuntz baliabideak hizkera juridikoaren eraikuntzan*

Gaingiroki bada ere, ondoren lexiko, fraseologia eta joskera juridikorako funtsezkoenak diren hizkuntz baliabideak ahotan erabiliko ditugu, arrazoi desberdinengatik oker sortu edo erabilitako zenbait hitzi arreta berezia emanez.

Bihar-etziko euskarazko hizkera juridikoa hezurmamituko badugu, nabarmen ere nabarmen begietaratzen zaigu maileguak erabiltzearen garrantzia eta ezinbestekotasuna<sup>26</sup>; izan ere, zenbat eta jasoa-go bilakatu nahi izan hizkera bat, orduan eta mailegu gehiagoren

---

26. Mitxelena, Koldo, *Euskal Idazlan Guztiak VII. Hizkuntzalaritzaz II*, 27. zenbakia, 187. or., Euskal Editoreen Elkartea.

«Maileguen beharra nondik datorren bistan dugu. Euskara, hizkuntza "nimitioa" izateaz gainera, ez da erabilia izan menderen mendetan, hainbat eta .../...

premia sentituko da, 2.2 puntuaren azkenaldera adierazi denez. Euskara auzo hizkuntzetatik aski berezia eta bakandua izanagatik ere, ezin daiteke inolaz ere atzendu menderen mendetan hartzaile izan dela euskara, lexiko kontuetan batez ere. Gure ikerketa eremurako oinarrizko diren ondoko hitz hauei begiratu bat ematea baino ez dago diogunaren frogagarri: abokatu (lat. advocatum), *babestu* (babes <it. pavese) *froga* (lat. probare), *foru* (lat. forum), *haizu* (lat. ausus), *judizio* (lat. iudicem), *lege* (lat. legem), *manatu* (lat. mandare), *zilegi* (lat. sigillum). Mailegu hauek aspaldidanik ditu irentsita hizkuntzak, eta beraz, euskal hitzak dira.

Beste alde batetik, zenbaiten ahalegin hutsalak gorabehera, *akusatu*, *deklaratu*, *kondenatu*, *magistratu*, *sententzia* bezalako hitzek tradizio luze bezain oparoa izan dute euskal literaturaren obra askotan; hitz jator horien ordez sustatu nahi diren ordainak oso desegokiak izateaz gain, nahasketari bide ematen diote. Gaztelaniaz *sententia* eta *fallo* bete-betean bereizten badira ere, batzuk, ordea, *epai* enplegatzen dute bietarako. Garai guztietako idazleen luman asetzearainoko puntuan irakur daitekeen *justizia* hitzaren partez *zuzentza* itxuragabea eskaintzen da. Ber gauza esan liteke *fiskal* hitza dela medio, haren aldera proposatutako *herri salatari* ordaina guztiz desegokia baita; izanez ere, *salatari* hitzak, erabili eta ezagutzen dugun euskararen behintzat, mespretxuzko eta gaitzespeneko esanahi gardena du itsatsia, hots: beti besteren arazoetan muturra sartzeko eta lau haizetara hedatzeko gogoz dagoen pertsona (bizkaierazko «nontzebarria», hain zuzen). Bistan denez, Ministerio fiskalaren eginbeharrak zerikusi gutxi dute salatariarekin.

Noraezekoak diren maileguak ez baliarazteagatik gertatu ahal dira, gure iritzira, gehiegikeriazko zabalkuntza semantikoaren kasuak, esate baterako, *zigorbide(zko)* edo *zigorlege(zko)* hitzak ez dira batere

.../...

hainbat eremutan. Ere mu horiek euskaraz landu nahi baditugu, beraz, eta badirudi euskaraz landu nahi ditugula, gure hitz-altxorra ia itxuragabeki ugaritu beharrean aurkitzen gara, dela hitz sortuen medioz, dela bestetariko hitz "arrotzen" bitartez».

aukerakoak *penal* adjetiboa adierazteko: *zigorlegezko arau-bilduma* (*kode penal*, alegia). *Atal* erabilia izan bada ere<sup>27</sup> artikuluren lekuan, bigarren hau hobetsi behar da bai tradizio literarioagatik, bai unibokotasunagatik (lehenengoak zazpi adiera nahikoa desberdin ditu). Adibide gehiago para litezke, guztietan ohartzen garelarik garbizalekeriaren alferrekotasunaz. Hizkuntzarentzat mesedegarri izan beharrean kaltegarri suerta daiteke gehientsuenetan joera hori.

Bati baino gehiagori irudi lekiok maileguak usatzearekin beste era bateko neologismoei —ez ahantz, bidenabar esanda, mailegua neologismo mota konkretu bat dela— hiztegian sartzeko eskubidea ukatzen zaiela. Ez noski. Mailegutzatik ez datorren neologismoa lexiko sorkuntzarako eskuarte emankorra da, dela eratorpenaren bidetik, dela hitz elkarketarenetik. Onargarria da noiz eta ordezkagai den erdal terminoaren esanahiarekiko unibokotasuna gordetzen duen (ikus 8. orrialdean neologismo batek onartua izateko bete behar dituen baldintzak). Esan gabe doa are onargarriagoa dela kontzeptu propioak adierazterakoan: *hilburuko*, adibidez. Guztiarekin ere, zuhurki jokatu behar da hizkuntz baliabide horien erabiltzeko moduarekin, atzizki metatze desegokiagatik elementu lexikal irensgaitzak aurkitu nahi ez baditugu, -lari + -tza (*zergalaritza baimen*, *lizentzial baimen fiskala* esateko), -bide + -tza (*zehaztapidetza*, *espedientearen orde*) etsenpluetan —eta aipatzen ez diren beste makurrago batzuetan—, gertatzen den bezalaxe. Hitz elkarketan ere inoiz dokumentatu gabeko formekin topatu ahal gara, bigarren elementu gisa «etsi» aditzaren erabilera neurritz gainezkoak erakusten duenez: *aintzatetsi*, *ordetsi*, *largetsi*, e.a.

Ezin da inondik inora onartu —eta horrenbestez bortizki kritikatu behar da—, zenbaiten aldetik gaztelaniak eta inguruko beste hizkuntza askok amankomun dituzten termino askori ihes egin nahian, eragabeki asmatzen etengabe aritzea, erdal kutsua baztertzearren (baina erdal muinari begira). Ahalik eta erdaratik aldenduen obratzeko delako jaidura azientifikoa da, edo nahiago bada epistemofobia, ze-

27. Ikus. K. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*.

nek hizkuntzaz kanpoko motibazioei lerratzen zaiela pentsatzeko bide ematen baitigu. Izan ere, ikuskera hori, Larramendiz geroztik gizar-teren sektore batzuetan —Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere— hain errotua egon dena eta dagoena, Jainkoak, Tubal lagun zuela, euskaldunei eman omen zizkien berezko dohaiekin eta euskal arrazaren, eta ondorioz hizkuntzaren, ustezko garbitasunarekin lotzenago da hizkuntzaren errealitatearekin baino. Atera berria den «Europako ituneen hiztegia»k parada ematen digu zer puntutaraino hel daitekeen azientifikotasuna erakusteko. Gure ikerketa eremuarekin gertuago dagoen adibide bat jartzeagatik, hau paratu dugu:

«439 EU gizakiak eta erakundeak  
ES las personas físicas y jurídicas  
FR les personnes physiques et morales  
DE natürliche und juristische Personen  
EN natural and legal persons  
IT le persone fisiche e giuridiche  
NL natuurlijke personen en rechtspersonen  
DA fysiske og juridiske personer<sup>28\*</sup>.

Euskaraz ez gainerako hizkuntzetan teknika juridikoaren ikuspegitik pertsona mota bi hauek bereizteko premia ikusten den bitartean, euskaraz ez da berezi behar nonbait. Beraz hunelatan, termino hau itzuli dutenek ehortzi egin dute termino horien atzean dagoen dotrina juridiko guztia «totum pro parte» eta «pars pro toto» eskeman zimendu harturik<sup>29</sup>.

28. HAEE/IVAP, Europako Ituneen Hiztegia, Bilbo 1991, 115. or.

29. Termino honen euskal itzulpen honetan oinarritzen bagara, ordain honek sor ditzakeen arazo eta buruhausteak ez dira hutsaren hurrengo; izan ere, nola eman beharko genuke euskaraz Kode Zibilaren 35. artikulua 1. atalak dioena: «son personas jurídicas las corporaciones, asociaciones y fundaciones de interés público reconocidas por la ley»?

Maileguez lekora, zuzenbidezko neologismo gutxi ditugu euskaraz, eta ezin bestela izan, orain arte euskara abiapuntu harturik argitaratu denari behatzen badiogu (UZELko zuzenbidezko hiztegiaren I liburukian dauden artikulua, Andrés Urrutiaren «Euskara legebidean», «Zuzenbide Zibileko Hastapenak» deitu itzulpen lana eta haren hementa argitaratu artikulua solteak). Hizkuntzalaritzarekin alderatzen badugu, diziplina honek terminologia berarizkoa eta hedatu samarraren jabe egin da. Garapen terminologiko honen iturburua eremu horretan egin diren sortzezko lan eta artikulua ugarietan bilatu behar da<sup>30</sup>.

Beste alderdi interesgarri bat arkaismoena da. Gaztelaniazko hainbat hitz zaharkiturik, iharturik, gelditu dira, hala nola *providencia*, *exhorto*, *infraescrito*..., nahiz eta adiera zehatza duten; *providencia* ez da erabaki huts bat, baizik eta erabaki mota jakin bat: epaile edo tribunal batek auzibidezko arazoaren eta bigarren mailako eskaeren gainean ematen duen ebazpen ez-arrazoitua. Honelako terminoen onargarritasunari edo komenigarritasunari buruz adituek dute azken hitza, haiek berek eta ez beste inork erabiliko dituztelako<sup>31</sup>. Era berean, zilegi izan liteke euskaraz jadanik erabiltzen ez diren berba batzuk berrezarpen lexikalaren bitartez berpiztea, hots: *jarauntsi*, *baratari*, *ordeinu*...

30. «Salbuespen urriak salbu, jakitearen alorrak, esate baterako, ez ditugu artean gehiegi landu, ez euskaraz eta ez erdaraz. Zerbait ikasi egin dugu, onenean ere, alor horietan baina ikasi duguntzua, besterengandik ikasi dugunez maizenik, besteren hizkuntzan ikasi dugu, eta ikasten. Morrontza honetarik ihes egin nahi badugu, bai hizkuntza gaietan ere, noraezko izango dugu hitzak ez ezik bestelako sorkariak ere sortzea». MITXELENA. K cf. 188 or.

31. «Auto» hitzaren gainean hau dio EL PAISEko estilo liburuak: «(...) Si en algún caso se pretende evitar la confusión del auto con el automóvil o coche y eliminar prolijas explicaciones entre paréntesis, puede utilizarse el término «resolución»; se entiende mejor, aunque, según los juristas, sea demasiado genérico.» EL PAIS, *Libro de estilo*, Madrid 1990, Ediciones El País, S.A., 158. or.

Atal hau bururatzeko, uste dugu, emaitza harrigarriak izango ez baditu ere, Orotariko Euskal Hiztegian aurki daitezkeen nola-halako juridikotasuna agertzen duten terminoak arakatu behar direla, kontuan harturik obra honetan agertzen dela euskaraz inoiz bildu den euskal obren eta idazleen erradiografiarik konplituena (*ahaidakeria*—UZELk *intzestu dakar*—, *gezurrezko lekukotasuna*, *ahapaldi gaixtoa*...).

### 3.2.5. Fraseologia eta joskera juridikoa

Ezaguna denez, mota askotariko esamolde edo egitura finko eta perfrasiez baliatzen da zuzenbidezko hizkera: batetik, legedian, bostere legislatiboaren araudietan eta administrazioaren idazkietan; bestetik, organo judizialetakako eguneroko praktikaren berezkoagoak direnetan. Tankera honetako baliabideak ere sortu behar dira gure hizkuntzan, zuzenbidearen ahozko zein idatzizko ihardunaren osagai funtsezkoak diren heinean. Alabaina, ezin gara sinplekerian jausi, latin edo inguruko erderetako esamolde horiek ezin baitira edonola hartu, ez bada zer, zenbat eta nola hartzen dugun ondo pentsatuz.

Egia da gaztelania eta frantsesak antzinatik datorkien halako iharzte bat bizi izan dutela, eta haren oihartzuna gure egunotara iritsi dela. Joera horren lekuko adibide andana bat eman liteke: «*en virtud del proveído dictado en el día de la fecha; llevar a puro y debido efecto; según su leal saber y entender, devolver por el mismo conducto de su recibo; mejor proveer...*» Gainera, behar baino gehiagotan paragrafo oso bat espresabide lar hanpatuz mukuru dago: «*He acordado dirigir el presente a V.S., por el cual en nombre de S.M. el Rey (q-D.-g.), le exhorto y en el mío propio ruego y encargo se sirva aceptarlo y acusar recibo y acordar su cumplimiento y devolución, quedando obligado a lo propio en casos análogos.*» Honelakoetan agerikoa da elementu guztien hitzez hitzeko itzulpenak, bidezkoa ez izateaz gain, ez garamatzala inora ere, morrontza linguistikora ez bada. Baldin eta adierazi eskaseko adierazle soilak edo betegarri hutsak badira, kasuz kasu aztertu eta erabaki beharko da zeintzu itxuraldatu eta zeintzu ezabatu euskarara bihurtzerakoan. Honi loturik gogoan eduki behar da gaztelaniaren baitan zenbait aldaketa egiten saiatzen



ari direla, eta konkretuki, Gaztelaren Erret Akademiako batzorde berezi bat eratu da hizkera juridikoa erraztu asmoz.

Horretara, argigarria izan daiteke beste hizkuntza batzuetan nola jokatzaren duten ikustea. Gure artean, zenbaitek ingelesa ahotan hartzen dute mintzaira errazaren eredu gisa, alor honetako ingelesa behar bezala ezagutzen ez duten seinale dena. Bada, Europako Itunen hiztegiaren aurkezpenean, gaztelania eta frantsesaren fosiltze prozesuaz mintzatu ondoren, hauxe irakur daiteke:

«Ildo beretik, argi eta garbi agertzen da ondoko esalditegian baduela ingelesak halako naturaltasun bat gauzak zuzen eta egoki izendatzeko eta pedantekierarik gabe adierazteko. Etsita nago egungo mundua euskaraz itxuraz emateko ahaleginean sortzen diren hainbat arazo —ez guztiak, baina bai hainbat—, ingelesaren ereduari zuzenean begiratzuz konponduko liratekeela»<sup>32</sup>.

Horrela pentsatzeko bere arrazoiak eduki ditzakeela ukatu gabe, ez dugu uste hizpidean dagoenik; izan ere, ingelesaren ustezko naturaltasun edo pedantekierarik eza ez da sumatzen eskuetaritzen zaizkigun liburu eta idazkietan, eta nahi beste etsenplu eman genezake legezko liburuetatik zein eguneroko iharduera judizialetik atereak. Ikusi bestela atxilotzeko agindu hau (azpimarrak gureak dira)<sup>33</sup>:

*Warrant of Arrest*

*In the County of Somerset, Petty Sessional Division of Oxbridge.*

*To each and all of the constables in the Borough of Oxbridge.*

*INFORMATION on oath has this day been laid before me, the undersigned Justice of the Piece, by Watson Holmes, Chief Inspector of Police, that William Sykes (hereinafter called the defendant) on the 5th day of July, 1980, at Blacktown in the County aforesaid did steal one gold*

32. SARASOLA, IBON, «Europako Ituneeen hiztegia»ren aurkezpenean, HAEE/IVAP, XXV or.

33. PADFIELD, C.F., LLB, DPA of Gray's Inn, Barrister, Law, Made Simple Books, Heinemann Professional Publishing Ltd, Oxford, 1990, 395. or.

*watch, one silver chain (...) the property of John Jones, (...) contrary to section 1 (1) of the Theft Act, 1968.*

*YOU ARE HEREBY COMMANDED to bring the defendant before the Magistrates' Court sitting at Oxbridge, forthwith to answer to the said information.*

*DATED the 12th day of August, 1930.*

Azpimarratutakoak hau erakusten digu: a) ingelesak ere erabiltzen ditu inolako enbarazorik gabe gaurko ingeles arruntean erabiltzen ez diren esamolde fosilduak; b) zenbaitetan badaude gaztelaniazko formulakiko paralelismoak; eta d) estiloa ere ez da gaztelaniaren estilo jasotik gehiegi aldentzen.

Egiazki, euskaraz oso esamolde juridiko gutxi sortu dira berez, eta sortu diren horiek barreiatuak daude han-hemenka. Nolabaiteko hedadura ezagutu dutenen artean badira morfologikoki txarto eraturik daudenak, hala nola *-(r)en kaltetan gabe (kalterik gabe behar luke)*; bestalde, badira euskal egitura duten esamolde bakanak, batere ezagunak ez direnak eta hiztegieta ezkutalekua izan dutenak: *ez da lege, bidez eta legez*; zenbait atsotitz ere bai, Oihenarteren hau, kasu: *Auzilaria, sarista ezak ontsa barataria, ezpere eure zuzena ez dakidik balia*.

Joskerari dagokionean, aldiz, azpimarratzekoa da zientzia enpirikoen aldera gramatika atal honek praktika juridikoan hartzen duen garrantzia. Judizioetan zein errekurtsio eta sententzietako zuzenbidezko arrazoinamenduetan alegatzen diren argudioak, jurisprudenzia, lege eta arauen aipamen orotarikoak, estilo logiko diskurtsiboan askoz hobeto iraultzen dira. Bada, jurista erretorikaz baliatzen da defendatu edo salatzekeo (Aristotelek «genero forentsea» —genus iudiciale— deitzen duena). Diskurtsio mota honek menpeko perpaus eta lokailu franko galdatzen du ideiak zein perpausak elkarren artean josi eta testu koherente eta fiabardurez bete lortzeko. Dena den, epaile zein abokatu askok sintaxi lardaskatua erabiltzen dute: punturik punturako paragrafo amaigabeak, gerundioaren erabilera lekuz kanpokoak,

perpausen arteko juntagailu edo lokailu eza, e.a. Zer esanik ez, euskarara aldatzerakoan akats gaitz hauek zuzendu behar dira, autore baten estilo barruan berariaz egindakoak ez baina eraz idazten ez jakitetik heldu direnak baitira.

Nolanahi ere, ezin gara erraztasunaren aitzakiatan errazkerian li-murti: esate baterako, sail honetako edozein testu menpeko perpau-sez oratu beharrean, ñabardura eta zehaztasunik gabeko perpau koordinatuak erabiltzea (zentzu honetan kezkarria da estilo hone-tan hain beharrezkoak diren «zein» eta «non»ekin eraikitako erlati-bozko perpau ez-murritzgarriei muzin egitea). Berriz ere gogorarazi behar da idazle klasikoek eta idazle ez hain klasiko batzuk ez zutela eta ez dutela inolako aurreritzirik izan sintasi molde horietaz baliat-zeko. Ildo honetan bat gatoz Xabier García Arguellok *El Mundo* egunkarian idatzitako hitz hauekin:

«Besterik da, guztiz ere, geure artean bultzatua den sintaxi sinple eta sinplistari dagokionean. Euskara guztiz malgu eta moldagarri izan da betidanik inguruko hizkuntzen eraginetara, harik eta garbizaleke-riak hizkuntzaren berezko bertute hori debeku eta bekatu bihurtu zuen arte»<sup>34</sup>.

## 4. Orain arteko esperientzia zuzenbidearen alorrean

### 4.1. Eginiko lanaren ondorio zenbait

Datorren irailean hiru urte beteko dira Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Itzulpen Zerbitzua eratu zenetik eta uste dugu, eskuen artetik isuri zaizkigun hiru urte hauetako eskarmentuan zi-mendu harturik, ondorioez mintzatzeko abagune ezin aproposagoa izan daitekeela honako hau.

Lanean hasi ginenetik hona gogoan barrena sumatzen duguna gure egitekoaren bakardadea da. Izan ere, egiten dugun lanaren berri zo-

34. G<sup>a</sup> Arguello, Xabier, *Basakeria estandarra, El Mundo* egunkarian, martxoak 20, 1992.

rioneko hartzaileak bakarrik —eta beharrik!—, izaten du, eta eremu honetan diharduten gainerako profesionalen eskuetara ez baita heltzen, haien kritika eta balorazioa ez dago ezagutzerik. Bestalde, termino berririk sortu beharrean aurkitzen garen bakoitzean (eta nahi baino gehiagotan gertatu ohi da), geure baitarik sortu behar dugu, aditu, itzultzaile eta terminologoz osatu pertsona talde batek burutu ohi duen eginkizuna beteaz. Halako egoera batek ekar ditzakeen arazo eta gorabeherak, bistan denez, ez dira ahuntzaren gauerdiko ezturen pareko, ezta hurrik eman ere. Eta alderantziz ere, hau da: beste toki nahiz erakunde batzuetan (unibertsitatean, UZEIn, e.a.) zuzenbideko arloan egiten denaren berririk ez dugu jasotzen inondik inora. Koordinazio falta honen adibide argigarri bat epaitegietako errotulazioarekin gertaturikoa izan daiteke. Gaur egun auzitegietan agertzen den errotulua Euskal Gobernuaren ardurapean egin omen da («omen» diogu, zeren zuzenki ez baitakigu), bertan lan egiten dugunokin inolako harremanik izan gabe. Bada, hainbat baliabide gastatu ondoren zintzilik agertzen zaizkigun errotuloetan, euskaraz aritzen diren eremu honetako inongo profesionalek ez ditu erabiltzen hor agertzen diren izendapenak (guk geure itzulpenetan darabiltzagunak ere ez dira berdinak); are gehiago, komunikabideek ere bestelako izendapenak erabiltzen dituzte tribunalak aipatzerakoan (oraingoz alde batera utziko dugu «zibil arloa», «pertsonal batzordea» bezalako izendapenen onargarritasun maila hizkuntzaren erregelen arabera). Horra, bada, bizi dugun egoeraren behin-behinekotasunaren etsenplu bat.

Ordea, euskararen tribunaletako erabilera eskasak kezkatzenago eta larritzenago gaitu. Orohar, jakina da euskaldunek betidanik (irakur Axularrek dioena, adibidez) gutxi erabili dutela euskara, eta hain zuzen ere, soziologoek aipatu izan dute euskararen erabilera falta hori gizartearen beste arlo batzutan ere. Ez dagokigu guri horren arrazoiak azaltzea, baina ditugun datuek argi esaten digute euskaldunak oso gutxi baliatzen direla euskaraz Justizia Administrazioarekiko harremanetan, batipat ahozkoetan. Frogabide gisa bi datu hauek: 1990. urtean Bizkaian izandako interpretazio saioak (deklarazioak, epaiketak, aitormenak) hamar besterik ez ziren izan; 1991. urtean, berriz,

hamabi. Bizkaian dagoen euskaldun kopurua gogoan harturik, datu kezkarriak dira beraz.

Gainera ere kontu egin behar dugu Justizia Administrazioa erabat erdalduna dela eta erdara hutsean zuzentzen zaiela administratuei, inork harremanak euskaraz nahi dituela berariaz galdatu ezik, eta kasu honetan itzultzaile-interpretariak baliatu beharra dagoelarik beti. Hortaz, esan daiteke euskalduna bigarren mailako pertsona dela, zein ez baita erdaldunaren parean tratatzen. Euskararen ofizialkidetasunak mailarik behenekoa ezagutzen du erakunde judizialen barruan, hizkuntza nagusia eta kasik bakarra erdara baita. Axaleko kontuak alde batera utzirik, Madrileko Administrazioak zein Euskal Herrikoak badute, ezbairik gabe, erantzukizunik egoera hau zuzentzeko garaian, eta legeek euskarari aitortzen dioten ofizialkidetasuna zinetan eta benetan konpli dadin bitarteko egokiak eskaini beharko dituzte. Halako egoera batek galdatzen dituen aldaketak ezin dira gauetik goizera egin eta denbora asko iragan beharko du euskara tribunaletako mundura jalgi arte.

Ez genuke kapitulu hau bukatu nahi gure eskuetara iristen zaizkigun idazkiek orokorrean agertzen duten euskara maila aipatu gabe. Euskaraz bizitzeko edo euskaraz harremanak izateko hainbat ordenantza eta estatutu onartzen diren egun hauetan, badirudi euskaraz agertzearekin aski dela, euskara bera baldarki eta moldakaizki usaturik egonagatik ere. Uste dugu, bada, euskararen aldeko horrenbeste araudi onartzea bezain inportantea litzatekeela euskaraz lanean dihardutenei eraz idazten erakustea (ikastaroen bitartez edota eskolaren bat sortuz), gure hizkuntzaren osasunerako behinik behin. Horrela bakarrik, guztion ahaleginez, hizkuntzaz baliatuko baikara manera trebeagoz eta erakutsi ohi dugun baino itzal handiagoz.

## **4.2. Eginkizunak**

Orain arte esandako guztiak gogoan hartuz, egoera badaezpadako honetatik irteteko, gure ustez aurrerantzean eman behar diren urratsak azalduko ditugu, laburki bada ere. Hona hemen:

a) Lehenbizikorik, zuzenbidearen munduan eta zuzenbidearekin loturik lanean diharduten guztien elkarlana noraezekoa da bateratsu jokatu badugu eta egiten ari diren ahaleginek fruiturik emango badute. Ahalegin guztiak batzeko zein bide izan daitekeen egokiena denon artean aztertu beharko litzateke. Bide horietako bat EUSKAL-TERM banku terminologikoa izan daiteke.

b) UZEIren zuzenbide hiztegia berriztatu beharra dago, bai termino kopuruari dagokionean (auzibidezko ihardunean erabili ohi diren termino asko ez dira agertzen, konparazioko), bai termino batzuen onargarritasunari dagokion aldetik (esate baterako, batek harriduraz ikusten du nola tradizio handiko *aitatasun* terminoaren ordez, *aitatza* termino dokumentatu gabea asmatu duten). Gure iritziz, Orotariko Euskal Hiztegia taiuz eta tentuz arakatu behar da, zeren eta uste baino askoz termino gehiago agertzen baitira, gure alorrean erabilgarriak direnak.

d) Euskararen hizkera juridikoaren printzipio estilistikoak zehaztu behar dira, berbarako:

- Pertsonen tratamendua. Noiz erabili behar ditu testu baten egileak singularreko lehen eta hirugarren pertsonak? Zer tratamendu mota erabili behar da hartzailearekiko: singularreko bigarren pertsona ala pluraleko bigarrena?
- Kortesiako tratamenduak. Erdaraz erabiltzen diren bezala, hau da, agintariak duen mailaren arabera, euskaraz erabili behar al dira?
- Esapide jakinen itzulpen erazkoa: fraseologia juridikoa.
- Ortografia. Arau zehatzak eman behar dira oraingo anabasari konponbideren bat ematearren (gazteleraz dagoen anabasaren ondorio zuzena dena).

e) Dokumentu gehien erabilien taiuera. Katalunian egin den moduan, non «*Sil-labus processal civil i formularis*» edo «*Cinquanta documents juridics en català*» bezalako formularioak aspaldi egin

baitira, hemen ere profesionalek adituekin batera erabaki behar dute zein dokumentu mota itzuli (edo egokitu) behar diren, guztion lana hagitz erraztuko delarik.

f) Beste hizkuntza batzuetako erabilera juridikoa, bai eta hizkera juridikoaren gainean egiten diren gogoetak eta lanak ezagutzea. Informazio guzti hori aztertu eta ikusi euskararen kasuan aplikaziorik duenentz, betjere nongo legepean eta zein legediri atxikirik bizi garen ahantzi gabe.

Horra bada, irakurle, egitekorik nagusien zerrenda bat, zerrenda hau luza daitekeela dakigun arren.

Eta bukatzeko, Koldo Mitxelenaren hitzak ekarri nahi izan ditugu orri hauetara, lanari ekin aitzin gogoan hartu beharko baikenituzke guztiok<sup>35</sup>:

«Agian, gure artean hain errotua dagoen boluntarismoaren arriskua salatu beharrean gara, nahikunde hutsa helburuetara iristeko nahikoa bailitzan. Ez ditut ukatuko utopiaren ondorio miresgarriak, batzuk begien aurrean baititut. Nahiago nuke, ordea, bada ezpada ere, ezer egingo bada beti beharrezkoak diren ametsak eta berotasun suharrak lagun eta aitzindari kalkulua izango balute, eginahalean zehaztuz zeren bila gabiltzan, zein urratsetan lortuko dugun, eta nolako bitartekoak ditugun eskumenean orain eta etorkizunean».

---

35. KOLDO MITXELENA, «Euskararen bide luze bezain malkarrak», *Euskararen liburu zuria*, Euskaltzaindia, Bilbo 1978. 25. or.

## LABURPENA

### **Euskarazko Zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik**

Artikulu honetan euskarazko itzulpengintzak justizi-auzitegietan duen erabilera-ri buruzko hausnarketa teoriko praktikoa egin nahi da. Horretarako, lehendabizi, eta laburki, itzulpen teknikoak oro har eta, bereziki, juridikoak dituzten printzipio eta ezaugarriak finkatu nahi dira. Batik bat azpimarratzen da euskarazko terminologia juridikoa prestatu eta landu beharra, hitzak eta esapideak homogeneizatzeko eta kontzeptu beraren itzulpen desberdin ugariak galeratzeko.

Bigarren zatian, ordea, arazo praktikoa go batzuk jorratzen dira, testu juridikoak horrelako tradizioarik gabeko hizkuntza batera isurtzeak dakartzan zailtasunei buruzkoak. Azkenik, hutsune historiko horri aurre egiteko, zuzenbidearen alorrean euskaraz edo euskararekin ari diren guztien arteko elkarlanaren beharra adierazten da, bai eta hizkuntzak eskaintzen dituen baliabideak zuzen erabili beharra ere.

## RESUMEN

### **El Derecho en euskara: principios generales y trayectoria desde el punto de vista del traductor**

Este artículo constituye una reflexión teórica y práctica sobre el empleo del euskara en los tribunales de Justicia analizado desde el punto de vista de la traducción. Para ello se intenta en primer lugar y de forma sucinta establecer los principios y características de la traducción técnica en general y de la traducción jurídica en particular. Se hace especial hincapié en la necesidad de elaborar una terminología jurídica en euskara que contribuye a la homogeneización de los términos y que evite la multiplicidad de denominaciones para un mismo concepto.

En la segunda parte del artículo se hace referencia a cuestiones más prácticas relacionadas con las dificultades que conlleva la traducción de textos jurídicos a un idioma que carece de tradición jurídica. Finalmente, para hacer frente a este vacío histórico se destaca la necesidad de la cooperación de todos aquellos que trabajan en euskara dentro del ámbito del derecho, así como de la utilización correcta de los recursos lingüísticos que ofrece la lengua.



## SUMMARY

### **The Law in Basque: General Principles and Technique from the point of view of a Translator**

This article contains theoretical and practical meditations, from the point of view of a translator, on the use of Basque in Courts of Justice. Firstly, it succinctly attempts to establish the principles and characteristics of technical translation in general, and, more particularly, those of juridical translation. Special emphasis is applied on the need to develop juridical terminology in Basque, which would contribute towards homogenization of terminology and avoid a multiplicity of denominations for each concept.

The second part of the article refers to more practical affairs related to inherent difficulties in translating juridical texts into a language lacking in juridical tradition. Finally, in order to fill such a historical gap, the need for cooperation among all those who work in Basque within juridical spheres and a correct use of linguistic resources the language offers are emphasized.

## RESUME

### **Le Droit en euskara: principes généraux et trajectoire, du point de vue du traducteur**

Cet article propose une réflexion théorique et pratique sur l'emploi de l'euskara dans les Cours de Justice, analysé du point de vue de la traduction. L'on a d'abord tenté d'établir succinctement les principes et les caractéristiques de la traduction technique en général et de la traduction juridique en particulier. L'accent est mis sur l'importance d'élaborer une terminologie juridique en euskara, afin de contribuer à l'homogénéisation des termes et d'éviter la multiplicité des dénominations pour un même concept.

La seconde partie traite de questions pratiques en relation avec les difficultés posées par la traduction de textes juridiques dans une langue d'arrivée ne possédant pas de tradition juridique. Finalement, pour affronter ce vide historique, l'auteur appelle à la collaboration de toutes les personnes travaillant en euskara dans le domaine juridique, ainsi qu'à l'utilisation correcte des ressources linguistiques offertes par la langue.



## **Itzulpen literarioaren naturaltasunaz**

Vilen Komissarov

Itzulpena: Ivan Igartua

Teoria tradizionalen itzulpen literarioa betidanik izan da aztertua normatiboki (edo, beste modu batera esateko, preskriptiboki). Itzulpenaren teorialariek oinarri edota eskakizun orokor batzuk, itzulpenak bete behar dituenak itzulpen «on», «zuzen», «egoki» edo «baliozko» izateko —baita ere, oro har, «itzulpen» soilik deitu ahal izateko—, ezartzen saiatu dira. Behin baino gehiagotan eskakizun hauek argi eta garbi azaldu izan dira, zenbaketaren bitartez: «itzulpena jatorrizko testua bezala irakurri behar da», «itzulpenak jatorrizko testuaren estiloa isladatu behar du»... e.a.<sup>1</sup> Beste hainbat kasutan aipaturiko eskakizunak itzultzailearen lanarekin zeuden zuzenean lotuta («itzultzailea behartua dago...»), baina haien izaerak lehengo izaeren jarraitzen zuen. Itzulpen azterketa mota hau izkutuago ere izan zitekeen: eskakizun normatiboak ez ziren zehatz-mehatz adierazten, baizik eta itzulpen definizio berak berez zekarren azterbide balorati-boen bidez soma ahal zitezkeen. A. Fiodorov-ek «gutziz baliozko» itzulpenaren kontzeptua aditzera eman zuenean, esanez itzulpen mota honek erabateko zehaztasuna eskatzen duela orijinalaren esanahia ematerakoan, eta gainera guztiz baliozko egokitasun funtzional eta estilistikoa lortu behar duela orijinala eta itzulpenaren artean, argi geratu zen definizio horrek ere itzultzailearekiko eskakizun zehatz

---

1. Savory Th. H., *The Art of Translation*. London, 1957, 48-49 or.

batzuk suposatzen dituela: «erabateko zehaztasun» eta «guztiz baliozko egokitasun» horiek ziurtatzea, hain zuzen ere.<sup>2</sup>

Eskakizunen artean askotxo —inolako zalantzarik gabe— bidezkoak baldin baziren ere, itzulpen teoria serio bat eratzeko ez ziren nahiko izan. Oro har, erabiltzen zuten terminologia ez zen zehatzegia, hasieratik frogaezinak ziren eta subjektibitate maila altuagatik nabarmentzen ziren. Nola erabaki itzulpena jatorrizko testua bezala irakurtzen den ala ez? Ba al da, gainera, horrelako itzulpenik? Zer egin orijinala bezala irakurtzen ez diren itzulpenekin? Zer esan nahi du «erabateko zehaztasunak»? Itzulpena izan al daiteke, oro har, erabat zehatza? Nola frogatu? Zein azterbidetan oinarritzen dira itzul-tzaile edota itzulpenarekiko eskakizun normatibo bat edo bestea?

Galdera hauen eta beste antzeko batzuen erantzunik ezak ezinbesteko egin zuen itzulpenaren ikerketa preskriptiboaren berrikusketa. I. Revzin eta V. Rozenzweig-ek tinko iragarri zuten: «Itzulpena prozesu bezala deskribatu nahi duen zientziak ez du normatiboa izan behar, baizik eta teorikoa. Ez du deskribatu behar izan behar duena, baizik eta egiazki azaltzen zaiguna».<sup>3</sup> Hitz hauekin ez zuten esan nahi betebeharrak normatiborik batere ez dela behar, eta formulatu ere ezin dela egin. Zera baieztatzen zen soilik, betebeharrak horiek ez direla *a priori* ezarri behar, baizik eta itzulpen prozesuaren deskribapen teorikoaren ondorio izan behar dutela eta aldi berean gauzen egoera errearen eta itzulpen lanean somatutako egitateen isladapena.

Itzulpen teoria objektiboago eta frogagarriago egin nahiaren kontra ez dago zer erantzunik. Hala ere, teoria honen barnean deskriptiboa preskriptibotik bereiztea ez da sarritan hain erraza suertatzen. Kasu askotan itzulpen egitateen deskribapena haien balorazioarekin loturik doa zuzenean, eta itzulpen teoriak orduan era inplizitoan suposatzen du baita ere itzulpen kritika.

2. Fiodorov A.V., *Vvedeniye v teoriyu perevoda*. Mosku, 1953, 114 or.

3. Revzin I.I., Rozenzweig V. Yu., *Osnovy obshejego i mashinnogo perevoda*. Mosku, 1964, 21 or.

Itzulpenaren kalitatea juzkatzeko oinarri bezala erabili ohi dira egungo itzulpengintzan dauden kontzeptzio teoriko ezberdinen has-tapenak. Kontzeptzio horien artean gehiengoak modu batera edo bes-tera itzulpenaren orientabide bikoitza isladatzen du: alde batetik, ja-torritzko testuarekiko eta bestetik, itzulpenaren irakurlearenganako. Lehenbiziko orientabideak suposatzen duena da itzulpenaren balora-zioa, itzulpenaren (orijinalarekiko) fidelitate mailaren arabera. Itzul-pen teoriaren eginbeharra zentzu honetan testu konparaketa burutze-ko metodo objetibo batzuen elaborazioan datza, bai semantika bai pragmatika aldetik. Itzulpen literarioan era honetako konparaketa batek faktore linguistiko eta literarioak kontutan hartzea eskatzen du. Bere garaian E. Etkind-ek «konparaketa mailen» zerrenda osoa eza-gutarazi zuen: 1. bi hizkuntzen sistemen konparaketa, 2. bi hizkun-tzen sistema estilistikoen konparaketa, 3. bi hizkuntzetako literatur estilo tradizionalen konparaketa, 4. bi sistema prosodiko nazionalen konparaketa (poesia itzulpenean), 5. bi zibilizazio nazionalen tradi-zio historiko-kulturalen konparaketa, 6. bi sistema literario eta esti-listiko indibidualen konparaketa (jatorritzko testuaren egilearena eta itzultzailearena)<sup>4</sup>. Konparaketa hauetaz —Etkind-i jarraikiz— Esti-listika Konparatiboa arduratu behar da. Ikuspuntu ideal batetik, konpa-raketa maila guzti hauetan oinarriz soilik juzka daiteke itzulpena-ren eta orijinalaren arteko hurbiltasuna.

E. Etkind-ek argi adierazten du zein zaila den itzulpen literario-aren kalitatea baloratzea jatorritzko testuaren arabera. Dirudienez, etorkizun hurbil batean estilistika konparatiboak nekez emango diz-kio itzulpen kritikari konparaketa objetibo baterako ezinbesteko zaiz-kion tresnak, eta horrexegatik hain zuzen beste bide batzuen bila abiatu beharko dugu.

Lehenbiziko begiradan itzulpen literarioarekiko eskakizunak bi kriteriotan labur daitezke: baliokidetasuna orijinalarekiko hurbilta-

---

4. Etkind E. G., *Xudozhestvennyj perevod: iskusstvo i nauka*. Voprosy jazykoz-nanija, 1970, 4. zk.

sun maila bezala, eta literaturtasuna irakurlearengan eragin estetikoa pizteko modu bezala. Itzulpen teoriak metodorik objetiboena landu behar ditu, itzulpen konkretu baten baliokidetasuna eta literaturtasuna baloratzeko.

Baliokidetasunaren arazoa garrantzizkoa da itzulpen mota guztientzat, eta lehendik sortua du interesa ikerlarien artean. Eta arazo hau dagoeneko konponduta dagoela baieztatzeak gehiegikeria badi-rudi ere, haren soluziorako bideak behintzat nahiko garbi antzematen dira.

Orijinala eta itzulpen testuen konparaketarako behar-beharrezkoak dira haien esanahi eta formaren deskribapen metodo objetibo batzuk. Zentzu honetan lan aski dago egina hizkuntzalaritza eta literatur teoria arloetan: elaboratu dira testu barneko zentzuaren analisi metodoak, deskribatu dira figura eta baliabide estilistikoak, azaldu jenero ezberdinen esanahi eta formaren ezaugarriak, ikertzen ari dira ezberdintasun kultural, etniko eta pragmatikoak, hizkuntza ezberdinetan testuen tajuketa eta ulerkuntzan eragina dutenak, e.a. Baliokidetasunaren balorazioa oraindik neurri handian kritikoaren intuizioan oinarritzen bada ere, semantika, estilistika, linguistika eta beste arlo batzuen garapenak gero eta objetibo eta frogagarriago bihurtzen ditu balorazio horiek.

Literaturtasun kriterioaren egoera ez da bera. Itzulpenaren balore literarioak —beste edozein literatur obratan bezala— intuitiboki neur-tzen dira gehienbat, eta kritikoari zaila zaio subjektibitateari itzuri egitea. Behin baino gehiagotan seinlatu izan da ezinezkoa dela ob-jetiboki zehaztea zertan datzan obra literarioaren xarma, bere poesia, bere eragin estetikoa, zerk egiten duen obra benetan «literario», erre-pikaezin. Atzemanezina den «zerbait» hori maiz sentitu besterik ez da egiten, izan ere «harmonian algebraren bidez sinisten» saiatzea alferra baita.

Hau honela bada, itzulpenaren baliokidetasun balorazioak ez be-zala, bere literaturtasunaren balorazioak kriterio nahiko zehazkabee-tan oinarritu beharra dauka. Orijinalaren eta itzulpenaren eragin es-

tetiko mailen konparaketa (edo testu berberaren bi itzulpenena) maiz izan ohi da soluzio zaileko afera. Hoberenean ere kritikoak itzulpenaren efektu estetikoak gutxiagotzen duten akatsak seinala ditzake soilik, baina sarritan garrantzikoena «inpresio orokorra» gertatzen da. Jakina denez, zientzia eta teknika arlo askotan «adituen balorazioen metodoa» erabiltzen da; literatura eta arte mailan berriz metodo horixe izaten da sarritan erabiltzen den bakarra, berez frogaezina izanik.

Literaturtasun kontzeptuaren barnean saia gaitzke bilatzen analisi objetibo baterako egokiago izango zitezkeen ezaugarri elementalago batzuk. Ezaugarri horietatik bat, ikerlarien interesa aspalditik erakartzen duena, «naturaltasuna» da. E. Nida-k itzulpena «jatorrizko testuak daraman mezuaren baliokide natural hurbilena»<sup>5</sup> bezala definitzen du. Naturaltasuna itzulpen on baten garrantziko baldintzat jotzen dute. Eta are garrantzitsuagoa da baldintza hori betetzea itzulpen literarioan. Hain zuzen itzulpen mota honekin dago lotuta honako eskakizun tradizional hau: itzulpena obra orijinal bat bezala behar dela irakurri. Jatorrizko testua bera ez-naturala den kasu berezia alde batera uzten badugu (orduan itzultzailea ezaugarri hori bersortzen saiatzen da), nekez hitzegin daiteke testuaren literaturtasunari buruz, testu hori hizkuntza bateko ohizko testuak bezala ez bada hautematen.

Itzulpenaren naturaltasuna ikerketa zientifiko baten objektu bihur daiteke, bai eta analisi esperimental batena ere. Esperimentu sail batean naturaltasunaren balorazioa hizkuntza bereko itzulpenak eta jatorrizko testuak alderatuz lortu zen. Inkestatuei, zeinentzat inkestako hizkuntza lehen-hizkuntza baitzen, jenero bateko testu saila eskeini zitzaien. Haietatik zati bat itzulpenak ziren, beste parte, berriz, orijinalak. Inkestatuen lana itzulpenak jatorrizko testuetatik bereiztea zen.

---

5. Nida E., *Toward a Science of Translating*. Leiden, 1964, 166. or.

Esperimentu guztietan inkestatuen gehiengoak hutsik egin gabe banatu zituen itzulpenak, era honetan azken hauek testu «naturale-tatik» aldenduz. Ondorio hauek ikerlariak itzulpenen kalitate falta —gainditu beharreko gabezia— bezala baloratu zuten.

Zertan datza, bada, itzulpenaren «naturaltasunik eza»? Esperimentutarako hizkuntza normak hausten ez zuten itzulpen testuak aukeratu zirenez, suposatu beharra dago haren arrazoiak ezberdintasun sotilagoen pean izkutatzen direla. Diferentzia horiek erabat zuzenak diren forma linguistiko batzuen erabileraren maiztasunarekin loturik egon daitezke, hain zuzen ere maiztasun horren arau-hausteeekin. Zentzu honetan doaz itzulpenen naturaltasunaren sekretuko giltza bilatzeko saioak.

Saio horien adibide gisa I. Vehmas-Lehto itzulpengintzaren ikerlari finlandiarraren lana<sup>6</sup>. Bereizketa esperimentu bat burutu (jatorrizko testuen artean errusieratik finlandiarrera itzulitako kazetaritza artikulua —antzeko edukinekoak— bereizi behar ziren), eta gehiengoak erratu gabe itzulitako testuak identifikatzen zituela ikusi eta gero, ikerlariak suposizio batzuk egin zituen ziurtasun horri buruz, eta ustekizun horiek esperimentuen bidez frogatzen saiatu zen.

Lehenbiziko suposizioa honako honetan zetzan: itzulpenek jatorrizko testuek baino erlazio emozional ezezkorrago bat sortarazten dute irakurlearengan. Honen arrazoiak: baliabide espresibo eta estilistikoaren erabilpen desegokia. Esperimentuan inkestatuei eskeini zitzaizkien testuekiko erlazio emozionalen ezberdintasunak egiaztatzen ziren (zein testu ziren orijinalak eta zein itzulpenak jakinarazi ondoren). Testuak zazpi puntuko sistema baten bitartez baloratzea eskatu zitzaizkien lau oposizio haueetan oinarriturik: «interesgabea > interesgarria», «atsegina > desatsegina», «etsigarria > duda-mudakoa», «afektatua > naturala». Jatorrizko testuen balorazioak oposizioko zati positibora gehiago hurbiltzen ziren itzulpenen balorazioak baino. Honen hasierako hipotesia egiaztatzen zen. Era batean itzulpen ezber-

---

6. Vehmas-Lehto I., *Quasi-Correctness*. Helsinki, 1989.



dinen kantitatezko balorazioak posible egiten zuen haien kalitate erlatiboari buruz mintzatzea.

Bigarren suposizioak, experimentalki egiaztatuak, jatorrizko testuen eta itzulpenen arteko diferentzia postulatzeko estilstika aldetik neutralak ez diren hitzen kopuruari dagokionez, espero baitzen finlandiar itzulpenen naturaltasunik ezak lexiko emozionalaren gehiegizko erabilpenarekin zerikusia izango zuela. Eta puntu honetan berri ere eskatu zitzaizen inkestatuei testu ezberdinetan aurkitzen ziren hitzak zazpi puntuko sistemaren bidez baloratzea, hurrengo balore hauek barne zirela: «oso hitz positiboa», «hitz positiboa», «hitz positibo samarra», «hitz neutrala», «hitz negatibo samarra», «hitz negatiboa», «oso hitz negatiboa». Esperimentuak ustekizun hau ere egiaztatu zuen: egiazki itzulpenen testuak emozionalagoak gertatu ziren.

Vehmas-Lehto-k beste esperimentu bat ere burutu zuen, itzulpen testuen «irakurgarritasun» maila frogatzeko asmotan. Inkestatuei eskeini zitzaizkien testuetan —itzulpenak, jatorrizko testuak eta testu alternatiboak (esperimentuaren egileek beraiek prestatutako itzulpenak)— gutxi gora behera informazio berbera ematen zen, eta inkestatuek testuen edukinari buruzko hamabost galderari erantzun behar zieten denbora mugatuan. Erantzun zuzenen kopuru handienak informazioa eskuratzeko erraztasunari buruzko lekukotasuna eman behar zuen, testuen ulergarritasuna, haien irakurgarritasun handiagoa azken finean frogatuz. Hemen ere itzulpenak ez ziren jatorrizko testuen mailara iritsi.

Kasu guztietan itzulpenen ezberdintasuna gabezia bezala baloratzen zen, itzulpenaren naturaltasuna ziurtatzeko itzultzailearen ahalmenenik eza bezala. Horrelako itzulpenak ezin dira —I. Vehmas-Lehto-ren ustez— zuzentzat jo; zerbaitengatik izendatu zuen bere liburua *Quasi-Correctness*.

Dirudienez, itzulpen eta jatorrizko testuen arteko ezberdintasun izkutu hauek testu barneko elementu ezberdinen erabileran soma daitezke. Suposa dezakegu perpaus zati, estruktura sintaktiko edo

unitate lexiko eta tankera horretako elementuen maiztasunaren konparaketak itzulpenen ezaugarri berezi batzuk ezagutzera eman ditzakeela, eta horiek hain zuzen izango direla ezinbesteko «naturaltasunaren» gabezia bezala kontsideratzen direnak.

Gauzak horrela, itzulpena jatorrizko testua bezala irakurri ahal izan behar da, eta era honetan irakurtzen ez bada, errua itzultzaileari. Agian analisi batek zera erakutsiko luke, itzultzaile errugaberik, eta horren ondorioz, behar bezalako itzulpenik ez dela oro har esistitzen.

Baina ez al du honelako ikuspuntu batek akats teorikorik? Itzulpena ahalik eta naturalena izan dadila eskatzea jakineko erreakzioa da hizkuntzaren norma eta erabilera hausten dituzten itzulpenen aurrean, baita ere erabat arrazoizko aspirazioa: itzultzailearen arreta berak aise egin ditzakeen akatsetara bideratzea.

Jakina, itzulpen literarioak (eta ez bakarrik literario denak) zuzena eta naturala —idatzita dagoen hizkuntzaren ikuspuntutik— behar du izan, gainera trebea izan behar du hizkuntzaren baliabide espresiboak erabiltzerakoan, eta irakurgarria ere izan behar du, noski (irakurtezina jatorrizko testuak berak diren kasuak salbu). Baina esan nahi al du honek, itzulpenik onena itzulpen «klandestino» dela, obra orijinaletik bereizten ez dena, itzulpen bezala pentsaezina?

Esperimentuetan hautematen den inkestaturen gaitasuna itzulpen eta jatorrizko testuak bereizteko ez da beti itzultzaileen akats argi edota izkutuen bitartez esplikatzen. Horrelako gaitasuna guttiz objektiboa den premiaren islada izan daiteke. Edozein testu komunikaziozko helburu bat lortzeko, gizakien edota gizartearen behar bat edo besteri irteera bilatzeko sortzen da. Itzulpen testua inolaz ere ez da sortzen jatorrizko testu bat bezala agertzeko. Beste hizkuntza bateko bere jatorria ez da izkutatzen, alderantziz, azpimarratzen da oharren bidez: zein hizkuntzatatik izan den itzulia, nor den egilea, nor izan den (ez beti) liburua itzuli duena, hitzaurrea, komentarioak eta beste bide batzuk. Hizkuntza jakin batean itzulpenek itzulpen bezala funtzionatzen dute, hau da, orijinalak argi eta garbi ez diren testuak bezala.

Aurrenekoetan izan dut aukera itzulpen definizio teleologikoaren garrantzia azpimarratzeko<sup>7</sup>. Itzulpena jatorrizko testua ordezkatzeko —honen ezaugarri guztiekin—, beste hizkuntza batean errepresentatzeko egina dago. Beste hit'z batzuekin, itzulpen testua itzulpen deitzen da aldez aurretik, hasieratik bilatzen da itzulpenaren funtzioa, itzulpena sortzen da pentsatuz itzulpen bezala hain zuzen jasoko dutela irakurleek. Itzulpena ona edo txarra izan daiteke, fidelki berregin dezake jatorrizko testua edo hura desitxuratu, baina hala ere itzulpena izango da, eta haren balorazioak zentzua edukiko du testua itzulpen bezala baloratzen duen neurrian. Oro har, itzultzailea bera ere ez da saiatzten bere itzulpena jatorrizko testutzat ematen. Alderantziz, literaturaren historian ezagunak diren hainbat kasutan testu orijinalen egileek —arrazoi batzuk edo besteak zirela medio— itzulpen bezala aurkezten zituzten beren obrak. Suposa genezake itzulpenaren «naturaltasunak» ez duela bilatzen itzulpena jatorrizko testuetatik bereiztezina egitea.

Esperimentuek erakusten duten bezala, gehienetan itzulpenak baditu jatorrizko testutik bereizten duten ezaugarri linguistiko batzuk. Baina, badaiteke, honek ez du esan nahi hizkuntzaren normak hausten direla (batzuetan norma horiek jatorrizko testuetan ere hausten dira), baizik eta badirela itzulpen testuaren izaerarekin zuzenean lotuta dauden berezitasun batzuk, bere jatorrizko testuaren ordezkari funtzioarekin ere zerikusia dutenak. Berezitasun hauek ondo ezagutzen dira: beste hizkuntza bateko elementuen erreprodukzioa transkripzio, transliterazio edota kalkoaz baliatuz, idiomatismoen hitzez hitzeko itzulpena, eta batez ere, lehen esan den bezala, unitate linguistikoen (edo unitate hauen klase osoen) maiztasun ezberdina. Berezitasun hauen presentzia itzulpenaren ezaugarri unibertsala da, eta, ondorioz, ezin da baloratu itzultzailearen prestakuntza falta edo arduragabekeria bezala. Berezitasunak beharkizun batek sortarazten ditu: itzulpenak ahalik eta zehatzen isladatu behar baitu orijinala.

---

7. Komissarov V.N., *Kopredelieniju pon'atija «perevod»*. Ucebno-metodologičeskije pazpabotki k kursu teorii perevoda, MGPIIJA IM. M. TEREZA, 1972.

Horregatik itzultzailea kontziente edo inkontzienteki obra orijinalaren «naturaltasun» maximotik aldentzen da.

Adibide bat emango dut soilik, jadanik ia antologiko bilakatu dena. Ingeleseztik nahiko erabilgarria da *meal* hitza, edozein jateko momentu esan nahi duena, ordutik eta kantitatetik at. Errusieraz hitz honek ez du baliokide estilistikorik, eta egoera bakoitzean konkretuki gosariatz (zavtrake), bazkariatz (obiede) ala afariatz (uzhine) mintzatzen gara. Hitz hauekin topo eginez, ingeles itzultzailea aukera egin beharrean dago: haien baliokide zuzen eta zehatzak erabili, edo baliokidea alde batera utzi eta ingelesezko *meal* hitz zehazkabearen bitartez haiek ordezkatu. Gehienetan lehenbiziko bidea aukeratzen du, eta honen ondorioz, «meal» hitza ingelesezko itzulpen testuetan askoz guxtiago erabiltzen da jatorrizko testuetan baino.

Baiezta dezakegu edozein hizkuntzatan itzulpenak testu kategoria berezi bat direla eta testu horiek gizarte-funtzio espezifiko bat betetzen dutela. Itzulpenen hizkuntza hizkuntza literarioaren bariante bezala agertzen da, ikerketa berezi bat merezi duena, itzultzailearen akats indibidualetatik haren berezitasun sistematikoak bereizi ahal izateko. Ondorioz, esan dezakegu itzulpenaren «naturaltasuna» ez dela «orijinala bezala irakurri behar den» betekizunarekin batera etortzen. Oro har, itzulpena itzulpen bezala irakurriko da, eta bere «naturaltasunaren» giltza itzulpen normarekin bat etortzean aurkituko da. Itzulpen norma hori, berriz, sozialki eta historikoki baldintzatua dago, eta gizartearen iritzia isladatzen du horregatik: nola izan behar duen itzulpenak, eta baita zernolako irizpidez gidatu behar duen bere burua itzultzaileak edozein motatako testu bat itzultzeko estrategia aukeratzekoan.

Egiazki esistitzen diren itzulpenen hizkuntza ahalik eta zabalen ikertzeak —eta ez akatsak aurkitzeko nahian, baizik eta hizkuntza literarioaren bariante honen berezitasunak argitzeko— posibilitate berriak ireki ditzake itzulpen literarioaren balorazio objektiboago bat lortzeko bidean.

Vilen Komissarov, 1991

## LABURPENA

### Literatur itzulpenaren naturaltasunaz

Itzulpen teoriaren zeregin nagusienetako bat literatur itzulpenak baloratzeko irizpideak aurkitzea da. Literatur itzulpena sorburu testuarekiko fideltasunaren arabera eta bere eragin estilistikoaren arabera epai daiteke. Baina itzulpen baten kalitatea neurtzerakoan, kritikak intuizioa erabiltzen badu, nekez burutu ahalko du azterketa objetiborik.

Itzulpen onaren baldintzarik garrantzitsuenetako bat naturala izatea da, edo, bestela esanda, jatorrizko testu bat balitz bezala irakurria izan ahal izatea. Ikerketa esperimental batzuek erakutsi dutenez, baldintza hori gutxitan batetzen da, eta gehienetan irakurleak arazorik gabe bereizten ditu itzulpenak eta jatorrizko testuak. Seguru aski, itzultzailearen trebezia faltari egotzi beharreko okerrak erabiltzen ditu bere iritziak osatzeko.

Artikulugileak dioenez, bi testu moeta horien arteko aldeak objetiboa eta ezinbestekoa behar du izan. Itzulpenak jatorrizko testua ordezkatzen du, eta testu berezi, identifikagarri eta jatorrizkoaren desberdina den neurrian bakarrik bete dezake bere egitekoa. Itzulpenen hizkuntza aztertzean, itzultzailearen akatsak eta arrazoizko desberdintasunak bereiztu beharko lirakeke. itzulpenaren naturaltasunak ez du esan nahi jatorrizkoaren guztiz berdina izan behar duela: itzulpenak itzulpen den aldetik izan behar du naturala. Generoari dagozkion onargarritasun irizpideak eta garaian garaiko adostasun sozialak —itzultzaileak bere ihardunbidea zehazterakoan kontutan hartzen dituenak— islatu behar ditu.

## RESUMEN

### La naturalidad de la traducción literaria

Una de las principales labores de la teoría de la traducción es descubrir criterios para una valoración crítica de las traducciones literarias. Una traducción de este género puede valorarse según su fidelidad al texto de partida y su efecto artístico. Pero al valorar las cualidades de una traducción, la crítica se encuentra a menudo con factores intuitivos que impiden el análisis objetivo.

Uno de los requisitos más importantes de una buena traducción es que sea natural o pueda leerse como si fuera un texto original. Estudios experimentales han demostrado que este requisito rara vez se cumple y que, en la mayoría de los casos, los informantes pueden distinguir entre la traducción y el texto original. Probablemente

basan sus juicios en ciertas diferencias lingüísticas que los investigadores consideran errores, resultado de la capacidad o destreza insuficientes del traductor.

El autor propone que tales diferencias sean objetivas e ineludibles. Una traducción debe representar el texto de partida y puede cumplir su función únicamente si se acepta como un tipo de texto especial, identificable y distinto del texto original. En el estudio del lenguaje de las traducciones deberían distinguirse los errores del traductor y las diferencias justificables. La naturalidad de una traducción no depende de su absoluta identidad con el texto original: una traducción debe ser natural en tanto que traducción; Debe reflejar los criterios de aceptabilidad que dependen del género y de las convenciones sociales de la época que el traductor tiene que tener en cuenta a la hora de definir su estrategia.

## SUMMARY

### On «naturalness» of literary translation

A major task of translation theory is to discover criteria for a critical assessment of literary translations. These sort of translations can be assessed in terms of their fidelity to the source text and their artistic impression. But assessing the literary qualities of a translation the critic is often faced with intuitive factors which defy objective analysis.

A major requirement to a good translation is that it should be natural or that it should read as an original. Experimental studies have shown that this requirement is seldom met and that, in most of cases, the informants can distinguish translations from original texts. Presumably, they base their judgements on a number of linguistic distinctions which are regarded by the researchers as errors to be corrected, as the result of the translator's inadequate skill or performance.

It is suggested by the author that such distinctions may be objective and unavoidable. A translation is meant to represent the source text and it can fulfil its function only if it is accepted as a special type of text, identifiable and distinct from non-translations. The language of translations should be studied in its own right to distinguish the translator's errors from justifiable distinctions. The naturalness of translation does not mean its absolute identity with original texts. A translation should be natural as translation. It should meet the acceptability criteria which depend on the genre and on the social conventions of the period influencing the choice of the translator's strategy.

## RESUME

### **Le naturel dans la traduction littéraire**

L'une des principales tâches de la théorie de la traduction est de trouver des critères applicables à la critique de traductions littéraires. Une traduction de ce genre peut être évaluée en fonction de sa fidélité au texte d'origine et de son effet artistique, mais la critique se trouve fréquemment confrontée à des facteurs intuitifs gênant l'analyse objective.

Une bonne traduction doit sembler naturelle au lecteur et se lire comme s'il s'agissait du texte original. Des études expérimentales ont démontré que cette condition est rarement remplie et que, dans la plupart des cas, les lecteurs peuvent distinguer une traduction du texte original. Ils basent probablement leur jugement sur certaines différences linguistiques, considérées comme des erreurs par les chercheurs, et comme des conséquences d'une capacité ou d'un savoir-faire déficient du traducteur.

L'auteur propose que ces différences soient considérées comme objectives et inéluctables. Une traduction doit représenter le texte de départ et ne peut remplir cette fonction que s'il est accepté comme un type de texte particulier, identifiable et différent du texte original. L'étude du langage des traductions devrait faire le tri entre les erreurs du traducteur et les différences justifiables. Une traduction n'est pas naturelle parce qu'elle est absolument identique au texte de départ : une traduction doit être naturelle en tant que traduction. Elle doit être le reflet des critères acceptables de son genre et des conventions sociales de son époque que le traducteur doit avoir présents à l'esprit lorsqu'il définit sa stratégie.





## **Metaforaren itzulpena**

Fred Van Besien  
Katja Pelsmaekers

Itzulpena: Javi Cillero

### **1. Sarrera**

Metafora ez da fenomeno marginala gure hizketa eta pentsamenduetan Lakoff eta Johnsonen arabera (1980), gure sistema kontzeptualak izatez oinarri metaforikoa du: kontzeptu metaforikoen bidez pentsatu eta egiten ditugu gauzak, honetaz zuzenean ohartzen ez bagara ere. Hitz egiten dugunean, metaforek sistema kontzeptual hori isladatzen dute. Paprotté eta Dirvenek (1985), era berean, metaforaren ubikuitatea nabarmentzen dute: metafora hortxe kokatzen da, alegia, «gizakiak eta errealtateak elkarri eragiten dioteneko prozesurik sakonen eta orokorrenetan, mundua asimilatu eta bertara ego-kitzean» (viii or.).

Azken urteotan izugarri aldatu da metafora kontzeptuari heltzeko modua: metafora jadanik ez da hartzen oroz gainera fenomeno semantikotzat, baizik izatez eta hein handi batean arazo pragmatikotzat.

Metaforaren itzulpenari dagokionez, itzulpengintzaren teoriari buruz irakurri dugunak pentsarazten digu metaforaren funtzioa ez dela behar bezala aintzakotzat hartzen. Bestalde, gehienetan arazo

hori testu literarioei lotuta agertzen da eta metafora askotan ulertzen da gonbarazioaren alderdi bat bezala.

Gure aldetik, metaforak funtzio ezberdinak («testu mota» beraren barnean egon arren) izan ditzakeela erakusten saiatuko gara eta funtziook garrantzitsuak direla itzulpena egiteko. Gainera, argi geratu beharko da metaforak funtsezkoak izan daitezkeela testu ez-literario-etan ere, eta metaforak ez direla derrigorrez interpretatu behar simil laburtuen antzekoak bailiran.

## **2. Zer da metafora?**

Metafora aztertzeko moduak bitan banatzen dira: hurbilpen semantikoak eta hurbilpen pragmatikoak. Metaforari buruzko teoria semantikoaren arabera, metafora gonbarazio mota berezi bat da, baina ideia biren arteko elkarrekintza erabiltzailearen buruan sortua. Teoria pragmatikoez metafora esaldiaren esanahiarekin lotu barik, mintzaldiaren esanahiarekin lotzen dute eta interes handia hartzen diete esakune batek esaldian izan ditzakeen esanahi literalen eta mintzaldian izan ditzakeen esanahi metaforikoen arteko harremanei.

### **2.1. Gonbarazioaren teoria**

Metafora aztertzeko ikuspuntutik hedatuena gonbarazioaren ikuspuntutik datorren joera da eta Aristotelerekin hasten da, baina azken garaioan ere badira ikuspuntu honi eutsi diotenak (e. b. Henle 1958; Miller 1979). Gonbarazioaren teoriaren ideia nagusia hauxe da: metaforaren oinarria bi gauzaren arteko analogia bat da eta elementu gonbaratiboa (*bezala*) ezabatuta daukan similtzat jo daiteke. Honela, bada, honako hauek dira metaforaren osagaiak: *topikoa*, hau da, mintzagaia, eta *bitartekoa*, hots, topikoa aurkezten digun irudia edota analogia. Topiko eta bitartekoaren ezaugarri amankomuna metaforaren funtsa da. Ondorengo metaforan, «ugazaba aita da guretzat», «ugazaba» topikoa da, «aita» bitartekoa, eta ezaugarri amankomuna

«ondo zaindu eta maitatzea» da. Metafora dela medio, hauxe adierazten dugu: X (topikoa) berdin Y (vehicle) Z (funtsa)ri dagokionez.

Ohizko ikuspuntu tradizional honen arabera, metaforak errazak dira parafraseatzen hitzez-hitz, similarren bidez, ezertan galdu gabe edukin kognitiboari dagokionez. Beste modu batez esanda, metaforak batez ere funtzio edergarria du eta ustekabe atsegina suertatzen zaie irakurle-entzuleei.

## **2.2. Elkarrekintzaren teoria**

Metaforari buruzko elkarrekintzaren ikuspuntua (cf. Black 1962) Richards-ek (1936) egin zuen planteamenduari lotuta dago. Honen ustez, metafora erabiltzen dugunean, bi subjektu ezberdinen bi pentsamendu ezberdin elkarrekin aktibatzen ari dira, nahiz eta guk hitz (-multzo) berbera erabili bi pentsamenduetarako. Hitz(-multzo) honen esanahi berria bi pentsamendu hauen arteko elkarrekintzaren ondorioa da.

«Txiroak Europako beltzak dira» adierazpen metaforikoa hartzen badugu, Europako txiroei buruz eta Amerikako beltzei buruz ditugun ideiek elkarri eragiten diote eta beste esanahi bat suertatzen da. Honela, bada, Europako txiroei buruz eta Amerikako beltzei buruz ditugun ideien elkarrekintzak adierazpen metaforikoaren interpretazio berri batera bultzatzen gaitu, zeren «beltzak» hitzak beste esanahi bat jasotzen baitu. Esanahi berri hau ulertu behar da «beltzak» hitzaren testuinguru berriak ezartzen duen esanahiaren luzapen baten antzera. Metafora honek irakurle-entzuleengan duen eragina «beltzak» hitzak duen lehen esanahiaren eta oraingo esanahi (zabalduaren) arteko elkarrekintzaren ondorioa da.

Nola sortzen da esanahiaren zahalkuntza mota hori? Honelako metaforan, «Gizona otsoa da», Blacken arabera (1982), bi subjektu ageri dira: «gizona» oinarritzko subjektua eta «otsoa» bigarren mailako subjektua. Otsoen gainean ezer ez dakien irakurle/entzuleak ez du ulertuko esaldi horren esanahia. Hala ere, hartzaileak ez du zertan

jakinik «otso» hitzaren esanahi enziklopediko zuzena, ez osoa ere. Jakin behar du eguneroko berbaldian otsoei normalean dagokien ezaugarri multzoa, hau da, otsoen ezaugarri estereotipikoak (Blackek «topiko elkartuen sistema» deitzen duena), hala nola, «anker», «haragijale», «traidore», etab. «Otso» hitzak ezaugarri estereotipiko multzo bat dakar gogora, hertsiki mugatu gabea, berari buruz adostasun handia badago ere. Beraz, «gizona»ri metafora bidez otsoa deitzen zaionean, irakurle/entzuleak beste batekin elkartzen du, alegia, jendeari erasotzen dion batekin; pertsona hori ankerra da, gosetia, etengabe borrokan dagoena, etab. Bestela esanda, irakurle/entzuleak beste ezaugarri multzo bat eraikitzen du «gizon» oinarritzko subjektuarentzat: otsoaren hizkuntzara bihur daitezke giza ezaugarri guztiak hanpatzen dira; otsoei ezin egokitu zaizkien giza ezaugarriak ezabatzen dira. Otso-metaforak, honenbestez, gizakiari buruz dugun ikuskera iragazten du, eta gure ideia oinarritzko subjektuaren gainean antolatzen du.

Metafora guztiak ez dute horrela funtzionatzen, Blacken iritziz: metafora ez hain konplexuak erraz azal litezke gonbarazioaren bidez zein ordezkapen soilaz ere. Metafora arrunt hauek hitzez hitz parafraseatzen dira inolako galerarik gabe edukin kognitiboaren aldetik. Elkarrekintzako metaforak, ordea, ezin dira hitzez hitz parafraseatu zeren bigarren mailako subjektua erabiltzeak subjektu bien ezagupena eskatzen baitu irakurle-entzuleak oinarritzko subjektua hobeto ezagutuko badu. Saia gintezke elkarrekintzako metaforak parafraseatzen subjektu bien arteko erlazio garrantzitsuak laburbilduz, baina hitzez hitzeko proposizio multzo honek ez dauka, Blacken arabera, metaforak duen indar berbera: metaforan irakurle-entzulearen beraren esku dago ekartzea subjektu bien arteko elkarrekintzaren inplikazioak eta ematea dagokien pisu erlatiboa. Parafrasian inplikazio guztiak argi eta garbi emanda daude eta pisu berbera dute.

### **2.3. Hurbilpen pragmatikoa**

Metaforaren hurbilpen pragmatikoak honetan hartzen du oinarri: adierazpen metaforiko baten esanahia ezin da eratorri interpretazio

semantikoaren oinarrietatik. Interpretazio semantikoak adierazpen metaforikoaren esanahi literalaren karakterizazioa besterik ez du ematen (cf. Levinson 1983).

Searle-ren arabera (1979), metafora ironia eta zeharkako estiloaren kategoria berean sartzen da: kasu guztiotan hitzun-idazleak esan nahi duena komunikatzen du, nahiz eta berak esaten duen hitzaren esanahiek zehazki eta hitzez hitz ez adierazi berak esan nahi duena. Bestela esanda, metafora hausturaz sortzen da, alegia, hitzunaren esanahiaren (hau da, hitzunak esan nahi duena hitz egitean) eta esaldiaren esanahi literalaren artekoaz.

Honek berekin dakar izatez esanahi aldaketarik ez gertatzea adierazpen metaforikoaren elementu lexikaletan: adierazpenak esanahi bakarra du, c.q. esanahi literala; haatik, hitzun-idazleak bestelako zerbait esan nahi du haien bitartez. Metaforaren teoriak, beraz, honako eginkizuna du: esaldiaren esanahi literala eta adierazpenaren esanahi metaforikoa elkartzen dituzten oinarriak aurkitzea.

Gricek (1975) eskaini du oinarri orokorra halako funtsak aurkitzeko. Idazle honek iradokitzen du metaforak probetxatu eta hausten duela Kualitatearen araua («saiatu zeure ekarpena benetakoa izan dadin; ez esan ezer gezurra dela uste baduzu; ez esan ezer egiaztapen egokirik gabe» 48 or. ), hau da, argi eta garbi egindako huts egitea da hizketako arau bat betetzen berataz baliatzeko hizketaldiari begira. Honek arazotan sartzen du entzule-irakurlea, zeren —Griceren arabera— mintzakideak «elkarri laguntzeko printzipioa»-ri jarraitzen baitzaizkio, eta honenbestez, espero dute trukaketak informatiboak, benetakoak, egokiak eta zalantzabakoak izango direla. Kualitatearen araua hausteak honako galdera hau egitera behartzen du entzule-irakurlea: «Nola ulertu behar da esan duena, ustez elkarri laguntzeko printzipio orokorra zaintzen ari bada?» (49 or.).

Metafora guztiak ezin dira azaldu Kualitate arauaren hausketaren bitartez «Freud hemen bizi izan zen» bezalako adierazpen metaforikoa benetakoa izan liteke bai hitzez hitz (leku honetan bizi izan

zen) bai metafora bidez (bere teoriak leku horretan bizirik zaindu ziren) (cf. Levinson 1983).

### **3. Metaforaren funtzioa**

Hala testu zientifikoetan nola literarioetan metaforak funtzio ezberdinak ditu. Lehenengoetan, zenbait metaforak teoria zientifikoaren zati funtsezkoen funtzioa dute; beste batzu, ordea, baliabide pedagogiko gisa erabiltzen dira. Era berean, literaturan metaforak esanahi definitiboaren aldaketa errazteko erabil badaitezke ere, beste egoera batzuetan ezin dira parafraseatu eta bakarrik dira garrantzitsuak testuinguru jakinetan.

#### **3.1. Metaforaren funtzioa testu literarioetan**

Itxura denez, metaforak ez du funtzio bateraturik testu literarioetan. Aristotele, Longinus, Aquino, Hobbes, Gottsched eta beste batzuren idazkiek iradokitzen dute literatura aurre-erromantikoan metaforak edergailu estilistikotzat edota tresna didaktikotzat jotzen zirela. Honek ez du esan nahi metaforak bana daitezkeenik testuaren egitura eta efektuari begira: Erdi Aroko alegorietan metaforak batzuetan esanahi zehatzeko multzo jakinetara zabaltzen ziren, baina ezin ziren ordezkatu testuan parafrasien bitartez. Knapp-en arabera (1976) XV. mendeko prosan erabilitako metaforak ia erabat «objetibizatuak» ziren (hau da, bakarrik esanahi jakin, ondo zehaztuei lotuak), baina, halaber, askoz ere lotuagoak ziren zenbait testuingururi. Literatura aurre-erromantikoan orokorrean irakasteko erabiltzen bazen ere, batzuetan metaforak kontrako helburua zuen, tabu erlijiosoak edota sexualak eragindako kasuetan bezala. Rorich-ek (cf. Pausch 1978 13 or.) aurkitu zuenez, herri literatura, esaera zahar, esamolde eta kantetan metaforak sarritan erabiltzen ziren termino sexualak saihesteko. Eta Aquinoren *Summa Theologica*-ren Bederatzigarren Artikuluan honako hau adierazten da: «egiaren ezkutatzea irudien bidez baliagarria da buru azkarraren sendotzeko, bai eta sinisgabeen

trufaren aurkako defentsa gisa ere, honako erran zuhurraren arabera: “ez eman ezer sakraturik txakurrei”».

Metaforaren funtzioari buruzko ikuspuntu neo-klasikoa ondo laburtua duke Gottsched-ek bere *Critische Dichtung* liburuan: literatura lehenik eta behin benetakoa izan beharko litzateke, hau da, naturaren antzekoa, filosofia bezala. Egia batzuetan nekez edota zail baita ulertzen, literatura metaforaz baliatu beharko litzateke, «die hauptsächlichste Gattung verblumter Redensarten», kontu gaitzak edertzeko «für den gemeinen Verstand unstudierter Leute» (Graefe 1976).

Literatura erromantiko eta post-erromantikoan metaforak ez dira jadanik aurrez asmatu egiak edertzeko edota irudikatzeko tresnak. Metaforek askotan sinboloaren funtzioa dute eta agertzen diren poemaren antolamendu edota sistematik jasotzen dute beren «esanahia». Ezra Pound-ek poema moderno Txinako ideogramarekin gonbaratu zuen, irudi konplexua adierazten baitu elementu multzo bat elkarrekin jaulkiz predikamendurik gabe (cf. Frye 1957). Bere lankide neo-klasikoak ez bezala, poeta modernoak «ez du hautatzen gai abstraktu bat gero xehetasun jakinez edertzeko», baizik ere bilakatzen ditu bere gisako irudiak «eta haien bidez sor dezakeen edozein esanahi orokor atzematen du» (Brooks 1951). «Esanahia» oso zabal ulertu behar da hemen, zeren W. B. Yeatsek adierazi zuenez, «metaforak oso sotilak izan daitezke enteleguarentzat» eta «beste edonolako moldapen bidez sortu ezin daitekeen hunkipena sortzen dute».

### 3. 2. Metaforaren funtzioa testu zientifikoetan

Boyd-en ustez (1979) zenbait metafora oso garrantzitsuak dira teoria zientifikoaren garapenerako, ez bakarrik zientzia baten fase aurre-teorikoa edo aurre-zientifikoan, baita zientzia helduak direlakotan ere. Honelako metaforen funtzioa terminologia zientifiko berria eskaintzea da honela egintza nahiz hipotesi berriei egokitze aukera emanez hizkuntzari. Honelako metaforak, «teoria osatzeko metaforak», beste metafora batzu ez bezalakoak dira, testu zientifikoetan

maizago agertzen direnak, hain zuzen ere, metafora «exegetiko» edota «pedagogiko» izenekoak.

Azken mota honetakoak parte hartzen du dagoeneko bide ez-metaforikoaz formula daitezkeen teorien irakaskuntzan eta azalpean. Metaforak, bai eta simil eta analogiak ere, baliabide pedagogiko gisa erabili izan dira behin eta berriro gizakiaren lehen idazkiez geroztik. Platonen elkarrizketak (kobaren metafora *Errepublika*-n) eta Biblia dira adibide klasikoak. Metafora pedagogikoen balioa beren trinkotasun eta bizitasunean datza (cf. Ortony 1975).

Metafora pedagogikoen halaber sustatzen omen dute informazioaren oroimena, eta ulermena hobetzen dute, zuhurrago eta pertsonalago bihurtuz. Bidea errazten dute informazio ezagunetik informazio berrira, irakurle-entzuleari gai berria ulertzen laguntzen baitiote hobeto ezagutzen duen gaiarekin elkartuz.

Teoria osatzeko metaforek funtzio ezberdina dute, garrantzitsua goa zientziaren filosofiaren ikuspuntutik. Metafora hauen funtzioa —aldi batez, behintzat— teoria zientifikoaren zati ezinbestekoa izatea da. Metafora hauek ezin dira (oraingoz) berriz formulatu hitzez hitzeko parafasiaren bidez. Metafora pedagogikoen irakurlea gai berria gai ezagun baten argitan ikustera gonbidatzen dute; teoria osatzeko metaforak, berriz, haruntzago abiatzen dira: irakurlea gonbidatuta dago ikertzera gai bien arteko antzekotasun eta analogiak, hau da, gai berriaren aspektu oraindik ere deskubritu edo erabat ulertu gabeak. Honela, bada, metafora ondorengo ikerketara gonbidatzeko modua da.

#### **4. Ohizko ikuspuntuak metaforaren itzulpenari buruz**

Esan daiteke metaforaren itzulpenari buruz idatzi den literaturak bi angelu ezberdinetatik ikusi ohi duela arazoa: hurbilpen «tradizionala» (Nida 1964, Kloepfer 1967, Reiss 1971, Dagut 1976, Newmark 1981) batez ere itzulpenaren praktikari egokitzen zaio eta planteamendu arauemaileak egiteko joera dauka, nola itzuli beharko lirartekeen metaforak gaitzat hartuta; bestalde, hurbilpen «berriago»aren



helburua, batez ere, egungo metaforaren itzulpena deskribatzeko ereduak ezartzea da (Van den Broeck 1981, Toury 1985).

#### **4.1. Hurbilpen «tradizionala»**

Nahiz eta denak arduratu itzultzeko estrategia «zuzen»en formulazioaz, lehen aipaturiko autoreak ez datoz bat inola ere metaforaren itzulpenak duen zailtasun mailari dagokionez.

Batzuk (Kloepfer 1967, Reiss 1971) adierazten dutenez, metaforak ez dira jadanik bestelako hizkuntzak baino problematikoago, gizakien artean ustez unibertsalak diren imageriaren alorrak eta irudimenaren egiturak direla medio. Beraz, metafora hitzez hitz itzuli beharko litzateke (Reiss 1971).

Metafora zenbat eta ausartagoa (hau da, konbentzio gutxiagokoa) orduan eta errazagoa litzateke (Kloepfer 1967).

Beste batzuk (Nida 1964, Dagut 1976, Newmark 1981) metaforaren berezitasun kultural eta metaforaren jatorriekin lotzen dute metaforaren itzulpenaren zailtasuna. Gehienak eszeptikoak dira metafora hitzez hitz itzul ote daitekeen. Nidaren arabera ia ezinezkoa da eta esaten du itzulpenean simul bidez ordezkatzeari hurrengo gauzarik onena dela (baldin eta adierazpenaren esanahi literala eta esanahi metaforikoa sartuta badaude xede hizkuntzako diskurtsoaren unibertsoan).

Dagut-en arabera, metaforaren itzulgarritasun (literal) neurritz egokitzen zaio, bai sorburu hizkuntzan, bai xede hizkuntzan, inplikaturako esperientzia kulturalen eta erabilitako elkarketa semantikoen arteko gainezarpenari.

Newmark-ek metaforak beren «adin» edo lexikalizazio mailaren arabera sailkatzen ditu. Kloepfer-i darraikio metafora ausartak direlako kasuan, baina zazpi «prozedura nagusi» bereizten ditu «gordailuko» metafora horiek itzultzeko (hots, hizkuntzaren tradizioaren baitan daudenak) Dagut eta Nida-ren ikuspuntua hartuta, Newmark-ek uste du metaforak antzekotasuna adierazten duela; horregatik,

prozedura nagusienetakotzat jotzen du similaren erabilera itzultzean. Bere hitzetan, «hauxe da modu nabarmena metaforaren eragina aldatzeko» (89 or.) eta honen ostean «simila metafora baino murrizago eta zientifikoagoa da» (ibid.).

## **4.2. Hurbilpen deskriptiboa**

Van den Broeck-ek (1981) aipatzen du metaforaren erabilpen eta funtzioa itzulgaitasunaren parametro garrantzitsuak direla. Metafora «sortzaile» eta «edergarri»ak bereizten ditu, eta aurrera eginez elkartzen ditu testu literario eta informatibo-zientifikoekin, hurrenez hurren. Amaitzeko, Van den Broeck-ek itzulgarritasunaren legea ezartzen du, honela ulertu behar baita: «gutxiago edo gehiago gerta daitezkeen erlazioei buruzko planteamendu hipotetikoa»: itzulgarritasuna alderantzizko proportzioan dago bai metaforak adierazten duen informazio kopuruarekin eta bai beste gauza batekin ere, informazio hori zenbateraino egituratzen den testu batean» (84 or.).

Touryk (1985) planteamendu hauek kritikatzten ditu nahikoa deskriptiboak ez direlako: inork ez luke teoriarik egin beharko zein modutan itzul daitezkeen metaforak soluzioak «benetan diren moduan» deskribatu barik. Lan deskriptibo hutsa eginez gero, problema berriro definitu ahal da. Touryk areago adierazten du: aurreko hurbilpen guztiek huts egin dute metaforen erabilpena azaltzean «ezin baitute aurrera egin xede sisteman sortutako zenbait arau direla kausa, baina ez metafora sortzaileek berez duten funtsezko ezerगतik ere» (27 or.).

## **4.3. Azken oharpenak**

Orokorrean, teorikoetariko inork ere ez die arreta handirik ematen metaforak testuan dituen funtzio ezberdinei. Van den Broeck-en bereizketa (sortzaile eta edergarrien artean) ilun samarra da eta agian ez egokia; beste autore batzuk, berriz, metaforak fenomeno lexiko/semantikotzat jotzeko joera dute, beraiek erabiltzea garrantzi handirik gabea delarik itzultzean.

Metaforak similak bezala itzul daitezkeelako planteamendu errepikariak iradokitzen du metafora oraindik ere askotan hartzen dela antzekotasunaren adierazletzat. Oso zail eusten zaio planteamendu honi metafora «sinboliko»-en kasuan (cf. supra) poesia modernoan edota teoria osatzeko metaforetan zientzian.

### **5. Metaforaren itzulpenaren berrikuspena**

Metaforak ez du zertan adierazi behar antzekotasunik. Honela, bada, metafora itzultzeko simila erabiltzeak ez du merezi itzulpengintzaren teoriak orain arte eman dion egoera pribilegiatua.

Itzultzaileak agian kontutan hartu beharko luke metaforak agertzen diren adierazpen/testuan baizik ez direla metaforak eta adierazpen lexikal berberak funtzio ezberdinak izan ditzakeela testu ezberdinetan; honek itzulpen lanari eragingo dio baliokidetza pragmatikoa bilatuko bada.

Metaforak funtzio edergarri soila baino areago izan dezake, eta testu literarioei dagokienez hau ezagutu bada ere, itzulpengintzaren teorikoek aspalditik ukatu izan diete metaforaren alderdi hori hizkuntzaren beste erabilera batzuri, hala nola, testu zientifikoei. Honenbestez, testu zientifikoetan ere metaforaren funtzioak garrantzi handia izan dezake itzulpen estrategiari dagokionean.

Touryri jarraikiz, ados gaude berarekin puntu honetan, alegia, ezin dela inolaz ere orokorrean hartu metaforaren itzulpena espekulaziotan sartu barik, baina atentzioa eman diezaiekegu testuetan metaforaren funtzio ezberdinei, itzulpengintzaren egiazko teorikoek puntu hori aztergai izan dezaten.

## Bibliografia

- AQUINO, TH., «Whether Holy Scripture Should Use Metaphors», from: *Summa Theologica* (trans. Dominican Fathers, 1927) reprinted in: H. Adams, *Critical Theory Since Plato*, New York, Harcourt Brace Jovanovich 1971, pp. 116-119.
- BLACK, M., *Models and Metaphors, Studies in Language and Philosophy*, Ithaca, Cornell University Press, 1962.
- BOYD, R., «Metaphor and Theory Change: What is 'Metaphor' a Metaphor for?», in: R. Ortony (ed.) *Metaphor and Thought*, Cambridge University Press, 1979, pp. 356-408.
- BROOKS, C., «Irony as a Principle of Structure», 1951, reprinted in: H. Adams, *Critical Theory Since Plato*, New York, Harcourt Brace Jovanovich 1971, pp. 1041-1048.
- DAGUT, M.B., «Can metaphor Be Translated?» in: *Babel*, 22, 1976, nº 1, pp.21-33.
- FRYE, N., «Ethical Criticism: Theory of symbols», from: *The Anatomy of Criticism*, Princeton University Press, 1957, reprinted in H. Adams, *Critical Theory Since Plato*, New York, Harcourt Brace Jovanovich 1971, pp. 1118-1147.
- GRAEFE, U., «Die rationalistische Kontrolle der Metaphor in der kritischen Poetic Gottscheds», in: H.A. Pausch, *Kommunikative Metaphorik*, Bonn, Bouvier, 1976, pp. 81-95.
- GRICE, H.P., «Logic and conversation», in: P. Cole & J.I. Morgan (eds.) *Syntax and Semantics*, Vol. 3, Speech acts, New York, Academic Press, 1975, pp. 41-58
- HENLE, P., «Metaphors», in: P. Henle (ed.) *Language, Thought and Culture*, University of Michigan Press, 1958, pp. 173-195.
- KNAPP, G.P., «Die bedingte Metapher. Ein Beitrag zum frühneuhochdeutschen Roman», in H.A. Pausch (Hrsg.) *Kommunikative Metaphorik*, Bonn, Bouvier, 1976.
- KLOEPFER, R., *Die theorie der literarischen Übersetzung*, München, Fink, 1967.
- LAKOFF, G. & M. JOHNSON, *Metaphors We Live By*, Chicago University Press, 1983
- LEVINSON, S.C., *Pragmatics*, Cambridge University Press, 1983.
- MILLER, G.A., «Images and Models», Similes and Metaphors, in: R. Ortony (ed.) *Metaphor and Thought*, Cambridge University Press, 1979, pp. 202-250.

- NEWMARK, P., *Approaches to Translation*, Oxford, Pergamon Press, 1981.
- NIDA, E., *Towards a Science of Translating*, Leiden, Brill, 1964.
- ORTONY, A., «Why Metaphors Are Necessary And Not Just Nice», *Educational Theory* 25, 1, 1975, pp. 45-53.
- PAPROTTÉ, W. & R. DIRVEN (EDS.), «The Ubiquity of Metaphor and Thought», Cambridge University Press, 1979, pp. 92-123
- TOURY, G., «A Rationale for Descriptive Translation Studies», in: T. Hermans (ed.) *The Manipulation of Literature*, London, Croom Helm, 1985, pp. 24-38.
- VAN DEN BROECK, R., «The Limits of Translatibility Exemplified by Metaphor Translation», in: *Poetics Today*, vol. nº 4, 1981, pp. 73-87.

## LABURPENA

### Metaforaren itzulpena

Artikulugilearen arabera, itzulpen teoriak ez dio behar adinako arretarik eskaini metaforak hizkuntzan dituen funtzio desberdinei, ezin baita literatur testuetara soilik mugatu edota gonbarazio hutsa izatera murriztu. Artikulu honetan, metaforak hainbat funtzio desberdin bete ditzakeela, baita literatur testuetatik kanpo ere, erakusten da. Metaforak hizkuntza teorietan izan duen isladari errepasua eman ondoren, egileak dio metafora edergarri soila baino areago izan daitekeela hizkuntzaren erabilera ez literarioetan, hala nola testu zientifikoetan. Hortaz, ikuspegi horretatik, baliabide honek testu zientifikoetan eta hizkuntzaren beste erabilera-esparru batzuetan ere duen funtzioak garrantzi handia izan dezake itzulpen estrategiari dagokionean.

## RESUMEN

### La traducción de la metáfora

El articulista sostiene que la teoría de la traducción no ha prestado suficiente atención a las diferentes funciones que la metáfora desempeña según los distintos tipos de lengua, puesto que es un recurso que no puede limitarse a su uso literario, considerándola únicamente una comparación. En el presente artículo se muestra que la metáfora tiene diversas funciones fuera del terreno literario, y tras dar un breve repaso al tratamiento que las teorías del lenguaje han otorgado a la metáfora, se afirma que ésta puede tener funciones no exclusivamente decorativas en textos, por ejemplo, científicos. Desde este punto de vista, el estudio de las diversas funciones de la metáfora en textos científicos, así como en los distintos tipos de lengua, puede tener mucha importancia para la estrategia de la traducción.

## SUMMARY

### **The translation of metaphors**

The author maintains that the theory of translation has not paid sufficient attention to the various functions of the metaphor according to the various types of language, as it is a means which cannot be limited to its literary use, as it can only be considered a comparison. The present article shows that a metaphor has several functions apart from literary aspects, and after a brief review of the treatment language theories have dispensed to the metaphor, it states that it may also have certain functions which are not exclusively decorative, for instance, in scientific texts. From this point of view, the study of the various functions of the metaphor in scientific texts, as in various other types of language, may be of considerable importance for translation strategy.

## RESUME

### **La traduction de la métaphore**

L'auteur défend la thèse selon laquelle la théorie de la traduction n'aurait pas accordé suffisamment d'importance aux différentes fonctions de la métaphore selon les types de langues. Il s'agit en effet d'un procédé que l'on ne saurait limiter à la sphère littéraire, en la considérant uniquement comme une comparaison. Cet article montre que la métaphore remplit diverses fonctions hors du terrain littéraire et, après avoir brièvement passé en revue les traitements accordés à la métaphore par les théories du langage, il affirme qu'elle peut avoir des fonctions autres que simplement décoratives dans les textes, par exemple, scientifiques. Sous cet angle, l'étude des diverses fonctions de la métaphore dans les textes scientifiques, et dans les différents types de langues, peut se révéler capital pour la stratégie de la traduction.

## Bibliografia

Xabier Mendiguren

**BAKER, Mona (1992): *In Other Words. A coursebook on translation*. Routledge, London/New York, 304 orr.**

Mona Baker, COBUILD, Collins eta Berminghameko Unibertsitateko Nazioarteko Hizkuntz Datubaseko proiektu-gerentea denak, liburu hau itzultzaileak trebatzeko beharrari zuzenean erantzuteko pentsatu du eta ikasketa-programa oso bat dauka bere baitan, hizkuntza batetik beste batera testuak aldatzean eskuarki aurkitzen diren zailtasun eta eragozpen nagusiak isladatzen dituena. Teoria linguistiko modernoak itzultzaileari erabakiak hartzeko orduan eskaintzen dion laguntzaren berri ematen du. Lexiko, testu-linguistika eta pragmatika bezalako sailetan egin diren ikerketak itzul-penerako izan dezaketen etekina agerian jartzen ahalegintzen da.

*In Other Words* obraren planteamenduak Komissarov errusiar traduktologoaren «baliokidetzaren mailen teoria» gogorarazten du hasiera ba-

tean, gaiaren banaketa eta planteamenduarengatik ez ezik, puntu asko tratatzeko erarengatik ere. Hitzaren mailako baliokidetzatik hasi, hitzaren gaineko baliokidetzatik igaroz, gramatikazko baliokidetzara igarotzen da, ondoren testu-baliokidetzara, gai eta informazio-egituratan eta kohesio-mailan lantzeko eta, azkenik, baliokidetzaren pragmatikoa aztertzeko.

Eranskinetan bederatzi testu datoz espainiera, grekoa, alemana, txinera, japoniera, errusiera eta arabiera hizkuntzak tarteko direlarik.

Liburuaren amaieran glosategia, erreferentziak, eta hiru aurkibide datoz, autore, hizkuntza eta gaien buruzkoak.

Liburuak ez du derrigor linguistika edo hizkuntza arrotzen ezaguera eskatzen, izan ere kapitulu bakoitzaren

ren hasieran ondoren erabiliko diren hizkuntz kontzeptu nagusiak argi eta garbi azaltzen baitira. Amaieran ariketa praktikoak proposatzen dira teorian ikusi den hori sakondu eta lantzeko.

Teoria eta praktikaren arteko oreka egokiz mamituriko liburua delarik, oso lagungarri gerta daiteke itzultzaileak prestatzerakoan.

**DOLLERUP, Cay/LODDEGAARD, Anne, eds. (1992): *Teaching Translation and Interpreting. Training, Talent and Experience*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia, 343 orr.**

Liburu honen edukia 55 orduz, Elsinoren, Kopenhagengo Unibertsitateko Itzulpen-Ikerketa eta Lexikografiarako Zentruak antolaturiko nazioarteko bilera batean landutako gaiez osaturik dago; bertara bildu ziren profesionarioek itzulpena, interpretaritza eta hizkuntzarteko transmisioan adituak ziren eta alor bakoitzeko presentiaz eta etorkizunaz mintzatu ziren *Language International* aldizkariaren eta John Benjamins argitaldari holandarraren babespean.

Liburua bederatzi sail nagusitan banaturik dago: 1- Ikuspegi nazionalak eta etorkizuna (Snell-Hornby, Brian D. Smith, Anne-Marie Beukes); 2- Itzulpenaren irakaskuntza: moduak eta bitartekoak (Nord, Ingo, Hörmann, Mauriello, Sainz, Oittinen, Mossop); 3- Disziplinartea eta afiliazioa (Amit-Kochavi, Winkler); 4- Hitzak (Sager, Shlesinger, Jakobsen, Seyed-Ali Mirëmedi); 5- Media berriak eta irakaskuntza (Alvarez, Scherf, Gottlieb); 6-

Interpretaritza eta itzulpena (Renfer, Gile, Padilla/martin, Lang); 7- Interpretaritza (Pöchhacker, Alexieva, Mahmoodzadeh, Ballester/Jiménez, Kurz, Kalina, Harris); 8- Ebaluaketa (Farahzad, Pym); 9- Eskolaz haraindiko mundua (McAlester, Pontiero, Viaggio).

Itzulpen-ikerketen eurozentrismoa gainditzeko egin den ahalegin honetan Erresuma Batua, Alemania, Austria, Filandia, Danimarka, Espainia, Bulgaria, Italia eta abar bezalako europar herrialdeetako partaideekin batera Israel, Uruguay, Brunei edo Iranekoak ere aurkitzen dira; halere, Afrika eta Asiaren presentziarik ez da nabari.

Liburuaren amaieran 14 orrialdeko bibliografia (Works cited) dator eta jardunaldietan partaide izan direnek beren lanetan aipaturiko erreferentzien zerrenda da. Interesgarria da, alde batetik, itzulpena eta interpretaritza ingurukoa delako nagusiki, eta beste-



tik, azken bi hamarkadetan sortutako obrak ia bakarrik aipatzen direlako.

Azkenik, aurkibide bat (Index) ere badakar eta bertan gaur eguneko itzul-pengintza eta interpretaritzaren inguruan erabiltzen diren kontzeptu eta hitz gako gehienak agertzen dira orrialde-erreferentziarekin. Editoreek hasieran aitortzen dutenez, artikulu edo jakinarazpen-bilduma hau ez da argitara eman derrigor editoreen ideiekin bat datozelako, baizik eta lurralde desberdinetako egoeraren ahots direlako.

Horrela, gaur egun aldi eta alde desberdinetan itzulpegintza eta interpretaritzaren inguruan dauden sensibilitate eta kezka bide desberdinen errainu gertatzen da liburua. Gisa honetako liburuak, beren asistematikotasun eta barne-kontraesan guztiak gorabehera, ongi etortzen dira lanbiderearen panoramika orokorrak eskaintzeko eta sarritan hiperespezializazioan galtzeko arriskua duten zenbait errealitatearen zentzu apur bat txertatzeko.

**NORD, Christine (1991): *Text Analysis in Translation, Theory, Methodology, and Didactic Application of a Model for Translation-Oriented Text Analysis*, Rodopi, Amsterdam-Atlanta, GA, 250 or.**

Liburu hau itzulpenera zuzenduriko sorburu-testuaren analisisazko teoria, metodologia eta didaktikarako sarrera bat da, eta testu-lagin batzuei egindako ereduaren aplikazioek osatzen dute obra.

Aspektu teorikoei dagokienez, testu-analisisazko ereduaren printzipioak egintzara zuzenduriko testualitatean oinarritzen dira, alde batetik, eta itzulpenari buruzko ikuspegi funtzionalean, bestetik.

Egintzara zuzenduriko ikuspuntutik, egoera batean gertatzen den elkarregintza komunikatibozko elementutzat hartzen da testua. Egoera komu-

nikatiboa (egintza komunikatiboko partaideak barne direla) bihurtzen da arretagune nagusi eta testu-gorputzaren hizkuntz egiturak, testu-linguistikazko metodoen arabera azter daitezkeenak, bigarren mailako garrantzia du.

Egintzara zuzenduriko testualitate-kontzeptuan oinarriturik har dezakegu testu baten itzulpena «egintzatzat», zeinak ahalbidetzen duen testu berri batek beste partaide batzuentzat funtzio batzuk betetzea egoera berri batean. Ikuspegi horretatik, zalantzarik ez dago, itzulpena sorburu-hizkuntzako hizkuntz elementu jakin batzuk

xede-hizkuntzako hizkuntz elementu batzuez «ordeztea» baino zerbait gehiago dela. Lehenago esan denez, itzulpena xede-testu funtzional bat sortzea da, sorburu-testu jakin batekiko erlazioari eutsiz, zeina itzulpen «skopos»aren arabera zehazten den. Sorburu-testuaren edo bertako elementuen zehaztapenak ematen dio aukera itzultzaileari elementu horiek (eduki-edo efektu-elementuak, elementu ezberbalak, egitura-elementuak) bitarteko egokiak diren xede-testuak nahi zuten funtzioa lortzeko.

Argi dago funtzio horren edo horien zehaztapena egiteko ezinbestekoa dela sorburu-testua eta bertako elementuak xeheki aztertzea.

Metodologi aspektuei bagagozkie, berriz, testukanpoko eta testubarneko faktoreen analisia burutzen da, aurrenekoiei edo egoera-faktoreei lehentasuna ematen zaielarik. Erretorika Berriaren formularen oinarriturik WH-galderazko kateak testukanpoko faktore nagusi guztiak jasotzen ditu bere baitan. Testubarneko faktoreak, aldiz, igorlearen ikuspegitik hautetsirik daude.

Didaktikaren ikuspegitik, testu-analisirako eredu hau ez dago itzultzaile profesionalentzat nagusiki prestaturik. Itzulpen-prozesuaren oinarritzko urratsak gidatzeko pentsatua dagoelarik, itzultzaileak beharrezko dituen funtsezko gaitasunak hartzen ditu

kontutan (testu-harrera eta analisirako gaitasuna, testu-ekoizpenerako gaitasuna, itzulpen-kalitatearen balioespererako gaitasuna, eta jakina, sorburua eta xedearen aldetik ezinbestekoak diren gaitasunak, izan ere horietatik baitira itzulpena burutzeko nahitaezko baldintzak.

Liburuaren azken aldera datozen testu-laginak hautatzeko orduan ahalik eta analisi-faktore gehien beren baitan dauzkatenak biltzen saiatu da egilea. Gainera, hizkuntz aniztasuna ere kontutan hartu du: espainola-alemana, espainola/ingeleza, espainola/nederlandera, alemana/ingeleza, alemana/frantsesa, alemana/italiera, alemana/espainola eta alemana/portugesa.

Egileak jatorriz alemanez idatzi eta Penelope Sparrowren laguntzarekin ingeleseratu duen obra hau, azken urteotan Alemanian sapan dagoen testologi eta «skopos»-joerako itzulpen-teorizazioaren barruan kokatzen da eta horregatik dakarren bibliografian garrantzi nagusia aitortzen zaie Reiss, Thiel, Vermeer, Wilss, Königs eta abar bezalako autore germaniarrei.

Christiane Nord, egilea, hogeitau urte baino gehiagoz ari izan da itzulpen-ikastaldiak ematen Heidelbergeko Unibertsitateko *Institut für Übersetzer und Dolmetscher*-ean eta esperientzia luze horretan bildu duen esperientzia eskaintzen du liburuan zehar.

**KITTY M. VAN LEUVEN-ZWART & TON NAAIJKENS (Eds.): *Translation Studies: The State of the Art. Proceedings of the First James Holmes Symposium on Translation Studies*. Rodopi. Amsterdam-Atlanta, GA, 1991.**

Itzulpen Estudioei buruzko Lehen James S. Holmes Sinposioa Amsterdamen egin zen 1990ean, bertako Unibertsitateko Itzulpen Estudioetako Departamentuak antolaturik, bere 25. urteurrena ospatzean. James S. Holmesen azken urteetako ekarpenak garrantzizkoak izan dira departamentu horrentzat ez ezik, baita Itzulpen Estudioentzat, oro har ere, eta *Translated!* (Amsterdam, Rodopi, 1988) obran bildutako ikertzailearen lanak abiapuntu gertatu ziren 60. urteetatik hasi eta 80. etaraino itzulpenaren teoriari dagokionez.

Sinposio horretan itzulpen-teorian lanean ari diren izen garrantzitsuek bildu eta bost ataletan egin zituzten ekarpenak: Itzulpen Estudioen eremua

(Kitty M. van Leuven-Zwart, Mary Snell-Hornby, José Lambert). Literatura itzulpeneko faktoreak (Braño Hochel, Peter verstegen, Sophie Levie). Teoria eta Metateoria (Theo Hermans, Anneke van Luxemburg-Albers, Gideon Toury, Cok van der Voort). Prozesua eta Praktika (Hans Hönl, Paul Kussmaul). Itzulpen Estudio historiko eta deskriptiboaren aspektuak (Raymond van den Broeck, Armin Paul Frank, Agnes Zwaneveld, Matthijs Bakker/Ton Naaijkens).

Sinposio horretako agiri-bilduma honek ikuspegi egokia ematen du gaur eguneko Itzulpen Estudioen egoerari buruz, eta etorkizuneko ikerketa eta urratsak nondik joango diren ere susmarazten du.

**EDWIN GENTZLER: *Contemporary Translation Theories*, Routledge. London/New York, 1993.**

Azken hogeita hamar urteotan itzulpen-teoria jakintzagai nagusi izatera iritsi da eta obra honek bost hurbilbide garrantzitsu aztertzeari ekin dio: Amerikar itzulpen-tailerra, itzulpenaren «zientzia», Itzulpen Estudio-

ak, Polisistema-teoria eta dekonstrukzioa (deseraikuntza) hain zuzen.

60. urteetan hasi arren oraindik gure garaiotan eragin nabaria duten joera edo korrante horien ikuspegi kri-

tikoa eskaintzen digu Edwin Gentzler, argi-ilunak aztertu, elkarren arteko loturak bilatu eta eskola desberdinen artean dauden kidesasunak ikertzen ditu. Itzulpenari ez ezik, linguistika eta literatur ikerketari ere interesatzen zaizkion aspektuak ageri dira bertan, eta itzultzaile eta itzultzailegaiantzat ez ezik, hizkuntzalari, hizkuntz filosofo eta literatur teorilarientzat ere onuragarria da liburua.

Lefevere eta Bassnettek editore-hitzazurrean diotenez itzulpena jatorrizko testuaren berridazketa da. Berridaz-

keta oro, zeinnahi asmo duelarik ere, ideologia eta poetika jakin baten ispilu da eta horrenbestez manipulatu egiten du literatura gizarte jakin eta era jakin batean funtziona dezan. Berridazketa manipulazioa da, boterearen zerbitzuan egina, eta bere aspektu positiboan eta literatura baten eta gizarte baten bilakaerari bultzatzen dio. Berridazketak kontzeptu, genero eta baliabide berriak sar ditzake, eta itzulpenaren historia literatur berrikuntzaren historia eta kultura batek beste baten gain duen ahalmen eratzailereana ere bada.

### **GEOFFREY SAMUELSSON-BROWN: *A Practical Guide for Translators*. Multilingual Matters LTD. Clevedon, 1993.**

Liburu hau itzulpengintza eta ingurune komertzialaren artean zubi egiteko pentsaturik dago. Nork bere kontura «freelance» gisa lan egin nahi duen itzultzaileak ezagutu behar dituen jakingaien inguruan ardaturik dago, eta lana antolatzen eta bere profesioan aurrera-pausoak ematen lagungarri gertatuko zaio. Frantsesez duela zenbait urte Gouadec-ek argitaratu eman zuenaren antzekoa da.

Lanean nola hasi, zer ekipo erosi, bezeroak nola lortu eta abar bezalako puntuak jorratzen ditu eta itzulpen-prozesua hasierako bilaketatik emaitza amaitua entregatu arterainokoa aztertzen du.

Ordenadoreari dagokionez, hardwarea eta softwarea, biak aztertzen dira. Kapitala eskuratzeko modua, ase-

guruak, lanbidearen eraginezko gaixotasun edo osasun-galerak eta lantokiaren ergonomiaz ere hitz egiten da liburuan.

Samuelsson-Brown, egileak, urte luzeak eman ditu ekipotan eta *freelance* gisa lanean Volvo firmarentzat bereziki lan eginez; unibertsitatean klaseak ere eman ditu eta azken aldian itzulpen-enpresa baten buru da. Horregatik hartzen ditu kontutan itzulpenaren alderdi ia guztiak bere liburuan. Hizkuntzalarien Institutua, Itzulpen eta Interpretaritzaren Institutua, Autoreen Sozietateko Itzultzaile-Elkartearen Kide eta Itzultzaile Profesionalen Suediar Elkarteko kide da.

Liburuak eranskin gisa helbide baliagarriak, glosarioa, software-erreferentziak eta abar dakartza.

**ALBRECHT NEUBERT & GREGORY M. SHREVE:**  
*Translation as Text.* The Kent State University Press, Ohio,  
 1992.

*Translation as Text* 1985ean *Übersetzungswissenschaftliche Beiträge 8* bezala *Text and Translation* liburu-kian argitara emandako lanaren ondorengo zuzena da. Jatorrizko monografiak arrakasta nabaria izan zuten eta Alemanian ez ezik beste herrialde batzuetan ere erruz erabili izan zuten itzulpen-klasetan.

Liburua izulpena, testua eta Itzulpen Estudioak bezalako kontzeptuak aztertzen abiatzen da ondoren zenbait modelo (kritikoa, praktikoa, linguistikoa, testu-linguistikoa, soziokulturala, konputazionala, psikolinguistikoa) deskribatzen dituelarik.

Bigarren atalean itzulpena ezagueraren eta prozesu gisa aztertzen du.

Hirugarren atalean testualitatea lantzen du: testualitatea eta «testutasuna», intenzionalitatea, onargarritasuna, situazionalitatea, informatibitatea, koherentzia, kohesioa eta testuar-tekotasuna.

Azkenik, laugarren atalean, itzulpena emaitza gisa ikertzen du: itzulpenaren bilakaera, testu-tipoak, prototipoak, testu-esanahia, makroegiturak eta makroarauak, balio komunikakorra, balkiokidetzaren testual eta komunikakorra eta amaitzeko testua eta itzulpen-teoriari buruzko hitzatzeko bat eskaintzen du. Bibliografia interesgarria dakar, ohikoak izaten diren ohar eta aurkibideekin batera.

**MICHEL BALLARD (Ed.):** *La traduction à l'université. Recherches et propositions didactiques.* Presses Universitaires de Lille. Lille, 1993.

Frantziako sei unibertsitate diferentetako irakasleak, hots, Lille III, Saint-Etienne, Montpellier III, Grenoble III, Salford, Poitiersekoak elkartu dira Michel Ballarden zuzendaritzapean bere lanekin liburu hau egiteko. Koordinatzaile-argitaratzaileak sarrean dioenez, beren lehen lana: *La tra-*

*duction: de la théorie à la didactique* (1984) argitaratu zutenetik bide luzea korritu du itzulpenaren ikerketak. Orduko liburu hartan didaktika bat izateko zer behar zen eta teoriarekiko izan behar zituen harremanez galdetzen zuten batipat.

Oraingoan beste hurbilpen bat egiten dute: itzulpenaren ikertzaile diren espezialistak bildu eta beren ikerketa horiek zer ondorio praktiko izan lezaketen adierazteko eskatu zaie.

Aipaturiko eskariaren erantzun gisa honako gaiak landu dira:

Zentzurik-ezaren zentzua, lexikologia kontrastiboa eta itzulpena, hiztegiaren didaktika, testuak eta testuaren ahozkoranzko lerraketa, ingeles-frantses itzulpena eta zenbakizko informazioa, temaren etorkizuna unibertsitatean, itzulpenaren erronkak, kultur erreferentzien itzulpena eta itzulpen-unitate kontzeptuaren birdefinizio-ahalegina.

Delisle traduktologoaren pasarte bat aipatu, eta traduktologiak eta didaktikak unibertsitatean izan behar duten lekuaz ari dela, Ballardek dio unibertsitate-irakaskuntzaren arima eratzen duten ezaugarriak jokoan jartzen dituzten jakintzagaiak direla: ezauguera espezialduak eta unibertsalak, jakintzagaiartekotasuna, behaketa- eta sintesi-izpiritua, gogoeta eta goi-mailako ariketa eremu jakin batean.

Charles-de-Gaulle Unibertsitateko (Lille III) Kontseilu Zientifikoaren laguntzarekin argitaratu den liburu honek argi eta garbi erakusten du gero eta interes handiagoa ari dela sortzen unibertsitatean itzulpena eta itzulpenaren inguruko ikerketak egiteko.

**MIGUEL ANGEL VEGA (Ed.): *Textos clásicos de teoría de la traducción*. Ediciones Cátedra, S.A., Madrid, 1994.**

Aurreko SENEZ batean orain aipatzera goazen moduko antologia baten iruzkina egiteko aukera izan genuen. Chicagoko Unibertsitateak argitaraturiko Schulte R. & Biguenet, J. (Eds.) *Theories of Translation. An Anthology of Essays from Dryden to Derrida* (1992). Bertan Julio-César Santoyok argitaraturiko *Teoría y Crítica de la Traducción: Antología* (1987) obraren berri ematen genuen. Baina bilduma hori espainiar pentsalarien gogoetak jasotzera mugatzen zen eta liburuak 358 orrialde baditu ere,

seguraski dozenerdi besterik ez dira eragin garrantzizko samarra izan duten autoreak (Luis Vives, Ayala, Zierer, Marfás, García Yebra, García Landa). Ortega y Gasset, itzulpenaz idatzi duen gaztelaniazko pentsalari nazioartekoena ez dator bertan autore-eskubide kontuak tartean zirelako.

Vegaren antologia alemanezko Störigen eta goian aipaturiko Schulte & Biguenet-en antologien ildotik doa eta Zizeronengandik hasi eta Fedorov errusiarraren testuetaraino Mendebaldeko hizkuntza nagusietan egin den itzulpe-

naren inguruko gogoeta hoberenaren laginik bikaienak eskaintzen ditu. Garrantzizko guztiak datozela esan liteke, eta edozein antologia egiterakoan ezinbestekoak diren subjektibismoak gorabehera, dagoeneko *corpus* aski finko bat jasorik dagoela esan daiteke. Störig, Schulte/Biguenet eta oraingo Vegaren hau erkatuz gero, laster ikusten da kointzidentzia handia dagoela aipaturiko autore eta testuetan, O. Paz ez agertzea harrigarri samarra gertatzen bada ere.

Bertan bildu diren 74 autoreren pasarteak batzuetan zerbait luzeagoak izan bazitezkeen ere, oro har, itzulpenaz aldi eta alde desberdinetan egin den hausnarketa aski ongi islaturik gelditzen da, eta jatorrizko testuetatik egin den itzulpena —beti ez bada ere— ia

gehienetan onargarri eta egokia da. Batzuetan antologia aurretik eginak zeuden itzulpenez baliatu da; beste zenbaitetan, berriz, berak lehen aldiz itzuli edo itzularazi beharrean aurkitu da.

Sarrera, bibliografia eta bukaeran datorren *Errenazimenduaz geroztiko itzulpen-historiaren taula sinoptikoa* ere interesgarria da mendez mende eta parez pare traduktologian eta tradukto-grafian egin diren urratsak argiro ikusi ahal izateko.

Zinez esan daiteke itzulpen-teoriari buruzko «testu klasikoak» direla liburuak eskaintzen dituenak eta tradukto-logia irakasten edo ikasten duenari ezin hobeki etorriko zaizkiola aldiz aldiko pentsamenduaren nondik-norakoa segi eta sakondu ahal izateko.

### **ESTEBAN TORRE: *Teoría de la traducción literaria*. Editorial Síntesis, Madrid, 1994.**

Liburuaren aurkezpenean esaten denez, itzulpena jakintzagai eta unibertsitate-titulazio gisa oraindik berri samarrak dira, eta horregatik planteatu izan da *zientzia* ala *arte* den, eta bere edukie izatera teorikoa ala praktikoa duten. Liburu honetan, itzulpen-gintzaren arte edo zientzia —teoriko edo praktikoa— kontzeptuak aztertu ondoren, eta itzultze-jardueraren oinarri biologiko eta linguistikoak kontutan izanik, itzulpen-prozedura eta euren

ikerketa egiten da; beraz, itzulpena prozesu eta emaitza gisa begiesten dira.

Bost kapitulu nagusitan banaturik dago obra: itzulpen kontzeptua eta bere bilakaera historikoa, itzultze-jardueraren oinarri biologiko eta linguistikoak, hizkuntz transferentziak, itzulpen-alternatibak, bertsoaren itzulpena.

Seigarren kapitulua testu teorikoen bilduma edo antologia txiki bat da eta bertan S. Jeronimo, Lutero, Luis Vi-

ves, Schleiermacher, Ortega y Gasset, Ayala eta Boussofioren testuak datoz.

Liburuaren bukaeran datorren bibliografia aski hautatua da eta azken hamarkadetako itzulpen-teoriaren ikuspegi aski orekatua eskaintzen du.

Bigarren kapitulua formulaturik dagoenez aski originala da eta ez da normalean beste obra batzuetan agertzen, batez ere oinarri biologikoari buruz egiten dituen kontsiderazioei dagokienez; ez bedi ahantz autorea filosofia eta letretan doktore eta Sevillako Unibertsitatean Literatur Teoriaren irakasle titularra den arren, medikuntza eta kirurgian ere doktore dela eta

alor horiek ongi ezagutzetik datozkio itzulpenean aipaturiko fokapenak egiteko gaitasun eta zaletasuna.

Beste behin, argi eta garbi nabari da azken urte hauetan unibertsitatean gero eta interes handiagoa ari dela sortzen itzulpengintzarekiko eta ez dut uste profeta izan beharrik dagoenik erdi-epe batera oraindik askozaz liburu gehiago eta jakintzagaiartekoagoak ikusiko ditugula unibertsitate diferentetan traduktologiaren inguruan aitortu ahal izateko. Urtetan trikaturik egon den ontzia aingurak altxatu eta itsas zabalerantz abiatu den seinalea da.

**SCHULTE, R. & BIGUENET, J. (Eds.) *Theories of Translation. An Anthology of Essays from Dryden to Derrida*, The University of Chicago Press, Chicago, 1992.**

Rainer Schulte, Dallasko Texas Unibertsitateko Itzulpen Estudioetarako Zentruaren zuzendari, eta arte eta humanitateetako irakasle denak eta John Biguenet, Amerikar Itzultzaile Literarioen Elkartearen presidente ohiak eta gaur egun New Orleanseko Loyola Unibertsitatean ingelesaren irakaskuntzan dabilenak, elkar harturik itzulpen-ikerketaren bibliografian jadanik ezaguna den liburu-motaren ildotik obra berri bat eskaini digute.

Oker ez banago behintzat, gisa honetako lehen liburuak Edmond Cary, itzultzaile, interpretari eta traduktolo-

go ospetsuak argitaratu zuen frantsez *Les grands traducteurs français* (1963) izenburupean.

Alemanieraz klasikoa eta sarri aipatua den *Das Problem des Übersetzens* (1973), H. J. Störig-ek editatua etorri zen ondoren. Geroxeago T. R. Steiner-ek *English Translation Theory 1650-1800* argitaratu zuen 1975ean eta bi urte geroago A. Lefevere traduktologoak, sail berean plazaratu zuen bere *Translating literature: the German tradition (from Luther to Rosenzweig)*. Eta azkenik, Julio-César Santoyok *Teoría y Crítica de la Traducción*:



*Antología* (1987) argitaratu du Espainian gaztelaniaz.

Hedadura handiagoz edo txikiagoz, hizkuntza bakarraren edo gehiagoren esparrua kontutan hartuz, gisa honetako antologiek aldi eta alde desberdinetan itzulpenaren inguruan esanak biltzea dute helburu. Halere, bakoitzak bilduma-egilearen ikuspegi eta balioespen bereziaren berri eskaintzen du, bai egindako aukeran eta bai sarreara, ohar eta iruzkinetan.

Amerikar irakasle hauek eskaintzen diguten antologia Ingalaterra, Alemania, Frantzia, Holanda, Espainia, Ipar Amerika eta Hego Amerikako garrantzizko zenbait pentsalarik itzulpenaz esandakoaz mamiturik dator. Erromatarren eta Krista-aroko pentsamenduari buruz Hugo Friedrich, Alemaniako Freiburgen hil arte hizkuntza erromantzeen irakasle izan zenak idatziriko artikulua batez hasten da liburua eta ondoren, hurrenez hurren, J. Dryden, A. Schopenhauer, F. Schleiermacher, W. von Humboldt, J. W. von Goethe, D. G. Rossetti, F. Nietzsche, W. Benjamin, Ezra Pound, J. Ortega y Gasset, P. Valéry, V. Nabokov, R. Jakobson, O. Paz, P. Szondi, Y. Bonnefoy, H. Schogt, M. Rifaterre, J. Derida eta Hans Erich Nossackentue-tako pasarte hautatuzko 238 orrialde datoz.

Bestalde gisa honetako liburuetan ohi denez, bukaeran autoreen biografiak eta itzulpenari buruzko bibliografia hautatu zabala dator, urtez urte emana.

Antologia honen antz handiena duen Störigenarekin erkatuz gero ho-

nako aldeak nabari zaizkio: azken honenak garrantzi handiago ematen die alemaniar pentsalariei, San Jeronimo eta Ortega y Gassetez landa, ez du beste teorilari atzerritarrik aipatzen; bestalde, Brang eta Dedecius bezalako lanen bitartez eslabiarren, eta bereziki sobietar ohien ikuspegi zabala eskaintzen du.

Schulte-Bigueneten antologia Dryden ingelesarengandik berariaz hasten da, nahiz eta Hugo Friedrichen artikulua batean antzinateaz ere hitz egiten den, batez ere pentsamendu edo gogoeta modernoan interesaturik agertzen delarik. Bestalde, aipaturiko herrialdeetako gogoetalaririk nagusienak hartzean, aurreko antologia gehienak ez bezalako zabaleraren jabe da. Muga edo hutsune bat egotz lekioko: tamalez, Cukovskij-ren *Iskusstvo Perevoda* (1936) obratik hasi eta gaur egunera arte Sobietar Batasun ohian eta hizkuntza eslabiarren eremuan (Polonia, Txekia, Slovakia, Bulgaria, Jugoslavia ohia eta abarreen), oro har, argitaratutako bibliografiaren artean badira ekarpen interesgarriak egin dituztenak eta horrelako antologia batean agertzea merezi zutenak.

Esan bezala, John Dryden ingelesaren kasua salbu, antologia honetan ageri diren pentsalari guztiak, kronologiari dagokionez, hemeretzigarren eta hogeigarren mendeetakoak dira, halere beharrezko zen aurreko garaien ikuspegia ondoren sortutako pentsamoldeak hari historikoan behar bezala kokatu eta ulergarri bihurtzeko. A. Bermanek «anexionista», «etnozentrismo» edo «hipertestual» deitutako

lukeen itzulpen-joera hori XVIII. mendean hasi zen aldatzen eta paradoxazkoa dirudien arren, «les belles infidèles» deituen herrialdean jaiotako Diderot eta D'Alembert izan ziren bide berrien lehen urratzaileak. Joera berria honek, sorburu-testuarekiko sentsibilitate eta errespetu handiagoz jokatzeko zuenak, XIX. mendean eta Alemania erromantikokoan aurkitu zuen erroak ezartzeko lurrik gizenena, Humboldt, Nietzsche, Goethe, Schopenhauer eta Schleiermacher bezalako gogoeta eta entseiekin. Pentsalari bakoitzak bere ñabardurak proposatzeko dituen arren, guztien baitan itzultzailea testu arrotzera eraman beharra azpimarratzen dute eta ahal den heinean, testuaren «arrotzasuna» gorde behar den irizkioak dira. Jatorrizkoa «leuntzea» edo «apaintzea» hura deuseztatzea adinaxe den ustea agertzen dute.

Gaztelaniaren eremuari dagokionez, XX. mendeko bi idazle eta pentsalari gailen datoz antologian: J. Ortega y Gasset eta Octavio Paz. Lehenak Alemanian ikasketak egitean ezagututako Schleiermacherren «Über die verschiedenen Methoden des Übersetzens» entseiuiko ideiak zabaldu zituen bere «La Miseria y el Esplendor de la Traducción» (1937) idatzian. Bide batez, esan dezagun, J. C. Santoyoren antologian ezin izan zela obra hau argitaratu autore eskubideak zirela-eta.

Hasiera batean Buenos Airesko «La Nación» egunkarian bost artikulutan argia ikusi zuen eta sarritan berredituriko entseiu hau irakurri nahi duenak hona jo behar du: J. Ortega y Gasset, *Obras Completas*: Tomo V (1933-1941) (Madrid: Revista de Occidente, 1947), 429-48 orr.

Idazle hegoamerikar sonatuari dagokionez, berriz, bere *Traducción: Literatura y Literalidad* (Barcelona Tusquets, 1971) lantxoan dator Irene del Corralek ingelesez jarria.

Azkenik, bi hitz, antologiaren amaieran datorren bibliografiaz: Drydenek 1680an bere *Ovid's Epistles* itzulpen-lanari ezarri zion hitzaurretetik hasi eta D. Weissborten *Translating Poetry: The Double Labyrinth*, 1989an buruturiko editore-lanera bitartean itzulpenaz idatzi duten berrehunen bat autoreren aipamena dator. Azken mendeotako pentsalari eta hizkuntzalari nagusienek itzulpenari aitortu dioten garrantziaz jabetzeko aski esanguratsua da aipaturiko bibliografia. Norbaitek oraindik ere zalantzak balitu, gure artean, munduko lanbiderik zaharrenetarikoa den honetan aritzeak hizkuntza eta kulturaren etorkizunerako duen muntaz, aski luke Schulte-Biguenetena bezalako antologia bat eskuetan hartu eta bertan murgiltzea; ziur nago ez dela aterako irakurketatik sartu den bezala.

## **Itzulpengintzari buruzko liburuak Donostiako Udal Liburutegian**

Azken hilabete hauetan EIZIE Elkarteak gestioak egiten aritu da Martuteneko Itzultzaile-Eskolaren liburutegi ohia Donostiako Udalaren Kultur Patronatuaren eskuetan utzi eta aurrerantzean bertako Udal Liburutegian guztien zerbitzura egon dadin.

Horretarako, bi erakundeon artean hitzarmen bat sinatu da eta ondorioz, egun itzulpenaren inguruko sail berri bat aurki daiteke Liburutegian. Dagoeneko 78 liburu eta zenbait aldizkari biltzen ditu sail horrek, baina zenbait urtez hornitu gabe egon diren fondoak egunera jartzeko bibliografia zerrenda bat proposatu dio elkarteak eta urte bukaerarako liburu kopurua bikoiztea espero da. Liburu horien sarreraren berri urtez urte emango du EIZIEk.

Aldizkariak kontsultarako bakarrik erabili ahal izango dira. Liburuak, berriz, jasotzen direnetik hiru hilabetera jarriko dira mailegu zerbitzuan, bitarte horretan jendeak ezagutu ahal ditzan.

Hona hemen liburutegian aurki daitezkeen liburuen zerrenda:

### **Itzulpengintzari buruzko liburuak**

- ALONSO SCHÖKEL, L. ZURRO, E. *La traducción bíblica: lingüística y estilística*. 1977
- BASSNETT-MCGUIRE, Susan. *Translation studies*. 1980
- BUZZETTI, Carlo. *Traducir la palabra: aspectos lingüísticos, hermenéuticos y teológicos de la traducción de la Biblia*. 1976
- COMPUTER und Übersetzen eine Einführung. 1985. 2 ale
- CRESSWELL, John. HARTLEY, John M.A. *Esperanto*, 1984
- DEBUSSCHER, G. NOPPEN, J.P. van. *Communiquer et traduire/Communicating and translating*. 1985
- DURIEUX, Christine. *Fondement didactique de la traduction Technique*. 1988
- FEDOROV, A. *Iskusstvo perevoda i zhizn' literatury*. Leningrad, 1983
- FOURNIER, Paul. *Language to language: beginning translation*. 1988
- FRIEDERICH, Wolf. *Technik des Übersetzens englisch und deutsch: eine systematische Anleitung für das Übersetzen ins Englische und ins Deutsche für Unterricht und Selbststudium*. 1985
- GARCIA YEBRA, Valentín. *Teoría y práctica de la traducción*. Tomo I, II. 1982
- GARCIA YEBRA, Valentín. *Teoría y práctica de la traducción*. Tomo I,II. 1984
- GARCIA YEBRA, Valentín. *Teoría y práctica de la traducción*. Tomo I, II. 1989
- GRAHAM, Joseph F., *Difference in translation*. 1985
- GUIDE de la traduction appliquée. Tome premier. 1978
- GUILLEMIN-FLESCHER, Jacqueline. *Syntaxe comparée du français et de l'anglais: problèmes de traduction*. 1981
- GUILLEMIN-FLESCHER, Jacqueline. *Syntaxe comparée du français et de l'anglais: problèmes de traduction*. 1986
- GÜTTINGER, Fritz. *Zielsprache: Théorie und Technik des Übersetzens*. 1963

- HENISZ-DOSTERT, Bozena. ROSS MACDONALD, R. ZARECHNAK, Michael. *Machine translation*. 1979
- HERBERT, Jean. *Manuel de l'interprète: comment on devient interprète de conférences*. 1980
- HJORNAGER PEDERSEN, Viggo. *Essays on translation*. 1988
- HOLZ-MÄNTTÄRI, Justa. *Translatorisches Handeln. Theorie und*
- KOLLER, Werner. *Einführung in die Übersetzungswissenschaft*. 1987
- KOMISSAROV, V.N. *Linguistika Perevoda*. 1980
- KOMISSAROV, V.N. *Slovo o perevode*. 1973. 2 ale
- KÖNIGS, Frank G. *Übersetzung in Theorie und Praxis: Ansatzpunkte für die Konzeption einer Didaktik der Übersetzung*. 1979
- LADMIRAL, Jean-René. *Traduire: théorèmes pour la traduction*. 1979
- LARBAUD, Valery. *De la traduction: extrait de Sous l'invocation de Saint Jérôme*. 1984
- Machine translation systems*. 1988
- Machine translation: theoretical and methodological issues*. 1987
- Machine translation today: the state of the art*. 1987
- MALBLANC, Alfred. *Stylistique comparée du français et de l'allemand: Essai de représentation linguistique comparée et étude de traduction*. 1977
- MATYSSEK, Heinz. *Handbuch der Notizentechnik für Dolmetscher: Ein Weg zur Sprachunabhängigen Notation. Teil I*. 1989
- MATYSSEK, Heinz. *Handbuch der Notizentechnik für Dolmetscher: Ein Weg zur Sprachunabhängigen Notation. Teil II*. 1989
- MENDIGUREN, Xabier. *Itzulpen teoriak ezagupenak*. 1983
- MESCHONNIC, Henri. *Pour la poésie II: épistémologie de l'écriture: poésie de la traduction*. 1973
- MOUNIN, Georges. *Teoria e storia della traduzione*. 1965
- NEWMAN, Aryeh. *Mapping translation equivalence*. 1980
- NEWMARK, Peter. *Approaches to translation*. 1988

- NEWMARK, Peter. *A textbook of translation*. 1988
- NIDA, Eugene A. *Toward a science of translating: with special reference to principles and procedures involved in Bible translating*. 1964
- PAZ, Octavio. *Traducción: literatura y literalidad*. 1981
- PERGNIER, Maurice. *Les fondements sociolinguistiques de la traduction*. 1980
- PUSHKIN, Aleksandr. *Eugene Onegin: a novel in verse*. Lau bolumen. 1975
- RAIZIS, M. Byron. *Greek poetry translations: views-texts-reviews*. 1981
- REIB, Katharina. VERMEER, Hans J. *Grundlegung einer allgemeinen Translationstheorie*. 1984
- RETSKER, Ja. J. *Teorija perevoda i perevodcheskaja pratika*. Moskova, 1974.
- SANTOYO, J.C. *Traducción, traducciones, traductores: ensayo de bibliografía española*. 1987
- SCHOGT, Henry G. *Linguistics, literary analysis, and literary translation*. 1988
- SERRANO RIPOLL, Angeles. *Bibliografía shakesperiana en España: crítica y traducción*. 1983
- SOBRE la traducción literaria en Hispanoamérica: actas del primer coloquio chileno-argentino de traducción literaria*. 1988
- SPRACHWISSENSCHAFT und Übersetzen: Symposion an der Universität Heidelberg*. 1970
- STEEL, Brian. *Translation from Spanish: an introductory course*. 1979
- STOLZE, Radegundis. *Grundlagen der Textübersetzung*. 1985
- THEORIE und praxis des Übersetzens und Dolmetschens*. 1976
- TOOLS for the trade: translating and the computer 5*. 1985
- La TRADUCCION y la crítica literaria*. Actas de las jornadas de Hispanismo arabe. 1990
- TRADUCTION et traducteurs au moyen âge: actes du colloque international du CNRS organisé à Paris*. Institut de recherche et d'histoire des textes les 26-28 mai 1986. 1989

- La TRADUCTION plurielle*. 1990. Bi ale.
- TRANSLATION and communication: traslating and the computer* 6. 1985
- TRANSLATION and lexicography*. 1989
- TRANSLATION, history and culture*. 1990
- TRANSLATION, our future. La traduction, notre avenir*. 1988
- The TRANSLATORS art: essays in honour of Betti Radice*. 1987
- ÜBERSETZEN: Vorträge und Beiträge vom Internationalen kongres literarischer Übersetzer in Hamburg 1965. 1965
- ÜBERSETZER und Dolmetscher. 1974
- DER ÜBERSETZER und seine Stellung in der Öffentlichkeit: *Translators and their position in society: Le traducteur et sa place dans la société*. 1985
- VAZQUEZ-AYORA, Gerardo. *Introducción a la traductología: curso básico de traducción*. 1977
- VEGLIA, Arlette. *Communauté européenne=Comunidad europea (mercado común): Manuel pratique de traduction. Français-espagnol/español-francés*. 1987
- VICENTE, Saturnino. *Arbeitstexte für den Übersetzer Deutsch-spanisch/ español-alemán*. 1987
- VINAY, J.P. & DARBELNET, J. *Stylistique comparée du français et de l'anglais: méthode de traduction*. 1978
- WANDRUSZKA, Mario. *Interlingüística: esbozo para una nueva ciencia del lenguaje*. 1980
- WANDRUSZKA, Mario. *Nuestros idiomas: comparables e incomparables*. 1976. 2 ale
- WANDRUSZKA, Mario. *Sprachen vergleichbar und unvergleichlich*. 1969
- WILSS, Wolfram. *Kognition und Übersetzen: zu Theorie und Praxis der menschlichen und der maschinellen Übersetzung*. 1988
- ZABALETA, Jesus Mari. *Euskal itzulpenaren antologia*. 1984
- ZIERER, Ernesto. *Algunos conceptos básicos de la ciencia de la traducción*. 1979
- ZIMMER, Rudolf. *Problème der Übersetzung formbetonter Sprache: ein Beitrag zur Übersetzungskritik*. 1981

**Itzulpengintzari buruzko aldizkariak**

APETI. 1984, (nº 22), 1985 (nº 24), 1986 (nº 25-26), 1987, 1988 (nº 1- 3),  
1988 (nº 4-5), 1989, 1990 (nº 8-9)

The ATA CHRONICLE. 1992 (nº 2, 6-10)

BABEL. 1978 (nº 2-4), 1979 (nº 1-4), 1980 (nº 1-4), 1981 (nº 1-3), 1982 (nº  
1-4), 1983 (nº 2-4), 1984 (nº 1, 3-4), 1985 (nº 1-4), 1986 (nº 1-4),  
1987 (nº 1-4)

CONTRASTES. 1984, 1985

CUADERNOS DE TRADUCCION E INTERPRETACION. 1982,  
1983,1985,1986, 1987, 1988

EQUIVALENCES: revue de l'Institut Supérieur de Traducteurs et  
d'Interprètes de Bruxelles. 15<sup>e</sup> année

GACETA DE LA TRADUCCION. (nº 0)

MASTERSTVO PEREVODA. 1973 (nº 9),1974 (nº 10), 1977 (nº 11) 9.  
META. 1982 (nº 1-4), 1983 (nº 1-4), 1984 (nº 1-4), 1985 (nº 2-4),  
1986 (nº 1-3), 1987 (nº 1-4), 1988 (nº 1-3), 1989 (nº 1-4), 1990 (nº  
1-4), 1991 (nº 1-3), 1992 (nº 3)

NOUVELLES DE LA FIT. 1988 (nº 4), 1989 (nº 4)

TETRADI PEREVODCHICA. 1963, 1970

TRADUIRE. 1984 (nº 119-122), 1985 (nº 125-126)









# LITERATURA SORKUNTZA ETA ITZULPENA CREACION Y TRADUCCION LITERARIA

Ale honetan / Itzulpenara hurbiltzea. Zenbait errezeta (II) / Erdarazko erlatiboen itzulpenaz / Iruñeko elizbarrutiko izkribu baten itzulpena Luzaideko mintzairan / Itzulpenaren didaktika gaur egun / Interpretaritzaren didaktika / Euskarazko zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik / Itzulpen literarioaren naturaltasunaz / Metaforaren itzulpena / Bibliografia / Itzulpengintzari buruzko liburuak Donostiako Udal Liburutegian